




# Soziolinguistika

## aldizkaria




X. HAUSNARTU  
EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA  
SARIAK



**bat** Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA



**X. HAUSNARTU  
EUSKAL  
SOZIOLINGUISTIKA  
SARIAK**



### ● HELBURUA

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hautentzat bere jarduerak esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

### ● EDUKIA

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaion disziplinartekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren laneak hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

### ● ARGITARATZAILEA

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

### ● ZUZENDARIA

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

### ● ARGITALPEN BATZORDEA

**Bartzordekideak**  
Estibaliz Amorrrutu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)  
eamorror@fil.deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)  
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)  
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)  
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak)  
inmunoa@ehi.ikastola.net

### Koordinatzailea

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)  
b.uranga@soziolinguistika.eus

### ● HARPIDETZA ETA SALMENTA

ARDURADUNA  
Isabel Godinez  
i.godinez@soziolinguistika.eus  
943 592 556

### ● ALDIZKARIAREN

DISEINATZAILEA  
Txema Gartzia Urbina  
zabalur@gmail.com

### ● HARPIDETZAK

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitez harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

### ● WEBGUNEAK

Aldizkariaren aurreko aleak on-line dituzu **www.soziolinguistika.eus helbidean**  
Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.



### HARREMANETARAKO

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)  
Martin Ugalde Kultur parkea  
20140 ANDOAIN

**b.uranga@soziolinguistika.eus**  
**bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus**  
**943 592 556**

ISSN: 1130-8435 — LEGE GORDAILUA:  
SS120/90

INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

**BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:**

Nekane Arratibel Insausti, Leticia Garcia Fernandez, Garikoitz Goikoetxea Etxeberria, Urko Ikardo Enparan, Asier Irizar Mezo, Jon Ander Kuartango Atxa, Eneko Oiartzabal Gerriko.

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

**BAT** Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikulua bi artikulua ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

**BAT** Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du.

# idatzi baldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

**Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.**



Harremanetarako: Belen Uranga  
BAT aldizkaria  
Martin Ugalde KP  
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: [b.uranga@soziolinguistika.eus](mailto:b.uranga@soziolinguistika.eus)

# Deskontu Sarea, abian!

bl



Orain,  
**BERRIA**lagunek  
deskontuak tokiko  
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:  
[berria.eus/berrialaguna/deskontusarea](http://berria.eus/berrialaguna/deskontusarea)

**Deskontu kupoi bat  
baliatu nahi duzu?**

1. Sortu kontua  
BERRIAlagunaren  
webgunean
2. Inprimatu kupoia  
Deskontu Sarea ataletik  
edo deskargatu  
telefonoan
3. Aurkeztu dendan  
BERRIAlagun  
txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen  
bidez berreskuratuko duzu:

- > Dendak
- > Jatetxeak
- > Museoak
- > Landetxeak
- > Ikuskizunak
- > Aisialdi guneak



Babestu BERRIA eta gozatu abantailez!

**berria**  
mundua-euskarari-emana

# 105

## X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

> **HITZAURRE GISA**  
*Belen Uranga* **007**

**Lehen SARIA )**

01. Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen  
jarraipena Lapurdiko kostaldean.  
*Urko Ikardo Enparan* **011**

**bigarren SARIA )**

02. Euskararen ofizialtasuna Euskal Autonomia  
Erkidegoko administrazio orokorrean.  
*Jon Ander Kuartango Atxa* **047**

**hirugarren SARIA )**

03. Euskarazko hedabideen kontsumoa  
Tolosaldean.  
*Garikoitz Goikoetxea Etxeberria* **083**

04. Zenbat denboraz bizi gara euskaraz?  
Hizkuntza-erabilera neurtzeko ikuspegi berri bat.  
*Eneko Oiartzabal Gerriko* **119**

05. Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa:  
Mondragon Unibertsitateko Humanitate  
eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 1.mailako ikasleak  
ulertzeko gakoak.  
*Leticia Garcia Fernandez, Nekane Arratibel Insausti eta  
Asier Irizar Mezo* **163**

# Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

**Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:**

**Luzera.** Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikuluko akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

**Laburpena.** Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikuluen hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

**Hitz gakoak.** Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

**Erreferentziak eta oharra.** Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikuluen bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharra, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikuluen amaieran emango da.

**Aipamen bibliografikoak.** Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarritzko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

**Irudiak.** Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

**Kolorea.** Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

**Zuzenketa.** Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

**Epea.** Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

**Egilearen erreferentzia.** Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.


**Lanak bidaltzeko helbidea.** Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.eus



BAT aldizkariaren 105. zenbaki honetan HAUSNARTU Soziolinguistika Lehiaketaren X. edizioan (2017) irabazle izan diren hiru lanak argitaratu dira. Horiez gain, Argitalpen Batzordeak egoki ikusi du lehiaketan parte hartu duten beste bi lan ere argitaratzea, zenbaki monografiko hau osatuz.

HAUSNARTU lehiaketari eskainitako aleetan, aldizkarian ohikoa dena baino artikulua luzexeagoak publikatzen dira, hain zuzen, lehiaketa horretan jasotako ikerketen gaineko informazioa sakonagoa izan dadin. Aurten, ordea, bada beste bereizgarri bat ere, izan ere, urte berean

bi zenbaki eskaini dizkiogu lehiaketari, helburu zehatz batekin: lehiaketa egiten den urte berean lanak publiko egitea. Horrela, 2017ko lehiaketako lanak urte bereko BAT aldizkariaren azken zenbakian eskainiko dira.

Lehiaketaren **lehen saria Urko Ikardo** euskara teknikariak jaso du **“Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean”** izeneko lanarengatik. Ikergaia gaur egungo euskal soziolinguistikarentzat oso berezia den lurraldean kokatzen da, bai geografiari dagokionean eta, baita, edukiari dagokionean ere.

Jakinakoa da azken urteetan euskal soziolinguistika esparruko ikerketa nagusiak Euskal Herriko Hego aldean garatu direla, mugaz bi aldeetako arrakala eremu horretan ere gero eta zabalagoa eginenez. Neurri batean urlergarria den fenomeno izanik ere hori (batean eta bestean euskal soziolinguistikaren finantzazio

publikoak duen pisua kontuan hartuta), asko eskertzen da ikertzaileek Iparraldeko ikerketan sakontzeko ahalegina egitea. Baina, batez ere, gaiak du gaurkotasun handia: testuinguru ez lagungarrietan, euskara hitz egiten ez duten gurasoek euren seme-alabak immersio ere duetan eskolatzeko arrazoiak ezagutzea eta aztertzea. Lurralde osoaren ikuspegitik ikerketa sakonik egin ez baldin bada ere gai horretan, lehendik badira hurbilketa oso interesgarriak, hiztun berrien gaiarekin lotutakoak EAEn, edo haurren sozializazioaren inguruan Nafarroan. Beraz, ikerketa honetan jasotako emaitzak arretaz hartzekoak izango dira, gaiaren konplexutasunean sakontzeko lurraldetasunaren ikuspegitik. Ongi etorri beraz, gai eta ikerketa lerro honetara.

Euskara teknikaria da, era berean, HAUSNARTU **Lehiaketaren 2. saria** jaso duen **Jon Ander Kuartango**. “**Euskararen Ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean**” izenburuak iradokitzen duen bezala, ikerketaren gaia da lurralde horretako administrazio orokorraren langile publikoen euskararen ezagutza eta erabileran eragiten duen legedia. Ez dirudi honakoa denik euskal soziolinguistika esparruan gai landuena, eta, aldiz, denen ezagutza dago ezinbestekoa dela ahalik eta modu eraginkorrean kudeatzea; dagoena ondo ezagutzea, baliabide guztiak profitatzea eta aldaketak bultzatzea. Horregatik da hain pertinentea gai hau, zehazki, hiru aztergai landuz: Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko beste erkidegoetako berezko hizkuntzen gaineko legedia, EA-Eko zerbitzu-hizkuntza moduan langileen betekizunak, eta lan-hizkuntzaren esparruko ezaugarriak.

“**Euskarazko hedabideen kontsumoa Tolosaldean**” da **Garikoitz Goikoetxea** kazetariak egindako lanaren izenburua, HAUSNARTUko **3. Saria** jaso duena,

hain zuzen. Kontuan izanda eskualde horrek duela euskal hedabideen eskaintza oparoenetakoa, ikertzaileak aztertu du zein den eskaintza eta kontsumaren arteko aldea. Alegia, helburua da euskarazko hedabideen kontsumoaren argazki ahalik eta osatuena egitea, arreta berezia jarritzaz gazteengan. Helburu horrekin aztertu dira, besteak beste, paperezko hedabideen kontsumoa, irrati-entzuten, telebista-kate desberdinetako kontsumoa eta komunikabideen Internetaren erabilera.

Zenbakia osatzeko Hausnartu sarietara aurkezturiko bi lan argitaratu dira monografiko honetan. Lehenengoa da **Eneko Oiartzabalek** egindako **“Hizkuntza-erabilera neurtzeko ikuspegi berri bat”** Hondarribian egindako euskararen erabilerrari buruzko ikerketa kuantitatiboa. Ikertzaileak neurtu nahi izan du zein den zehazki, Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen hizkuntza-erabilera osoa, ahozkoa zein idatzizkoa. Horretarako, denbora-banaketa mugatuaren arabera neurtu du erabilera, eta hainbat aldagairekin datuak gurutzatu (sexua, adina, lehen hizkuntza). Horrela, lan zientifikobati dagozkion urratsak jarraitu ditu (ikerketa-objektua definitu, helburuak finkatu, marko teorikoa eraiki, hipotesiak egin, eta abar), finean emaitzak eta ondo-

rioak ateratzeko. Nola den ere, lana interesgarria da, ondorio horiek eskaintzeaz gain, baduelako metodo berritzailetik ere, eta, akaso, erabilgarri izan daitekeelako beste eremu batzuetan ere. Hori da beraz, emaitza zehatzez gain benetan interesgarri agertzen dena.

Zenbakiari amaiera emateko **Leticia Garcia, Nekane Arratibelek** eta **Asier Irizarrek** egindako **“Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 1.mailako ikasleak ulertzeko gakoak”** lana argitaratu dugu. Ikerketan, ikasle horien hizkuntza ohiturak, jarrerak eta euskararen gaineko diskurtsoak aztertu dituzte, erabileran duten eragina ezagutzeko. Ikerketa lehendik antzemandako irudikapen batetik abiatu zuten, alegia, ideia zabaldua zegoen ikasleek ezagutza maila ona izan arren, erabilera murrizta zutela. Beraz, ikerketarako metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartuz, kale-neurketaren metodoa erabiliz, galdetegi soziodemografikoa eta eztabaida saioa eginez bildu dituzte ikerketa-datuak, aurreideia hori kontrastean jartzeko. Horrela, datu errealak biltzeaz gain, ikasleen ohituretan sakontzeko aukera izan dute, eta baita ikasleen identitatea zein den ulertzeko ere. Azkenik, identifikatu ahal izan dituzte ezagutzaren eta erabileraren arteko tartean eragina duten hainbat faktore ere.

Irakurlearen esku geratzen dira artikuluguztiak, beraz, interesgarriak izango direlakoan. •



**bat** **dossierak**

# 1

## Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien X. Edizioko  
**LEHEN SARIA (2017)**

**Urko Ikardo Enparan**

*Ikerlaria eta Bortzirietako euskara teknikaria*

urkus77@gmail.com

Sarrera-data: 2017-11-10 / Onartze-data: 2017-12-01

**Laburpena.** Euskararen jarraipenaren gaia dugu aztergai, Ipar Euskal Kostaldean. Familia bidezko transmisioa kolokan da bertan eta hezkuntza sistemak funtsezko rola jokatzeko duelaunaldi berriak euskalduntzen. Ingurumaria horretan, guraso batzuek beren seme-alabak murgiltze ereduaren eskolatzen dituzte, eta horien artean bada guraso erdaldunak. Hautu horren atzean dauden arrazoiak azaleratzen saiatu gara. Hizkuntza sozializazioaren hurbilpen teorikoaren baitan interpretatu dugu guraso horien erabakia. Hizkuntza biografiak erabili ditugu haien bizitza praktikora hurbiltzeko: bizitza ibilbideen azterketatik abiatuta, seme-alabak euskaraz (ere) sozializatzeko arrazoiak, gertaerak eta prozesuak atzematen saiatu gara. • **Hitz gakoak:** euskararen jarraipena, guraso erdaldunak, hizkuntza sozializazioa, hizkuntza biziberritzea, identitatea eta hizkuntza biografiak.

**Abstract.** This paper aims to analyze the continuity of the Basque language in the coastal region of the French Basque Country. Family-based Basque transmission is in danger of dying out in this area and the education system plays a key role in ensuring that younger generations learn the language. Given this situation, certain parents, some of whom do not speak Basque themselves, have decided to enrol their children in the immersion model (Basque-medium schools). Here, we aim to explore the reasons prompting this decision, interpreting them within the theoretical framework of language socialisation. Language biographies are used to analyse parents' real-life practices in more detail: based on an exploration of their life histories, the aim is to identify the reasons prompting them to socialise their children in Basque (as well as French), along with the occurrences and processes involved in this endeavour. • **Key words:** continuity of Basque language, non-Basque-speaking parents, language socialization, language revival, identity and language biographies.

## 1. SARRERA

I

Ikerketa honetan guraso erdaldunek beren seme-alabak euskarazko murgiltze ereduan hezteko hautua dugu ikergai, euskararen jarraipenerako funtsezko gertaera gisa. Ipar Euskal Herrian euskarak atzera egin du azken hamarkadetan eta galera prozesua ez da oraindik eten, nahiz eta aldaketa zantzuak nabaritu: azken urteotan euskarazko murgiltze eredua eta sare elebiduna hazten ari dira etengabe, hizkuntzari eusteko borondate sozialaren erakusgarri.

Hizkuntza komunitate bakarrean integratzea eta elebitasun sozialaren kasuan hizkuntza bat bertzearen gainetik nagusitzea dominazio politikoaren emaitza da, alegia hizkuntza bakar eta legitimoa inposatzeko indarra duten instituzioen jardunarena (Bourdieu, 1982: 28). Baieztapen horretatik abiatuta, geure buruari galdetzen diogu zergatik guraso batzuek seme-alabak legitimoa eta ofiziala ez den hizkuntza batean eskolatzen dituzten. Gainera, irudi luke guraso erdaldunak daudela euskaratik eta euskal kulturarengandik urrunen. Alta, badira euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua egiten duten guraso erdaldunak eta beren arrazoietan sakontzea da gure asmoa.

Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko berpiztea berantiarragoa izan da (Martínez de Luna, 2012:117-147; Coyos, 2008: 6-7) eta ikerketa gutxiago egin dira hizkuntzaren egoeraren inguruan. Gure ikerketa Lapurdiko kostaldean egin dugu, gunerik populatu eta urbanoenean, non zerbitzu gehienak biltzen diren. Bertan da euskararen erabilera ahulen.

Soziolinguistika aplikatuaren ikuspegitik eta euskararen biziberritzerako ezinbestekoa zaigu guraso horien erabakiaren arrazoietan sakontzea. Ezbairik gabe, gurasoen praktika eta erabakiek haurren hizkuntza sozializazioan berebiziko eragina dute eta bada gai honetan sakontzeko premia (Morris & Jones, 2008: 137). Hizkuntza sozializazioa aipatu dugu eta hori da aztergai dugun gertaera interpretatzeko hobetsi dugun ikuspegia. Hizkuntza gutxituei dagokienez, ikerketa gutxi egin da Europan ikuspegi teoriko hori baliatuta (Ibid., 127), eta Euskal Herriko kasuan Paula Kasaresek erabili du, Nafarroari dagokionez, euskararen jarraipenari buruzko bere lanean (Kasares, 2014).

Gure ikerketa diziplina soziologikoaren barne kokatzen dugu, diziplinartekotasunaren balioa eta beharra aldarrikatzen baditugu ere. Gehienetan, soziologiak hizkuntza gutxituen gaiari ikuspegi kuantitatibo eta makro-soziologikotik heldu dio (Kasares 2014: 41). Ikerketa honek, or-

---

***Ikerketa honetan guraso erdaldunek beren seme-alabak euskarazko murgiltze ereduan hezteko hautua dugu ikergai.***

**Gure indar ideia  
da hizkuntzaren  
jarraipena ez  
dela gertaera  
mekanikoa;  
ordea, hiztunen  
erabaki eta  
hautuetan  
oinarritzen da.**

dea, bere egiten du hurbilpen kualitatiboa eta diziplinen arteko muga zurrunik gaintitu asmo ditu. Ralf Fasold soziolinguistaren arabera (1995) hiru modu daude jendarte edo espazio jakin batean hizkuntza bat bertzearen gainetik hobesteko erabakia aztertzeko: psikologikoa, soziologikoa eta antropologikoa (Fasold, 1995: 180). Diziplinen arteko elkarriketa funtsezkoa iruditzen zaigu.

Ipar Euskal Herrira etorrira, azken hamarkadetako familia bidezko transmisioaren etenaren aitzinean euskararen jarraipenaren gakoetako bat euskarazko irakaskuntza da, eta horrek azaltzen du gure interesa. Hizkuntzaren biziberritzean zeresana duten aktoreek usu bere egiten dute gizarte zientzietatik ekoizten dugun ezagutza eta ikerketa honek, bere izaera akademiakoaz harago, xedetzat dituen gurasoei, eta, oro har, euskararen biziberritzean inplikaturik dauden eragileei ezagutza tresnak eskuratu nahi dizkie.

## **2. IKERGAIA**

**I**

Gure indar ideia da hizkuntzaren jarraipena ez dela gertaera mekanikoa; ordea, hiztunen erabaki eta hautuetan oinarritzen da (Kasares, 2014: 93; Fasold, 1995: 180).

### **2.1 Ikerketaren galdera**

Ipar Euskal Herrian azken hamarkadetan euskararen transmisioaren etena gertatu da, eta etxean euskara jaso duten belaunaldiak ez diete gerora beren seme-alabei irakatsi. Testuinguru horretan, euskarazko murgiltze eredua zabaltzen ari da eta horrek gure arreta piztu du. Gero eta guraso gehiagok egiten dute seme-alabak euskarazko murgiltze ereduaren matrikulatzeko hautua, horietako batzuk guraso erdaldunak izaki.

#### *Galderaren formulazioa*

Ulertu nahi dugu zergatik guraso erdaldunek, euskarazko gaitasun mugatua edo batere ez dutenek erabakitzen duten beren seme-alabek euskara ikastea murgiltze ereduari esker. Euskararen gizarte erabilera ahula den ingurune horretan, zein dira guraso erdaldunek euskarazko murgiltze eredua hautatzeko arrazoiak, eta hori eginda, seme-alabak euskaraz (ere) sozializatzeko eta euskararen jarraipena ahalbidetzeko?

### **2.2 Hipotesiak**

Euskarazko irakaskuntzaren hautua ikerketa kuantitatibo anitzen jomuga izan da (Zalbide et al., 2006; Cenoz, 2008; Martínez de Luna et al.,

2014), baina Ipar Euskal Herrian ikerketa gutxi egin da gai honen inguruan. Isabelle Lacroix ikertzaileak (2014) bikote mistoen<sup>1</sup> motibazioen gaia jorratu du, “...ayant choisi d’inscrire leurs enfants dans les écoles immersives basques”<sup>2</sup> (Lacroix, 2014: 68). Ikerketa horrek hiru logika agertzen ditu ikastolen aldeko hautua egiteko, euskal nazioaren eraikuntza, identitate erreparazioa eta lurraldean integratzea euskarazko hizkuntza sozializazioaren bidez (Lacroix, 2014: 70).

Ikerketa honetan, gure helburua da mahai gainean paratu dugun galderari erantzuteko hipotesi multzoa gurasoen kontakizunetatik eraikitzea, hain zuzen ere hipotesi baliagarri sorta proposatzea ikergai dugun gertaeraren arrazoiak argitzen lagunduko diguna. Nolanahi ere, guraso horien hautuak hainbat gertaerarekin zerikusia duelakoan gaude, eta jarraian aipatuko ditugu.

### **Gurasoen hautua hizkuntza sozializazioaren osagai**

Guraso hauen hautua hizkuntza sozializazioaren osagaitzat dugu: izan ere, haien seme-alabak euskaraz sozializatzen dituzte murgiltze ereduak eskolatzeko erabakia harturik, eta, hartara, euskararen jabekuntza goiztiarra ahalbidetuta. Horrez gain, guraso horiek bertze instantzia batzuen eragina jasaten dute. Hizkuntza sozializazioaren intentsitatea areagotzen da bikote, familia zein lagunartearen mintzoan euskara bizi denean, edota euskara etxera sartzen denean seme-alaben ipuin, jolas, abesti, etxeko lan, eta abarrei esker.

### **Gurasoen erabakia identitate eraikuntzari dagokio**

Euskal nortasunarekiko atxikimenduak zerikusia dauka hizkuntza hau-tuekin. Euskara euskal identitatearen eraikuntzan giltzarri da: euskara ikasi eta erabiltzetik bat egiten ahal da euskal nortasunarekin, ez da derigor aldeztu aurretik emandako zerbaite.

### **Gurasoen erabakia euskararen biziberritze prozesuaren barne**

Euskararen biziberritzea ez du soilik euskal abertzaletasunaren erakarmen indarrak azaltzen. Jacqueline Urlak dioen bezala, biziberritze estrategien oinarrian “gizarte eremua” dago, adituen ezagutza eta esku-hartzea eskatzen dituen. Biziberritzeak ez du soilik euskara euskal nazioaren eta kulturaren sinbolotzat, baizik eta gobernatzeko gaitzat, eta, hortaz, esku-hartze teknika eskatzen duen gizarte-eremutzat (Urla, 2012: 14).

---

**Hizkuntza  
sozializazioaren  
intentsitatea  
areagotzen da  
bikote, familia  
zein  
lagunartearen  
mintzoan  
euskara bizi  
denean, edota  
euskara etxera  
sartzen denean  
seme-alaben  
ipuin, jolas,  
abesti, etxeko  
lan, eta abarrei  
esker.**

**Euskal  
nortasunarekiko  
atxikimenduak  
zerikusia dauka  
hizkuntza-  
hautuekin.  
Euskara euskal  
identitatearen  
eraikuntzan  
giltzarri da:  
euskara ikasi eta  
erabiltzetik bat  
egiten ahal da  
euskal  
nortasunarekin,  
ez da derrigor  
aldez aurretik  
emandako  
zerbait.**

### **3. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN ZENBAIT ZERTZELADA**

#### **I HIZKUNTZA BIZIBERRITZEA ETA LAPURDIKO KOSTALDEKO ZENBAIT IKASTOLETAKO ARGAZKI LINGUISTIKOA**

Ikerketa galdera argitzen laguntzeko eraiki dugun marko teorikoarekin hasi aitzin, Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikora eta ikergai ditugun gurasoen ikastetxeetara hurbilduko gara.

#### **3.1 Belaunaldien arteko transmisioaren etena eta berreskurapen zantzu apalak**

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2017) gazteen euskara gaitasunari dagokionez berreskurapen zantzuak antzematen dira. Hizkuntza ordezkapen sintoma da belaunaldirik elebidunenak 65 urtetik gorakoak izatea eta adinean zenbat eta gazteago, orduan eta baxuagoa izatea elebidunen proportzioa. Alabaina, azken urteotan joera aldaketa zantzuak antzematen dira eta jada belaunaldi gazteenak ez dira erdaldunenak. “Daturik azpimarragarriena, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen euskaldunen portzentajea da: %18,9 eta %15,7 hurrenez hurren. Horrek esan nahi du gazteen artean duela bost urte antzemandako joera-aldaketa errealtate bilakatu dela, hau da, beheranzko joera apurtu eta goranzko bideari ekin zaiola” (Ibid., 7). Hitzun galera apaldu da azken urteotan eta balore absolutuei erreparatuta lehen aldiz euskaldunen kopurua ez da txikitu (Ibid., 5); gazteen artean elebidunen proportzioa zertxobait emendatu izana dugu arrazoietakoa bat eta bistan da murgiltze ereduak izan duela horretan eraginik.

Euskararen aldeko jarrerak hizkuntza gaitasunarekin zerikusia dauka: elebidunen %66,7 euskararen sustapenaren aldekoak dira eta aurkako jarrera hazi egiten da erdaldunen artean (Ibid., 27). Azpimarratzekoa da biztanleen %60,2k irakaskuntza elebiduna nahiko luketela seme-alabentzat<sup>3</sup> (Ibid., 28), eta 20 urtean murgiltze ereduaren aldeko hautuak 12 puntuko hazkundea izan duela (Ibid., 29).

#### **3.2 Hizkuntza biziberritzea**

Fasold-en arabera, hizkuntza ordezkatzekak lilura handiago sortu du ikerlariengan hizkuntza iraunarazteko saioek edo gizarte aldaketek baino (Fasold, 1995: 227). Ipar Euskal Herrian, euskara biziberritzeko gizarte mugimenduarekin batera, babes instituzionala saretzen ari da

tokiko egitura publikoetan oinarri hartuta. Hezkuntza sistema eta murgiltze eredua daude bereziki biziberritze prozesu horren erdigunean. Eskolak bere gain hartu du familian eta bere ingurune hurbilean euskara erabiltzen ez duen populazio bati berau transmititzeko ardura. Hitzunen galera geldiarazteko gizarte borondateak ekintza publikorako tresnak abian jartzea eta *Euskararen Erakunde Publikoaren* sorrera ekarri zituen (Lacroix, 2014: 69). Ordura arte, administrazioak eta kolektibitate publikoek ez zuten lan horretan parte hartzen (Coyos, 2008: 6). Berriki egitura instituzional berria eratu da, Euskal Elkargoa, hizkuntza politikaren eskumena eta euskararen aldeko sustapena bere gain hartu dituen.

#### *Ikastolak hizkuntza biziberritzearen lehen lerroan*

Euskarazko irakaskuntza nabarmen hazi da azkeneko hamarkadan. 2016-2017 ikasturtean 3.410 ikasle ari ziren Seaskako ikastoletan, eta 2004-2005an, berriz 2.501<sup>4</sup>. Hamarkada batean hazkunde tasa ia %100koa izan da. 2016-2017an sare publikoan 17.020 ikasle ari ziren, horietatik 5.307 lerro elebidunean. Ikastetxe katolikoetan 6.410 ikasle ari ziren, horien artean 2.274 lerro elebidunean. Esku-arteetan ditugun azken datuen arabera, murgiltze ereduaren<sup>5</sup> eta eredu elebidunaren<sup>6</sup> artean ikasleen %38,6ra ailegatzen dira.

#### *Hiztun berrien papera hizkuntzaren biziberritze prozesuan*

Hizkuntza komunitatea heterogeneoagoa bilakatu da; bertan biltzen dira hizkuntzarekiko identifikazio eta harreman ezberdinak dituzten pertsonak (Ortega et al., 2015, 2016: 104; Urla, 2012: 209; ikusi ere Zalbide et al., 2006: 120, 132). Hitzun berriek funtsezko papera betetzen ahal dute hizkuntzaren biziberritzean familia bidezko belaunez belauneko hizkuntzaren transmisio prozesuari berrekiten, eta, hartara, jatorrizko hiztunen belaunaldi berriak sortuz (O'Rourke & Ramallo, 2015: 154; ikusi ere Kasares, 2014).

### **3.3 Lapurdiko kostaldeko zenbait ikastoletako gurasoen hizkuntza profilak**

Xedetzat ditugun gurasoen ingurunearen argazkia atera nahi izan dugu eta horretarako propio galdeketa<sup>7</sup> egin dugu haien ikastetxeetan: haur eta lehen hezkuntzako Baiona Polo-Beyriseko, Bidarteko, Donibane-Lohizuneko, Hendaiako eta Ziburuko ikastoletan, bigarren hezkuntzako Pierres Larzabal kolegioan eta Bernat Etxepare lizeoan.

---

***Berriki egitura instituzional berria eratu da, Euskal Elkargoa, hizkuntza politikaren eskumena eta euskararen aldeko sustapena bere gain hartu dituen.***

## Hizkuntza gaitasuna eta bikote profilak


### 1. taula. Hizkuntza gaitasuna

| Elebidunak | Elebidun hartzaileak | Erdaldunak | Guztira |
|------------|----------------------|------------|---------|
| 258        | 79                   | 110        | 447     |
| %57,7      | %17,7                | %24,6      | %100    |

Iturria: Galdetegi bidezko galdeketa "7 ikastolatak gurasoen zenbait ezaugarri", egilea bera, 2017.

Guraso erdaldunak erreferentziazko ikastoletan laurdena inguru dira. Euskarazko gaitasun osoa ez duten gurasoen proportzioa, erdaldunak eta elebidun hartzaileak batuta, %42 da.

### 1. grafikoa. Familia tipologia hizkuntza gaitasunaren arabera (%)



Iturria: Galdetegi bidezko galdeketa "7 ikastolatak gurasoen zenbait ezaugarri", egilea bera, 2017.

\*\*p ≤ 0.01. Harreman adierazgarria inkestatuaren eta bikotearen hizkuntza gaitasunaren artean.

Hiru bikote kategoriatan<sup>8</sup> banatu ditugu gurasoak haien erantzunen arabera, euskaldunak, mistoak eta erdaldunak. Ikertutako ikastoletako familien heren bat bikote mistoak dira eta laurdena guraso erdaldunak.

## Jatorria eta hizkuntza gaitasuna

### 2. taula. Jatorria eta hizkuntza-gaitasuna (%)


|                        | Elebidunak | Elebidun hartzaileak | Erdaldunak | Guztira |
|------------------------|------------|----------------------|------------|---------|
| Euskal Herrian sortuak | 92,3       | 76,3                 | 40,7       | 77,1    |
| Ertik kanpo sortuak    | 7,7        | 23,8                 | 59,3       | 22,9    |
| Guztira                | 100        | 100                  | 100        | 100     |

Iturria: Galdetegi bidezko galdeketa "7 ikastolatak gurasoen zenbait ezaugarri", egilea bera, 2017.

\*\*p ≤ 0.01. Harreman adierazgarria hizkuntza gaitasunaren eta jatorriaren artean.

Hezkuntza komunitate honetako guraso erdaldunen gehiengoa EHTik kanpo sortua da (%59,3).

## 2. grafikoa. Jaiolekua eta hizkuntza gaitasuna



Iturria: Galdetegi bidezko galdeketa "7 ikastolako gurasoen zenbait ezaugarri", egilea bera, 2017.

\*\* $p \leq 0.01$ . Harreman adierazgarria hizkuntza gaitasunaren eta jatorriaren artean.


Hizkuntza gaitasunak jatorriarekin du zerikusia. Frantziatik etorritako gurasoen artean euskara ikasi dutenen edo zertxobait dakitenen zenbatekoa %38,1 da.

### *Hizkuntza gaitasuna eta seme-alaben ikas maila*

Haur hezkuntzako<sup>9</sup> gurasoen herena da erdalduna (34,0%) eta lehen hezkuntzan<sup>10</sup> zenbateko horrek behera egiten du (21,5%). Guraso berrien soslaia erdaldunagoa da.

**Sozializazioak  
subjektuen  
nahiari eta  
ekimenari tokia  
egiten die: ez da  
familia eta etxera  
mugatzzen.**

**3. grafikoa. Gurasoen hizkuntza gaitasuna eta haurren ikasketa maila %**



Iturria: Galdetegi bidezko galdeketa "7 ikastolako gurasoen zenbait ezaugarri", egilea bera, 2017.

\* $p \leq 0.05$ . Harreman adierazgarria hizkuntza gaitasunaren eta haurren ikas mailarekin.

## 4. MARKO TEORIKOA

I

### 4.1 Hizkuntza sozializazioa

Hizkuntza sozializazioaren perspektiban kausitu dugu xedetzat ditugun gurasoen arrazoieta sakontzeko bide oparoa. Sozializazioak subjektuen nahiari eta ekimenari tokia egiten die. Bistan denez, mintzairaren iraupenaren giblean hiztunen hautu-erabakiak daude eta horiek azaldu nahi ditugu. Sozializazioak gizartearen, kulturaren eta hizkuntzaren jarraipena zein eraldaketa ahalbidetzen ditu (Kasares, 2014: 98), eta ikuspegi horri egoki deritzogu. Azkenik, sozializazioa ez da familia eta etxera mugatzzen. "Rocherrek (1995) sendia eta eskola sozializazio eragile nagusitzat jo ditu, biek baitute haurren sozializazioa helburu bereki; baina horietaz gain, adin berekoen taldeak, enpresak, sindikatuak, gizarte mugimenduak eta hedabideak ere sozializazio eragingarritako hartu ditu" (Ibid., 99). Alderdi horien argitara interpretatuko dugu xedetzat ditugun gurasoen hautu linguistikoa.

#### *Sozializazioari buruz*

Anthony Giddens-en ikuspegia har dezagun abiapuntutzat: giza ekintza eta egituraren dimentsioa, biak batera hartu behar dira aintzat (Giddens, 2012: 31). Sozializazioa ez da soilik gizarteak inposatzen duen prozesu bat norbanakoak pasiboki pairatzen duena, aitzitik, haurrak era aktiboan parte hartzen du prozesu horretan. Halaber, sozializazioa ez da bizitzako

une jakin batera mugatzen eta ez da helduaroan amaitzen. Sozializazio prozesuaz baino, sozializazio eragin askotarikoez mintzatu beharko ginateke (Kasares, 2014: 97). Berger eta Luckmann-ek lehenbiziko eta bigarren sozializazioaren artikulazioa dute aztergai, eta, haien arabera, helduaroako bigarren sozializazioak lehen sozializazioak bezain azkarrak izaten ahal dira, bai inplikaturako dimentsio afektiboengatik, bai mobilizatzeko diren teknikengatik (Ibid., 75).

Finean, norbanakoaren transformazio ekintzan eragile anitzek parte hartzen dute: familiak, eskolak, adinkideen taldeak, eta abarrek, bizi-tzako garai ezberdinetan hedatzen den prozesu batean (Ibid., 8). Bernard Lahiren arabera, sozializazioa bizitza osoan hedatzen den prozesua da, norbanakoen dimentsioa eta historiaren zein egituren pisua uztartzen dituen (Ibid., 25).

### *Hizkuntza sozializazioaren ikerketa eremua eta definizioa*

Hizkuntza sozializazioa da lehenetsi dugun ikusmolde teorikoa ikergai ditugun gurasoen erabakiak interpretatzeko. Diziplinarteko ikerketa arloa da, antropologiaren, soziologiaren, hizkuntzalaritzaren eta psikologiaren ikuspegi teoriko eta metodologikoak barne biltzen dituen (Schieffelin & Ochs, 1986: 183-184). Tesi nagusia honakoa da: hizkuntza jabeakuntzak ahalbidetzen du gizarteko kide gaitu bilakatze sozia-lizazio prozesua, eta, aldi berean, sozializazioak eta ideologiek hizkuntza jabeakuntzan, erabileran eta jarretan eragina dute. Horregatik, hizkun-tza sozializazioak “encompasses socialization through language and socialization into language”<sup>11</sup> (Ochs & Schieffelin, 2008: 5). Beraz, hiz-kuntza praktiken bidez eta elkarrekintzan jabetzen gara hizkuntzaz, baita hizkuntzari buruzko hainbat balio eta ideiez ere. Horrek erran-nahi berezia du eleaniztasun testuinguruetan.

### *Haurrak eta “hasi berriak”<sup>12</sup>*

Hizkuntza sozializazioa botere eta ezagutza asimetria dagoen edozein espaziotan gertatzen da. Helduaroan ere, “...we become socialized into novel activities, identities, and objects relevant to work, family, recrea-tion, civic, religious, and other environments in increasingly globalized communities”<sup>13</sup> (Schieffelin & Ochs, 2008: 11). Hizkuntzaz jabetuta kul-turara ailega gaitzke. Haurrak zein hasi berriak hizkuntza gaitasuna-rekin komunitatearen kide bilakatzen dira (Ochs & Schieffelin, 2008: 7). Bada bertze ideia bat gogoratu beharrekoa: pertsona bera hasi berria izaten ahal da egoera batean eta aditua bertze batean (Ibid., 17).

---

***Tesi nagusia  
honakoa da:  
hizkuntza  
jabeakuntzak  
ahalbidetzen du  
gizarteko kide  
gaitu bilakatze  
sozializazio  
prozesua, eta,  
aldi berean,  
sozializazioak eta  
ideologiek  
hizkuntza  
jabeakuntzan,  
erabileran eta  
jarretan  
eragina dute.***

**Hizkuntza  
praktiken bidez  
eta  
elkarrekintzan  
jabetzen gara  
hizkuntzaz, baita  
hizkuntzari  
buruzko hainbat  
balio eta ideiez  
ere.**

*Jarraipena eta eraldaketa soziala*

Instituzio sozial eta ekonomikoek, kontrol sistema publiko zein etxe barnekoek, identitateek, eta abarrek, haur edo “hasi berrien” ibilbide sozial, emozional eta intelektualak egituratzen dituzte (Ochs & Schieffelin, 2008: 8). Nolanahi ere, baldintzapen horien xede direnek badute ekiteko gaitasuna, alegia, sozializatuak direneko gizarte arauak eraldatzekoa (Ibid., 8).

*Hizkuntza sozializazioa bi norabideko prozesu gisa*

Haurrek gurasoengan duten eragina ere kontuan hartu beharra dago, behetik gorako sozializazioarena alegia (Kasares, 2014: 51). Literatura soziolinguistikoak eta hizkuntza politikak sozializazioa “kide zailduen” “hasi berriekiko” ekintzat hartu izan dute, baina ikerketa berriagoek sozializazioaren izaera elkar eragilea azpimarratu dute, haurrek familiako gainerako kideen sozializazioan parte hartzen baitute (Morris & Jones, 2008: 131).

*Hizkuntza sozializazioa heldu aroan eta adinkideen eragina*

Guraso erdaldunak ere hizkuntza sozializazioaren xede dira. Izan ere, “euskal munduarekin” harreman sareak eta “bizitzeko moduak” parte-katzen dituzte. Hainbat tokitan gertatzen diren elkarrekintzek guraso hauen hizkuntza sozializazioa dakarte, balioetan, atxikimenduetan, jarretan, praktketan, eta abar. Helduen arteko elkarrekintzek ezagutza eta botere asimetria dituzte ezaugarritzat, aktibitate eta identitate berrietan sozializatzen garenean (Ochs & Schieffelin, 2008: 11). Hizkuntza sozializazioaren ikuspegi dinamiko batek erakusten digu hizkuntza gaitasuna, hautuak eta ideologiak hiztunaren bizitzan zehar aldatzen direla, harreman sareak, egoerak eta aukerak aldatzen diren heinean (Kasares, 2014: 40-41)”. Hala, bizitzan zehar eragina izaten ahal dute askotariko hizkuntza sozializazio esperientziek, hautu batzuen mesederako eta bertzeen kalterako (Ochs & Schieffelin, 2008: 5). Ezinbestekoa zaigu, hortaz, sozializazio horizontala eta adinkideen eragina kontuan hartzea (Kasares, 2014 : 51).

*Hizkuntza sozializazioa ingurune eleaniztunetan*

Erkidego batean bi hizkuntza edo gehiago izateak haurren hizkuntza gaitasunean eta garapen sozio-kulturalean eragina dauka, berdin dio egoera horren jatorrian dagoen prozesua (Ochs & Schieffelin, 2008: 10). Zenbait hizkuntza, dialekto, erregistro, edo estilo bertzeen ordeztuak on-dorioak ditu hizkuntza mantentzeari eta ordezkatzeari dagokionez (Ibid.,

11). Ideologia eta hizkuntza zein kultura praktika askotarikoak ezaugarri dituzten erkidegoetan, haur eta helduen bizitza linguistiko eta kulturalak gizarte eta hiztun taldeen arteko “harreman guneeetan” gertatzen dira, egonkorrak bezain mugikorrak izaten ahal direnak eta hizkuntza aldaketa edo mintzaira ez atxikitzea ekartzen ahal dutenak (Ibid., 15). Hizkuntza ordezkapen testuinguru batean, hizkuntza gutxiagotu baten jarraipena gizarte eraldaketa prozesu gisa ulertzen ahal da (Ibid., 11). *Reversing Language Shift* (1991) tankerako ahalegin kolektibo bat gizarte mugimenduen analisi esparruaren barne kokatzen ahal da (Fishman, 1991: 382).

### *Familiaren papera*

Fishmanek hizkuntza biziberritzeko proposatzen duen eredu teorikoan familia bidezko hizkuntzaren jarraipenari garrantzia berezia ematen dio (Fishman, 1991: 396). “Language socialisation, identity socialisation and commitment socialisation generally takes place huddled together, through intergenerationally proximate, face-to-face interaction and generally takes place relatively early in life at that”<sup>14</sup> (Fishman, 1991: 398). Ikuspegi honetatik eskolak ezin du ordezkatu familiak eta hurbileko komunitateak betetzen duten zeregina. Horrek ez du erran nahi sozializazio formala garrantzi gabekoa denik: “...for maximal RLS success some type of school must be an integral part of the family- neighborhood axis of child socialisation and identity-commitment formation”<sup>15</sup> (Fishman, 1991: 410). Hain zuzen ere, “transmisio naturala” familiaren bidez bermatua ez denean, hurbileko komunitateak eta eskolak berebiziko garrantzia bereganatzen dute (Morris & Jones, 2008: 134). Familia egituraren aldaketa sakonak gertatu dira: enpleguarekiko harremana, haurren praktikak eta familien bizitzeko erak eraldatu dira. Ondorioz, gurasoen papera hizkuntza gutxituaren transmititzaile ia eskusibo gisa txikitu da, eta bertze instituzio edo aktibitate batzuek garrantzia irabazi dute, eskolak, hedabideak, zaintzaileak eta eskolaz kanpoko jarduerak kasu (Ibid., 131).

## **4.2 Euskararekiko hautua identitate hautu bezala**

Hizkuntza tresna boteretsua da lurraldearekin lotura duten eta egoera jakin batean forma hartzen duten identitate pertsonal eta kolektiboak azaleratzeko (Schieffelin & Ochs, 2008:8).

### *Hizkuntza eta hizkuntza praktikak identitate sortzaile gisa*

Hizkuntzaren eta identitatearen arteko harremanak argitzeko *Jarduera Komunitate* kontzeptua hartuko dugu abiapuntutzat, Eckert eta McCon-

---

***Identitatea egiten dugunaren emaitza da. Horrez gain, hiztunek euskaraz edo erdaraz egiteak hizkuntzaz gaindiko identitate ezaugarriekin harremanetan dago, identitate ezaugarri ekonomiko, sozial eta kulturekin.***

nell-Ginet ikerlariak (1992, 1995, 2001) hizkuntzei buruzko ikerketetarako egokitu zutena (Artetxe, 2014: 12). Norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen ahal du (Kasares, 2014: 53) eta “jardueren jiran sortzen dira taldearenak diren zenbait identitate ezaugarri, norbanakoengan gorpuzten direnak” (Artetxe, 2014, 12). Hortaz, identitatea ez da gertaera mugiezina eta gizakien arteko elkarrekintzan garatzen da. Daviesen arabera (2005), komunitate bateko kide izatea ez da “emana den zerbait” eta identitatea modu performatiboan ulertzen ahal da; norbanakoek hizkuntzarekiko ideia edo erabilera modu propioak garatzen ahal dituzte (Ibid., 13). Finean, identitatea egiten dugunaren emaitza da.

Horrez gain, badira hizkuntzaren erabileran eragiten duten bertzelako identifikazio esparruak. Hiztunek euskaraz edo erdaraz egiteak hizkuntzaz gaindiko identitate ezaugarriekin harremanetan dago, identitate ezaugarri ekonomiko, sozial eta kulturekin (Ibid., 15). Horren harira, ikerketa feministek identitate gertaeren aniztasuna ulertzeko marko teorikoak findu dituzte, eredu dikotomikoak gaindituta. Arraza, etnia, klasea, sexu orientazioa, nazioa, adina eta erlijioa bezalako identitateen arteko harreman konplexuek marko teoriko berriak eskatzen dituzte (Hernández, 2005: 31).

Hizkuntza ez da soilik komunikazio tresna, baizik eta pertsonak beren identitatea(k) (ber)eraikitze eta moldatzeko bitartekoa. Hartara, identitatea tokikotasunarekin zerikusia duten prozesu eta praktikekin lotua da, pertsonak inguratzen dituenarekin, eta haien desio eta interesekin (Ibid., 48-49). Norbanakoek beren identitateak berresten eta negoziatzen dituzte, batzuetan aldakorrak izaten ahal direnak, testuinguru elebidun eta eleaniztunetan (Kasares, 2014: 54).

Hortaz, identitatea ez da derrigor berezko ezaugarria eta geure egiten ahal dugu: “...a nonethnic understanding of Basque identity as something lived and embodied through the acquisition and use of Euskara”<sup>16</sup> (Urla, 2012: 204). Hizkuntzaren ikasketaren bidez euskaldun bilakatzeak identitateari buruzko ikuspegi ez esentzialista dakar berekin (Ibid., 73).

## 5. METODOLOGIA

### I

### 5.1 Ikuspegi kualitatiboa

Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren gaia gehien bat ikuspegi kuantitatibotik ikertu da (Kasares, 2014: 90) eta ikuspegi etno-soziologikoaren barne kokatzen diren ikerketa kualitatiboak gutxi dira.

## 5.2 Ikuspegi etno-soziologikoa

Ikuspegi honek partikularren eta orokorra denaren arteko tentsioa kontuan hartzen du (Bertaux, 1997: 17). Zenbait kasutan sakontzeak gertaeren osotasuna argitzen laguntzen ahal digu. Behinik behin, emaitzak orokortzeko asmo horrekin ekin diogu gure landa lanari. Mundu sozial baten logika eratortzea izan dugu xede, murgiltze ereduaren aldeko hautua egin duten guraso erdaldunena. Hain zuzen, haien hautuaren zergatiak ulertu nahi baditugu, arreta haien mundu praktikoan jarri behar dugu: non bizi diren eta zeinekin, nondik heldu diren, zein izan den haien bizitza ibilbidea, eta abar. Haien biografiaren analitik eta familia unibertsoa nola eraiki duten aztertzeak hizkuntzarekiko atxikimenduaren bilakaera ulertzera heltzen ahal gara.

## 5.3 Bizitza kontakizuna

Guraso hauen erabakiaren arrazoiak ulertu nahi ditugunez (irudikapenak, diskurtsoak, iritziak, estrategiak, eta abar.), ezinbestekoa zaigu haiei hitza ematea; diskurtsoaren analisiaren bidez erantzunak emateko gai izanen gara. Aktoreen diskurtsoen eta praktiken arteko harremana erakustea da gakoa. Eta horretarako ikerketa tresna egokiena bizitza kontakizuna iruditu zaigu. Norbere bizipenaren atal jakin bat kontatzea da bizitza kontakizuna (Bertaux, 1997: 36). Beraz, bizipenak, gertaerak, egoerak, egitasmoak eta ekintzak interesatzen zaizkigu (Ibid., 38), betiere hizkuntzarekin lotuta. Gure ikerketa galderari erantzuteko hainbat lagunen ibilbide biografikoak harremanetan jarri eta konparatu ditugu. Errepikapen eta berezitasunei erreparatuta, euskarazko murgiltze ereduaren aldeko hautua egiten duten guraso erdaldun guztientzat orokortzeko moduko ondorioetara ailegatu gara. Konparaketa ikerketa etno-soziologikoaren muinean dago, ibilbide biografikoak alderatuta egoera berdintsuak eta ekintza logika antzekoak agertzen dira eta mekanismo edo prozesu sozialak ondorioztatzen (Ibid., 95).

### *Elkarrizketa taula*

Gure lagina modu progresiboan osatu dugu. Bizipen eta ikuspegi ezberdinei tokia egin nahi izan diegu, posizio aniztasuna bermatuta. Gure laginean aurreikusitako profil guztien oreka egokia lortu dugu: sexu, jatorri eta bikote tipologia ezberdineko gurasoena.

---

***Haien  
biografiaren  
analitik eta  
familia  
unibertsoa nola  
eraiki duten  
aztertzeak  
hizkuntzarekiko  
atxikimenduaren  
bilakaera  
ulertzera heltzen  
ahal gara.***

**Gaien arabera  
ko analisia erabili  
dugu bildutako  
materiala  
aztertzeko: behin  
gaiak  
multzokatuta,  
diskurtsoaren  
analisiari ekin  
diogu**

### 3. taula. ELKARRIZKETAK

| Elkarrizketa-kopurua | Sexua        | Jatorria                      | Bikote tipologia    |
|----------------------|--------------|-------------------------------|---------------------|
| 13                   | Gizonak: 8   | Ipar Euskal Herria: 8         | Bikote erdalduna: 8 |
|                      | Emakumeak: 9 | Euskal Herri-<br>kanpokoak: 9 | Bikote mistoa: 5    |

#### Profilak

13 elkarrizketa egin baditugu ere, orotara 17 lagun elkarrizketatu ditugu, zenbait gurasok nahiago izan baitute elkarrizketa bikote gisa egitea. Ondorengo taulan bildu ditugu elkarrizketatuen profilak; hurrenkera kronologikoa gorde dugu.

### 4. taula. Elkarrizketatuen profilak

| Zb. | Erref.           | Sex. | Jaiolekua          | Hizkuntza gaitasuna        | Bikote tipologia | Ikastola           |
|-----|------------------|------|--------------------|----------------------------|------------------|--------------------|
| 1   | E1 <sup>17</sup> | G    | Baiona             | Erdalduna                  | Erdalduna        | Biarritz           |
| 2   | E2               | E    | Borgoina           | Elebidun hartzailea        | Erdalduna        | Ziburu             |
| 3   | E3               | E    | Paue               | Elebidun hartzailea        | Bikoterik ez     | Baiona Polo-Beyris |
| 4   | E4.1.            | E    | Baiona             | Erdalduna                  | Mistoa           | Biarritz           |
|     | E4.2.            | G    | Arrangoitze        | Euskalduna (hiztun berria) |                  |                    |
| 5   | E5               | E    | Bordele            | Elebidun hartzailea        | Erdalduna        | Hendaia            |
| 6   | E6.1.            | G    | Bretainia          | Elebidun hartzailea        | Erdalduna        | Hendaia            |
|     | E6.2.            | E    | Mijas (Andaluzia)  | Erdalduna                  |                  |                    |
| 7   | E7               | G    | Paris              | Erdalduna                  | Erdalduna        | Bidarte            |
| 8   | E8               | G    | Tolosa (Okzitania) | Erdalduna                  | Erdalduna        | Bidarte            |
| 9   | E9.1.            | G    | Donibane Lohizune  | Erdalduna                  | Mistoa           | Bidarte            |
|     | E9.2.            | E    | Donibane Garazi    | Euskalduna                 |                  |                    |
| 10  | E10              | G    | Senpere            | Elebidun hartzailea        | Erdalduna        | Donibane Lohizune  |
| 11  | E11              | E    | Donibane Lohizune  | Elebidun hartzailea        | Mistoa           | Pierres Larzabal   |
| 12  | E12              | E    | Paris              | Euskalduna (hiztun berria) | Mistoa           | Bernat Etxepare    |
| 13  | E13.1.           | G    | Baiona             | Erdalduna                  | Erdalduna        | Bernat Etxepare    |
|     | E13.2.           | E    | Mans               | Elebidun hartzailea        |                  |                    |

#### Gaiaren arabera ko analisia

Gaien arabera ko analisia erabili dugu bildutako materiala aztertzeko. Analisi mota hau baliagarria zaigu korpus jakin batean gai nagusiak identifikatzeko, betiere ikerketaren orientabidearekin harremanetan (Paille & Mucchielli, 2005: 123). Gaia ideia jakin batekin lotzen den oro da, izendapen generiko baten pean multzokatuta (Ibid., 131). Ikerketaren helburuarekin bat datozen gaietara sistematikoki erreparatu diegu, eta behin gaiak multzokatuta, diskurtsoaren analisiari ekin diogu (Ibid., 123). Lehenik eta behin, testua irakurri (entzun) ahala gaiak identifikatu eta apuntatu ditugu, eta ondoren, gaiak hierarkizatu ditugu, gai nagusiak batetik, eta azpi gaiak bertzetik (Ibid., 127).

Analisi kualitatiborako aplikazio informatikoei laguntza handia eskaintzen digute, batez ere korpua arrunt handia denean (Ibid., 123). Hartara, *Sonal* programa funtsezko lanabesa izan da guretzat; balio izan digu elkarrizketa pasarteak etiketatzeko eta horiei gai bat esleitzeko, gai beraren inguruan korpusean dauden pasarte guztiak hautatu eta analisi konparatibo eta zehar lerrokoa egiteko, eta ikerketako galderari erantzuteko ezinbestekoak iruditu zaizkigun pasarteak transkribatzeko.

## 6. ANALISIA

I

Guraso hauen biografiak aztertzei, alegia zer egin duten edo zer egiten duten begiratzetik, euskararen jarraipenaren alde zergatik egin duten jakitera heldu gara.

### 6.1 Sarrera: landa lanetik analisisira

Gure landa lanaren arrakasta handienetako bat hainbat gurasok beren etxeetara gonbidatu izana da<sup>18</sup>. Horrek familia horiek non eta nola bizi diren ikusteko aukera eman digu eta sinetsita gaude “intimidade”<sup>19</sup> hori gurekin partekatu izana ikerketa honen balio erantsia dela. Guraso hauen bizitzetara sakonki hurbiltzea esperientzia kitzikagarri bezain aberasgarria izan da<sup>20</sup>.

### 6.2 Ibilbide biografikoak eta euskara geroratzeko borondatea

#### 6.2.1 Askotariko hizkuntza biografiak

Ez dago bide bakarra euskarazko irakaskuntzaren hautura daramana; guraso horiek euskararen aldeko borondatera heldu dira ibilbide biografiko ezberdinak izanagatik. Elkarrizketatu ditugun gurasoen ezau-garriak kolore anitzetakoak dira, jatorriari dagokionez, ibilbide pertsonalei dagokienez eta haien hizkuntza bizipenei dagokienez. Badira zenbait parekotasun ordea, horien artean aipagarriena izaki hurbilekoen edo harreman sareen eragin agerikoa.

#### Antzinako belaunaldien hizkuntza eta transmisioaren etena

Guraso edo aitatxi-amatxi euskaldunak dituzten gurasoen kontakizunetan antzekotasunak daude. Belaunaldiz belaunaldiko euskararen jarraipenaren etenaren lekukotzak galera eta frustrazio sentimenduak azaleratzen ditu. Doinu dramatikoak gailentzen da bidegabekeriaren aitzinean.

**Belaunaldiz  
belaunaldiko  
euskararen  
jarraipenaren  
etenaren  
lekukotzak galera  
eta frustrazio  
sentimenduak  
azaleratzen ditu.**

“Bastide-Clairance a connu une époque où l'école française interdisait la pratique du basque à l'école, elle a vécu les brimades, les punitions, et une forme de dévalorisation, pour elle qui était en plus issue du milieu paysan, il n'y avait que les paysans qui parlaient en basque, et c'était la honte de parler basque (...). C'est une génération qui a été poussée à abandonner la langue”<sup>21</sup>. [E1]

Hizkuntza ordezkapen prozesua hizkuntza kontzientziaren iratzartze prozesuarekin gurutzatu da (Kasares, 2014: 91), eta inguruko enragina kontzientzia hartze horretan nabarmena da; adinkideak sozializazio agente biziki azkarrak dira gure erabaki eta praktika linguistikoetan eta hizkuntzarekiko ideia eta baloreetan eragiten dutenak.

“...lui, je crois qu'il a découvert le fait d'être basque aussi vers 18 ans avec les copains, parce qu'il y avait un début de mouvement à cette époque...”<sup>22</sup>. [E12]

Beraz, hizkuntzari dagokionez erreparazioa guraso hauen erabakiaren ainguratze puntu bat izaten ahal da (Lacroix, 2014: 70): desegina izan dena berregiteko borondatea kristaltzen da belaunaldi honetan.

### **Euskal Herrian sortuak, baina jatorrian euskararengandik urrun**

Euskal Herrian sortuak diren guraso gehienek artean euskara presente izan da haien familietan eta aitzinerako belaunaldietan, baina ez da guztien kasua; horrek panorama heterogeneoa marrazten du, izan ere, ez da derrigorra euskararen galera hurbil sentitu izana orainaldian euskarara hurbiltzeko. Hizkuntzaren jarraipenean ez du inolako determinismorik agintzen (Kasares, 2014: 208).

### **Kanpotik etorriak eta euskara deskubritzen**

Euskal Herritik kanpo sortuak diren ibilbideak eta motiboak askotarikoak badira ere, harreman sareak guraso hauen atxikimenduan eragin nabarmena izan du.

“[E3]: Mais non, j'aurais vécu en Bearn, je n'aurais certainement pas inscrit ma fille dans une école en occitan, parce que [...] je n'ai pas adhéré à la culture, parce que je ne la connais pas la culture occitane.

[Galdera?]: Tu n'adhères pas...

[E3]: Oui, parce que je ne la connais pas, et j'ai vécu à Pau pendant 20 ans et je n'étais pas dans un réseau de personnes, voilà”<sup>23</sup>. [E3]

## **Euskal kulturaren garrantzia euskarara hurbiltzeko**

Euskarazko kultur jardueretan, eta, oro har, euskal kulturarekin lotura duten ekitaldietan parte hartzeak euskarara hurbiltzeko edo euskararekiko atxikimendua pizteko balio izan die galdekatutako gurasoei, izan kanpotik etorriak, izan bertakoak. Ekintza hauetan parte hartzea gertaera kolektiboa da: gehienetan norbaitekin joaten gara horietara eta talde batean txertatzen gara; sozializazio espazio eta unetzat ditugu.

### *6.2.2 Guraso horiek beren familian jasotako ideologia linguistikoa*

Orokorrean gure xede taldeko gurasoek ez dute familian euskararen aldeko jarrera baikorrik jaso. Jatorriak eta ibilbideak askotarikoak izanagatik, bada oinarritzko banaketa bat hizkuntza ofizialen-nazioarteko<sup>24</sup> eta erregio hizkuntzat<sup>25</sup> jotzen direnen artean. Lehenbiziko hizkuntza taldea aberastasun pertsonalarekin zein intelektualarekin, garapen profesionalarekin eta bertzeekiko irekitasunarekin dago harremanetan iruditegi honetan.

“...il n’était pas sur le même plan la langue basque par rapport aux autres langues dites internationales” <sup>26</sup>. [E1]

Bistan da guraso horiek etxean nagusiki jaso duten ideologia linguistikotik aldendu direla. Haien seme-alaben sozializazioari dagokionez hartu dituzten erabakian jatorrizko familia eta ingurunean ez dira guztiz erabakigarriak izan (Kasares, 2014: 208).

### *6.2.3 Inguruko eragina*

Inguruaren eragina ez da ezkutuko bektorea, agerikoa eta gurasoek airtortua baizik.

“Je pense que si j’étais venue à Bayonne et si je n’avais connu personne, des bascophones et dans la culture basque, j’aurais été dans un autre réseau de personnes et je n’aurais pas certainement jamais inscrit Lia en Ikastola<sup>27</sup>”. [E3]

Bizitza egitasmoak bidaideekin eraikitzen ditugu eta harreman sare berrietan txertatzen gara, non elkarrekintzan ari garen etengabe. Hizkuntza hautuetan berebiziko garrantzia dute bizitza ibilbide bateko inflexio puntuek (eskolak, lagunek, unibertsitateak, lanbideak, bikote harremanak, familia eratzeak, hizkuntza komunitateak, eta abarrek), sozializazio une eta gune direnek.

“...par le fait de bosser à Bizi-Garbia, j’ai quand même 35 collègues qui sont à la collecte des déchets, [...] il y a 50% qui sont euskaldunes, vraiment qui c’est

**Euskarazko  
murgiltze  
ereduaren aldeko  
hautua azaltzeko  
arrazoi  
instrumentalek  
pisu nabarmena  
dute:  
elebitasunaren  
abantaila  
pragmatikoak  
azpimarratzen  
dituztenek zein  
kultura eta  
identitate  
motibazioak  
bertzeen gainean  
paratzen  
dituztenek erabili  
dituzte argudio  
horiek.**

leur langue maternelle, qui le défendent, qui le portent et d'ailleurs, [...] on a développé des complicités"<sup>28</sup>. [E7]

Katalan hiztun bilakatzeko prozesuan, Pujolar eta Puigdevall ikertzaileek (2015) zenbait momentu biografiko edo pasabidek hizkuntza jokatibideak aldatzeko duten garrantzia erakutsi dute. Momentu horien pisua egiaztatu ahal izan dugu xede ditugun gurasoen kontakizunetan; eragin horren intentsitatea handia da bikote harremanetan (Darmon, 2016: 93-94), birritan aitortu diguten bezala.

"...je pense que c'est le fait d'avoir connu Christine qui elle pratique alors qu'elle n'était pas de la région, ça a commencé peut être à me faire réfléchir en disant comment ça se fait que moi en étant d'ici, je n'ai pas appris, c'est là que j'ai commencé à réaliser..."<sup>29</sup>. [E13]

Eragina ez da ordea modu pasiboan jasaten; aktoreen erabakitzeko ahalmena ere kontuan hartu beharra dago. Michel Foucault-en arabera, gobernatzeak gainerakoen ekintza eremua gidatzea erran nahi du, eta botere harremanak eta boterea bera mugikorrak dira eta sarean gauzatzen dira; boterea jasaten ahal dugu, boterea egikaritzen ahal dugun bezala (Foucault, 2001: 180). Logika bera aurkitzen dugu hizkuntza sozializazioaren kontzeptualizazioan.

"...j'étais imprégné par mes amis proches, mes meilleurs amis qui étaient là-dedans, qui étaient euskaldunes et qui défendaient la culture, [...] j'ai vécu ici le principe du "gaztetxe", le principe de la fête ensemble, tout était basé autour de la culture et de la fête et beaucoup de mes amis parlaient parfaitement le basque et étaient investis dans cette cause-là, donc c'est plutôt de là que j'ai été attiré vers le basque et vers la culture, parce que je me sentais faire partie de cette histoire-là"<sup>30</sup>. [E10]

#### 6.2.4 Inguruak nola hartu duen erabakia eta berresteko unea

Guraso horiek maiz beren hautua azaldu behar izan diete bertze pertsona batzuei, izan haien inguru hurbilekoei, izan haien ezagunei, eta momentu hori adierazgarria iruditu zaigu.

"Ma grand-mère qui est de Gironde elle ne comprend pas, [...] elle voit bien qu'ils sont épanouis, qu'ils sont heureux, que ça ne leur pose pas de soucis, mais pour elle, comme ce n'est pas une langue parlée par tous, c'est une façon de les séparer des autres, alors que pour moi c'est une façon de leur donner une identité pour qu'ils soient plus forts et plus à l'aise pour embrasser l'autre"<sup>31</sup>. [E1]

Euskarazko murgiltze ereduaren aldeko hautua azaltzeko arrazoi instrumentalek pisu nabarmena dute: elebitasunaren abantaila pragmatikoak azpimarratzen dituztenek zein kultura eta identitate motibazioak bertzeen gainean paratzen dituztenek erabili dizute argudio horiek. Agian argudio mota hau nabarmentzea erabilpen estrategiko baten ondorio da; kontua litzateke errepertorio batetik abiatuta une eta mintzazkide jakin baten ezaugarrietara modulatzeko gure diskurtsoa.

Galdekatutako gurasoei jarri dizkieten eragozpenen artean aipagarriak dira euskarazko irakaskuntza lerratze politiko batekin identifikatzen dituztenak.

“...le côté politique, l'image de l'ikastola, mais c'est à mon avis une fausse raison qui cache une vraie raison plus difficile à dire, le côté politique”<sup>32</sup>. [E6.1]

Nahiz eta elkarriketatu ditugun guraso gehienak sozializatuak eta erakariak izan diren, bikotekideen eta lagunen aldetik, mundu asoziatiboan edo kultur ekitaldietan parte hartuta, eta abar, hizkuntza sozializazioaren ikuspegitik baieztatzen ahal dugu ez direla aktore pasibo izan: haiek ere parte hartu dute aktiboki prozesu horretan (Kasares, 2014: 99).

“Lui il avait des doutes du côté politique, [...] mais finalement il a changé [...] parce qu'on a parlé, mais je pense qu'on a un peu influencé”<sup>33</sup>. [E6.2]

### 6.2.5 Guraso erdaldunak eta euskalduntzea

Gure xede taldeko zenbait guraso euskaldundu dira edo euskalduntzen ari dira. Bide horretan identifikazio biziki azkarrek sortzen dira, haurren hizkuntza sozializazioa prestatu edo berrindartzen dutenak.

“...ce que je dis d'ailleurs à celle qui nous enseigne le basque c'est que c'est la première langue que j'ai choisi de toute ma vie”<sup>34</sup> [E7].

Guraso erdaldun gisa definitu dugun kategoria honek ñabardura franko ditu. Gure xede taldean badira hizkuntza gaitasun maila ezberdinak, bakarren bat aski ongi moldatzen da euskaraz eta batzuk euskararen ikasketa prozesuan murgilduta daude. Hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harreman konplexua da. Hizkuntzaren jabekuntza prozesu bizi eta dinamikoa da, eta, azken batean, hizkuntza gaitasuna *continuum* afera da. Honek “hiztun berriez” gogoeta egitera garamatza. Hiztun talde horrek berebiziko garrantzia dauka eta izanen du aurrerantzean hizkuntzaren biziberritze prozesuan eta ikergai bezala arreta berezia eskatzen du (Ortega et al., 2015).

**Elkarrizketatutako  
gurasoek hainbat  
arrazoi paratu  
dituzte mahai  
gainean: haien  
seme-alabek  
euskara (ongi)  
ikasi eta  
mintzatzea, txiki-  
txikitatik  
elebidunak izatea  
haien gaitasun  
kognitibo eta  
intelektualak  
garatzeko,  
komunitatean  
integratzea...**

#### 6.2.6 Euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua, hainbat arrazoi

Elkarrizketatutako gurasoek hainbat arrazoi paratu dituzte mahai gainean: haien seme-alabek euskara (ongi) ikasi eta mintzatzea, txiki-txikitik elebidunak izatea haien gaitasun kognitibo eta intelektualak garatzeko, komunitatean integratzea, bertako kultura aberatsa eta identitatea (ere) jaso ditzatela, haien hezkuntza pedagogia aurrerakoi eta humanista batean oinarritzea, eta, azkenik, eskola txiki eta asoziatibo batean eskolatzea, gurasoek parte hartzeko eta erabakitzeko aukera izaki.

Argudio edo motibazio anitzek hautu berera daramate. Hala ere, baieztapen bat egin nahi genuke aurrerantzean gogoan izateko: aztergai dugun erabakian eragiten duten faktoreak gehienetan elkar hartuta agertzen dira gurasoen kontakizunetan; konbinatzeko moduak eta motibazio bakoitzarekiko azpimarra aldatzen dira.

#### 6.2.7 Identitate eta kultura batekin zerikusia duen hautua, aukerako identitate eta kultura

Gurasoen kontakizunetan identitatearen gaia zentrala da. Kulturarekiko eta komunitatearekiko identifikazioa modu ezberdinetara gertatzen ahal da. Euskal kulturak eta euskarak erran-nahi ezberdinak hartzen ahal ditu: erdigunean den euskal identitatearen funts edo giltzarri, bertzelako identitate bati edo batzuei eransten zaien kolorea, eta abar. Jaio-tzetik bertatik hizkuntzaren bitartez sozializatzen gara eta kultura barneratzen dugu. Baina hizkuntza hautatu eta ikasten ahal dugu bizitzan zehar, eta, beraz, hizkuntzak berezkoaren eta ikasitakoaren arteko muga gainditzen du (Urla, 2012: 67). Beraz, hizkuntza identitate *esentzialista* baten logika baino, *identitate performatibo* batena bere egiten dute guraso horiek, bizitzan zehar eraiki eta eskuratzen ahal dena (Hernández 2007: 448; Kasares 2014: 208-209, 265-269).

Euskararen eta euskal kulturaren arteko lotura agerikoa da eta kultur nortasuna hizkuntzarik gabe ez da ulertzen.

“[Galdera]: Mais on ne pourrait pas faire ça en se passant de l’euskara? [E10]: Non.

[Galdera]: Pourquoi?

[E10]: Non, parce qu’aujourd’hui notre culture basque vit et survie grâce à la langue [...], c’est le vecteur, le media de notre culture, ce qui nous réunit tous c’est la langue et si on l’enlève, on va perdre de cette fédération, de cette unité”<sup>35</sup>. [E10]

Hizkuntza balioekin eta aberastasun kulturalarekin lotzen da: osagai anitz barne dituen kultura baten ardatza da euskara, etikoki eta estetikoki desiragarriak diren balioekin lotua.

“ Le basque après détient des valeurs, du folklore jusqu’à une ouverture qui sont vraiment chouettes ”. [E8]

**Gurasoen  
kontakizunetan  
identitatearen  
gaia zentrala da.**

### **Jatorria eta hizkuntzaren erran-nahia**

Euskararekin eta euskal kulturarekin identifikatzeko modu ezberdinak badira ere, ez dira jatorriaren arabera deklinatzen. Alegia, ez dago “bertakoen” edo “kanpokoen” identifikazio modu berariazkorik. Guztiek bat egiten dute euskara eta euskal kultura jarraitzearen aldeko borondatearekin, eta engaiamendu horren emaitza da euskara haien seme-alabei (ikastoletan) transmititzea. Xedetzat ditugun gurasoak praktika komunitate batean txertatzen direla erraten ahal dugu (Artetxe, 2014: 13; Hernández, 2007) eta harreman, balio eta praktika batzuk partekatuzetik heltzen direla seme-alabak euskaraz heztera .

### **Identitate inklusiboa**

“Je me dis que c’est fou d’avoir une identité aussi forte et [...] ce n’est pas quelque chose qu’on m’a inculqué...”<sup>36</sup>. [E7]

Euskaldun kategoriak izaera integratzailea du eta hala nahi dutenei atxikitzeo aukera ematen die. Euskaldun izateko eta bertakotzeko biderik behinena hizkuntza da (Urla, 2012: 204). Arrazoi hori Euskal Herrira kanpotik bizitzera etorritakoen ahotan ere entzun dugu, bereziki euskara ikasten ari direnen artean. “Ser hablante de una lengua o manifestar una vinculación – cualquiera que ésta sea- a una lengua significa formar parte (participar) en una comunidad o un espacio más amplio de interacción definido a través de las distintas formas en las que lengua y actividad lingüística se revelan”<sup>37</sup> (Hernández, 2007: 41). Hain zuzen ere, zenbait gurasori aditutakoek praktika komunitatearen ideia berres-tera garamatzate: arian bilakatzen gara komunitate bateko kide eta identitatea modu performatiboan ulertzen ahal da (Artetxe, 2014: 13).

Euskaldun ça veut bien dire ce que ça veut dire: celui qui le parle, celui qui le porte...”<sup>38</sup>. [E7]

Jarrera eta praktika horiek hainbat kultur adierazpenen zaleek dituztenekin parekatzen ahal ditugu. Euskararekiko “gustua” edo atxikimendua, alegia, hizkuntzarekiko sentitzen den pasioa sozialki eta elkarre-

***Euskaldun  
kategoria izaera  
integratzailea du  
eta hala nahi  
dutenei  
atxikitze  
aukera ematen  
die.***

kintzan sortua eta partekatua da hizkuntza maite dutenen artean: “... une pratique, une activité collective avec des objets, un “faire ensemble”, passant par des savoir-faire et n’ayant de sens qu’à cause des “retours” que les pratiquants en attendent”<sup>39</sup> (Hennion, 2004: 10). Hiztun berrien gaia interpretatzeko orientabide berri eta kitzikagarria eskaintzen digu ikuspegi honek: zer emozio sortzen duen euskarak haiengan, zer sentitzen duten bertze batzuekin euskaraz eginda, eta abar.

**Metatzen diren identitateak**

Euskal nortasunaren garrantzia eta erran-nahia askotarikoa da. Batzuentzat enbor identitatea da eta bertatik sortzen dira gainerako adarrak, bertze batzuentzat, berriz, bertze geruza bat da eta ez derrigor garrantzitsuenak.

“Moi je suis une européenne, enfin je suis vraiment une citoyenne du monde, je me sens européenne [...], j’ai passé beaucoup-beaucoup de temps en Allemagne, je vis avec un espagnol, j’ai des amis dans le monde entier, [...] mon enfant est né au Pays Basque, mais il est vraiment citoyen du monde, voilà je veux vraiment lui ouvrir très-très grandes les portes”<sup>40 43</sup>. [E5]

**Bertako identitatea eta mundu globalizatua**

Erro kulturelek eta hizkuntzek abiapuntu sendoak bermatuko lituzkete heldulekuak galtzea dakarren globalizazio testuinguru batean.

“Je crois que par rapport à ce que tu me disais sur ce paradoxe que j’exprime entre une mondialisation qui uniformise et la nécessité d’entretenir des liens avec le régional, avec le local, avec l’historique, je crois que l’être humain il a besoin de savoir d’où il vient, qui il est, et c’est un peu comme ça que je crois, que je pense, [...] pour moi la langue basque est une façon de l’exprimer”<sup>41</sup>. [E1]

**6.2.8 Hizkuntza integratzeko giltza**

Jatorriz Euskal Herriatik kanpokoak diren gurasoen artean argudio integraziozkoen eta pragmatikoen dentsitatea handiagoa bada ere, logika horiek haiei soilik egozteak sinplifikazio hutsa litzateke. Identitatearen eta integrazioaren gaiak elkarri lotuta agertzen dira kanpotik etorritako gurasoen kontakizunetan. Bizitza egitasmoa Euskal Herrian eraikitzea erabaki dute eta euskara da bertako nortasunaren funtsezko osagaia. Hortaz, euskara da Euskal Herrian integratzea laguntzen edo errazten duen giltza; haurrei integratzeko eta ate sinboloko zein praktikoak irekitzeko lagungarri izanzen zaien tresna eskuratu nahi diete.

“...c'est une question d'intégration, [...] on ne veut pas que Fabio grandisse ici et qu'après il n'ait pas la possibilité de se sentir d'ici...”<sup>42</sup>. [E6]

### 6.2.9 Hizkuntzaren balio praktikoa

“...ne pas le parler, ce n'est pas un frein, mais le parler c'est un gros atout”<sup>43</sup>. [E1]

Oro har, identitatearekin lotutako faktoreak eta logika pragmatikoak konbinatzen dira gurasoen diskurtsoetan, faktore horien pisua aldatzen bada ere. Alde batetik, partaidetza sentimendua eta euskal nortasuna lehenesten dituen motibazioa dugu, gero balio pragmatikoagoetara jozteko, eta, bertzetik, motibazio bat non alderdi pragmatikoak (integrazioa eta etorkizuneko bizitza profesionala) giltzarri diren eta ondoren kultur aberastasuna datorren.

“...c'est plus le côté pratique qui nous a mené à notre décision, pour l'intégration et pour le travail”<sup>44</sup>. [E6]

Haurrak euskaraz eskolatzeko hautua logika instrumental edo estrategiko batekin lotuta egoten ahal da. Kalkulu edo aurreikuspen horrek bi forma hartzen ahal ditu: batetik, formulazio negatiboan, etorkizunerako balizko desabantaila faktorea saihestea, eta formulazio positiboan, tresna bat eskuratzea balio erantsi gisa. Gehien errepikatzen diren irudi edo metaforak honakoak dira: jokorako karta guztiak ematea eta ate ezberdinak irekitzeko giltzak eskuratzea.

### **Murgiltze eredua: elebitasun bermea**

Murgiltze eredua euskararen hizkuntza gaitasun egokiarekin lotzen da eta zenbait gurasok euskararen beren ikasketa esperientzia propioan egiaztatu dute hori.

“C'est vrai qu'il y a le modèle Ikas-bi, ça donne une culture, une base pour la langue, mais je pense que ça ne vas être assez pour que les jeunes élèves Ikas- Bi parlent en basque”<sup>45</sup>. [E6]

### 6.2.10 Guraso erdaldunak eta euskararen biziberritze prozesua

Bildu ditugun iritzi eta gogoetak askotarikoak badira ere, orokorrean muga bererako joera dute: euskarari presentzia sozial handiagoa eman beharra zaio. Guraso horiek beren burua abian den hizkuntza biziberritze prozesuaren baitan kokatzen dute eta euskararen jarraipenean

***Murgiltze eredua  
euskararen  
hizkuntza  
gaitasun  
egokiarekin  
lotzen da eta  
zenbait gurasok  
euskararen beren  
ikasketa  
esperientzia  
propioan  
egiaztatu dute  
hori.***

**Aipatzekoa da  
elkarrizketatu  
guztiek, haien  
ideologia  
politikoa dena  
dela, baikorki  
baloratzen dutela  
ikastoletako  
gurasoen  
aniztasun hori,  
izan ere,  
euskararen  
biziberritzea  
jendarte osoari  
dagokion  
aferatzat  
daukate.**

duten paperaz jakitun dira (Urla, 2012: 125). Eskola eta bere ingurunea uztartu behar dira; euskararen erabilera hezkuntza mundutik harago hedatu beharra da, eta, horretarako, hizkuntzaren aldeko sustapen politikak beharrezkoak dira.

“...la langue elle ne faut pas qu'elle soit juste rattachée à l'école”<sup>46</sup>. [E4]

Afera politikoak eta bortxa politikoarekiko erreferentziak gurasoen kontakizunen parte dira. Azken urteotan gertatu diren aldaketa politikoek hizkuntzaren biziberritzean izan duten eragina sakonean aztertzea eta azaltzea ikerketa honen aukeretatik at dago. Aditutako diskurtsoetatik bilakaera bat ondorioztatzen da: euskara eta euskal kultura ez dira dagoeneko hainbeste lotzen egitasmo politiko abertzalearekin edota indarkeria politikoarekin. Horri esker euskararen unibertsoa guraso kategorian anitzago bat hurbildu bide da. Zentzu horretan, zenbait gurasok aitortu digute haien seme-alabak ikastolan sartzeko erabakia hartu zutela lerrokatze politikoekiko zalantzak behin uxatuta.

“...l'ikastola a cette image qui rappelle un peu la politique, indépendantiste et [...] nous on veut une école laïque qui ne transmette pas de message politique, donc on s'est bien renseigné avant, on a posé des questions, même aux professeurs de l'école directement et on s'est rendu compte [...] qu'il n'y avait pas de message politique, c'était plus un préjugé qui avait existé sans doute dans l'histoire passée”<sup>47</sup>. [E6]

Aipatzekoa da elkarrizketatu guztiek, haien ideologia politikoa dena dela, baikorki baloratzen dutela ikastoletako gurasoen aniztasun hori, izan ere, euskararen biziberritzea jendarte osoari dagokion aferatzat daukate. Urlak dioen bezala, euskararen aldeko borondatea ez da soilik euskal abertzaletasunagatik ulertzen; biziberritzeak baditu bere autonomia eta erreferentzia propioak (Urla, 2012: 14).

Euskararen eta euskal kulturaren jarraipenaren gaia bere horretan jorratu dute zenbait gurasok: haien gogoan dago atzerabidean den euskararen biziberritzea.

“[E4.2.]: C'est un peu le passage de témoin.

[E4.1.]: C'est exactement ça, c'est pour que ça reprends, qu'elle revive et qu'elles puissent transmettre aussi aux générations futures, qu'elle ne s'arrête pas...”<sup>48</sup>. [E4.1. eta E4.2.]

Fishmanek gizarte mugimenduen logikaren barne kokatzen ditu aha-  
legin hauek, ekintza kolektibo antolatu gisa: "...they are much more  
characteristically socially patterned and organized activities of the type  
that sociologist refer to as "social movements"<sup>49</sup> (Fishman, 1991: 382).

## 7. ONDORIOAK

### I

Guraso erdaldunek euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua egiteak  
gure arreta piztu du eta hori izan da gure ikerketaren abiapuntua. El-  
karrizketatutako gurasoen biografia linguistikoak aztertuta euskararen  
jarraipenaren ikerketari ekarpena egin diogu, hasiera batean euskararen  
eta euskal kulturarengandik urrun egon zitezkeen gurasoengan begirada  
jarrita. Azken buruan, guraso horiek beren seme-alabak euskaraz (ere)  
zergatik sozializatu dituzten ulertzeko bidea erraztu nahi izan dugu.

### 7.1 Alderdi teoriko eta metodologikoei dagozkien ondorioak

*Hizkuntza biografiak gurasoen arrazoieta sakontzeko tresna  
paregabe*

Hurbilpen etno-soziologikoari eta metodologia kualitatiboari esker gu-  
rasoen arrazoieta sakondu ahal izan dugu. Inondik ere, hizkuntza bio-  
grafiak bere balioa erakutsi du tresna gisa gurasoen hautuak ulertzeko.  
Izan ere, gurasoen bizitza ibilbidean hainbat unek, gertaerak, erabakik  
eta harremanek hurbildu dituzte euskarara eta eraman dituzte murgiltze  
ereduaren aldeko hautua egitera. Horiei behar bezala erreparatzea zaila  
litzateke bizitza historia ez bagenu berreraiki. Elkarrizketatuen biografia  
linguistikoetatik galdegaiari erantzuna emateko material baliotsua es-  
kuratu dugu.

*Gurasoak hizkuntza biziberritze prozesuan aktore*

Ipar Euskal Herrian azken hamarkadetan euskararen familia bidezko  
transmisioaren etena gertatu da. Ordea, azken aldian hiztun kopuruaren  
hazkunde apala gertatu da eta horretan izan dute zerikusirik seme-ala-  
bak euskarazko murgiltze eskoletara eramateko erabakia hartu duten  
gurasoek. Izan ere, euskararen jarraipenaren aktore gisa jokatzeko dute  
eta bere egiten dute "moztu" dena "josteko" zeregina, lekukoa pasa-  
tzekoa. Jakitun dira euskarazko murgiltze ereduen aldeko hautua  
eginda ahalegin kolektibo baten partaide direla.

**Gurasoek  
euskararen  
jarraipenaren  
aktore gisa  
jokatzeko dute eta  
bere egiten dute  
«moztu» dena  
«josteko»  
zeregina, lekukoa  
pasatzekoa.  
Jakitun dira  
euskarazko  
murgiltze  
ereduaren aldeko  
hautua eginda  
ahalegin  
kolektibo baten  
partaide direla.**

**Gurasoak jakitun  
dira euskarazko  
murgiltze  
ereduaren aldeko  
hautua eginda  
ahalegin  
kolektibo baten  
partaide direla.**

### *Gurasoak eta hizkuntza sozializazioa*

Hizkuntza sozializazioaren ikuspegia biziki baliagarria izan zaigu guraso horien hizkuntza- hautua ulertzeko.

### **Gurasoak hizkuntza sozializazioaren aktore gisa**

Guraso horien ibilbide biografikoen argitara eta beren bizitzako une jakinetan hartu dituzten erabakiei esker, hizkuntza sozializazioan eragile direla egiaztatu ahal izan dugu. Haurrak euskaraz eskolatzeko erabakia bete-betean da hizkuntza sozializazio ekintza bat. Murgiltze ereduaren eskolatzear gain, seme-alabak sozializatzen dituzte euskararekiko ideia, balio eta afektuetan ere. Guraso horien erabakia euskara eskola bidez iraunarazteko eraldaketa dakar, haien gurasoak ez baitzituzten euskaraz eskolatu edota euskararen aldeko mezuetan hezi.

### **Gurasoak hizkuntza sozializazioaren jomuga**

Inguruko pertsona, eragile edo ekintzek sozializatzen dituzte guraso horiek, sozializazioa ez baita haurtzarora mugatzen, bizi-ibilbide osoan zehar hedatzen den prozesua izaki. Gure xede- taldeko gurasoen hautu-erabaketan eragina izan dute bikotekideek, lagunek, gizarte zibil antolatutak, jarduera edo ekitaldi kulturalak, aditu eta irakasleek, lankideek, kirol taldekideek, eta bertzelakoek. Berezik, bikotekideen eta adinkideen edo lagunartearen eraginaren intentsitatea azpimarratu dute. Horrez gain, haurrak ere badira gurasoen hizkuntza sozializazioan eragile, abestien, ipuinen, kultur jardueren, etxerako lanen, irakasleen oharren, eskolaz kanpoko ekintzen, lagunen, eta abarren bidez.

### *Gurasoak eta identitate performatiboa*

Identitatearen gaia funtsezkoa da ikergai ditugun gurasoen hautua ulertzeko. Jarduera komunitatearen kontzeptuari helduta, identitate esentzialista batean baino, identitate performatiboan aurkitzen da haien atxikimenduarien gakoa: euskal nortasuna euskararen jabekuntzarekin eta erabilerarekin eskuratzen da, elkarrekintzan, eta ikertutako gurasoak hala ulertzen dute. Azken buruan, euskararekiko atxikimendua eta murgiltze ereduaren aldeko hautua praktika eta harreman jakin batzuen emaitza dira.

### *Guraso erdaldunen kategoria: irakurketa kritikoa*

Familia barnean edo seme-alabekin harremanean hizkuntzaren transmisio “naturala” ziurtatu ezin duten guraso erdaldunengan jarri dugu arreta, euskara ez dakiten horiengan. Errealitatean ordea banaketak ez

dira hain zurrinak. Guraso guztiz erdaldunak elkarriketatu ditugu, baina baita euskarazko nolabaiteko adierazpen eta ulermen maila dutenak ere, eskolan, familian eta euskaltegian ikasitakoari esker. Hortaz, hizkuntzaren gaitasunaren ikuspegitik gurasoen profila ez da guztiz homogeneoa. Kategoria dikotomikoak ez dira egokiak mailakatzeari eta *continuum*ei erreparatzeko, alegia hiztunen heterogenotasuna eta haien bizi-bilakaera behar bezala aztertzeke. Dena dela, kategoria horiek erabilera arruntekoak dira: gure xede taldeko gurasoek beren burua erdalduntzat<sup>50</sup> dute oro har. Finean, nahiz eta kategoria hau hizkuntza gaitasunean oinarritzen ahal dugun, eta guk hala egin dugu, hiztunak hizkuntzarekiko dituen bertz harreman batzuk aintzatesten ahal ditugu, hala nola motibazioa, atxikimendu afektiboa, praktikak, eta abar.

## **7.2 Landa lanari dagozkion ondorioak: gurasoen arrazoiak euskarazko irakaskuntzaren eta euskararen jarraipenaren alde**

Gurasoek hainbat arrazoi agertu dituzte euskararen jarraipenaren alde, gehienetan elkar lotuak doazenak. Gurasoen kontakizunetatik haien arrazoiak argitzeko hipotesi sorta proposatzea izan dugu helburu.

### *Identitatea eta hizkuntza hautua*

Euskal identitatearekiko atxikimendua seme-alabak euskaraz heztearen erabakiaren atzean dago, kontakizunetan biziki presente dago. Alabaina, euskal nortasun horrekiko identifikazioa heterogeneoa da, batzuentzat erdigune da eta bertzeentzat gehigarri. Funtsean, euskara eta euskal kultura jarraitzearen aldeko borondatearekin bat egiten dute guraso horiek, eta engaiamendu horren emaitza da euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua. Arestian aipaturiko identitate performatiboren ildotik, hizkuntza aukeratzen eta ikasten ahal da, eta aukera eta jardun horrek egiten gaitu nor. Azken buruan, gurasoen hautua lotua dago komunitate (linguistiko)arekin eta bere balioekin bat egiteko eta bertakotzeko nahiarekin.

### *Hizkuntza integratzaile giltza*

Integratzeko borondatea seme-alabak euskaraz eskolatzeko erabakiaren oinarri da, batez ere Euskal Herrikan kanpotik etorritako gurasoentzat, baina borondate hori beti agertzen da bertze hautemate batzuekin lotuta. Alde batetik, euskara ikasketa eta lanbide aukerak zabaltzeko baliagarria izanzen dela iritzi diote. Bertzetik, euskara euskal kulturara eta horrekin

---

**Euskal  
identitatearekiko  
atxikimendua  
seme-alabak  
euskaraz  
heztearen  
erabakiaren  
atzean dago,  
kontakizunetan  
biziki presente  
dago. Alabaina,  
euskal nortasun  
horrekiko  
identifikazioa  
heterogeneoa da,  
batzuentzat  
erdigune da eta  
bertzeentzat  
gehigarri.**

**Garai batean  
murgiltze  
ereduaren aldeko  
hautua euskal  
abertzaletasun-  
ekin lotzen zen,  
eta gaur egun,  
berriz,  
euskararen  
biziberritzea eta  
euskarazko  
irakaskuntza ez  
dira derrigor  
egitasmo politiko  
jakin batekin  
lotzen.**

harremanetan dauden balio positiboetarako sarbidetzat dute. Hortaz, euskara da Euskal Herrian integratzea laguntzen edo errazten duen giltza, ate sinboloko zein praktikoak irekitzeko lagungarri.

### *Hizkuntzaren balio praktikoa*

Bi balio praktikoa mota bereizten ahal ditugu, batetik elebitasun goiztiarra garapen intelektualerako bitarteko gisa, eta bertzetik euskara ikasketa zein lanbide aukerak irekitzeko bitarteko gisa. Beraz, xedetzat ditugun gurasoek beren seme-alabak euskaraz hezteko hautuaren atzean bada hizkuntzari ematen zaion balio praktikoa. Arrazoi horiek ilustratzen dituzten metaforak dira honako hauek: “jokorako karta guztiak edukitzea” eta “ate ezberdinak irekitzeko giltzak eskuratzea”.

### *Hizkuntza hautua eta ideologia politiko*

Hizkuntza hautuak badu harremanik ideologia politikoarekin, baina hori sakonean aztertzea ez da ikerketa honen helburua. Zenbait kontakizunetan motibazio politikoaren gaia agertu da eta entzundakoetatik hipotesi bat egiteko moduan gara: garai batean murgiltze ereduaren aldeko hautua euskal abertzaletasunarekin lotzen zen, eta gaur egun, berriz, euskararen biziberritzea eta euskarazko irakaskuntza ez dira derrigor egitasmo politiko jakin batekin lotzen. Horrek guraso kategoria anitzagoak erakarri ditu ikastoletara. Ideologia politikoa gorabehera, elkarriketatu guztiek datu baikortzat dute hazkunde eta aniztasun hori, izan ere, euskararen biziberritzea ez baita ideologia politiko baten patrimoniortzat jotzen.

## **7.3 Ikerketaren mugak eta ikerketa ildo berriak**

Gure ikerketak baditu hainbat muga eta labur bada ere aipatu nahiko genituzke. Egiturazko faktoreek, sozio-ekonomikoek, hiritartze prozesuek, migrazio gertaerek eta abarrek hizkuntza hautuetan duten eragina azaltzeko zailtasunak ditugu. Nolanahi ere, ikerketa ildo berritzaile bati heldu diogu eta bide horretan sakontzea merezi duelakoan gaude. Interesgarria izanen litzateke murgiltze eredu guraso euskaldunen motibazioekiko alderik ba ote den aztertzea, baita sare elebiduneko gurasoen motibazioekiko ere. Halaber, ikertutako gurasoen seme-alabek helduaroan hizkuntzarekin zein harreman eraikitzen duten aztertzea ariketa kitzikagarria litzateke, bizitza biografien ildoari jarraipena eman eta zirkulua nolabait ere ixteko. ●

## OHARRAK

1. Elebidun batek eta erdaldun batek osatua.
2. "...haien seme-alabak murgiltze ereduiko eskoletan inskribatzea erabaki dutenak".
3. Euskaraz, frantsesa ikasgai gisa edo euskaraz eta frantsesez.
4. Iturria: Pirinio Atlantiarretako Akademia Ikuskaritza. Lanketa: Euskararen Erakunde Publikoa (EEP), 2016ko azaroa.
5. Irakaskuntza hizkuntza euskara da eta frantsesa ikasgai gisa irakasten da.
6. Ikasgai batzuk frantsesez eta bertzeak euskaraz eskaintzen dira.
7. Galdetegia On-line zabaldu dugu 2017ko urtarrilaren 9tik 20ra, *Limon Survey*-en aplikazioaren bidez eta bildutako datuak SPSS programa erabilita tratatu eta analizatu ditugu. Ikertutako ikastetxeetan 851 familia eta 1038 ikasle daude. Laginaren ordeugarritasuna kalkulatzeko ikastola hauetako gurasoen gehieneko kopuruaren estimazioa egin dugu:  $851 \times 2 = 1702$  (N). 447 gurasoren erantzunak jaso ditugu (n) eta  $\pm 4\%$ ko akats tarteaz lortu dugu  $95,5\%$ eko konfiantza mailarako.
8. Euskaldun batek eta elebidun hartzaile batek osatutako bikotea mistotzat jo dugu, eta erdaldun eta elebidun hartzaile batek osatutakoa bikote erdalduntzat.
9. 3 eta 5 urte bitarteko haurrak.
10. 6 eta 10 urte bitarteko haurrak.
11. "Barne hartzen ditu hizkuntzaren bidezko sozializazioa eta hizkuntza erabiltzeko sozializazioa".
12. Ezein gizarte esparru edo aktibitatean txertatzen den pestona, esparru edo aktibitate horretan gaitua ez dena.
13. "...aktibitate eta identitate berrietan sozializatuak gara, baita lanari, familiari, aisialdiari, jendarteari, erlijioari eta bertze ingurune batzuei dagozkien objektuetan ere, gero eta globalizatuagoak diren komunitateetan".
14. "Hizkuntza, identitate eta konpromisoen gaineko sozializazioa oro har batera gertatzen da, belaunaldien arteko buruz buruko eta hurbileko elkarrekintzaren bitartez, eta, oro har, bizitzan adin goiztiar xamarrean".
15. "...RLS-aren arrakastarako zenbait eskola mota haurren sozializaziorako eta identitate-konpromisoaren sorkuntzarako familia-ingurune hurbila ardatzaren osagaia izaten ahal da".
16. "...euskal identitatearen gaineko ikuspegi ez etniko bat, euskararen jabekuntzarekin eta erabilerarekin bizitzen eta gauzatzen den zerbaiten gisa".
17. Elkarriketatuari egiten dio erreferentzia.
18. 13 elkarriketetatik 7 gurasoen etxetan egin ditugu.
19. Ikerketa honetan parte hartu duten pertsona guztien anonimitasuna bermatu dugu.
20. Ikertzaile gisa guztiz esker oneko gara guraso horiekiko.
21. "Bastidan garai batean eskola frantsesak euskararen erabilera debekatzen duen ikastetxean, amatek bizitu ditu trufak, zigorrak, aintzat ez hartze bat, gainera laborari jatorrikoa izaki, berretzat laborariak baizik ez ziren euskaraz mintzatzen zirenak, lotsa emangarria zen euskaraz mintzatzea [...]. Euskara uztera bultzatua izan den belaunaldi bat da".
22. "...nik uste berak euskalduna izatea zer den deskubritu zuela 18 urte inguru zituenean, lagunekin, garai hartan bazelako mugimendu hastapen bat...".
23. "[E3]: Biarnon bizi izan banintz ez nuen ziurrenik nire alaba okzitaniara eskola batera eramanez, ez baitut kulturarekin bat egin, ez dudalako okzitaniar kultura ezagutzen. [Galdera?]: Ez duzu bat egiten... [E3]: Bai, ez dudalako ezagutzen, eta Pauen bizitu naiz 20 urtean eta ez nintzen pertsona sare batean, hara".

24. Frantsesa, gaztelania, ingelesa eta Alemana aipatu dituzte.
25. Euskara, Alsaziera, Bretoiera, Okzitania eta Korsikera aipatu dituzte.
26. "...ez zen maila berean euskara internazionalizat jotzen diren gainerako hizkuntzekiko".
27. "Ene ustez, Baionara etorri izan banintz eta ez banu inor ezagutu, euskaldunak eta euskal kulturaren, bertze pertsona sare batean egon izan banintz ez nuen inondik ere Lia ikastolan inskribatu izanen".
28. "...Bizi-Garbian [hondakinen kudeaketaz arduratzen den mankomunitatea] lan egiteari esker, baditut 35 lagun hondakinen bilketan ari direnak, [...] 50% euskaldunak dira, benetan haien ama-hizkuntza euskara dutenak, defenditzen dutenak, sustengatzen dutenak, izan ere [...] konplizitateak sortu dira artean".
29. "...pentsatzen dut Christine ezagutu izana eta berak euskara praktikatzeari nahiz eta erregioakoa ez izan, horrek agian gogoeta eragin zidala, nire buruari esaten nion, nola da posible ni bertakoa izaki euskara ikasi ez izana, orduan hasi nintzen konturatzen...".
30. "...hurbileko lagunek eragiten ninduten, nire lagunik onenak hor barnean zeuden, euskaldunak ziren eta kultura defendatzen zuten, [...] hemen ezagutu nuen gaztetxearen sortzea, besta elkarrekin egitearen hastapena, guztia zegoen kulturaren eta bestaren inguruan oinarritua eta ene lagun franko euskaraz bikain mintzatzen zen eta borroka horretan engaiatuak zeuden, beraz gehien bat horrek erakarri nau euskarara eta kulturala, historia horren parte sentitzen nintzelako".
31. "Girondakoa den ene amatxik ez du ulertzen, [...] ikusten du [bilobak] alai direla, zoriontsu, eta euskarak ez diela arazorik sorrarazten, baina beretzat, ez denez guztiok mintzatzen duten hizkuntza, bertzeengandik bereizteko modua da, eta enetzat, berri, identitate bat emateko modua da azkarragoak izan daitezen eta erosoago egon daitezen bertzeena ere onartzeko".
32. "...alde politikoa, ikastolaren irudia, baina ene ustez gezurretako arrazoi bat da [gurasoek euskara ez jakitea] aitortzen zailagoa den arrazoi bat ezkutatzeko duena, alde politikoa alegia".
33. "Berak zalantzak zeuzkan arrazoi politikoengatik, [...] baina azkenean aldatu zuen [...] mintzatu ginelako, nik uste eragin pixka bat ukan dugula".
34. "...izan ere, euskara irakasleari erraten diodana da lehenbiziko hizkuntza dela ene bizitza osoan aukeratu dudana".
35. "[Galdera]: Ezin al genuke hori egin euskararik gabe? [kultur adierazpeni buruz ari gara][E10]: Ez. [Galdera]: Zergatik? [E10]: Ez, zeren gaur egun gure euskal kultura bizi da eta bizirik dirau euskarari esker [...], sektorea da, gure kulturaren bidea, guztiok batzen gaituena hizkuntza da eta kentzen badugu elkartasun hori galduko dugu, batasun hori".
36. "Ene buruari erraten diot hain identitate azkarra izatea gauza handia dela [...] ez da gogoan sarrarazi didaten zerbait...".
37. "Hiztun izatea edo hizkuntza batekiko zernahi atxikimendu adieraztea komunitate edo elkarrekintza espazio zabalago baten parte izatea edo bertan parte hartzea erran nahi du, eta espazio hori hizkuntza eta hizkuntza jarduerak azaleratzeko dutenera ezberdinen bidez definitzen da".
38. "Euskaldun erran nahi duena erran nahi du: euskaraz mintzatzen dena, beregan daramana [porter aditzak bertze adiera batzuk dauzka, sustatu edo sustengatu kasu]..."
39. "...praktika bat, jarduera kolektibo bat objektuekin, "elkarrekin egite bat", ezagutza batzuk eskatzen dituena eta zentzua hartzen duena ari direnek espero dituzten "erantzunei" esker".
40. "Ni europarra naiz, finean zinez munduko hiritarra naiz, europarra sentitzen naiz [...], denbora anitz pasa dut Alemanian, espainiar batekin bizi naiz, mundu osoan lagunak dauzkat, [...] nire semea Euskal Herrian jaio da, baina bera zinez munduko hiritarra da, hara, nik ate zabal-zabal ireki nahi dizkiot".
41. "Uniformizatzen duen mundualizazio baten eta tokikoarekin, lurraldearekin eta historikoa denarekin loturak atxikitze behararen artean adierazi dudana paradoxa horrekiko, ene ustez, gizakiak

nondik datorren jakiteko beharra dauka, nor den, hori da ene ustea, gisa horretara pentsatzen dut [...] enetzat euskara hori aditzera emateko modu bat da”.

42. “...integrazione afera da, [...] ez dugu nahi Fabio hemen haztea eta gero ez izatea bertako sentitzeko aukera...”.

43. “...ez mintzatzea ez da traba, baina mintzatzea abantaila handi bat da”.

44. “...alderdi praktikoak eraman gaitu erabakia hartzera, integrazioagatik eta lanagatik”.

45. “Egia da badela Ikas-bi eredu, kultura bat ematen duena, oinarri bat euskararako, baina nik uste ez dela aski izanzen Ikas-biko ikasle gazteak euskaraz mintzatu daitezen”.

46. “...hizkuntza ez da soilik eskolarekin lotua izan behar”.

47. “...ikastolak politika eta independentismoa oroitarazten duen irudi hori dauka [...] eta guk eskola laiko bat nahi dugu mezu politikorik transmititzen ez duena, beraz ongi informatu gara lehenagotik, galderak egin ditugu, baita zuzenean ikastolako irakasleei ere eta konturatu gara [...] ez dagoela mezu politikorik, aurreiritzi bat zen ezbairik gabe iraganeko historian existitu zena”.

48. [E4.2.]: Bada pixka bat lekukoa pasatzea da. [E4.1.]: Hori bera da, bizkortu dadin, berpiztu dadin eta alabek etorkizuneko belaunaldiei geroratzeko aukera izan dezaten, hizkuntza ez dadin eten...”.

49. “...anitez gehiago dira ezaugarri soziala duten eta antolatutak diren ekintzak, soziologoek “mugimendu sozialtzak” dauzkatena”.

50. Frankofonoak gure ikerketan.

## BIBLIOGRAFIA

ALAMI, Sophie; DESJEUX, Dominique eta GARABUAU-MOUSSAOUI, Isabelle, 2009. *Les méthodes qualitatives*. Paris, Puf.

ALBER, Alex, 2015. *Sonal version 2.0.51. Mode d'emploi*. Tours, Université F. Rabelais.

ARTETXE, Miren, 2014. “Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoleko gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran”, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 92-93, pp. 11- 31.

BERTAUX, Daniel, 1997. *Les récits de vie. Perspectives ethnosociologiques*. Paris, Nathan. BOURDIEU, Pierre, 1982. *Ce que parler veut dire. L'Économie des échanges linguistiques*. Paris, Fayard.

CENOZ, Jasone. (ed.), 2008. *Teaching through basque: achievements and challenges*. London, Multilingual matters.

COYOS, Jean-Baptiste, 2008. “Hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian: Nondik nora? Ibilbidearen azterketa”, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 67 (2), pp. 79-102.

DARMON, Muriel, 2016. *La socialisation. Des domaines et approches*. Paris, Armand Colin. DÍAZ DE RADA, Vidal, 2012. “Ventajas e inconvenientes de la encuesta por internet”, *Papers*, 97(1), pp.193-223.

DLASKE, Kati, BARAKOS, Elisabeth, MOTOBAYASHI, Kyoko eta MCLAUGHLIN, Mireille, 2016. “Languaging the worker: Globalized governmentalities in/ of language in peripheral spaces”, *Multilingua*, 35 (4), pp. 345-359.

- DUFF, Patricia A., 2008. "Second language socialization", in Alessandro Duranti, Elinor Ochs eta Bambi B. Schieffelin (eds), *The Handbook of Language Socialization*, pp. 564-586. Malden, Wiley-Blackwell.
- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO, 2013. *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2017. *VI Inkesta Soziolinguistikoa*. Iparraldea. Baiona.
- FASOLD, Ralph, 1995. *The sociolinguistics of Society*. New York, Blackwell Publishers.
- FISHMAN, Joshua, 1991. *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon, Multilingual Matters.
- FLOUX, Pierre eta SCHINZ, Olivier, 2003. "Engager son propre goût, entretien autour de la sociologie pragmatique d'Antoine Hennion", *ethnographiques.org*, 3 [sarean], 2016-08-24an kontsultatua, pp. 1-30.
- FOUCAULT, M. (2001). *Dits et écrits II, 1976-1988*. Paris, Gallimard.
- FRIEDMAN, Debra, 2008. "Language socialization and language revitalization", in Alessandro Duranti, Elinor Ochs eta Bambi B. Schieffelin (eds), *The Handbook of Language Socialization*, pp. 631-647. Malden, Wiley-Blackwell.
- GARAT, Maialen eta AIRE, Xan, 2004. *Seaska, 40 urte euskararen alde*. Donostia, Elkar.
- GIDDENS, Anthony, 2012. *La constitution de la société. Éléments de la théorie de la structuration*. Paris, Quadrige.
- HENNION Antoine, 2004. "Une sociologie des attachements. D'une sociologie de la culture à une pragmatique de l'amateur", *Sociétés*, 85, pp. 9-24.
- HENRI-PANABIÈRE, Gaële, 2011. "Élèves en difficultés de parents fortement diplômés", *Sociologie*, 1(4), pp. 457-477.
- HERNÁNDEZ, Jone Miren, 2007. *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid, Ministerio de Cultura.
- JAFFE, Alexandra, 2015. "Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner trajectories", *International Journal of the Sociology of Language*, 231, pp. 21-44.
- JONES, Kathryn eta MORRIS, Delyth, 2008. "Language socialization in the home and minority language revitalization in Europe", in Patricia A. Duff eta Nancy H. Hornberger (eds), *Encyclopedia of Language and Education*, pp. 127-143. Berlin, Springer Science+Business Media.

- KASARES, Paula, 2014. *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belaunez jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbao, Euskaltzaindia.
- LACROIX, Isabelle, 2014. "Valeur symbolique de la langue au Pays basque français et choix de l'école pour les enfants de couples linguistiquement mixtes", *Langage et société*, (1), pp. 67-82.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki, 2012. "Análisis contextual de la revitalización del Euskera en el ámbito familiar", *Revista internacional de filología*, 53, pp. 117-147.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki, ZALBIDE, Mikel, DARQUENNES, Jeroen eta SUBERBIOLA, Pablo, 2014. "The use of Basque in model D schools in the Basque Autonomous Community", *European Journal of Applied Linguistics*, 2 (2), pp. 254-286.
- O'ROURKE, Bernadette eta RAMALLO, Fernando, 2011. "The native-non-native dichotomy in minority language contexts: Comparisons between Irish and Galician", *Language problems & language planning*, 35 (2), pp. 139-159.
- O'ROURKE, Bernadette, PUJOLAR, Joan, eta RAMALLO, Fernando, 2015, "New speakers of minority languages: the challenging opportunity - foreword", *International Journal of the Sociology of Language*, 231, pp. 1-20.
- OCHS, Elinor eta SCHIEFFELIN, Bambi, 2008. "Language socialization: An historical overview", in Nancy. H. Hornberger (ed.), *Encyclopedia of language and education*, pp. 2580-2594. Springer US.
- ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URLA, Jacqueline, 2016. *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.
- ORTEGA, Ane, URLA, Jacqueline, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URANGA, Belen, 2015. "Linguistic identity among new speakers of basque", *International Journal of the Sociology of Language*, 231, pp. 85-105.
- PAILLE, Pierre eta MUCCHIELLI, Alex, 2008. *L'analyse qualitative en sciences humaines et sociales*. Paris, Armand Colin.
- PARIZOT, Isabelle, 2008, "L'enquête par questionnaire", in Serge Paugan (ed), *L'enquête sociologique*, pp. 92-113. Paris, PUF.
- PUJOLAR, Joan, PUIGDEVALL, Maite, 2015. "Linguistic mudes: how to become a new speaker in Catalonia", *International Journal of the Sociology of Language*, 231, pp. 167-187.
- SCHIEFFELIN, Bambi B., WOOLARD, Kathryn A. eta KROSKRITY, Paul V. (éds.), 1998. *Language ideologies: Practice and theory*. Oxford University Press.

- SCHIEFFELIN, Bambi eta OCHS, Elinor, 2008. "The theory of language socialization", in Alessandro Duranti, Elinor Ochs eta Bambi B. Schieffelin (eds), *The Handbook of Language Socialization*, pp. 1-21. Malden, Wiley-Blackwell.
- URLA, Jacqueline, 2012. *Reclaiming Basque: Language, Nation, and Cultural Activism*. University of Nevada Press.
- ZALBIDE, Mikel, GARDNER, Nicholas, ERIZE, Xabier, eta AZURMENDI, Maria Jose, 2006. "The future of Basque in RLS perspective", in Maria Jose Azurmendi eta Iñaki Martínez de Luna (éds.), *The case of Basque: past, present and future*, pp. 117-139. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.

# 2

## Euskararen Ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien X. Edizioko  
**BIGARREN SARIA** (2017)

**Jon Ander Kuartango Atxa**

*Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikaria*

jonkuartango@gmail.com

Sarrera-data: 2017-11-10 / Onartze-data: 2017-12-01

**Laburpena.** Egitasmo honetan euskararen ofizialtasunean eragiten duen legedia aztertu da, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren langile publikoei euskararen ezagutza eta erabilera derrigortzearen inguruan. Horretarako, indarrean dauden legeak eta auzitegien ebazpenak aztertu dira, euskararen ofizialtasunaren gainekoak, zein estatuko beste hizkuntzen gainekoak. Egitasmoaren hiru aztergai nagusiak honakoak dira. Lehenik, Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko beste erkidegoetako berezko hizkuntzen gaineko legedien antzekotasun eta ezberdintasunak aztertu dira. Bigarrenik, zerbitzu-hizkuntzaren gainean langile publiko elebidunen betebeharrak aztertu dira. Eta azkenik, lan-hizkuntzaren esparruan langile publiko elebidunak euskara erabiltzera behartzean dauden mugak eta ñabardurak aztertu dira. • **Hitz gakoak:** *euskara, administrazioa, ofizialtasuna, derrigortasuna, zerbitzu-hizkuntza, lan-hizkuntza.*

**Abstract.** The aim of this study is to analyse the legislation which influences Basque's status as an official language, in the context of the knowledge and use criteria required of civil servants working in the general administration of the Basque Autonomous Community. To this end, the laws currently in force and court rulings regarding the official nature of both the Basque language and other languages spoken in Spain are analysed. The study has a threefold aim. Firstly, to analyse the similarities and differences which exist between language legislation in the Basque Autonomous Community and other Autonomous Communities in Spain. Secondly, to explore the requirements made of bilingual civil servants in relation to the language in which they provide their service. And thirdly, in relation to working language, to identify and discuss the limits and nuances associated with obliging bilingual civil servants to use the Basque language. • **Key words:** *basque, administration, official status, obligatory nature, service language, working language.*

*“Es cierto, esto de no dejarte entrar por no saber euskera no pasa en ningún sitio de Euskadi. En ninguno... salvo en uno: la Administración. Una situación injusta que nos comprometemos a eliminar. Porque creemos que la igualdad de oportunidades también debe ser algo muy vasco”.*

Idoia Mendia Cueva,  
PSE-EEko idazkari nagusia.  
2016ko Eusko Legebiltzarreko Hauteskunde Kanpaina

**Administrazioaren  
esparruan non  
hasi eta bukatzen  
dira euskaraz  
aritu nahi  
dutenen  
hizkuntza-  
eskubideak eta  
erdaraz aritu  
nahi dutenen  
hizkuntza-  
eskubideak?**

## AITZINSOLASA

**I** Zeresan handia eman zuen 2016ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-kanpainan Euskadiko Alderdi Sozialistak kaleratu zuen bideo batek, euskara ezagutzen ez zuten Euskadiko herritarrei euskal administrazioarako sarbidea ukatu egiten zitzaizela salatzen zuena. Bideoan bertan Euskadiko Alderdi Sozialistako idazkari nagusiak egoera hori bidegabea eta aukera-berdintasunaren aurkakoa zela iritzi zion, eta egoera hori aldatzeko engaiamendu politikoa hartu zuen.

Ez da, ez, eztabaida berria.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, Siadeco enpresak 2013. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean egindako hizkuntza-eskakizunen inguruko ikerketan jasotako honako bi aipu hauek ere aipatuko ditugu jarraian. Hain zuzen ere, ikerlanaren 194. orrialdean euskal administrazioiko bi langilek esandakoa honela jaso zen:

“En la última oposición a la que me presenté, no obtuve plaza fija por no haber conseguido los 5 puntos de euskera. Creo que soy válida para esta plaza, pero no soy fija porque no tengo euskera y considero que en mi puesto el euskera no es necesario.”

“De un médico lo que quieres es que te atienda bien, no que sepa idiomas. No considero que el idioma sea parte de la profesionalidad de una persona cuando el 99% de los que saben euskera saben castellano; seguro que se pueden entender. Y lo mismo aquí, en la administración.”

Eztabaida zahar-berri horren harira hainbat zalantza etortzen zaizkigu gogora. Noraino daude aitortuak hizkuntza-eskubideak administrazio publikoan? Administrazioan lan egiteko euskararen ezagutza eskatzea zilegi da, ala aukera-berdintasunaren aurkakoa da? Zer esaten dute le-

**Aztertuko diren  
gaiak: euskal  
administrazioa  
sartzeko  
euskararen  
derrigorrezko  
ezagutza  
ezartzekoa,  
langile  
elebidunak  
zerbitzu-  
hizkuntza  
euskaraz ematera  
behartzekoa  
ingurukoa, eta,  
euskal  
administrazioaren  
langile  
elebidunak  
euskaraz lan  
egitera.**

geek horren inguruan? Administrazioaren esparruan non hasi eta bukatzen dira euskaraz aritu nahi dutenen hizkuntza-eskubideak eta erdaraz aritu nahi dutenen hizkuntza-eskubideak?

## **1. SARRERA**

**I** Egitasmo honen helburu nagusia da gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean euskararen erabileraren gainean indarrean dagoen legediak ezartzen dituen mugak eta aukerak ezagutzea.

Zehatz-mehatz langile publikoaren eta euskararen derrigorrezko ezagutza eta erabileraren arteko erlazioak aztertuko dira, bereziki honako hiru ardatzen inguruan: lehenik, euskal administrazioa sartzeko euskararen derrigorrezko ezagutza modu orokorrean langileei ezartzearen ingurukoa; bigarrenik, euskal administrazioaren langile elebidunak zerbitzu-hizkuntza euskaraz ematera behartzearen ingurukoa; eta, hiru-garrenik, euskal administrazioaren langile elebidunak euskaraz lan egitera behartzearen ingurukoa.

Horretarako, zuzenean zein zeharka eragiten duen legedia aztertuko da, eta indarrean dauden legeen eta auzitegiek utzitako epaien azterketa deskriptiboa, konparatiboa eta kritikoa egingo da. Hain zuzen ere, egitasmoa hiru atal nagusitan antolatuta dago. Lehenik, euskal administrazioaren ikuspegitik euskararen ofizialtasuna xedatzen duten legen azterketa, bigarrenik, beste autonomia-erkidegoetan katalanaren eta galizieraren ofizialtasuna xedatzen duten legen azterketa, eta, azkenik, hizkuntza ofizialen inguruan estatuko auzitegiek urteotan ebatzi dituzten epaien azterketa.

Azterketa kualitatibo hau egiteko Euskal Autonomia Erkidegoaren eremua aukeratu egin da hori delako Euskal Herriko gaur egungo hiru administrazio-eskualdeen artean euskarak lege-egoerarik aldekoena duen lurraldea. Bestalde, administrazio orokorrean eragiten duen legedia aztertu da egitasmoak administrazioaren ikuspegi orokor bat lortzeko asmoa duelako, hezkuntza-, segurtasun-, justizia-, edo osasun-sistemen modukoen berezitasunak alde batera utzita.

Azkenik, egitasmomaren gidalerro nagusiekin bat, honako hiru hipotesiak planteatu dira:

1. Indarrean dagoen legediaren arabera, Eusko Legebiltzarrak ezin du modu orokorrean euskal administrazioarako sarbidean euskararen derrigorrezko ezagutza xedatu, espainiarren arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoa izango litzatekeelako.

2. Indarrean dagoen legediaren arabera, langile publiko elebidunak modu orokorrean behartuta daude lanean euskaraz egitera herritarrei euskarazko zerbitzua emateko denean.

3. Indarrean dagoen legediaren arabera, langile publiko elebidunak ez daude modu orokorrean euskaraz lan egitera behartuta herritarrei euskarazko zerbitzua emateko ez denean.

## 2. NAZIOARTEKO ITUNAK

**I** Nazioarteko hainbat itunetan, hizkuntza-eskubideen inguruko hainbat eskubide jaso dira. Esan daiteke nazioarteko itunen helburu nagusietako bat dela estatuak bere egin ditzaten bertan jasotako eskubideak. Oro har, itunak sinatu eta berresten dituztenean derrigorrezko izaera hartzen dute itunetako eskubideek estatu sinatzaileetan.

Jarraian, itun horietan jasotzen diren zenbait oinarritzko hizkuntza-eskubide aipatuko ditugu.

— Lehenik eta behin, *Nazio Batuen Erakundeko 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* aipatuko dugu. Deklarazioaren 2. artikuluan hizkuntza-diskriminazioaren aurkako eskubidea aldarrikatzen da.

“Everyone is entitled to all the rights and freedoms set forth in this Declaration, without distinction of any kind, such as race, colour, sex, language, religion, political or other opinion, national or social origin, property, birth or other status.”

Deklarazioa Espainiako estatuan loteslea ez bada ere, 1978ko Espainiako Konstituzioan jasotzen da konstituzioan jasotako oinarritzko eskubide eta askatasunak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera ulertuko direla.

— Bigarrenik, *Nazio Batuen Erakundeko 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna* aipatuko dugu. Itunaren 27. artikuluan, hizkuntza gutxituak dauden estatuetan hizkuntza gutxituak erabiltzeko eskubidea jasotzen da.

“In those States in which ethnic, religious or linguistic minorities exist, persons belonging to such minorities shall not be denied the right, in community with the other members of their group, to enjoy their own culture, to profess and practise their own religion, or to use their own language.”

Espainiako estatuak 1977ko apirilean berretsi zuen ituna.

---

**Nazio Batuen  
Erakundeko  
1966ko Eskubide  
Zibil eta  
Politikoen  
Nazioarteko  
Itunean  
hizkuntza  
gutxituak dauden  
estatuetan  
hizkuntza  
gutxituak  
erabiltzeko  
eskubidea  
aitortzen da.**

---

**Europako  
Kontseiluaren  
1994ko  
Gutxiengo  
Nazionalen  
Babeserako  
Hitzarmenaren  
arabera, estatu  
sinatzaileek  
bermatu beharko  
dituzte hizkuntza  
gutxituetako  
hiztunek euren  
lurraldeetako  
administrazio-  
aginteeekin  
hizkuntza  
gutxitua  
erabiltzeko  
baldintzak.**

— Hirugarrenik, Nazio Batuen Erakundeko 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna aipatuko dugu. Itunaren 2. artikuluan, estatu sinatzaileak lotu edo behartzen ditu bermatzera ez dela hizkuntza arrazoiengatik diskriminaziorik egongo.

“(…) 2. The States Parties to the present Covenant undertake to guarantee that the rights enunciated in the present Covenant will be exercised without discrimination of any kind as to race, colour, sex, language, religion, political or other opinion, national or social origin, property, birth or other status.”

Espainiako estatuak 1977ko apirilean berretsi zuen ituna.

— Laugarrenik, Nazio Batuen Erakundeko 1992ko Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa aipatuko dugu. Deklarazioaren 1. artikuluan estatuak adoretu egiten ditu dagokion legeak eta beste-lako neurriak hartzera euren lurraldeetan dauden hizkuntza gutxi-tuak sustatzeko.

“1. States shall protect the existence and the national or ethnic, cultural, religious and linguistic identity of minorities within their respective territories and shall encourage conditions for the promotion of that identity.

2. States shall adopt appropriate legislative and other measures to achieve those ends.”

Espainiako estatuak 1995eko uztailan berretsi zuen deklarazioa.

— Bosgarrenik, Europar Batasuneko 2007ko Lisboako Ituna aipatuko dugu. Itunaren 3. artikuluan, Europar Batasunak bere osotasunean Europako hizkuntza-aniztasuna errespetatu eta sustatzeko beharra jasotzen da.

“(…) It shall respect its rich cultural and linguistic diversity, and shall ensure that Europe's cultural heritage is safeguarded and enhanced.”

Espainiako estatuak 2008ko uztailan berretsi zuen Lisboako Ituna.

— Seigarrenik, Europako Kontseiluaren 1994ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa aipatuko dugu. Hitzarmen markoaren 10. artikuluan bigarren atalaren arabera, estatu sinatzaileek bermatu beharko dituzte hizkuntza gutxituetako hiztunek euren lurraldeetako administrazio-aginteeekin hizkuntza gutxitua erabiltzeko baldintzak.

“(…) In areas inhabited by persons belonging to national minorities traditionally or in substantial numbers, if those persons so request and where such a request corresponds to a real need, the Parties shall endeavour to ensure, as far as possible, the conditions which would make it possible to use the minority language in relations between those persons and the administrative authorities.”

Espainiako estatuak 1995eko uztailean berretsi zuen hitzarmen-markoa.

— Zazpigarrenik, *Europako Kontseiluaren 1992ko Erregioen edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna* aipatuko dugu. Itunaren zazpigarren artikulua bigarren atalean honakoa ezartzen da: hizkuntza gutxitua edo eskualdeetako hizkuntza sustatzeko neurri bereziak hartzea ezin izango da ulertu hizkuntza nagusiaren hiztunen aurkako diskriminazio-ekimen bezala, baldin eta hizkuntza gutxituaren eta hizkuntza nagusiaren arteko berdintasuna lortzea badu helburu. Hau da, hizkuntza gutxituaren sustapenaren zilegitasuna aldarrikatzen da hizkuntza nagusiarekiko berdintasuna helburu duen neurrian.

“(…) The adoption of special measures in favour of regional or minority languages aimed at promoting equality between the users of these languages and the rest of the population or which take due account of their specific conditions is not considered to be an act of discrimination against the users of more widely-used languages.”

Espainiako estatuak 2001eko irailean berretsi zuen ituna.

— Azkenik, *Europako Kontseiluaren 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena* aipatuko dugu. Alde batetik, hitzarmenaren 14. artikuluan hizkuntza-diskriminazioa debekatzen da.

“Prohibition of discrimination. The enjoyment of the rights and freedoms set forth in this Convention shall be secured without discrimination on any ground such as sex, race, colour, language, religion, political or other opinion, national or social origin, association with a national minority, property, birth or other status.”

Aipagarria da, bestalde, hitzarmenean jasotako eskubideak bete-arazteko hitzarmenaren bigarren atalburuaren 19. artikulua Europako Giza Eskubideen Auzitegia ezartzen duela.

---

**Hizkuntza  
gutxitua edo  
eskualdeetako  
hizkuntza  
sustatzeko neurri  
bereziak hartzea  
ezin izango da  
ulertu hizkuntza  
nagusiaren  
hiztunen aurkako  
diskriminazio-  
ekimen bezala,  
baldin eta  
hizkuntza  
gutxituaren eta  
hizkuntza  
nagusiaren  
arteko  
berdintasuna  
lortzea badu  
helburu.**

**Hizkuntza  
gutxitua edo  
eskualdeetako  
hizkuntza  
sustatzeko neurri  
bereziak hartzea  
ezin izango da  
ulertu hizkuntza  
nagusiaren  
hiztunen aurkako  
diskriminazio-  
ekimen bezala,  
baldin eta  
hizkuntza  
gutxituaren eta  
hizkuntza  
nagusiaren  
arteko  
berdintasuna  
lortzea badu  
helburu.**

“To ensure the observance of the engagements undertaken by the High Contracting Parties in the Convention and the Protocols thereto, there shall be set up a European Court of Human Rights...”

Espainiako estatuak 1979ko irailean berretsi zuen hitzarmena.

### 3. 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOA

I  
Gaur egun Hego Euskal Herrian indarrean dagoen 1978ko Espainiako Konstituzioa 1978ko urriaren 31n onartu zuten Espainiako Gorteen, urte bereko abenduaren 6an erreferendumean onartu zuten Espainiako herritarrek, eta abenduaren 27an berretsi zuen Espainiako erregeak. 1978ko abenduaren 29an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta indarrean sartu zen.

Espainiako estatuko herritarren oinarritzko eskubide eta betebeharrak bertan jasota daude, baita botere publikoek horiek betetzeko beharra ere. Beraz, Hego Euskal Herriko herritarrak eta botere publikoak arau horri lotuta daude.

1978ko Espainiako Konstituzioa Espainiako estatuko ordenamendu juridikoaren arau goren da. Hau da, ordenamendu juridikoa den hierarkiaren goialdean dagoen araua da, eta horren ondorioz botere publikoek ezin dute bertan jasotako eskubideen aurkako legerik egin.

Botere publikoek sortzen dituzten legeak konstituzioan jasotako eskubide eta betebeharrak urratzen dituzten edo ez erabakitzea Espainiako Auzitegi Konstituzionalari dagokio. Auzitegi horren epaiek berebiziko garrantzia dute, izan ere, auzitegiak konstituzioan dauden hutsuneak interpretatu ditu azkeneko hamarkadetakoko epaietan hartutako hainbat erabakitan; hainbat urtez sorturiko jurisprudentzia konstituzioaren osagarri bihurtu delarik.

Hizkuntzei dagokionez, konstituzioak “Espainiako hizkuntzak” aitortu egiten ditu. Euskal hizkuntza berez aipatua ez bada ere, multzo horretan jasoa dago. Hizkuntza horien ofizialtasuna aitortzeaz gain, hizkuntza horien arteko hierarkiak eta mugak ere ezartzen ditu. Nolabait esan daiteke, Hego Euskal Herrian, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 1978ko Espainiako Konstituzioa dela, legearen ikuspegitik, euskararen normalkuntzarako lege-esparru edo arau nagusia.

Konstituzioaren lehenengo artikuluan jasotzen da, besteak beste, ordenamendu juridikoa berdintasunaren printzipioan oinarritzen dela.

Bigarren artikuluan Espainiako herrien autonomiarako eskubidea aitortzen da. Horrek garrantzia du Espainiako herrien hizkuntza-eskubi-

deak garatzeko bidea, euskararenak besteak beste, autonomia-erkidegoetako estatutuak izango direlako.

Hirugarren artikulua Espainiako hizkuntzei zuzenduta dago. Lehengo aldiz gaztelania bere horretan aipatzen da. Aldiz, galiziera, katalana edo euskara, kasu, ez dira bere horretan aipatzen eta “Espainiako beste hizkuntzak” bezala multzokatzen dira.

Hirugarren artikuluen lehenengo atalean jasotzen da gaztelania dela Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala, espainiar guztiek dutela gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta gaztelania ezagutzeko derrigortasuna.

Hirugarren artikuluen bigarren atalean jasotzen da gainerako Espainiako hizkuntzak ere ofizialak izango direla dagokien autonomia-erki-degoetan eta horien estatutuen arabera.

Hirugarren artikuluen bi atal horietan dago hizkuntza ofizialen arteko hierarkiaren mamia. Izan ere, konstituzioak artikulua horretan esplizituki lurralde-hierarkia baino ez du ezartzen (hierarkia horizontala, nolabait esateko); hau da, gaztelania dela ofiziala Espainiako lurralde osoan, eta beste hizkuntzak ofizialak direla dagokien autonomia-lurraldeetan bakarrik. Berez ez du jasotzen autonomia-lurralde horietan gaztelaniaren eta “beste” hizkuntzaren arteko ofizialtasun-maila ezberdina izan behar denik (hierarkia bertikala, nolabait esateko). Dena dela, bestelako legeek eta auzitegien jurisprudentziak hierarkia bertikalaren bide hori aukeratu dute aurrerago ikusiko dugun bezala.

Nolabait esan dezakegu Espainiako hizkuntzen arteko hierarkizazioa ematen dela, bi ofizialtasun-maila ezarriz. Alde batetik, gaztelaniarena, eta bestaldek, Espainiako beste hizkuntzena.

Aipagarria da 10. artikuluko bigarren zatian jasotzen dela konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubide eta askatasunak ulertu behar direla Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera eta gai horien inguruan Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko akordioen arabera.

Bestalde, 14. artikuluan jasotzen da espainiar guztiak berdinak direla legearen aurrean eta ezin dela euren arteko diskriminaziorik onartu. Artikulu horretan jasotakoa erabiliko da maiz auzitegi-tako helegiteetan hizkuntza gutxituen normalizazioaren aldeko politiken aurka.

Konstituzioak, 53. artikuluen lehenengo atalean, botere publikoak lotzen ditu 14. artikuluan jasotako eskubideekin. Artikuluaren bigarren atalean, hain zuzen ere, eskubide horiek urratutzat ematen dituen herritarrak epaitegi-tara jotzeko eskubidea duela jasotzen da. Hasiera batean, ohiko epaite-

---

***Gaztelania da  
Espainiako  
estatuaren  
hizkuntza  
ofiziala,  
espainiar guztiek  
dute gaztelania  
erabiltzeko  
eskubidea, eta  
gaztelania  
ezagutzeko  
derrigortasuna.  
Esan daiteke  
Espainiako  
hizkuntzen  
arteko  
hierarkizazioa  
ematen dela, bi  
ofizialtasun-  
maila ezarriz.  
Alde batetik,  
gaztelaniarena,  
eta bestaldek,  
Espainiako beste  
hizkuntzena.***

**Enplegu  
publikorako  
sarbidean  
euskara  
baloratzeko eta  
eskatzeko  
derrigortasuna  
ezartzearen  
gakoa honako  
hiru oinarri  
hauen arteko  
orekan datza:  
alde batetik,  
espainiarren  
arteko  
berdintasuna, eta  
bestaldetik,  
meritua eta  
gaitasuna.**

gietara, eta, ondoren, babes helegitearen bidez, Auzitegi Konstituzionalera.

Bestalde, 96. artikulua arabera, nazioarteko itunak sinatu ondoren eta Espainian argitaratu ondoren barne ordenamendu juridikoaren zati bihurtuko dira.

Konstituzioaren 103. artikulua lehenengo atalean jasotzen da Administrazio Publikoek objektibotasunez zerbitzatuko dituela interes orokorrak eta eraginkortasunez jardungo duela, besteak beste.

Artikulu horren hirugarren atalean, berriz, administrazio publikorako sarbidea legeak arautuko duela jasotzen da eta hori egingo dela meritua eta gaitasun printzipioei lotuta.

Konstituzioaren 139. artikuluan berriro ere berdintasunaren printzipioari erreferentzia egiten dio. Hain zuzen ere, espainiarrek eskubide eta betekizun berdinak izango dituztela estatuko edozein eskualdeetan.

Bukatzeko, 161. artikulua bigarren atalean espresuki jasotzen da 53. artikulua bigarren ataleko eskubide eta askatasunen urraketen helegiteen eskumena Auzitegi Konstituzionalarena dela, eta honek eskumena duela Espainiako lurralde osoan.

## **Estatu-mailako bi lege**

Egitasmoan aurrera jarraitu baino lehen, bi aipu egin nahiko nituzke estatu-mailako bi legeren inguruan.

Horietan lehena, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa da.

Dekretuaren 55. artikulua lehengo atalean jasotzen da herritar guztiek dutela enplegu publikorako sarbiderako eskubidea, eta sarbide hori egin beharko dela konstituzioan aitortutako berdintasun, meritua eta gaitasun eskubideen arabera.

Hain zuzen ere, enplegu publikorako sarbidean euskara baloratzeko eta eskatzeko derrigortasuna ezartzearen gakoa hiru kontzeptu horietan datza, zehazki, euren arteko orekan. Tira-bira horren alde batean, Espainiako herritar guztien arteko berdintasuna dago, eta hizkuntza koofizialen ezagutzak sortzen duen ezberdintasuna. Beste aldean, berriz, herritarrek egindako meritua (euskara ikastea, adibidez) eta administrazioan lan egiteko gaitasuna daude (gaztelaniaz gain euskaraz ere lan egiteko gaitasuna, esaterako).

Horren harira, aipatutako dekretuaren 56. artikuluan aurreikusten da bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetan administrazio publikoek aurreikusi beharko dutela behar bezala gaituak dauden langile publikoak hautatzea, betiere euren eskumenen esparruan.

Aipatu nahi dudana bigarren legea honakoa da: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Legearen 15. artikulua prozeduren hizkuntzari buruzkoa da. Aipagarria da, alde batetik, estatuaren administrazio orokorrak izapidetutako prozeduren hizkuntza gaztelania dela jasotzen duela. Hala ere, espresuki jasotzen da estatuaren administrazio orokorraren egoitza bi hizkuntza ofizial dituen autonomia erkidego batean ezarrita baldin badago, herritarrari aitortzen zaiola beste hizkuntza koofiziala erabiltzeko eskubidea. Gainera, kasu horretan, prozedura herritarrak hautaturiko hizkuntza koofizialean izapidetuko dela jasotzen da, besteak beste.

#### 4. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA

1978ko Espainiako Konstituzioan jasotakoari jarraituz, eta 1979ko urriaren 25ean Araba, Bizkai eta Gipuzkoan egindako erreferendum bidez, Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartu zen.

Estatutuak 6. artikuluan egiten dio erreferentzia lehenengo aldiz hizkuntzari. Euskara bere horretan aipatzen da, eta euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntzatzat aitortzen da. Bestalde, estatutuak, gaztelaniari bezala, euskarari ere ofizialtasuna aitortzen dio, eta herritar guztiei bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen die.

*“Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.”*

Azpitarragarria da gaztelania eta euskara ezagutzeko derrigortasunari buruz ez dela ezer aipatzen, kontuan izanda ordurako indarrean zegoen 1978ko Espainiako Konstituzioak aurretik ezarria zuela gaztelania ezagutzeko derrigortasuna.

Artikuluaren bigarren atalean, Euskal Autonomia Erkideko administrazioei bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko derrigortasuna ezartzen die; horretarako, alabaina, Euskal Herriko aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuko dutelarik.

---

***Euskara Euskal  
Herriaren  
berezko  
hizkuntzatzat  
aitortzen da;  
gaztelaniari  
bezala, euskarari  
ere ofizialtasuna  
aitortzen dio, eta  
herritar guztiei  
bi hizkuntzak  
ezagutzeko eta  
erabiltzeko  
eskubidea  
aitortzen die.***

**Azpimarragarria  
da estatutuan  
gaztelania eta  
euskara  
ezagutzeko  
derrigortasunari  
buruz ez dela  
ezer aipatzen,  
kontuan izanda  
ordurako  
indarrean zegoen  
1978ko  
Espainiako  
Konstituzioak  
aurretik ezarria  
zuela gaztelania  
ezagutzeko  
derrigortasuna.**

“Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.”

Artikuluaren hirugarren atalean hizkuntza arrazoiengatik inor diskriminatua izango ez dela jasotzen da.

“Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutzietsiko.”

Bederatzigarren artikuluan jasotzen da euskal herritarren oinarritzko eskubide eta betekizunak konstituzioan jasotakoak direla eta euskal botere publikoek horiek betetzeko eginbeharra dutela.

Azkenik, azpimarragarria da 38. artikuluan jasotzen dela Eusko Legebiltzarraren legeak Auzitegi Konstituzionalaren kontrolaren menpe egongo direla.

## **5. EUSKARAREN LEGEA**

**I**

1982. urtean Eusko Legebiltzarrak azaroaren 24ko 10/1982 Legea onartu zuen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarritzkoa.

Euskararen Legeak garatzen du 1978ko Espainiako Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuan hizkuntza-eskubideen inguruan jasotakoak.

Legearen lehenengo tituluari, hizkuntza-gaien inguruko herritarren eskubideez eta botere publikoen betebeharez hitz egiten da. Bostgarren artikuluan bigarren ataleko lehenengo azpiatalean, administrazioarekin, zein Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako edozein erakunderekin, euskaraz zein gaztelaniaz harremanetan jartzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, eta hirugarren atalean jasotzen da botere publikoek eskubide horiek erabiltzea bermatuko dutela.

“Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Arduralaritzarekin... harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.”

Seigarren artikuluan xedatzen da herritarrak eskubidea duela ez bakarrik administrazioarengana nahi duen hizkuntzan zuzentzeko, baizik eta administrazioetik jasotzen duen harremana ere herritarrak aukeratu duen hizkuntzan izateko. Alabaina, ondoren gaineratzen da eskubide hori erabiltzeko beharrezko bitartekoak modu progresiboan ezarriko direla.

“Horretarako, behar daitezen neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian bermatzeko beharrezko gerta daitezen eskuarteak ebatziko.”

Eskubide horren erabilera bermatzeko epemugarik gabeko progresibotasunaren kontzeptua sartzean, nolabait eskubide hori gauzatzeko legezko bermea deuseztatzen da.

Bestalde, 14 artikuluan jasotzen da botere publikoek dagozkien neurriak hartuko dituztela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak modu progresiboan euskalduntzeko, eta botere publikoek zehaztuko dutela zer lanpostutan izango den derrigorrezkoa bi hizkuntzen ezagutza.

“Herri-agintariak erabakiko dute zein lantokitarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea.”

Azkenik, bi hizkuntza ofizialak ezagutzea derrigorrezkoa ez den lanpostuetara sartzeko bi hizkuntza ofizialen ezagutza meritu gisa baloratuko dela jasotzen da.

## 6. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA

1989. urtean Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen helburua da euskal funtzio publikoaren eta hori osatzen duten langileen antolamendua arautzea.

Legearen bosgarren titulua hizkuntza-normalkuntzakoa da. Titulu horren 97. artikulua lehengo atalean berresten da euskara eta gaztelania direla euskal administrazio publikoen hizkuntza ofizialak eta administrazio publikoak behartuta daudela bi hizkuntzen erabilera bermatzera euren kanpoko zein barruko harremanetan.

Bigarren atalean jasotzen da hori bermatzeko euskal administrazio publikoko lanpostuek hizkuntza-perfil edo eskakizun bat ezarrita izango dutela, eta hizkuntza- eskakizunak xedatuko duela lanpostuan aritzeko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza-gaitasunen multzoa.

“Hizkuntz-eskakizunak zehaztuko ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskerazko hizkuntz gaitasun-mailak.”

Artikuluaren hirugarren atalean xedatzen da, besteak beste, hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data igarotzean, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea derrigorrezkoa izango dela lanpostuan sartzeko eta bertan

***Herritarrak  
eskubidea du ez  
bakarrik  
administrazioare  
ngana nahi duen  
hizkuntzan  
zuzentzeko,  
baizik eta  
administrazioetik  
jasotzen duen  
harremana ere  
herritarrak  
aukeratu duen  
hizkuntzan  
izateko.***

**Hizkuntza-  
eskakizunaren  
derrigortasun-  
data igarotzean,  
hizkuntza-  
eskakizuna  
egiaztatzea  
derrigorrezkoa  
izango da  
lanpostuan  
sartzeko eta  
bertan aritzeko.  
Derrigortasun-  
daten indizea,  
berriz, honela  
deskribatzen du:  
Euskaldunen  
ehunekoa + (Ia  
euskaldunen  
ehunekoa / 2).**

aritzeko. Bestalde, aurreikusten da zenbait langile hizkuntza-eskakizuna egiaztatzekeo derrigortasunetik at geratuko direla, eta egoera horien arautzea Eusko Jaurlaritzak egingo duela.

“Hizkuntz eskakizuna aginduzko izaten hasten den egunetik aurrera, lanpostu bakoitzera iritsi eta hori betetzeko ezinbestekoa izango da hizkuntz eskakizuna betetzea.”

Zazpigarren atalean, berriz, hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-daten esleipena modu proportzional eta bidezkoan egingo dela jasotzen da, lanpostuaren maila edo titulazio-mota kontutan hartu gabe.

Zortzigarren atalean jasotzen da euskal administrazio publikoak ahaleginduko direla langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezaten, horretarako beharrezko neurriak hartuz.

Bestalde, 98 artikuluen laugarren atalean jasotzen da euskararen eza-gutza meritu bezala baloratuko dela derrigorrezkoa ez den lanpostuetan sartzeko. Kasu horietan, euskararen balorazioaren zenbatekoa euskararen hautaketa-proba osoan lortu daitezkeen gehienezko puntuen %5 eta %20 artekoa izango da.

## **7. 86/1997 DEKRETUA**

**I**

Euskararen Legea onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzak euskararen normalizazioaren inguruko hainbat dekretu onartu zituen. Dekretu horiek bateratzeko asmoarekin, eta betiere Euskararen Legea eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen garapen arauemailea eginez, Eusko Jaurlaritzak *Euskal Autonomia Elkarte*ko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua onartu zuen 1997. urtean.

Dekretuaren 1. artikuluan jasotzen da euskara eta gaztelania biak direla ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten herri-administrazioetan eta, horren ondorioz, herritarrek herri-administrazio horiekin euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko eskubide osoa duela. Eskubide hori bermatzeko zerbitzu-hizkuntza eta lan hizkuntza aipatzen ditu eta gaineratzen du helburu hori betetzeko zerbitzu-hizkuntza eta lan- hizkuntza normaltasunez erabili beharko direla.

“Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan administratuekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean, harremanotan erabiltzen den hizkuntza, horixe da zerbitzu-hizkuntza”.

“Era berean, lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan bertan erabiltzen den hizkuntza, horixe izango da lan-hizkuntza.”

Laugarren atalean euskal herri-administrazioetako hizkuntzaren normal-kuntza-prozesuak hiru ardatz izango dituela jasotzen da: entitate bakoitzaren euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatzea, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizunak ezartzea, eta hala dagokion lanpostuetan derrigortasun-datak ezartzea. Prozesu hori denboran ordenatzeko plangintzaldiak jasotzen ditu bostgarren artikuluan.

Hamaikagarren artikulua lehenengo atalean, derrigorrez bete beharreko indizea aurkezten du eta hura kalkulatzeko formula deskribatzen du: Euskaldunen ehunekoa + (Ia euskaldunen ehunekoa / 2).

Dekretuarekin jarraituta, hamahirugarren artikuluan hizkuntza-gaitasunen hiru maila (A, B eta C) eta lau hizkuntza-trebetasun (ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena) zehazten ditu, eta horien konbinazioarekin lau hizkuntza-eskakizunak definitzen ditu.

Dekretuaren hirugarren atalburuko 15. artikuluan administrazio-atal elebidunak eta euskaldunak aurkezten ditu eta honela definitzen ditu:

“Beren zereginak Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialeetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio- atala elebidunak.”

“Beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak.”

Administrazio-atal elebidunak eta euskaldunak izango dira, dekretuaren 15. artikulua arabera, herri-administrazioekin euskarazko harremanak izateko eskubidea bermatzeko herritarrek dituzten gutxieneko antolamendu-atalak.

Laugarren atalburuko 20. artikuluan, derrigortasun-datak ezartzean kontuan hartu beharreko hiru faktore xedatzen ditu. Lehenik, lanpostuak publikoarekin duen gerturatze-maila; bigarrenik, administrazioaren barruan lanpostuak duen lan- harreman sarea; eta hirugarrenik, lanpostua dagoen zerbitzua edo atalaren izaera eta ezaugarriak.

Azkenik, dekretuaren zazpigarren atalburuan, lanpostuaren derrigorezko hizkuntza- eskakizuna betetzetik salbuetsita dauden langileen balizko egoerak deskribatzen ditu. Laburbilduz, honakoak dira: 45 urtetik gorakoak, oinarritzko ikasketarik ez dituztenak, ezgaitasun fisiko

***Derrigortasun-  
datak ezartzean  
kontuan hartu  
beharreko hiru  
faktoreak:  
lanpostuak  
publikoarekin  
duen gerturatze-  
maila,  
administrazio-  
aren barruan  
lanpostuak duen  
lan-harreman  
sarea, eta  
lanpostua dagoen  
zerbitzua edo  
atalaren izaera  
eta ezaugarriak.***

**Oro har,  
Kataluniako  
herri-  
administrazio-  
etako  
lanpostuetan  
sartzeko  
hizkuntza  
katalanaren  
ezagutza  
egiaztatu behar  
da, ahoz zein  
idatziz, dagokion  
lanpostuaren  
eginkizunen  
mailari lotuta eta  
funtzio  
publikoaren  
legediak agintzen  
duen modura.**

edo psikikoak dituztenak, eta hizkuntzak ikasteko ageriko zailtasunak dituztenak.

## **8. KATALANAREN ETA GALIZIERAREN OFIZIALTASUNA**

### **I**

Euskal Autonomia Erkidegoaren euskararen lege-egoera aztertu eta ulertzeko, ezinbestean Espainiako estatuko beste zenbait autonomia-erkidegotan egindako bidea ere aztertu beharko dugu. Izan ere, autonomia-erkidego horien hizkuntza-legeek, eta horien aurka auzitegietan jarritako helegiteen ebazpenetan jasotako jurisprudentziak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko euskararen ofizialtasunean eragina dute, eta euskararen normalkuntzak dituen aukerak ere irudikatzen laguntzen dute.

Horregatik, katalana eta galiziera berezko hizkuntza moduan aitortua duten honako lau autonomia-erkidegoetan indarrean dagoen legedia aztertuko dugu jarraian.

### **8.1 Katalunia**

*Kataluniako autonomia-estatutuaren* 6. artikuluan jasotzen da Kataluniaren berezko hizkuntza katalana dela eta gaineratzen da katalana dela Kataluniako herri- administrazioen ohiko edo erabilera normaleko hizkuntza.

Bestalde, *Hizkuntza Politikaren urtarriaren 7ko 1/1998 Legearen* bigarren artikuluan jasotzen da Kataluniaren berezko hizkuntza katalana izatetik ondorioztatzen dela katalana dela Kataluniako erakundeen hizkuntza, bereziki Generalitateko administrazioarena.

Legearen 11. artikulua lehenengo atalean jasotzen da Kataluniako herri- administrazioetan lan egiten duten langileek bi hizkuntza ofizialen ezagutza-maila egokia eta nahikoa izan beharko dutela, ahoz zein idatziz, euren lanpostuen berezko funtzioak betetzeko gai izateko.

“El personal al servei de les administracions, les corporacions i les institucions públiques de Catalunya ha de tenir un nivell de coneixement adequat i suficient de les dues llengües oficials, tant en l'expressió oral com en l'escrita, que el faci apte per a desenvolupar les funcions pròpies del seu lloc de treball.”

Artikulu horren hirugarren atalean jasotzen da oro har Kataluniako herri- administrazioetako lanpostuetan sartzeko hizkuntza katalanaren ezagutza egiaztatu behar dela, ahoz zein idatziz, dagokion lanpostuaren eginkizunen mailari lotuta eta funtzio publikoaren legediak agintzen duen modura.

En el procés de selecció per a accedir a places de personal de l'Administració de la Generalitat... s'ha d'acreditar el coneixement de la llengua catalana, tant en l'expressió oral com en l'escrita, en el grau adequat a les funcions pròpies de les places de què es tracti..."

Bestalde, Kataluniako Generalitateko Administrazioaren Funtzio Publikoaren Legean, langileen hautaketaren hirugarren kapituluaren 42. artikuluan honakoa jasotzen da: konstituzioaren 103. artikulua lehengo atalean ezarritako oinarriekin bat, Generalitateko administrazioak bere langile guztiak aukeratuko ditu objektibotasun irizpideekin, hautagaien berdintasun, meritu eta gaitasun oinarrien arabera, eta deialdi publikoaren bidez. Gaineratzen da hautaketa-prozesuan egiaztatu beharko dela hizkuntza katalanaren ezagutza, ahoz zein idatziz.

Bestalde, aipatutako legeen garapen arauemailea 161/2002 Dekretuaren bidez egin da eta dekretu horren 12. artikuluan xedatzen dira administrazio maila bakoitzari egokitzen zaion derrigorrezko hizkuntza-maila. Honela laburbildu dezakegu:

— Erredakzio, zuzenketa, edo hizkuntza-plangintzan dauden A mailako postuetan, D ziurtagiria eskatzen da (euskararen 4. hizkuntza-eskakizunaren parekoa).

— A, B, C eta D mailako lanpostuetan, oro har, C ziurtagiria eskatzen da (euskararen 3. hizkuntza-eskakizunaren parekoa); C eta D mailako zenbait lanpostutan, B ziurtagiria (euskararen 2. hizkuntza-eskakizunaren parekoa) edo A ziurtagiria (euskararen 1. hizkuntza-eskakizunaren parekoa) eskatzeko aukera aurreikusten delarik.

— Azkenik, E mailako lanpostuetan, B ziurtagiria eskatzen da; E mailako zenbait lanpostutan, A ziurtagiria eskatzeko aukera aurreikusten delarik.

## 8.2 Balear Uharteak

Balear Uharten autonomia-estatutuaren laugarren artikulua xedatzen du, besteak beste, katalana dela Balear Uharteetako berezko hizkuntza, guztiak dutela katalana ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea, eta inor ezingo dela diskriminatua izan hizkuntzagatik. Gaineratzen du Balear Uharteetako herri-administrazioek bi hizkuntza ofizialen erabilera normala eta ofiziala bermatuko dutela eta ezagutza bermatzeko beharrezko neurriak jasoko dituztela; baita ere, Balear Uharten herritarren eskubideei dagokienez, bi hizkuntzen berdintasunera heltzeko baldintzak sortuko dituztela.

**Generalitateko  
administrazioak  
bere langile  
guztiak  
aukeratutako  
ditu  
objektibotasun  
irizpideekin,  
hautagaien  
berdintasun,  
meritu eta  
gaitasun  
oinarrien  
arabera, eta  
deialdi  
publikoaren  
bidez.  
Gaineratzen da  
hautaketa-  
prozesuan  
egiaztatu  
beharko dela  
hizkuntza  
katalanaren  
ezagutza, ahoz  
zein idatziz.**

**Balear Uharteen  
kasuan  
aipagarria da  
gobernu-  
aldaketek  
hizkuntza-  
legeetan  
izandako  
eragina: 2011n,  
Alderdi  
Popularrak  
administrazioan  
lan egiteko  
katalanaren  
ezagutzaren  
legezko  
derrigortasuna  
kendu zuen.  
2015ean,  
gobernu berriak  
berriro ezarri  
zuen  
administrazioan  
lan egiteko  
katalanaren  
ezagutzaren  
legezko  
derrigortasuna.**

Bestalde, Balear Uharteen Autonomia Erkidegoaren Funtzio Publikoaren mar-  
txoaren 27ko 3/2007 Legean, funtzio publikorako sarbiderako betekizunei  
buruzko 50. artikuluan, xedatzen da katalanaren ezagutza egiaztatzea  
derrigorrezkoa izango dela Balear Uharteetako funtzio publikorako sar-  
biderako, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatuz eta lanpos-  
tuari dagokion funtzioak eta hizkuntzaren eskakizun- maila egokituz.

“Són requisits generals d'accés a la funció pública autonòmica els següents:

...f) Acreditar el coneixement de la llengua catalana que es determini regla-  
mentàriament, respectant el principi de proporcionalitat i adequació entre el  
nivell d'exigència i les funcions corresponents.”

Azkenik, aipagarria da Balear Uharteen funtzio publikoaren legea ga-  
ratzen duen 11/2017 Dekretuaren bigarren kapituluaren xedatzen dela lan-  
postu-maila bakoitzean modu orokorrean eskatzen den derrigorrezko  
katalanaren hizkuntza-maila. Administrazio orokorraren kasurako ho-  
nela laburbildu dezakegu:

- A1 eta A2 mailako lanpostuetan, katalanaren C1 maila.
- B mailako lanpostuetarako, katalanaren B2 maila.
- C1 lanpostuetarako, katalanaren C1 maila.
- C2 lanpostuetarako, katalanaren B2 maila.
- Lanbide-taldearen lanpostuetarako, katalanaren B1 maila.

Bestalde, dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen da eska-  
tutako katalanaren ezagutza-maila baino gehiago egiaztatzen bada, meritu  
gisa ere baloratu beharko dela edozein lanpostu-maila eta eskalarako.

Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian, berriz, modu orokorrean  
derrigorrez eskatzen den katalanaren ezagutza-maila baino maila han-  
diagoa eska daitekeela jasotzen da, hori egitea beharrezkoa den kasu  
eta lanpostuetan.

Balear Uharteen kasuan aipagarria da gobernu-aldaketek hizkuntza-  
legeetan izandako eragina. Esaterako, 2011. urtean Balear Uharteen go-  
bernura heldu zenean, Alderdi Popularrak administrazioan lan egiteko  
katalanaren ezagutzaren legezko derrigortasuna kendu zuen. Ondoren,  
2015ean, alderdi aurrerakoien gobernu berriak berriro ezarri zuen ad-  
ministrazioan lan egiteko katalanaren ezagutzaren legezko derrigorta-  
suna. Horrek erakusten digu gaur egun autonomia-erkidego bateko ad-  
ministrazio publikorako sarbiderako berezko hizkuntzaren ezagutza  
derrigortzea borondate politikoaren arabera dela neurri handi ba-

tean, eta ez autonomia-erkidegoaz haratagoko legeek berez debekatu edo behartzen dutelako.

### 8.3 Valentzia

*Valentziako autonomia-erkidegoko estatutuaren* 6. artikuluan xedatzen da Valentziako Erkidegoko berezko hizkuntza valentziera dela, gaztelaniarekin batera bi hizkuntzak direla ofizialak Valentziako Erkidegoan, denek dutela bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta baita valentzieraren irakaskuntza zein irakaskuntza valentzieraz jasotzeko eskubidea ere.

2017an azkenengoz egokitutako *Valentziako Generalitateko Funtzio Publikoaren Ordenamendu eta Kudeaketarako uztailaren 9ko 10/2010 Legean*, osagarren kapituluaren langileen hautapenari buruzko lehenengo atalburuaren 53. artikuluan, administrazio publikorako sarbiderako betekizunak xedatzen dira. Artikuluaren bigarren zatian esaten da hautapen-probak gainditzten dituztenek valentzieraren ezagutza egiaztatu beharko dutela. Bukatzeko, gaineratzen da ezagutza horiek egiaztatu ezin dituzten langileek derrigorrez parte hartu beharko dutela Generalitatearen administrazioak horretarako antolatzen dituen hizkuntza-ikastaroetan.

“Requisits d'accés... Els qui superen les proves selectives acreditaran els seus coneixements de valencià... El personal que no puga acreditar els coneixements esmentats haurà de fer els cursos de perfeccionament que amb aquesta finalitat organitze l'administració de la Generalitat.”

Azkenik, *Valentziako funtzio publikoaren urtarrilaren 13ko 3/2017 Dekretuaren* 20. artikuluan bigarren atalean xedatzen da lanpostu bakoitzari eskatuko zaion valentziera-maila. Hain zuzen ere, A eta B mailako lanpostuei erdiko hizkuntza-maila eskatuko zaie, C mailako lanpostuei oinarrizko hizkuntza-maila, eta lanbide-taldekoei ahozko ezagutzak.

### 8.4 Galizia

*Galiziako autonomia-estatutuaren* 5. artikuluan lehenengo atalean jasotzen da galiziera dela Galiziako berezko hizkuntza, eta bigarren artikuluan esaten da galiziera eta gaztelania direla Galiziako hizkuntza ofizialak eta denek dutela bi hizkuntza horiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Bestalde, *apirilaren 29ko Galiziako Enplegu Publikoaren 2/2015 Legearen* bosgarren atalburuan, langile publikoen kontratazioari buruzkoa den lehenengo kapituluaren 51. artikuluan lehenengo atalean, jasotzen da

---

**Valentzieraren  
ezagutza  
egiaztatu ezin  
duten langileek  
derrigorrez parte  
hartu beharko  
dute  
Generalitatearen  
administrazioak  
horretarako  
antolatzen dituen  
hizkuntza-  
ikastaroetan.**

**Autonomia  
erkidego bateko  
berezko  
hizkuntza modu  
orokorrean  
administrazioako  
sarbiderako  
meritu gisa  
eskatzea  
konstituzioaren  
aldekotzat onartu  
egin zen,  
administrazioak  
zerbitzu-  
hizkuntza  
emateko duen  
derrigortasunean  
oinarrituta**

Galiziako herri-administrazioek bermatu behar dituztela herritarren konstituzio- eta hizkuntza-eskubideak.

“As administracións públicas incluídas no ámbito de aplicación desta lei garantirán os dereitos constitucionais e lingüísticos das persoas, tanto respecto do galego, como lingua propia e oficial de Galicia, coma do castelán, lingua oficial en Galicia.”

Bestalde, artikuluauren bigarren atalean esaten da Galiziako herri-administrazioko lanpostuen sarbiderako hautaketa-probetan galizieraren ezagutza egiaztatzeko proba bat sartu beharko dela, galizieraren ezagutza alde aurretik egiaztatzen ez dutenentzat. Hala ere, gaineratzen du hautaketa-prozesuen deialdietan zehaztuko dela proba horien izaera, eta, kasuan kasu, galizieraren ezagutzaren balorazioa.

## 9. AUZITEGIEN AURREKARIAK

**I**

Euskal Autonomia Erkidegoaren euskararen lege-egoera aztertu eta ulertzeko, ezinbestean auzitegiek utzitako epaiak aztertu beharko ditugu. Izan ere, epai horiek osatu egin dituzte indarrean dagoen legediak utzitako hutsuneak.

Hainbat bide itxi dituzte epai horiek, beste batzuek zabalik dihardutela, eta euskararen normalkuntzan nondik jo adierazi dute neurri handi batean. Horregatik da beharrezkoa epai horiek aztertu eta horien atzean dauden gidalerroak ezagutzea.

Jarraian, Espainiako estatuko auzitegiek azkeneko hamarkadetan ebazitako hainbat epai aztertuko ditugu, azken urteotan ebatzi diren epaiak ere aztertuz. Epaien aukeraketa egin da egitasmoaren aztergaiei loturiko epai esanguratsuenak jasotzeko asmoarekin, edukietan errepikatzen direnak saihestuz.

Esparruari dagokionez, estatu-mailan, autonomia-erkidegoen mailan, zein udal-mailan emandako epaiak aukeratu egin dira, epaitegiek izandako bilakaeraren eta utzitako gidalerroen ikuspegi osatua izateko asmoz.

### 9.1 Auzitegi Konstituzionalaren abuztuaren 5eko 76/1983 epaia

Aztertuko dugun lehenengo epai hau 1983. urtean Autonomia Prozesuaren Harmonizaziorako Lege Organikoaren proiektuaren aurka jarritako helegitearen ingurukoa da, besteak beste, Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak jarri zutena.

Esan dezakegu epai honek hiru ondorio nagusi utzi zituela aztergai dugun berezko hizkuntzen ofizialtasunaren inguruan.

Lehenik, autonomia-erkidego bateko berezko hizkuntza modu orokorrean administrazioarako sarbiderako meritu gisa eskatzea konstituzioaren aldekotzat onartu egin zen, administrazioak zerbitzu-hizkuntza emateko duen derrigortasunean oinarrituta (2. Oinarri Juridikoa).

Bigarrenik, herritarrek aukeratzen duten hizkuntzan zerbitzua emateko administrazioak duen derrigortasunaren ondorioz, berezko hizkuntza ezagutzeko beharra administrazioari ezartzen dio bere osotasunean, eta ez administrazio horren norbanako funtzionarioei (42. Oinarri Juridikoa).

Eta hirugarrenik, epaiak ebatzen du berezko hizkuntzaren ezagutza meritu bezala baloratzea oinarritzen dela berezko hizkuntza erabiltzeko herritarren eskubidea bermatzeko administrazioak duen betebeharrean, eta ez berezko hizkuntzak duen benetako ezarpenean (42. Oinarri Juridikoa).

## **9.2 Auzitegi Gorenaren martxoaren 1eko 14967/1986 epaia**

1982. urtean A Coruña-ko udalak administrazio orokorreko administrari laguntzaileen bost lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia egin zuen. Oposizioan derrigorrezkoak eta baztertzaileak ziren bi itzulpen egin behar ziren, gaztelaniaren eta galizieraren ezagutza neurtzeko. Hain zuzen ere, itzulpen ariketa horren izaera baztertzailea izan zen Estatuko Abokatuak jarritako helegitearen oinarria.

Epaia ebatzi zuen konstituzioaren 3, 103, 139, eta 149 artikuluen urraketa eman zela, besteak beste.

Epaia arabera, funtzionarioen kidegoan berdintasuneko baldintzetan sartzeko espainiarrek duten eskubidea urratu egin zen galizieraren ezagutza eskatzeagatik. Hala ere, administrazioak berezko hizkuntzaren zerbitzua bermatzeko baldin bada, lanpostu jakin batzuetan berezko hizkuntzaren ezagutza derrigorrez eskatzea legekoa dela gaineratu zuen. (5. Oinarri Juridikoa)

Bestalde, gaztelaniaren eta berezko hizkuntzen arteko ofizialtasun-mailaren desberdintasuna ere aldarrikatu zuen auzitegiak: gaztelania izanik espainiarren erkidea den hizkuntza bakarra, berezko hizkuntzak pertsonen arteko komunikazio-tresnak baino ez dira, eta, horregatik, berezko hizkuntzak ezin dira bihurtu herritarren eskubideentzako eta aukerentzako mugak. (5. Oinarri Juridikoa)

---

***Herritarrek  
aukeratzen duten  
hizkuntzan  
zerbitzua  
emateko  
administrazioak  
duen  
derrigortasuna-  
ren ondorioz,  
berezko  
hizkuntza  
ezagutzeko  
beharra  
administrazioari  
ezartzen dio bere  
osotasunean, eta  
ez administrazio  
horren  
norbanako  
funtzionarioei.***

**Hizkuntza  
ofizialen  
erabilera  
bermatzeko  
derrigortasunean  
eta horien  
ezagutza eta  
erabilera babestu  
eta sustatzeko  
beharrean  
oinarrituta,  
epaiak jaso zuen  
legezkoa dela  
euskararen  
ezagutza eskatzea  
zenbait  
funtzionarioen  
lanpostuei, eta,  
oro har,  
funtzionarioen  
lanpostu guztiei  
eskatzea  
hizkuntza  
ofizialen  
ezagutza meritu  
bezala.**

### **9.3 Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 26ko 82/1986 epaia**

1982. urtean Eusko Legebiltzarrak Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko oinarrizko 10/1982 Legea onartu zuen, eta lege horren aurka, Estatuko Abokatuak Auzitegi Konstituzionalean helegitea jarri zuen 1983 urtean.

Aztergaiari loturiko hiru ondorio nagusi utzi zituen epai honek, besteak beste.

Lehenik eta behin, hizkuntzaren ofizialtasunaren gaineko honako definizioa jaso zen: hizkuntza bat ofiziala da gizarte-mailan duen errealitate edo pisua gorabehera, botere publikoek aitortzen dutenean komunikaziorako ohikoa den bitarteko bezala - euren artean eta herritarrekin-, eta balio eta ondorio juridiko guztiak dituenen. (2. Oinarri Juridikoa)

Bigarrenik, epaiak jaso zuen herri-administrazioek eskubidea dutela ko-ofizialak diren bi hizkuntzetatik bat erabiltzeko, hori arautuz gero eta interesdunen eskubideak urratzen ez diren heinean. Espresuki jaso zen prozedura oso bat euskaraz egitea koofizialtasunaren ondorio dela eta eraginkortasunaren printzipioan oinarritzen dela. (9. Oinarri Juridikoa)

Azkenik, hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko derrigortasunean eta horien ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzeko beharrean oinarrituta, epaiak jaso zuen legezkoa dela euskararen ezagutza eskatzea zenbait funtzionarioen lanpostuei, eta, oro har, funtzionarioen lanpostu guztiei eskatzea hizkuntza ofizialen ezagutza meritu bezala; hori bai, diskriminazioa eragin gabe eta Konstituzioaren 14 eta hogeita 33 artikuluetan jasotakoarekin bat eginez. (9. Oinarri Juridikoa)

### **9.4 Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 26ko 84/1986 epaia**

Aurreko epaiarekin batera, besteak beste, Auzitegi Konstituzionalak ekainaren 26ko 84/1986 epaia ere ebatzi zuen.

Epai hau Galiziako hizkuntza normalizazioaren ekainaren 15eko 3/1983ko legeari jarritako helegiteari buruzkoa da.

Epai honetan gaztelaniaren eta bestelako berezko hizkuntza ofizialen arteko ofizialtasun-maila desberdina ebazten da.

Aipatutako legean jaso zen galiziar guztiek zutela galiziera ezagutzeko derrigortasuna, eta auzitegiak konstituzioaren aurkakotzat ebatzi zuen esaldi hori.

Horretarako bi argudio nagusi erabili zituen.

Gaztelania ezagutzearen derrigortasuna honako bi ardatzetan oinarritu zituen epaiak: alde batetik, espainiar guztien hizkuntza erkidea dela, eta, bestetik, bere ezagutza aldarrikatu daitekeela errolda kon-  
tuak gorabehera. Horregatik, ofizialak diren berezko hizkuntzei ezin zaiela ezagutzeko derrigortasunik ezarri ondorioztatu zuen. (2. Oinarri Juridikoa)

Bestalde, gaineratzen du ez dagoela bi hizkuntzen arteko berdintasuna aldarrikatzerik, berdintasunaren konstituzio-oinarria herritarrei dago-  
kielako soilik. (2. Oinarri Juridikoa)

“En cuanto a la argumentación en defensa del precepto impugnado fundada en la igualdad de las dos lenguas oficiales en el territorio de Galicia, pasa por alto que el principio constitucional y estatutario de igualdad se predica de los ciudadanos, y no es discriminatorio respecto de éstos, como vimos antes, la existencia de un deber de conocimiento del castellano y la inexistencia del mismo deber respecto del gallego.”

## **9.5 Auzitegi Konstituzionalaren otsailaren 28ko 46/1991 epaia**

1985. urtean Kataluniako parlamentuak onartutako uztailaren 23ko Ge-  
neralitateko Administrazioaren Funtzio Publikoaren 17/1985 Legearen  
34. artikulua aurka Estatuko Gobernuak helegitea jarri zion.

Aipatutako artikulua jasotzen zuen langile publikoak hautatzean ka-  
talanaren ezagutza egiaztatu behar zela ahoz zein idatziz. Artikuluak  
honela zioen:

“De la selecció de personal

... En el procés de selecció s’ha d’acreditar el coneixement de la llengua catalana, tant en l’expressió oral com en l’escrita.”

Kasu honetan auzitegiak ebatzi zuen artikulua konstituzioaren aldekoa  
zela. Horretarako hiru argudio nagusi eman zituen.

Lehenik eta behin, katalanaren ezagutza Kataluniako herri-administra-  
zioaren barne- funtzionamenduarekin lotzen zuen, eta baita konstitu-  
zioan jasotako gaitasun eta meritua oinarriekin ere. Beraz, katalanaren  
ezagutza beste edozein meritua eta gaitasunekin parekatzen zuen, betiere  
laneko zereginekin loturarik badu. (3. Oinarri Juridikoa)

“No debe entenderse la exigencia de conocimiento del catalán un requisito  
“ad extra”, independiente del mérito y capacidad acreditadas..., en la medida

**Auzitegiak  
katalanaren  
ezagutza beste  
edozein meritua  
eta gaitasunekin  
parekatu zuen,  
baita ere herri-  
administrazioan  
lanean sartzeko  
katalanaren  
ezagutza-maila  
jakin bat  
derrigorrez  
eskatzea zilegi  
zela.**

**Hizkuntza-  
eskakizunaren  
proportzionaltas  
unaren  
printzipioa  
jasotzen du. Hau  
da, eskatzen den  
hizkuntza-maila  
lanpostuaren  
zereginekin  
lotuta egon behar  
du. Bestela,  
administrazio  
publikorako  
sarbiderako  
berdintasun-  
eskubidearen  
kontrakoa izango  
litzatekeelako.**

en que se trata de una capacidad y un mérito que ha de acreditarse y valorarse en relación con la función a desempeñar”

Bigarrenik, herri-administrazioan lanean sartzeko hizkuntza katalanaren ezagutza-maila jakin bat derrigorrez eskatzea zilegi dela argudiatzen du honako bi arrazoiengatik: lehenik, katalanak Katalunian duen izaera ofizialagatik, eta bigarrenik, katalanak duen zabalkuntzagatik Kataluniako Autonomia Erkidego osoan. (3. Oinarri Juridikoa)

Eta azkenik, epaiak hizkuntza-eskakizunaren proportzionaltasunaren printzipioa jasotzen du. Hau da, eskatzen den hizkuntza-maila lanpostuaren zereginekin lotuta egon behar duela. Bestela, administrazio publikorako sarbiderako berdintasun- eskubidearen kontrakoa izango litzatekeelako. (4. Oinarri Juridikoa)

“Cuestión distinta ... es la de la proporcionalidad de esa exigencia... pues sería contrario al derecho a la igualdad en el acceso a la función pública, exigir un nivel de conocimiento del catalán sin relación alguna con la capacidad requerida para desempeñar la función de que se trate.”

## **9.6 Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 18ko 168/2000 epaia**

1988. urtean Tolosako udalak onartu zuen iturgintza, pintura eta igeltserotza ofizialen lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, eta Estatuko Abokatuak helegitea jarri zion.

Auzitegiak ebatzi zuen lan-mota horietarako ezin zela euskararen derrigorrezko ezagutza eskatu, ez zegoelako zereginei lotuta, hau da, iturgintza-, pintura- edo igeltsero-lanak egiteko ez dela nahitaez euskaraz jakin behar. Horregatik, lan horiek egiteko administrazioko lanpostuetara sartzeko euskararen derrigorrezko ezagutza eskatzea diskriminatzailerik dela ebatzi zuen Auzitegi Gorenak epai honetan. (5. Oinarri Juridikoa)

“...ha de llegarse a la conclusión de que sí es discriminatoria la exigencia del conocimiento del euskera como requisito que deben reunir los aspirantes... para dichas plazas —de fontanería, de pintura y de albañilería—..., al no estar dicho conocimiento vinculado al desempeño de las mismas.”

## **9.7 Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 28ko 31/2010 epaia**

2006an Espainiako Kongresuak onartu egin zuen Kataluniako Autonomia Estatutua berritzeko uztailaren 19ko 6/2006 Lege Organikoa.

Espainiako Alderdi Popularrak Auzitegi Konstituzionalean helegitea jarri zion Kataluniako estatutua berritzeko legearen hainbat atali.

Bi eztabaidagai nagusi aztertzen dira epaian aztergai dugun hizkuntzen ofizialtasunaren ikuspuntutik. Lehenengoa, berezko hizkuntzaren erabilerari lehentasuna ematearen ingurukoa, eta bigarrena, berezko hizkuntzaren ezagutza derrigortzearen ingurukoa.

2006ko Kataluniako estatutuaren 6. artikulua lehenengo atalean esaten da, besteak beste, katalana dela Kataluniaren berezko hizkuntza eta, horren ondorioz, Kataluniako herri-administrazioen erabilera normaleko hizkuntza eta lehentasunezko erabilera- hizkuntza dela.

Auzitegiak, lehenik eta behin, erabilera normaleko hizkuntza eta lehentasunezko erabilera-hizkuntza kontzeptuak bereiztu egiten ditu. (14. Oinarri Juridikoa)

“A diferencia de la noción de “normalidad”, el concepto de “preferencia” ... implica la primacía de una lengua sobre otra...”

Gogoratzen du gaztelania ere hizkuntza ofiziala dela Katalunian, eta horren ondorioz, Kataluniako herri-administrazioetako erabilera normaleko hizkuntza dela. Horregatik, ofiziala den hizkuntza bati ofiziala den beste hizkuntzaren gaineko lehentasunik ezin zaiola eman ebazten du. Hortaz, katalanari lehentasunezko erabilera-hizkuntzaren izaera aitortzea konstituzioaren aurkakotzat ebazten du. (14. Oinarri Juridikoa)

“... imponiendo, en definitiva, la prescripción de un uso prioritario de una de ellas, en este caso, del catalán sobre el castellano, en perjuicio del equilibrio inexcusable entre dos lenguas igualmente oficiales y que en ningún caso pueden tener un trato privilegiado.”

Salbuespen moduan, aurreko epaietan jasotakoari jarraituz, hizkuntza bati lehentasuneko izaera emateko aukera dagoela ebazten du, baldin eta helburua bada bi hizkuntza ofizialen arteko oreka lortzea historikoki egondako desorekak zuzentzeko. (14. Oinarri Juridikoa)

“...sin perjuicio, claro está, de la procedencia de que el legislador pueda adoptar, en su caso, las adecuadas y proporcionadas medidas de política lingüística tendentes a corregir, de existir, situaciones históricas de desequilibrio de una de las lenguas oficiales respecto de la otra.”

Bestalde, estatutuaren 6. artikulua bigarren atalean jasotzen da katalanek dutela bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra.

**Ofiziala den  
hizkuntza bati  
ofiziala den beste  
hizkuntzaren  
gaineko  
lehentasunik ezin  
zaiola eman  
ebazten du.  
Salbuespen  
modura,  
hizkuntza bati  
lehentasunezko  
izaera emateko  
aukera dagoela  
ebazten du,  
baldin eta  
helburua bada bi  
hizkuntza  
ofizialen arteko  
oreka lortzea  
historikoki  
egondako  
desorekak  
zuzentzeko.**

**Katalana  
ezagutzeko  
derrigortasun  
hori ulertu behar  
da Kataluniako  
administrazioak  
hezkuntzako eta  
administrazio  
orokorreko bere  
funtzionarioekin  
dituen erlazio  
bereziaren  
esparruan,  
langile publiko  
horiek behartuta  
daudelako  
Kataluniako  
herritarrei  
zerbitzu-  
hizkuntzaren  
aukera  
bermatzeko.**

Auzitegiak, lehenik eta behin, gaztelania ezagutzeko konstituzioak ezarritako derrigortasuna gogorarazten du, eta gaineratzen du konstituzioak ez duela berezko hizkuntzak ezagutzeko derrigortasunik ezartzen, baina ez duela ere ezagutzeko derrigortasun hori debekatzeko. Auzitegiaren azterketaren helburua da, beraz ebatzea estatutu batek berezko hizkuntza ezagutzeko derrigortasuna ezarri dezakeen ala ez. (14.2 Oinarri Juridikoa)

Epai honetan, auzitegiak ebatzen du gaztelania ezagutzeko derrigortasun konstituzionala oinarritzen dela estatuak herritarrekin komunikatzeko duen beharrean eta Kataluniako administrazioek ez dutela katalanera hutsez herritarrekin komunikatzeko konstituzio-eskubiderik. (14.2. Oinarri Juridikoa)

Alabaina, auzitegiak seigarren artikulua bigarren atalean jasotakoaren beste interpretazio bat egiten du. Auzitegiak esaten du katalana ezagutzeko derrigortasun hori ezin dela ulertu Kataluniako herritar guztiek duten derrigortasun bat bezala, baizik eta ulertu behar dela Kataluniako administrazioak hezkuntzako eta administrazio orokorreko bere funtzionarioekin dituen erlazio bereziaren esparruan ezartzen duen betekizun orokor bat bezala; langile publiko horiek behartuta daudelako Kataluniako herritarrei zerbitzu-hizkuntzaren aukera bermatzeko. Horregatik, auzitegiak ebatzi zuen 2006ko Kataluniako estatutuaren seigarren artikulua bigarren atala ez zela konstituzioaren aurkakoa, betiere epaian jasotako interpretazioan; hau da, alde batetik, katalana ezagutzeko derrigortasun horrek modu orokorrean juridikoki exijitua izateko izaerarik ez zuen neurrian, eta, beste alde batetik, katalanaren ezagutzaren derrigortasunak berezko helburu jakin bat zuelako. (14.2 Oinarri Juridikoa)

## **9.8 Auzitegi Konstituzionalaren irailaren 26ko 165/2013 epaia**

2011. urteko Balear Uharteetako hauteskundeetan Alderdi Popularrak gehiengo absolutua lortu eta gobernua osatu zuen. Hurrengo urtean Balear Uharten funtzio publikoaren legea aldatu zuen, eta ordura arte funtzio publikora sartzeko indarrean zegoen katalanaren derrigorrezko ezagutza orokorra kendu egin zuen, meritu gisa mantenduz.

Legearen aldaketa horren aurka helegitea jarri zuten Alderdi Sozialistako berrogeita hamar senatarik Auzitegi Konstituzionalean.

Helegitean salatu zuten lege berriak urratzen zuela, besteak beste, konstituzioak aitortutako katalanaren izaera ofiziala, langile publikoen bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa bermatzen ez zuelako, eta horrek menpekotasun-egoera batean uzten zuela hizkuntza katalana.

Auzitegiaren ustez, alabaina, katalanaren ezagutza derrigorrez ez eskatzeak ez zuen halabeharrez hizkuntza katalana uzten menpekotasun-egoera batean, lege berriak herritarrei bermatzen zielako berezko hizkuntza administrazioarekin erabiltzea, hizkuntza horren derrigorrezko ezagutza ezarrita zuten hainbat posturen bidez. Gaineratu zuen lege berriak jasotzen zuela katalana meritu gisa baloratuko zela, berezko hizkuntzaren ezagutza derrigorrezkoa ez zen postuetan. Horregatik, Balear Uharteetan funtzio publikoaren 2012ko lege berria ez zela konstituzioaren aurkakoa ebatzi zuen. (7. eta 8. Oinarri Juridikoak)

Epai honetan auzitegiak nolabait ebatzi zuen hizkuntza-eskubideak administrazioan bermatzeko konstituzioaren ikuspegitik bi eredu horiek onargarriak zirela (euskal eredia eta eredu katalana, nolabait esateko), eta esparru politikoari dagokiola horien artean aukeratzea. (7. Oinarri Juridikoa)

“En el ámbito de control de constitucionalidad en el que nos encontramos, debemos observar, una vez más, que en un plano hay que situar las decisiones políticas y el enjuiciamiento político que tales decisiones merezcan, y en otro plano distinto la calificación de inconstitucionalidad, que tiene que hacerse con arreglo a criterios estrictamente jurídicos...”

Dena den, lehenago aipatu dugun bezala, 2015eko hauteskundeetan ondoren osaturiko gobernu berriak Balear Uharteetako funtzio publikoaren legea berriro aldatu zuen, eta administrazio publikoko sarbiderako katalanaren derrigorrezko ezagutza orokorra berrezarri zuen.

## **9.9 Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren irailaren 28ko 2876/2015 epaia**

Jarraian, 2013-2017 epealdirako Zarauzko euskara-planaren aurkako epaia aipatuko dugu, eta hizkuntza-irizpideen inguruan esandakoak aztertuko ditugu.

Zarautzko euskara-planaren helburu nagusia da euskararen erabilera udalean indartzea eta zabaltzea, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bezala. Auzitegiak ebatzi zuen helburu hori zilegi zela eta ezin zirela baztertzaitzat hartu euskara sustatu edo indartzea helburu duten planaren atalak, gaztelaniaren ofizialtasunaren izaera eta gaztelaniadunen hizkuntza-eskubideak gutxien ez diren neurrian. Eskubide horiek bermatze aldera hiru egoera ematen zirela jaso zuen. (6. Oinarri Juridikoa).

**Auzitegiak nolabait ebatzi zuen hizkuntza-eskubideak administrazioan bermatzeko, konstituzioaren ikuspegitik bi eredu horiek onargarriak zirela (euskal eredia eta eredu katalana, nolabait esateko), eta esparru politikoari dagokiola horien artean aukeratzea.**

**Auzitegiak  
jarraibide batzuk  
baliogabetu  
zituen  
herritarren  
hizkuntza-  
eskubideak  
urratzen  
zituztelako. Beste  
batzuk, berriz,  
langileen  
hizkuntza-  
eskubideak  
urratzen  
zituztelako.**

Lehena, euskara-planean espresuki aurreikusten dela bi hizkuntza ofizialen ahozko zein idatzizko erabilera, euskarari nolabaiteko lehentasuna ematen bazaio ere.

Bigarrena, hartzaileak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatzen dela.

Eta hirugarrena, euskara sustatzeko neurriek udalaren barne funtzionamenduan eragiten dutela bakarrik, langileen eta herritarren hizkuntza-eskubideak urratu gabe.

“...bien porque afectan al funcionamiento “ad intra” del Ayuntamiento sin menoscabo de los derechos lingüísticos de sus empleados y la ciudadanía...”

Bestalde, epaiak gaineratu zuen zenbait jarraibide baliogabetu behar zirela, gaztelania baztertuz elebitasuna gutxien zutelako.

Horietako batzuk herritarren hizkuntza-eskubideak urratzen zituztelako baliogabetu zituen. Adibidez, honakoa:

“Bileran euskara ulertzeko gai ez diren herritarrak daudenean, bilera euskaraz egingo da eta gaztelerazko laburpenak egingo dira, beti ere aurkezpen-agurrak, azalpen nagusiak eta amaierako laburpena euskaraz direla.”

Beste batzuk, berriz, langileen hizkuntza-eskubideak urratzen zituztelako baliogabetu zituen. Adibidez, honakoa:

“Langile etorri berrientzako protokoloa; ahozko azalpenak, euskaraz egingo dira.”

## **9.10 Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren abenduaren 9ko 772/2015 epaia**

2012 urtean Tarragonako osasun-sistema publikoko mediku funtzionario batek helegitea jarri zion Kataluniako administrazioan katalanaren erabilera lan-hizkuntza moduan sustatzeko bi protokolori. Salatzaileak argudiatu zuen jarraibideek derrigorrezko izaera zutela.

Auzitegiak horietako hainbat jarraibide baliogabetu zituen eta horien artean bi aipatuko ditugu.

Lehenengoan jasotzen da langileen arteko lan-hizkuntza katalana izan behar dela, eta lan-bilerak aipatzen ditu besteak beste. Honela dio:

“La llengua de comunicació entre el personal ha de ser la catalana, tan presencialment com per telèfon, en la megafonia, en les reunions de treball, etc.,

especialment davant de persones usuàries de serveis.”

Auzitegiak legediaren aurkakotzat jo zuen jarraibide hori, auzitegiaren arabera, protokoloak langileei inposatu nahi dielako bi hizkuntza ofizialeko baten erabilera, modu orokorrean eta egoera guztietan, eza-guna den arrazoirik jaso gabe. (6. Oinarri Juridikoa)

“...el protocolo pretende imponer a los profesionales sanitarios...el uso de una sola de ellas...de una forma general y en toda circunstancia, sin justificación conocida”

Bigarrenean telefono-dei guztiak katalanez hasteko beharra jasotzen da. Honela dio:

“Les converses telefòniques sempre s’han d’iniciar en llengua catalana.”

Auzitegiak jarraibide hori baliogabetu zuen jarraibidearen izaera ez-baztertzailagatik, zerbitzuarekin loturiko deiak eta ez loturikoak ez bereizteagatik, alegia. (6. Oinarri Juridikoa)

Jarraian auzitegiak legezkotzat jo zituen beste bi protokolo aipatuko ditugu. Lehenengoak honela dio:

“Pel que fa a les histories clíniques, s’han de redactar normalment en català, tot i que cal tenir en compte el dret dels usuaris de sol·licitar-ne una traducció al castellà.”

Kasu honetan, historia klinikoak normaltasunez katalanez idatzi behar direla jasotzen da, erabiltzaileentzako gaztelaniazko itzulpenak eskuragarri baldin badaude.

Auzitegiarentzat, normaltasunaren kontzeptuak ez du derrigortasunik adierazten eta horren ondorioz bi hizkuntzen ofizialtasunaren esparruan kokatzen du, eta legezkotzat ematen du jarraibidea. (5. Oinarri Juridikoa)

“Toda lengua oficial es... lengua de uso normal por y ante el poder público. También... lo es el castellano por y ante las Administraciones públicas catalanas, que... no pueden tener preferencia por ninguna de las dos lenguas oficiales.”

Arrazoi beragatik, jendaurreko ekitaldietan katalanez normaltasunez aritzea onartzen du auzitegiak honako jarraibidean ere:

“Els representants del sector sanitari públic s’expressaran normalment en català en els actes públics que es facin en l’àmbit lingüístic català, sempre que la intervenció sigui per raó del propi càrrec.”

**Historia  
klinikoak  
normaltasunez  
katalanez idatzi  
behar direla  
jasotzen da,  
erabiltzaileen-  
tzako  
gaztelaniazko  
itzulpenak  
eskuragarri  
baldin badaude.  
Auzitegiarentzat,  
normaltasunaren  
kontzeptuak ez  
du  
derrigortasunik  
adierazten eta  
horren ondorioz  
bi hizkuntzen  
ofizialtasunaren  
esparruan  
kokatzen du.**

**Euskara-planak  
hizkuntzaren  
errekuperazio eta  
sustapen politika  
bat jasotzen du,  
bi hizkuntza  
ofizialen  
berdintasuna  
helburu duena.  
Horregatik,  
legearen  
aldekotzat ebatzi  
zituen euskarari  
lehentasuna  
ematen dioten  
planaren atalak,  
batez ere euren  
funtzioak  
euskaraz  
nagusiki egiten  
dituzten  
euskarazko  
administrazio-  
atalei buruzkoak.**

## **9.11 Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 29ko 238/2017 epaia**

Bukatzeko, epai irmoa ez den arren, aipagarria iruditzen zait azkeneko hilabeteotan puri- purian egon den epai baten azterketarekin amaitzea, hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskararen erabilera-planaren aurka jarritako helegitearen gainekoa. Epaia hau ere, egitasmoaren aztergaien ikuspuntutik aztertuko dugu.

Estatuko Abokatuak helegitean argudiatu zuen euskara-planak euskarari ematen ziola gaztelaniaren gaineko zilegitasunik gabeko lehentasuna. Horren gainean, auzitegiak ebatzi zuen euskara-planak hizkuntzaren errekuperazio eta sustapen politika bat jasotzen duela, gaztelania eta euskararen arteko euskararen kalteko asimetria-egoeratik hasita, bi hizkuntza ofizialen berdintasuna helburu duena. Horregatik, plana bera ezin dela arrazoi horregatik, legez kontratatzat jo, betiere, bi hizkuntzen koofizialtasun-egoera eta gaztelania-hiztunen hizkuntza-eskubideak errespetatzen baditu. (6. Oinarri Juridikoa)

“...aboga por una política lingüística de recuperación y fomento del euskera, tomando como premisa esencial la situación asimétrica del euskera y la búsqueda de una situación de igualdad entre el uso de las dos lenguas oficiales, no lleva de suyo la disconformidad a derecho del Plan de Normalización, empero, siempre que en su proyección en el articulado respete el régimen de cooficialidad y no menoscabe los derechos lingüísticos de los castellanoparlantes”

Horregatik, gaineratzen du legezkotzat jo behar zituela euskararen erabilera sustatzen duten planaren atalak, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen badituzte. Ondorioz, legearen aldekotzat ebatzi zituen euskarari lehentasuna ematen dioten planaren atalak, batez ere euren funtzioak euskaraz nagusiki egiten dituzten euskarazko administrazio-atalei buruzkoak. Atal horien hiru adibide aipatuko ditugu jarraian.

Lehenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara-planaren bigarren artikularen lehenengo atalak, auzitegiak legezkotzat jo zuena, honela dio:

“Euskara eta gaztelania izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiko lan hizkuntza ofizialak. Lehentasunez, euskara izango da Aldundiaren lan hizkuntza, eta baliabideen ekonomia printzipioari jarraituz, euskaraz egin daitekeena euskaraz egingo da.”

Bigarrenik, euskara-planaren bigarren artikularen bigarren atalak, auzitegiak ere legezkotzat jo zuena, honela dio:

“Erabaki honen 23. artikularen arauz euskarazko ataltzat definitzen diren zerbitzuetan euskara izango da laneko hizkuntza nagusia, ahoz nahiz idatziz.”

Azkenik, euskara-planaren laugarren artikulua, auzitegiak ere legezkotzat jo zuena, honela dio:

“Hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz egingo dute lan nagusiki, ahoz nahiz idatziz. Dena den, dokumentu bakoitzaren ezaugarrien arabera erabakiko da zein hizkuntzatan sortu edo bideratu behar den, dokumentuak itzultzeko edo zuzentzeko ezartzen diren baliabideen laguntzaz.”

## 10. ONDORIOAK

Aztertutako araudian ikusi dugu, lehenik eta behin, gaztelaniaren eta euskararen ofizialtasun-maila ezberdina dela Euskal Autonomia Erkidegoan. Bi hizkuntzen ofizialtasunaren ezberdintasun nagusia ezagutzaren derrigortasunean datza; alegia, herritarrek modu orokorrean gaztelania ezagutzera legez derrigortuta dauden bitartean, euskararen ezagutza herritarrei modu orokorrean legez derrigortzea debekatuta dago.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrerako langileak hartzean, euskararen ezagutza ez dela derrigorrezkoa ikusi dugu: zenbait lanpostutan euskararen ezagutza derrigorrezkoa izanik, beste batzutan meritu gisa bakarrik baloratzen baita.

Langile publikoak kontratatzean, indarrean dagoen Espainiako konstituzioak ezartzen du, alde batetik, espainiar guztiek dutela administrazioan berdintasunean sartzeko eskubidea, eta, bestaldetik, administrazioak eraginkortasunez aritu behar duela eta langileak hartu behar dituela meritu eta gaitasun printzipioetan oinarrituta.

Bi indar horien arteko tira-bira horretan, azkeneko hamarkadetan auzitegiek ebatzitako epaietan egon den bilakaera ere ikusi dugu; gaur egun, Espainiako estatuko hainbat autonomia-erkidegotan berezko hizkuntzaren ezagutza modu orokorrean derrigorrezkoa delarik administrazioan sartzeko.

Kontuan izanda, alde batetik, euskaraz lan egiteko gaitasunik ez duten langile publikoak kontratatzea ahalbidetzen duten legeak Eusko Legebiltzarrak xedatutako legeak direla (hala nola Euskararen Legea, edota Euskal Funtzio Publikoaren Legea), eta kontuan izanda, bestetik, berezko hizkuntza duten Espainiako estatuko zenbait autonomia- erkidegotan

---

***Gaur egun,  
Espainiako  
estatuko zenbait  
autonomia-  
erkidegotan  
berezko  
hizkuntzaren  
ezagutza modu  
orokorrean  
derrigorrezkoa  
da  
administrazioan  
sartzeko.***

**Legeak ezartzen  
duen euskara-  
maila egiaztatuta  
duten langileak  
behartuta daude  
herritarrei  
euskarazko  
zerbitzua  
ematera  
herritarrek  
horrela eskatzen  
dutenean;  
derrigortasun-  
data igarota  
duten  
lanpostuetan  
egonik, zein  
derrigortasun-  
datarik ez duten  
lanpostuetan  
egonik ere.**

berezko hizkuntza ezagutzea derrigorrezkoa dela administrazioan sar-  
tzeke, egitasmo honen lehenengo ondorio nagusia da euskal adminis-  
trazioan euskaraz ez dakiten langileak kontratatzea Euskal Autonomia  
Erkidegoaren mailako erabaki politikoa dela, eta ez estatu-mailan in-  
posatutakoa. Beraz, egitasmoaren lehenengo hipotesia ez da egia.

Bestalde, legeetan eta auzitegien epaietan ikusi dugunez, administrazioa  
behartuta dago herritarrei zerbitzua ematera herritarrek aukeratzen  
duen hizkuntza ofizialean. Zerbitzu hori ematearen ardura administra-  
zioarena da, eta zerbitzu hori emateko, hain zuzen ere, administrazioak  
berezko hizkuntza ezagutzen duten langileak kontratatzen ditu, edota  
prestatzen ditu. Berezko hizkuntza ezagutzen duten langileak kontra-  
tatzearen arrazoia da, beraz, berezko hizkuntzan zerbitzua emateko de-  
rrigortasuna, bai hizkuntza hori ezagutzea derrigorrezkoa den lanpos-  
tuen kasuan, bai meritu gisa bakarrik baloratzen den lanpostuen kasuan  
ere. Hori da, hain zuzen ere, egitasmo honen bigarren ondorio nagusia;  
alegia, legeak ezartzen duen euskara-maila egiaztatuta duten langileak  
behartuta daude herritarrei euskarazko zerbitzua ematera herritarrek  
horrela eskatzen dutenean; derrigortasun-data igarota duten lanpos-  
tuetan egonik, zein derrigortasun- datarik ez duten lanpostuetan egonik  
ere. Beraz, egitasmoaren bigarren hipotesia egia da.

Laneko hizkuntzari dagokionean, berriz, indar-orekak korapilatu egiten  
dira eta faktore berriak agertzen dira hizkuntzaren erabileraren derri-  
gortasunaren ekuazioan.

Lehenik eta behin, auzitegiek ebatzi dute lan-hizkuntzaren esparrua  
administrazioaren barruko funtzionamenduari eragin ahalko diola ba-  
karrik, eta lan-hizkuntza bultzatzeko neurriek ezingo dutela herritarren  
hizkuntza-eskubideetan eraginik izan; alegia, herritarren hizkuntza-es-  
kubideak lan-hizkuntzaren inguruko neurrien gainetik daudela.

Bigarrenik, aztertutako epaietan langileen hizkuntza-eskubideak agertu  
dira, nahiz eta hizkuntza ofizialak arautzen dituzten legeetan ez den ai-  
patzen langileen hizkuntza- eskubiderik. Horren adibide argia Zarautzko  
euskara-planaren epaian ikusi dugu, zeinetan debekatu egin den langile  
berrien harrera-protokoloa euskaraz izateko derrigortasuna. Horregatik,  
euskara-planetan bereiztu egin beharko litzateke, lan-hizkuntza esaten  
diogun esparru horren barruan, langileen eskubideei loturiko esparrua;  
horretan ezingo baita euskararen erabilerarik derrigortu.

Hirugarrenik, erabilera normaleko hizkuntzaren eta lehentasunezko  
erabilera- hizkuntzaren kontzeptuak ikusi ditugu. Auzitegiek ebatzi

dute administrazioaren barruan ezingo dela hizkuntza ofizial baten erabilera lehenetsi beste hizkuntza ofizialaren gainean, horregatik lehenetasunezko erabilera kontzeptua legez kanpokotzat ebatzi dute. Aldiz, hizkuntza ofizial baten erabilera normala kontzeptua legearen aldekotzat ebatzi dute, ez duelako ekartzen hizkuntza baten erabileraren nagusikeriarik.

Hala ere, nazioarteko itunetan jasotakoarekin bat, Espainiako auzitegiek egoera horren salbuespen bat ebatzi dute, hain zuzen ere, bi hizkuntza ofizialek bat egoera gutxitu batean dagoenean beste hizkuntza ofizialaren aldean. Kasu horretan badago arauz lehenestea hizkuntza gutxi-tuaren erabilera, horren helburua baldin bada bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna lortzea. Egitasmoan ikusi dugun bezala, auzitegiek onartu egin dute hori dela euskarak duen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan, eta badagoela, beraz, euskararen erabilera lehenestea. Alabaina, orain arte aipatu ditugun mugak ezarri dizkiote auzitegiek euskararen lehentasunezko erabilera horri: herritarren zerbitzu-hizkuntza bermatu behar dutela, langileen hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituztela, eta administrazioaren barruko funtzionamenduari bakarrik eragin ahalko diola.

Muga guzti horiek kontuan izanda, egitasmo honen hirugarren ondorio nagusia da, hain zuzen ere, administrazioan ezin dela modu orokorrean euskararen erabilera lan-hizkuntza moduan derrigortu. Beraz, egitasmoaren hirugarren hipotesia egia da.

Modu orokorrean ezin da euskararen erabilera lan-hizkuntza moduan derrigortu; baina aipatutako ñabardura guztiak aintzat hartuz, esparru honetan euskararen normalkuntzan aurrerapausuak emateko aukera badago. Esate baterako, administrazioak eraginkortasunez jarduteko printzipio konstituzionalean oinarrituta, herritarrek euskaraz hasitako izapideak euskaraz izapidetzekoa. Lan-hizkuntzaren esparruan, honen bestez, sagua eta katuaren jolasean aritzeko aukera paregabea dago. Garaile atera dadila azkarrena!●

## **BIBLIOGRAFIA**

### **Nazio Batuen Erakundeko itunak:**

*“United Nations; Universal Declaration of Human Rights; 1948”.*

*“United Nations; International Covenant on Civil and Political Rights; 1966”.*

*“United Nations; International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights; 1966” “United Nations; Declaration on the Rights of Persons Belonging to National or Ethnic, Religious and Linguistic Minorities; 1992”.*

**Zenbait muga  
ezarri dizkiote  
auzitegiek  
euskararen  
lehentasunezko  
erabilera horri:  
herritarren  
zerbitzu-  
hizkuntza  
bermatu behar  
dutela, langileen  
hizkuntza-  
eskubideak  
bermatu behar  
dituztela, eta  
administrazioare  
n barruko  
funtzionamendua  
ri bakarrik  
eragin ahalko  
diola.**

**Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren itunak:**

“Council of Europe; Convention for the Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms; 1950”.

“Council of Europe; European Charter for Regional or Minority Languages; 1992”.

“Council of Europe; Framework Convention for the Protection of National Minorities; 1994” “European Union; Treaty of Lisbon; 2007”.

**Espainiako estatuko lege organikoak:**

“1978ko Espainiako Konstituzioa”.

“Eusko Herriko Autonomia Estatutoaren 3/1979 abenduaren 18(ko) Lege Organikoa” “Lei Orgánica 1/1981, do 6 de abril, do Estatuto de Autonomía para Galicia”.

“Llei Orgànica 1/2006, de 10 d’abril, de Reforma de la Llei Orgànica 5/1982, d’1 de juliol, d’Estatut d’Autonomia de la Comunitat Valenciana”.

“Llei Orgànica 6/2006, de 19 de juliol, de reforma de l’Estatut d’autonomia de Catalunya” “Llei Orgànica 1/2007, de 28 de febrer, de reforma de l’Estatut d’autonomia de les Illes Balears”.

**Espainiako Gorteen eta gobernuaren legedia:**

“Gorte Nagusiak; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena”.

“Gobierno de España; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público”.

**Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren legedia:**

“Eusko Legebiltzarra; Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa”.

“Eusko Legebiltzarra; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa”.

“Eusko Jaurlaritza; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri- administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena”.

**Kataluniako parlamentuaren eta gobernuaren legedia:**

“Parlament de Catalunya; Llei 17/1985, de 23 juliol, de la funció pública de l’Administració de la Generalitat”.

“Generalitat de Catalunya; Decret legislatiu 1/1997, de 31 d’octubre, pel qual s’aprova la refosa en un text únic dels preceptes de determinats textos legals vigents a Catalunya en matèria de funció pública”.

“Parlament de Catalunya; Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística”.

*“Generalitat de Catalunya; Decret 161/2002, d’11 de juny, sobre l’acreditació del coneixement del català i l’aranès en els processos de selecció de personal i de provisió de llocs de treball de les administracions públiques de Catalunya.”*

**Balear Uharteetako parlamentuaren eta gobernuaren legedia:**

*“Parlament de les Illes Balears; Llei 3/2007, de 27 de març, de la Funció Pública de la Comunitat Autònoma de les Illes Balears”.*

*“Govern de les Illes Balears; Decret 11/2017, de 24 de març, d’exigència del coneixement de la llengua catalana en els procediments selectius d’accés a la funció pública i per ocupar llocs de treball de l’Administració de la Comunitat Autònoma de les Illes Balears”.*

**Valentziako erkidegoko parlamentuaren eta gobernuaren legedia:**

*“Corts Valencianes; Llei 10/2010, de 9 de juliol, de la Generalitat, d’Ordenació i Gestió de la Funció Pública Valenciana”.*

*“Generalitat Valenciana; Decret 3/2017, de 13 de gener, del Consell, pel qual s’aprova el Reglament de selecció, provisió de llocs de treball i mobilitat del personal de la funció pública valenciana”.*

**Galiziako parlamentuaren legedia:**

*“Parlamento de Galicia; Lei 3/1983, do 15 xuño, de normalización lingüística”.*

*“Parlamento de Galicia; Lei 2/2015, do 29 de abril, do emprego público de Galicia”.*

**Espainiako estatuko autonomia-, foru- eta udal-mailako araudia:**

*“Generalitat de Catalunya; Departament de la vicepresidència; Secretaria de política lingüística; Protocol d’usos lingüístics per a la Generalitat de Catalunya i el sector públic que en depèn; 2010”.*

*“Generalitat de Catalunya; Departament de Salut; Serveis Territorials a Tarragona; Protocols d’usos lingüístics per al sector sanitari públic de Catalunya; 2010”.*

*“Zarauzko Udala; Zarauzko Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana. V. Plangintzaldia; 2013”.*

*“Gipuzkoako Foru Aldundia; Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardueraren esparruan 2013-2017 aldirako; 2014”.*

**Espainiako estatuko Auzitegi Konstituzionalaren epaiak:**

*“Tribunal Constitucional; Sentencia 76/1983, de 5 de agosto”.*

*“Tribunal Constitucional; Sentencia 82/1986, de 26 de junio”.*

*“Tribunal Constitucional; Sentencia 84/1986, de 26 de junio”.*

*“Tribunal Constitucional; Sentencia 46/1991, de 28 de febrero”*

*“Tribunal Constitucional; Sentencia 31/2010, de 28 de junio”.*

*“Tribunal Constitucional; Sentencia 165/2013, de 26 de septiembre”.*

**Espainiako estatuko Auzitegi Gorenaren epaiak:**

*“Tribunal Supremo; Sentencia 14967/1986, de 1 de marzo”.*

*“Tribunal Supremo; Sentencia 168/2000, de 18 de enero”.*

**Espainiako estatuko Justizia Auzitegi Nagusien epaiak:**

*“Tribunal Superior de Justicia del País Vasco; Sentencia 2876/2015, de 28 de septiembre”.*

*“Tribunal Superior de Justicia de Cataluña; Sentencia 772/2015, de 9 de diciembre”.*

*“Tribunal Superior de Justicia del País Vasco; Sentencia 238/2017, de 29 de mayo”.*

**Bestelako ikerketak:**

*“Siaceco; Estudio Cualitativo sobre los Perfiles Lingüísticos; 2013”.*

# ARGIA



**Zer emateko  
prest zaude?**

**Eta zer jaso  
nahi duzu?**

## **INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA**

**EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA**

# 3

## Euskarazko hedabideen kontsumoa Tolosaldean

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien X. Edizioko  
**HIRUGARREN SARIA (2017)**

**Garikoitz Goikoetxea Etxeberria**

*Kazetaria*

goikoetxea.garikoitz@gmail.com

Sarrera-data: 2017-11-10 / Onartze-data: 2017-12-01

**Laburpena.** Euskarazko komunikabideek Tolosaldean (Gipuzkoa) duten egoera aztertzea du helburu lan honek. Eskualde horrek du, hain justu, euskal hedabideen eskaintza oparoenetakoa: hedabide nazionalen eskaintza osoarekin batera, baditu tokiko prentsa, irratia eta telebista ere. Euskara osasuntsuen dagoen eskualdeetako bat ere bada. Aurrerapausoak emateko oinarria badago, hortaz. Baina zein da benetako egoera? Euskararen egoerak eta hedabideen eskaintzak nolako eragina dute kontsumoan? Gisa horretako galderak dira azterketaren abiapuntua. Beraz, asmoa da euskarazko hedabideen kontsumoaren argazki ahalik eta osatuena egitea, hori bera lagungarri izango delakoan gaia gogoetara eramateko eta kontsumoa igotzeko bidea jartzeko. Bereziki gazteen kontsumoa aztertu da: izan ere, haiena da adin talderik euskaldunena, baina, askotan, modu ezkorrean hitz egiten da haiei buruz. • **Hitz gakoak:** *euskara, euskal hedabideak, komunikazioa, kontsumoa, Tolosaldea.*

**Abstract.** This paper aims to analyse the situation of Basque language media in Tolosaldea (Gipuzkoa). This region has one of the richest and most varied offers of Basque language media, since in addition to all the national media, it also has local newspapers and radio and television stations. It is also a region in which the Basque language is thriving. Consequently, it meets all the criteria for making headway in this field. But what is the real situation? To what extent do the situation of the Basque language in general and the presence of Basque media influence consumption? Questions such as these form the starting point of this piece of research. Therefore, the aim was to present an as accurate as possible snapshot of the situation regarding Basque media consumption, in the belief that this will be useful for analysing the situation and establishing initiatives designed to increase consumption. Particular attention was paid to consumption among young people, not only because this age group has the highest number of Basque speakers, but also because it is a group which is often referred to in pessimistic terms. • **Key words:** *Basque language, Basque media, communication, consumption, Tolosaldea.*

## SARRERA: OLATUARI BEGIRA

**I** Aldaketa hotsetan murgilduta darama euskalgintzak azken denbora. Batetik, aldatzen ari da argazki soziolinguistikoa: ezagutza aurrerapen handia egiten ari da euskara, batez ere gazteen artean, eskolak eraginda, eta beste panorama bat zabaltzen ari da. Bestetik, aldaketa politiko, ekonomiko eta sozial handiak izan dira azken urteetan, eta arlo soziolinguistikoa ere badu eragina horrek. Gero eta gehiago ari dira ziklo aldaketa iragartzen eta nabaritzen. Bidegurutzea.

Aldaketa hotsak gero eta ozenagoak dira komunikazioaren esparruan ere. Internetek aldaketa handia ekarri du esparru horretara: bai hedabideen euren jardunera, bai kontsumo ohituretara. Interneten goraldiak kolokan jarri du komunikabideen negozio eredu tradizionala, orain arte ez baitute biderik asmatu kontsumo horri etekin ekonomikoa ateratzeko. Euskarazko hedabideei ere eragin die sarearen goraldiak: herritar gehiagorengana iristeko bidea zabaldu die, baina ezegonkortasuna ekarri du lehen ere estu zebiltzan proiektuetara. Saihetsezina izango da, hala ere, Interneten goraldia. Ziklo aldaketa nabari da hedabideen esparruan ere. Bidegurutzea.

Bi bidegurutze horiek gurutzatzea da azterlan honen helburua. Euskara aurreratuen dagoen eskualde bat du aztergai: Tolosaldea. Euskaldunen indizea %79koa du<sup>1</sup>. Hor badago zoru bat. Euskarazko hedabideetan ere pausoak eman dituzte: badute egunerokoa, badute telebista, badute irrati. Hori dena, proiektu nazionalekin batera. Eskaintza osatuena duen eskualdea da. Badago zoru bat. Kontua da olatuak datozela zoru horren gainera: arlo soziolinguistikoa, Tolosaldean adin tarte batzuetan iristear dira %100eko ezagutzara; hedabideen arloan, aldaketa handiak ari dira izaten. Olatua: edo gain hartzeko aprobetxatu eta aurrera egin, edo azpian ito.

Euskara biziberritzeko bidean hedabideen rola funtsezkoa dela behin eta berriz errepikatu dute. 2016ko inkesta soziolinguistikoaren eta kaleko erabileraren neurketaren emaitzen ondoren, erabilerarekin kezkatuta, eragile batek baino gehiagok aipatu zuen komunikabideen rola: euskara eskolan ikasi duten belaunaldi gazteak euskarazko mundura gerturatzeko ate baitira. Eusko Jaurlaritzak 2013-2016rako egindako Euskararen Agenda Estrategikoak ere hala dio:

“Euskarazko hedabideen sektore sendo bat izatea giltzarria da euskararen erabilera bultzatzeko eta hizkuntzari berari prestigioa emateko”.

---

***Erabilerarekin  
kezkatuta, eragile  
batek baino  
gehiagok aipatu  
zuen  
komunikabideen  
rola, euskara  
eskolan ikasi  
duten belaunaldi  
gazteak  
euskarazko  
mundura  
gerturatzeko ate  
baitira.***

Adierazgarria da, baita ere, EAEko euskararen legeak eta Nafarroakoak, biek, aipatzen dutela euskarazko hedabideen funtzioa. Euskara biziberritzeko bidean esparru garrantzitsua da, beraz, txosten honetako aztergaia.

## **1. TOLOSALDEA: SALTO BATERAKO AUKERA**

**I** Gipuzkoa barnealdeko eskualde bat du oinarri euskal hedabideen kontsumoari buruzko azterketa honek: Tolosaldea. 28 udalerri osatzen dute eskualdea, eta Tolosa da eskualde buru; badira azpieskualde gisako banaketak ere, beren erreferentziako herriekin —Alegia, Anoeta, Ibarra eta Villabona-Amasa—. Antolaketa ondo errotua duen eskualdea da, beraz, Tolosaldea.

Zertan da euskara? Eskualdeko herritar gehienek badakite euskaraz. Alde horretatik, euskarak osasun onena duen eskualdeetako bat da Tolosaldea. Datu orokorrak ematearren: euskararen ezagutza indizea %79 da —herritarren %71 euskaldunak dira, eta beste %15, ia euskaldunak—<sup>2</sup>. Izatez, eskualdeko 28 herriek dute %70etik gorako ezagutza indizea; bestela esanda, udalerri guztiek betetzen dute Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko baldintza.

Zenbaki horien azpian, hala ere, oso errealitate desberdinak daude Tolosaldean. Euskal Herri osoan gertatzen ari den joera nabari da eskualdean, bere neurrian. Batetik, behera egiten ari da ezagutza arnasguneetan, euskara nagusi den herrietan. Adierazgarria da, adibidez, eskualdeko 28 herrietatik 23tan jaitsi egin dela euskaraz dakitenen portzentajea 1986tik 2011ra. Ezagutzak behera egin du, euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajeak ere bai, eta, hortaz, erabilerak ere bai. Oso jaitsiera nabarmenak daude, gainera: hogeitunetik gorako behe-rakada zortzi herritan. Kezka zabalduta da joera horrekin, eta Tolosaldean nabari da arnasguneen norabidea.

Bestetik, ordea, euskara ahulago zegoen tokietan gorantz ari da: portzentajea euskaldun gehiago dago Anoetan, Ibarra, Tolosan, Villabona-Amasan eta Zizurkilan. Eskualdeburuan, Tolosan, etxeko erabilera ere igo da. Kontuan hartzekoa da, gainera, euskara aurrera egiten ari den herriak eskualdeko handienak direla, eta, hortaz, datu orokorrean pisu handia daukatela.

Hurrengo taulan ikus daiteke euskarak nolako bilakaera izan duen Tolosaldean 1986tik 2011ra:

1. taula. Euskararen eboluzioa Tolosaldeko udalerrietan.

|                 | Biztanleria |       |         | Euskaldunak (%) |      |       | Euskara lehen hizkuntza (%) |      |       | Etxeko erabilera (%) |      |       |
|-----------------|-------------|-------|---------|-----------------|------|-------|-----------------------------|------|-------|----------------------|------|-------|
|                 | 1986        | 2011  | Aldea % | 1986            | 2011 | Aldea | 1986                        | 2011 | Aldea | 1991                 | 2011 | Aldea |
| Abaltzisketa    | 290         | 316   | 9       | 99,7            | 94,1 | -5,5  | 99,3                        | 90,5 | -8,8  | 97,5                 | 86,9 | -10,6 |
| Aduna           | 351         | 446   | 27,1    | 93,8            | 86,4 | -7,4  | 91,2                        | 78,1 | -13,1 | 95,6                 | 73,1 | -22,5 |
| Albiztur        | 316         | 293   | -7,3    | 100             | 92,1 | -7,9  | 100                         | 84,5 | -15,5 | 99,7                 | 82,4 | -17,3 |
| Alegia          | 1677        | 1790  | 6,7     | 84,4            | 76,7 | -7,6  | 77,1                        | 65,4 | -11,7 | 73,8                 | 58,2 | -15,6 |
| Alkiza          | 266         | 352   | 32,3    | 95,8            | 88,5 | -7,3  | 93,1                        | 76,3 | -16,8 | 93,4                 | 73,7 | -19,7 |
| Altzo           | 338         | 354   | 4,7     | 99,7            | 86,6 | -13,1 | 98,8                        | 79,4 | -19,4 | 93,6                 | 72,1 | -21,5 |
| Amesketa        | 1110        | 951   | -14,3   | 97,9            | 91,9 | -6    | 97,1                        | 86,1 | -11   | 94,8                 | 81,3 | -13,5 |
| Anoeta          | 1899        | 1836  | -3,3    | 63,1            | 71,2 | 8,1   | 56,2                        | 55,9 | -0,3  | 51,2                 | 46,7 | -4,5  |
| Asteasu         | 1284        | 1495  | 16,4    | 84,7            | 80   | -4,7  | 83,3                        | 69,9 | -13,3 | 78,3                 | 63,5 | -14,8 |
| Baliarrain      | 99          | 125   | 26,3    | 100             | 95,8 | -4,2  | 100                         | 87,4 | -12,6 | 100                  | 85,7 | -14,3 |
| Belauntza       | 312         | 298   | -4,5    | 91,1            | 79,4 | -11,7 | 87,8                        | 71,5 | -16,3 | 76                   | 65,3 | -10,7 |
| Berastegi       | 958         | 1042  | 8,8     | 96,7            | 87,9 | -8,8  | 96,7                        | 80,8 | -15,9 | 93,9                 | 73,5 | -20,4 |
| Berrobi         | 594         | 578   | -2,7    | 80,5            | 77,5 | -3    | 77,8                        | 65,9 | -11,9 | 73,1                 | 56,3 | -16,8 |
| Bidania-Goiatz  | 498         | 534   | 7,2     | 96,7            | 87,4 | -9,3  | 95,5                        | 76,3 | -19,2 | 91                   | 64,4 | -26,6 |
| Elduain         | 263         | 233   | -11,4   | 98,8            | 91,4 | -7,4  | 94,6                        | 82   | -12,6 | 99,1                 | 78,4 | -20,7 |
| Gaztelu         | 144         | 171   | 18,8    | 98,5            | 92,6 | -5,9  | 97,8                        | 85,3 | -12,5 | 94,8                 | 79,8 | -15   |
| Hernialde       | 286         | 353   | 23,4    | 86,2            | 81,8 | -4,3  | 85,1                        | 66,6 | -18,5 | 78,7                 | 58,2 | -20,5 |
| Ibarra          | 4570        | 4229  | -7,5    | 60,9            | 65,1 | 4,2   | 56,8                        | 51,5 | -5,3  | 48,8                 | 40,2 | -8,6  |
| Ikaztegieta     | 389         | 467   | 20,1    | 91,8            | 79,1 | -12,7 | 92,2                        | 67,8 | -24,4 | 83,9                 | 64,4 | -19,5 |
| Irura           | 655         | 1610  | 145,8   | 78,6            | 72,8 | -5,8  | 76,4                        | 55,5 | -20,9 | 58,4                 | 47,3 | -11,1 |
| Larraul         | 164         | 249   | 51,8    | 98,1            | 85,8 | -12,3 | 96,9                        | 77,4 | -19,5 | 96,4                 | 71,5 | -24,9 |
| Leaburu         | 447         | 383   | -14,3   | 93,1            | 81,5 | -11,6 | 90,8                        | 72,9 | -17,9 | 78                   | 64,1 | -13,9 |
| Lizartza        | 732         | 649   | -11,3   | 97,4            | 82,3 | -15,1 | 96,1                        | 69,5 | -26,6 | 93                   | 69,3 | -23,7 |
| Orendain        | 170         | 177   | 4,1     | 98,9            | 89,3 | -9,6  | 97,8                        | 82,1 | -15,7 | 89,2                 | 75   | -14,2 |
| Orexa           | 83          | 114   | 37,3    | 100             | 95,3 | -4,7  | 100                         | 89,7 | -10,3 | 100                  | 89,5 | -10,5 |
| Tolosa          | 18399       | 18352 | -0,3    | 56              | 66,1 | 10,1  | 50,6                        | 51,5 | 0,8   | 31,2                 | 37,3 | 6,1   |
| Villabona-Amasa | 5310        | 5782  | 8,9     | 65,3            | 66,5 | 1,2   | 60,8                        | 50,2 | -10,6 | 48,2                 | 41,7 | -6,5  |
| Zizurkil        | 2751        | 2822  | 2,6     | 54,7            | 67,7 | 12,9  | 50,7                        | 48   | -2,7  | 47,6                 | 41,9 | -5,7  |


Igoera      Jaitsiera, 0-10 puntu      Jaitsiera, 10-20 puntu      Jaitsiera, 20tik gora

Egileak prestatua, 1986ko eta 2011ko mapa soziolinguistikoekin. Iturria: Eustat

Indarguneak badaudela bistakoa da, nahiz eta arnaguneen jaitsiera kezka iturri handia izan. Hezkuntzak pisu handia du, eta baldintza optimoak daude: D eredia bakarrik dago hezkuntza orokorrean. Hots, salbuespenak salbuespen, eskualdeko ume guztiak euskaraz eskolatzen dira. Ezagutza adinaren arabera aztertuta, bistakoa da: ume eta gazte-txoen artean ia unibertsala da.

**Izatez, badute  
tradizioa euskal  
hedabideek  
Tolosaldean.  
1991ko  
maiatzean  
argitaratu zuen  
lehen zenbakia  
Galtzaundi  
aldizkariak.**

1. grafikoa: Euskararen ezagutza adin taldeka (Tolosaldea, 2011)



Egileak prestatua, 2011ko mapa soziolinguistikoarekin. Iturria: Eustat.

Ezagutzaren argazkia irauli egin da: 1981ean, izan ere, adinekoak ziren euskaldunenak. Adin gazteetako unibertsalizazio horrek ateak zabaltzen ditu euskararen erabilera indartzeko; ume eta gazteen arloko egitasmoak defektuz euskaraz izateko aukera betea dago Tolosaldean. Ezagutzaren goraldi hori, ordea, testuinguruan ikusi behar da: jaiotza tasa txikia oztopo da ezagutza datu orokorrak gehiago igotzeko. Ezagutzan horrelako mailetara iritsita, beraz, erabileran dago giltza: ia erabat euskalduntutako adin taldeek zer jokabide hartuko duten.

Aldaketa sozialak tentuz zaindu beharrekoak izango dira. Adibidez, biztanle mugimenduak, arnasmuguneetan eragin handia dutenak. Eskualdeko 28 herrietatik 21etan, herritarren erdiak baino gehiago dira herritik kanpo jaioak —Tolosan, erdiak—. Espainian jaioak dira herritarren %8, eta %5, Espainia ez den beste herrialde batean. Gaindegia datuak dira (2014)<sup>3</sup>

Komunikabide sarea osatua dago eskualdean. Izatez, badute tradizioa euskal hedabideek Tolosaldean. 1991ko maiatzean argitaratu zuen lehen zenbakia *Galtzaundi* aldizkariak. Idatzizko komunikabideen arloan, beste urrats bat 2001eko abenduan iritsi zen: *Tolosaldean Egunero*-ren lehen zenbakia argitaratu zuten. 2003ko otsailaren 20an argitaratu zuen azken zenbakia *Tolosaldean Egunero*-k. Egun hartan itxi zuen Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria*, eta haren lekua hartu zuen *Egunero*-ren izena zeraman kazetak. 2003ko ekainean, *Berria* egunkaria sortuta, *Tolosaldeko Hitza* izena hartu zuen proiektu hark. Beste bi egitasmo ere izan dira eskualdean: irratian, Txolarre sortu zuten 2000ko abenduan;

telebistan, 28 Kanala, 2006an. Izan dira aldaketa batzuk harrezkero, eta konbergentzia bide bat ere bai. Hau da oraingo egoera:

- *Tolosaldeko Ataria*. 2013an elkar hartu zuten *Tolosaldeko Hitza*-k, *Galtzaundi*-k eta *Txolarrek*, eta *Tolosaldeko Ataria* sortu zuten. Aitzindaritzat hartu dute proiektua euskal hedabideen esparruan. Batetik, papereko eskaintza dauka —zortzi orriko egunerokoa asteartetik ostegunera, eta 32 orriko astekaria ostiraletan—; bestetik, irratia; eta jardun etengabea Interneten. Elkartu izanak abantaila ekarri die alde ekonomikotik —gastu txikiagoak eta sarrera handiagoak—, eta marka bateratuak ikusgarritasun handiagoa du.
- 28 Kanala. Konbergentzia horretatik at geratu zen telebista, eta bere bidean ari da lanean, nahiz eta lankidetzan aritzen den *Ataria*-rekin. 2006ko urrian hasi zuen emisioa. Infosare taldeko kide da. 28 Irratia musika irratia ere badu, ez duena programa zehatzik.

Beste tokiko hedabide bat ere bada Tolosaldean: *Aiurri*. Beterriko komunikabidea da, eta, Tolosaldeari dagokionez, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona-Amasa eta Zizurkil hartzen ditu. Eskualdetik kanpoko herriak ere baditu —Andoain eta Urnieta—, eta lan honetatik at utzi da.

## 2. AUDIENTZIAK: NEURTZEKO HURBILKETA BAT

I

Euskarazko komunikabide eskaintzaren zabalkundea aztertzea da lan honen helburua. Nolako audientzia duten aztertzea, euskararen ikuspegitik. Bide hauek erabiliko dira:

- **CIESen inkestak**. Hedabideen audientziari buruzko inkesta hedatuena da, eta eskualdeka ere ematen ditu datuak. Tolosaldekoak erabiliko dira, eta, alderaketak egiteko, beste eskualde batzuetakoak. Urtean bitan egiten du audientziari buruzko inkesta CIESek, eta 900-1.300 inkesta egiten ditu herrialde bakoitzean aldiro. 2016ko datuak erabiliko dira.
- **Inkesta**. Azterketa honetarako propio prestatutako inkesta bat egin da Tolosaldean Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ematen duten bost ikastetxeetan: Batxilergoan, Orixe, Laskorain eta Herrikide ikastetxeetan; Erdi Mailako Lanbide Heziketan, Inmakulada eta Tolosaldea zentroetan. Lehen mailako ikasleekin egin da inkesta. 366 galdetegi guztira.
- **Behaketa**. Komunikabideen ikusgarritasuna aztertze aldera, eskualdeko tabernen lagin esanguratsu bat behatu da: 58 taberna hogei herritan. Papereko zer hedabide dauden aztertu da.

- **Bestelakoak.** Hedabideei buruzko beste datu batzuk ere badaude lan honetako iturrien artean. Besteak beste, *Berrria* egunkariaren harpidedunen herriz herriko datuak. Beste ikerketa batzuk ere bai —amaierako bibliografian zerrendatuta daude denak—.

Ohar bat, datuetan sartu aurretik. Audientziari buruzko ikerketek beti uzten dute zalantzarako tartea euskarazko hedabideen kasuan eta eskualde mailan, lagina dela eta. Bestetik, kontsumo aldaketak. *Pastilla erako* kontsumoa indartzen ari da sarean: interesgarri zaionari heldzen dio kontsumitzaileak, hedabide batean eta bestean. Kopuruaz gain, audientziaren sakontasuna ere aintzat hartu beharko da, beraz.

Audientziak aztertzean kontuan izan behar da zenbatekoa den publiko potentziala. Eskualdean zenbatekoa den, ez dago horri buruzko ikerketarik. Gogoan izatekoa da, adibidez, 2015ean Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketan<sup>4</sup> azaleratutakoa. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako eremu euskaldunean eta mistoan egin zuten neurketa; haren arabera, 690.250 herritar dira euskarazko hedabideen publiko potentziala —16 urtetik gorakoak—. Elebidun guztiak zenbatu zituzten, eta, euskaldun hartzaileen kasuan, galdetu zieten ea gai diren euskarazko irrati edo telebista saio bat “ondo edo nahiko ondo” jarraitzeko, edo euskarazko aldizkari bat “ondo” ulertzeko; euskaldun hartzaileei eman zieten laginaren %6. Formula bera eskualdean aplikatuta, 27.088 lagunekoa litzateke publiko potentziala.


Hedabidetik hedabidera publiko potentziala ezberdina dela pentsa liteke. Jaurlaritzaren inkesta hartuta, hona lau komunikabideren arteko konparazio bat: *Berrria*, eskualdeetako *Hitza*-k, Euskadi Irratia eta ETB1. Lauren kasuan, audientziaren gehiengoak euskara du lehen hizkuntza, eta eroso egiten du euskaraz. Irakurtzeko gaitasunean dago aldea. Euskadi Irratiaren entzuleen eta ETB1en ikus-entzuleen %54k errazago irakurtzen dute gaztelaniaz, eta %17k euskaraz. *Berrria*-ren kasuan, gehienek euskaraz aise irakurtzen dute —gaztelaniaz bezala edo errazago—: %69k. *Hitza*-renean, %56k irakurtzen dute euskaraz gaztelaniaz bezain eroso edo erosoago. Uste liteke, beraz, badela euskaldun multzo zabal bat ikus-entzutekoetan euskarazko hedabideak kontsumitzen dituen, baina gaitasun aldetik zailtasuna duena irakurtzeko hedabideetara jotzeko. Gainera, faktore horretatik harago, hedabide bakoitzak kontsumitzaile potentzialen kopuru ezberdina du. Hala diote ikerketa ugari<sup>5</sup>: “Idatzizkoek, irratiek eta telebistek ezaugarri ezberdinak dituzte eta ondorioz telebistak du publiko potentzial handiena, gero irratia eta azkenik idatzizko prentsak [...]. Eta joera hau seguruenik nabarmenagoa da hizkuntza gutxituetan”.

### 3. PAPERREKO HEDABIDEAK

#### I

Lehentxeago aipatu den gisan, papereko hedabideek dauzkate audientzia baxuenak. CIESen arabera, Tolosaldeko herritarren erdiek baino gutxiagoak kontsumitzen dituzte irakurtzeko komunikabideak: %48,9k. Oso nabarmena da *Diario Vasco* egunkariaren nagusitasuna, baina kontuan hartzekoa da eskualdeko euskarazko egunkaria dela bigarrena zerrendan, *Ataria*.


2. grafikoa: Papereko hedabideen audientzia, milakotan (Tolosaldea, 2016).



Iturria: CIES.

Testuinguruan jartzeko, bi alderaketa egingo dira: batetik, kontsumo datuen portzentajeak Gipuzkoako zenbakiekin, eta, bestetik, Urola Kostakoekin, eskualde horrek Tolosaldekoaren gisako hizkuntza egoera eta hedabide eskaintza duelako.

3. grafikoa: Papereko hedabideen audientzia, %tan (Tolosaldea, Urola Kosta, Gipuzkoa, 2016).



Iturria: CIES.


Konparazio horretatik atera litekeen ondorioa, hain justu, zera da: antzekotasun handia dutela hiru eremuek. *Diario Vasco*-ren nagusitasuna bistakoa da. Nahiz eta Tolosaldean euskaldunen portzentajea handiagoa izan Gipuzkoan baino, ez dago diferentzia adierazgarriarik herrialdeko datuen eta eskualdekoen artean. *Hitza/Ataria*-ren kasuan, bai; kontuan izan behar da eguneroko hori ez dela Gipuzkoa osoan hedatzen, eta, beraz, Gipuzkoako datua ezin dela hartu bere hutsean —Tolosaldean, Urola Kostan eta Goierrin antzeko hedapena du *Hitza*-k: %20tik gora—.

Herrialdeko audientzia datuak adin taldeka aztertzen badira, alde bistakoak daude batetik bestera: irakurle gazteagoak dituzte euskal hedabideek. *Berria*-ren kasuan, 55 urtetik gorakoak irakurleen %35,8 dira; *Hitza*-renean, %34,8. *Diario Vasco*-k irakurleen %50,3 ditu 55 urte baino zaharragoak, eta *Gara*-k, %52,2. Alderantzizkoa 34 urtetik behera: adin hori baino gazteagoak dira *Berria*-ren irakurleen %27,7 eta *Hitza*-renen %25,9; *Diario Vasco*-ren kasuan, baina, %15,1 dira. *Marca*-k ditu irakurle gazteenak: haren kontsumitzaileen %46,3k dauzkate 34 urte edo gutxiago.

Zenbakien argitan, bistakoa da euskaldunen kopuru handi batek erdarazko komunikabideetara jotzen duela. Gipuzkoako datuak oinarri —hiztunen

araberako daturik ez dago eskualdeka—, hona hemen euskaldun osoen hedabide kontsumoa papereko komunikabideen esparruan:

4. grafikoa: Papereko hedabideen audientzia, euskaldun osoak<sup>6</sup> hartuta (Gipuzkoa, 2016).



Iturria: CIES.

Gipuzkoako audientzia orokorraren joera errepikatu egiten da euskaldun osoak soilik hartzean: *Diario Vasco*-ren nagusitasuna handia da, baina *Hitza/Ataria* bigarren postuan dago —gogoan izan ez dela herrialde osora hedatzen—. *Berria* laugarren dago Gipuzkoako euskaldunen artean. Alderantziz ere egin daiteke ariketa: hedabide bakoitzaren audientziaren hizkuntza ezagutza zein den. *Diario Vasco*-ren irakurleen %43,7 euskaldun osoak dira, eta euskara ulertzen ez dutenak, %17,9. *Gara*-ren irakurleen %81,8 dira euskaldun osoak; *Noticias de Gipuzkoa*-renak, %63.

Tolosaldera itzulita, gainerako eskualdeetan baino irakurle portzentaje handiagoa dute euskal hedabideek. *Berria*-k, adibidez: CIESen datuen arabera, eskualde horretan du batez besteko audientziarik handiena Gipuzkoan, %9,7koa. Hori berresten dute *Berria*-ren harpidetza datuek<sup>7</sup>: Tolosaldean du proportziorik handiena. Harpidetza bat 67 euskalduneko. Urola Kostan eta Donostialdean 71 euskalduneko du; Goierrian, 72 euskalduneko. Gipuzkoako beste eskualdeak atzerago daude. Arabako eta Bizkaiko datuak eskualdeka aztertuta ere, Tolosaldean ageri da ratorik onena. Bizkaian, Lea Artibain daukate ratio onena: harpidedun bat 95 euskalduneko.

Eskualdez eskualdeko datu azterketatik joera bat sumatu liteke: euskaldunen dentsitateak eragina du harpidetzen kopuruan. Euskaldunak %60 baino gehiago diren eskualdeetan daude ratio baxuenak, harpidedun bat dute 100 euskaldun baino gutxiagoko —Busturialdea da sal-


**Zenbakien argitan, bistakoa da euskaldunen kopuru handi batek erdarazko komunikabide-etara jotzen duela.**

buespena, hortik gorako ratioarekin—; euskaldunen dentsitatea hortik beherakoa denean, berriz, ratioa nabarmen handiagoa da —Donostialdea da salbuespen bakarra: euskaldunak %44 dira, eta *Berria*-k harpidedun bat du 71 euskalduneko; Oiartzualdea eta Beterri tartean daude—.

Kalkulu horiek guztiak euskaldunen kopuruak eta portzentajeak aintzat hartuz egin dira, baina, berez, etxe euskaldunen arabera kalkulatu beharko litzateke, pentsaezina baita etxe batean egunkari beraren harpidetza bat baino gehiago izatea. Gainera, familia tipologiari ere begiratu behar zaio, nekez erosiko baita gainerako etxekideek ulertzen ez duten egunkari bat.

Ikastetxeetan egindako inkestak baieztatu egin du *Diario Vasco*-ren nagusitasuna, baina, euskarazko komunikabideen kontsumoa aztertzeko prestatu denez, beste datu batzuk ere jaso dira. Lehenik, gazteen kontsumoa eta etxean zein egunkari duten, bi aldagaiak alderatu dira.

**5. grafikoa: Papereko hedabideen audientzia: etxeko egunkaria eta gazteek irakurria (Tolosaldea, 2017).**



Iturria: Egilearen inkesta.

Egunkarien arteko alderaketetan sartu aurretik, berrespen bat: gurasoena baino kontsumo txikixeagoa da gazteena. Edonon egunkaria irakurtzen dutenak baino gehixeago dira etxean egunkari bat edukitzen dutenak. Hiru gaztetik bik adierazi dute egunkariak irakurtzen dituztela.


*Diario Vasco*-k Tolosaldeko etxeetan duen nagusitasuna erakutsi dute datuek: ikasleen erdiek etxean daukate egunkari hori. Gazteen kontsumoan, ordea, indar handia galtzen du kazetak: %53 etxetan dago, baina %31 gaztek irakurtzen dute. Lehen postuan dago, hala ere. Baina ozta-ozta. *Ataria*-ren kasuan, izan ere, etxean egunkaria izaten dutenak baino

gehiago dira hura irakurtzen duten gazteak. %27k dute etxean, eta %30ek irakurtzen dute. Bestela esanda: *Ataria* halako bi etxetara iristen da *Diario Vasco*, baina gazteen kontsumoan pare-parean daude biak.

Kirol egunkariekin ere gertatzen da joera hori, etxean egunkaria dutenak baino gehiago izatea irakurleak. *Marca* %4k daukate etxean, eta %16k irakurtzen dute. Beste kazetetan aurkakoa da norabidea. Proporzioan *Berria*-k du jaitsiera txikiena: %11k dute etxean, eta %9k irakurtzen dute.

Datu orokorrak dira horiek. Interesgarri da, ordea, gazteen hizkuntza gaitasunaren arabera kontsumoari erreparatzea, berealdiko diferentziak baitaude. Hiru aukera jarri zaizkie inkestan: euskaraz errazago egiten duten (*euskal elebidunak* direlakoak), euskaraz eta erdaraz erraztasun antzekoa duten (*elebidun orekatuak*), edo erdaraz aiseago jarduten duten (*erdal elebidunak*). Hau da argazkia: euskal elebiduntzat jo dute beren burua %58,1ek; elebidun orekatutzat %25,6k; eta erdal elebiduntzat %16,3k.

**6. grafikoa: Papereko hedabideen audientzia ikasleen artean, aitortutako euskara gaitasunaren arabera (Tolosaldea, 2017).**



Iturria: Egilearen inkesta.

Berritasuna dakar grafiko horrek. Euskaraz errazago egiten duten ikasleen kasuan, euskarazko egunkari bat irakurtzen dute gehien: *Ataria*. Bostetik bik ohitura daukate hori irakurtzeko. Distantzia du *Diario Vasco*-rekiko (%25 du), eta atzerago daude gainerakoak. Euskal elebidunekin hori. Ikasleen gaitasun soslaia aldatzearekin, aldaketak datoz kontsumoan ere: *Diario Vasco*-ren nagusitasuna nabarmen ageri da, eta *Ataria* hirugarren postura jaisten da, *Marca*-ren atzetik. Euskaraz eta er-

**Euskaraz errazago egiten duten ikasleen kasuan, euskarazko egunkari bat irakurtzen dute gehien: Ataria. Bostetik bik ohitura daukate hori irakurtzeko. Distantzia du Diario Vasco-rekiko (%25 du), eta atzerago daude gainerakoak.**

daraz berdin egiten dutenen artean, %40k irakurtzen dute maiz *Diario Vasco*, eta *Ataria*, %16k; erdal elebidunen artean, %34k jotzen dute *Diario Vasco*-ra, eta %10ek *Ataria*-ra.

Beste diferentzia bat ere badago hiru hiztun talde horien artean. Egunkaria irakurtzeko ohitura dute euskal elebidunen %72k; elebidun orekatuetan %64 dira, eta erdal elebidunetan, %54.


Egunkarien audientziak aztertzeko beste aldagai bat ere hartu da kontuan: etxeko hizkuntza erabilera. Diferentzia adierazgarririk ez dago, baina bai ñabardura bat. Euskaraz aiseago egiten duten ikasleen artean *Ataria* da gehien irakurtzen den egunkaria, baina ikasle horien etxeetan ez da *Ataria* egunkari nagusia: %37k edukitzen dute *Ataria*, eta %49k *Diario Vasco*. Hortaz, ikasle multzo batek etxetik at bilatzen du eskualdeko euskarazko egunkaria.

Etxeko egunkariaren eta gazteek irakurtzen dutenaren artean lotura estua dagoela diote, hala ere, datuek. Badu logika: etxean daukatena dute eskuragarriena. *Ataria*-ren igoerarekin batera, kirol egunkariak dira salbuespena, etxeko presentzia baino askoz handiagoa baita audientzia.

Aldizkarien kontsumoaz ere galdetu da. Egunkarien aldean, baxua da aldizkarien kontsumoa, oro har: ikasleen %72k adierazi dute ez dutela aldizkaririk irakurtzen eta etxean ez dutela edukitzen. Egunkarietan baino pisu txikiagoa du euskarak aldizkarietan, ikasleen kontsumoari erreparatuta: aipatu dituzten aldizkarien artean %25 dira euskarazkoak, %10 ele bitakoak, eta %65 gaztelaniazkoak. Euskal elebidunen eta etxean euskaraz egiten dutenen artean dago proportzioan aldizkari irakurle gehien. Euskarazkoa da gehien aipatu duten aldizkaria: *Aiurri*.

Beste neurketa bat ere egin da: tabernetan papereko zer hedabide dauzkaten. 58 tabernako lagin bat erabili da. Ondorioa: erdal prentsak audientzia datuetan baino pisu handiagoa du tabernen eskaintzan. CIESen arabera, euskal hedabideek dute eskualdeko audientziaren %33, eta erdarazkoek, %58; tabernetan, egunkarien %77 dira erdarazkoak, eta %23 euskarazkoak.

7. grafikoa: Egunkarien audientzia eta tabernetako presentzia, %tan (Tolosaldea, 2016-2017).



Iturria: CIES eta egilearen behaketa.

Igoera ageri da audientzia datuetatik tabernako eskaintzara —tabernetan eskaintza neurtu da, ez audientzia—. Nolanahi ere, igoera askoz nabarmenagoa da erdarazko hedabideen kasuan.


*Ataria*-ren audientzia datuak eta tabernetako eskaintza alderatuta, tabernako presentzia audientzia baino 2,2 aldiz handiagoa da, eta *Berria*-rena, 2,5 aldiz handiagoa. Erdal hedabideak hartuta, *Diario Vasco*-k du alderik txikiena: 2,5 aldiz handiagoa da eskaintza. Alegia, *Berria*-ren pareko datua, eta *Ataria*-rena baino handiagoa. Gainerako erdal komunikabideetan handiagoa da alde: *Marca* kontsumoa baino 8,3 aldiz gehiago dago tabernetan; *Gara* eta *Noticias de Gipuzkoa*, 9 aldiz gehiago; eta *Mundo Deportivo*, 13,8 aldiz gehiago. Euskarazko egunkariak baino askoz gorakada handiagoak. Horrek badu eragina herritarren pertzepzioan: erdarazko hedabideen audientzia askoz ere *handiago* ageri da tabernetan. Kontuan izatekoa da beste aldagai bat: taberna guzti-guztietan dago erdarazko prentsa, baina ia tabernen erdiek (%48) ez daukate euskarazko batere egunkaririk. *Ataria* dute tabernen %27an, eta *Ataria* eta *Berria* %24an.

#### 4. IRRATIA

Papereko hedabideek baino audientzia handiagoa du irratiak. CIESen 2016ko datuen arabera, eskualdeko herritarren %48,9k dute ohitura idatzizko hedabideak kontsumitzeko; irratiak, %57,3k. Paperekoen aldean, irratiaren esparruan bada nabarmentzeko beste alde bat: euskarazko irrati jeneralista entzuten da gehien Tolosaldean, Euskadi Irratia. Jarraian, Europa FM irrati formula.

**Taberna guzti-guztietan dago erdarazko prentsa, baina ia tabernen erdiek (%48) ez daukate euskarazko batere egunkaririk. Ataria dute tabernen %27an, eta Ataria eta Berria %24an.**


8. grafikoa: Irratien audientzia, milakotan (Tolosaldea, 2016).



Iturria: CIES.

Papereko komunikabideekin egin bezala, bi alderaketa irratiekin ere: Gipuzkoako audientzia orokorrarekin eta Urola Kostakoarekin. Diferentzia batzuk nabari dira leku batetik bestera.

9. grafikoa: Irratien audientzia, %tan (Tolosaldea, Urola Kosta, Gipuzkoa, 2016).




Iturria: CIES.

Hiru esparruen artean desberdintasun bistakoak daude. Lehen postua argi dago: Euskadi Irratia entzuten da gehien Tolosaldean, Urola Kostan eta Gipuzkoan. Papereko kontsumoa ikusita, nabarmentzekoa da euskarazko irratia izatea buru. Gipuzkoan SER da bigarrena, eta Urola Kostan, euskarazko irratia formula: Gaztea. Tolosaldean, baina, beste irratia formula bat dago bigarren, CIESen arabera: Europa FM. Deigarria da, beste eskualdeetan baino nabarmen entzule gehiago baititu. Hara: Gipuzkoako herritarren %7 bizi dira Tolosaldean, eta irratia horrek Gipuzkoan dituen entzuleen %23 dira eskualdekoak. Tentuz zaindu beharrekoa da, hala ere, errore tartea. Izan ere, CIESek berak 2017an kaleratutako lehen neurraldiaren arabera, Gaztea Europa FMren gainetik dago Tolosaldean

—azterketa honetan 2016ko datuak erabili dira, urte osokoak, ez neurraldi batekoak soilik—. Inkesta propioak ere erakutsi du Europa FMren indarra.


**10. grafikoa: Irratien audientzia ikasleen artean, %tan (Tolosaldea, 2017).**



Iturria: Egilearen inkesta.

Gaztearen nagusitasuna nabarmena da emaitzetan: hamarretik zazpik entzuten dute. Baina, CIESeK iradokitzen duenez, indartsu dago Europa FM irrati formula erdalduna ere: erdiek baino gehiagok dute entzuteko ohitura. Ñabardura pare bat. Batetik, Gaztearena baino txikiagoa da Europa FMren entzule kopurua, baina fidelagoa da entzuleria: gehien entzuten dituzten irratiak ordenatzeko eskatuta, lehenbiziko postuan jarri dute gehienek Europa FM; Gaztea maizago ageri da hurrengo postuetan ere, beste irrati batzuen atzetik. Bestetik, CIESen arabera, Europa FMk entzuleria helduagoa du nagusi —25 urtetik gorakoa—, eta inkesta honetan gazteagoek parte hartu dute. Beraz, ezin dira zuzenean kontrajarri CIESen eta inkesta honen emaitzak.

**11. grafikoa: Irratien audientzia gurasoen artean, %tan (Tolosaldea, 2017).**




Iturria: Egilearen inkesta.

**Ikasleen  
audientzia eta  
hizkuntza  
gaitasuna  
konparatzen  
badira, erroko  
desberdintasunak  
ageri dira  
euskarazko  
komunikabideen  
kontsumoari  
dagokionez.  
Egunkarien  
kasuan bezala,  
zenbat eta  
gaitasun  
handiagoa,  
euskal  
komunikabide-  
etarako joera  
handiagoa.**

Gurasoen kontsumoari begiratuta, gehien entzundako irratiaren hizkuntza da nabarmentzekoa: euskarazko irrati publikoak entzuten dira gehien, Euskadi Irratia (%27) eta Gaztea (%22,4). Ondoren datoz erdarazko irratiak, eta Europa FM ageri da buruan. Distantzia handira, hala ere: Euskadi Irratiaren entzuleen erdiak ditu. Ataria azken aldean ageri da, eta aurretik du euskarazko beste irrati bat: Arrate. Proportzioei erreparatuta, ikasleenak baino baxuagoak dira gurasoenak, baina metodologia kontu bat dago oinarrian: beren irratiaren kasuan, hiru aipatzeko eskatu zaie; gurasoen kasuan, gehien entzuten dutena.

Interesgarria da hiztunen tipologiaaren arabera aztertzea audientzia datuak. CIESen zenbakiei dagokionez, Gipuzkoako datuak begiratu behar dira, eskualdeka ez baitaude.

12. grafikoa: Irratiaren audientzia, %tan, euskaldun osoak hartuta (Gipuzkoa, 2016).




Iturria: CIES.

Ariketa bera alderantziz ere egin liteke: hedabide bakoitzaren publikoaren hizkuntza soslaia. Gipuzkoako erdaldunen artean SER da gehien entzuten den irratiak: %17k jartzen dute. Hirutan banatu liteke SER katearen entzuleria: %34 euskaldun osoak; %31, erdaldun elebakarrak; eta %36 hiztun pasiboak. Radio Euskadi da bigarren erdal hiztunen artean, eta hara: entzuleen %48 euskaldunak ditu; %40k badute euskararen ezagutzaren bat; eta %12 dira erdal elebakarrak. Hirugarrena Cadena 100 da: entzuleen %49 euskaldunak ditu; %33k badute ezagutzaren bat; eta %18 dira elebakarrak. Euskadi Irratiari dagokionez, %87 dira euskaldunak; ia-euskaldunak, %12.

Ikasleen audientzia eta hizkuntza gaitasuna konparatzen badira, erroko desberdintasunak ageri dira euskarazko komunikabideen kontsumoari dagokionez. Egunkarien kasuan bezala, zenbat eta gaitasun handiagoa, euskal komunikabideetarako joera handiagoa.

13. grafikoa: Irratien audientzia, %tan, ikasleen arabera (Tolosaldea, 2017).




Iturria: Egilearen inkesta.

Diferentzia adierazgarriak daude gazteen hizkuntza gaitasunaren arabera. Hiru taldeetan irrati formulak entzuten dira gehien, baina ez berberak. Euskal elebidunen artean Gazteak du audientzia handiena, aldearekin —bostetik lauk entzuten dute—; elebidun orekatuen eta erdal elebidunen kasuan, Europa FM entzuten da gehien —%59 bi taldeetan—. Bigarren postuan ere bi irrati horiek ageri dira: euskal elebidunen artean bigarren irratiak da Europa FM (%52), eta, elebidun orekatuen eta erdal elebidunen artean, Gaztea (%57 eta %51). Gainerako irrati formula erdarazkoei dagokienez, pisu gehiago dute elebidun orekatuen eta erdal elebidunen artean.

Irrati jeneralistetan, Euskadi Irratiak du audientziarik handiena, baina hor ere alde nabarmenak daude. Euskal elebidunentzat, lehenengo jeneralista da euskarazkoa; lista osoan, hirugarrena —hirutik batek baino gehiagok entzuten dute—. Elebidun orekatuen artean ere lehen irrati jeneralista da, baina audientzia txikiagoa du: seitik batek entzuten du. Erdal elebidunen kasuan, lekua nabarmen galtzen du Euskadi Irratiak, eta ez da jeneralista nagusia: aurretik ditu Radio Euskadi eta Cope, eta parean SER. Hiru hiztun taldeetan jaitsiera dago irrati formulatik jeneralistara. Euskal elebidunen %80k aditzen dute Gaztea, eta Euskadi Irratia, %35ek.

Euskarazko beste irratiak audientzia txikia da. Euskal elebidunen kasuan, Arrate irratiak %6,2ko audientzia du, eta Ataria irratiak, %4,3koa.

14. grafikoa: Gurasoen irrati audientzia, %tan, haien gaitasunaren arabera (Tolosaldea, 2017).



Iturria: Egilearen inkesta.


Euskadi Irratiaren nagusitasuna nabarmena da euskaraz erosoago aritzen diren gurasoen artean: ia erdiek entzuten dute. Diferentzia nabarmena dago bigarren irratiara: euskarazkoa da hori ere, Gaztea, eta laurdenek entzuten dute. Elebidun orekatuei begiratuta, ez dago Euskadi Irratia buruan, baina bai euskarazko bat: Gaztea. Ia herenek entzuten dute, eta Euskadi Irratia dator atzetik, %26rekin. Erdal elebidunak eta erdaldunak hartuta, berriz, erdal irratiak dira nagusi: Europa FM formula lehen postuan (%24); euskarazko lehena Gaztea da, laugarren (%9).

Egunkarietan azaldu den eran, ikasleen hiztun taldeen arabera desberdina da hedabideen kontsumo orokorra ere. Euskal elebidunen artean %9k ez daukate ohiturarik irrati entzuteko; elebidun orekatuen eta erdal elebidunen kasuan, berriz, %17 dira. Gurasoen datuaz galdetuta, txikiagoa da diferentzia: euskal elebidunen gurasoen %7k ez dute entzuten, eta erdal elebidunen %13k.

## 5. TELEBISTA

Audientzia handieneko esparrua da telebistarena. Bost herritarretik lauk ohitura dute telebista ikusteko. Tolosaldean, CIESen arabera, euskarazko telebista publikoa ikusten da gehien, ETB1.


15. grafikoa: Telebisten audientzia, milakotan (Tolosaldea, 2016).



Iturria: CIES.

Datu horiek portzentajeetara eramanda, bi konparazio berriro ere: Gipuzkoarekin eta Urola Kostarekin; tokiko telebistaren kasuan, Urola Kostarekin soilik, ez baitago Gipuzkoa osoko bat.

16. grafikoa: Telebisten audientzia, %tan (Tolosaldea, Urola Kosta, Gipuzkoa, 2016).




Iturria: CIES.

Urola Kostan eta Tolosaldean, antzeko portzentajeekin, euskarazko telebista jeneralista da nagusi: ETB1. %30 inguruan dabil. Koska ateratzen dio hurrengoari: ETB2 da, %20 bueltan. Atzerago datoz erdarazkoak, eta badira gorabehera batzuk bi eskualdeen artean. Tokiko telebistan ere diferentzia dago: Urola Kostako telebistak, Erlok, %2,2ko audientzia du, CIESen arabera; Tolosaldekoak, 28 Kanalak, %8,5koa. Gipuzkoa osorik hartuta, bestelakoa da egoera, euskararena bezala: erdarazko kateak ikusten dira gehien. ETB2k du audientziarik handiena (%22), eta atzetik daude La Sexta, Tele5 eta Antena3; ETB1 bosgarren ageri da, %14ko audientziarekin. Herrialde osora hedatutako euskarazko beste

**Etkeen erdietan  
ohitura dute  
ETB1 ikusteko;  
hura da gehien  
ikusten dena.  
Ondoren datoz  
erdarazkoak.**

telebistak, Hamaikak<sup>8</sup>, audientzia ehuneko nabarmen baxuagoak ditu: Tolosaldean, %1,9; Urola Kostan, %0,9; eta Gipuzkoan, %1,2.

17. grafikoa: Telebisten audientzia etxean eta ikasleen artean (Tolosaldea, 2017).



Iturria: Egilearen inkesta.


Badaude ñabardura batzuk etxeko kontsumotik ikasleenera. Etheen erdietan ohitura dute ETB1 ikusteko; hura da gehien ikusten dena. Ondoren datoz erdarazkoak. Ez da ordena bera ikasleen kontsumoarena; izatez, ETBren kasuan nabari da jaitsierarik handiena etxeko audientziaren eta ikasleenaren artean: ETB1ek, hamahiru puntuko diferentzia (%50,8tik %37,4ra), eta ETB2k, hogeitunetik (%39,3tik %19,1era). Ikasleei dagokienez, lehen postuetan Antena3 eta Cuatro ageri dira. Ikasleen kontsumoa etxekoa baino zatikatuagoa da, kate tematikoak ikusteko joera handiagoa baitute; FDF telesailen buruzko erdal katea ikusten du bostetik batek (etxean, %11k).

Etxeko kontsumoari erreparatuta, kate tematiko gehienak baino gorago ageri da eskualdeko euskarazko telebista, 28 Kanala. Hamargarren dago. Etxean hori. Ikasleen kontsumoari begiratuta, atzeraxeago ageri da, hamalaugarren. Kontuan izan behar da, bestalde, audientzia datu orokorrean dagoen aldea: ikasleen %7k diote ez dutela telebista ikusten; etheen %1 dira.

Adin taldeka begiratuta —CIESen Gipuzkoako datuak oinarri—, badira diferentzia batzuk. 55 urtetik gorakoek ikusten dute telebista gehien,

eta gutxien, 14-25 urtekoek. 64 urtetik gora, adibidez, %91k dute ohitura telebista ikusteko; 14-19 urterekin, %70ek. Adin talde bakoitzak zer audientzia duen aztertuta, joera bat: ETB1ek adin talde gazteagoetan du indar handiena, talde euskaldunenetan —20-24 urte bitartean, esaterako, hirugarrena da listan Gipuzkoan—. Ordea, horiek ikusten dute telebista gutxien. Datutan: 20-24 urterekin, hirugarrena da zerrendan ETB1, eta, 64 urtetik aurrera, seigarrena; baina 14-24 urtekoek euskal katearen audientziaren %9 osatzen dute, eta 64 urtetik aurrerakoek, %30. Audientziaren desoreka bat badago, hortaz.

18. grafikoa: Telebisten audientzia, %tan, euskaldun osoak hartuta (Gipuzkoa, 2016).




Iturria: CIES.

Horiek Gipuzkoako euskaldunen audientzia datuak. Tolosaldean ez bezala, erdarazko telebista publikoak du ikus-entzulerik gehien, nahiz distantzia gutxira duen euskarazko katea. Telebista bakoitzaren ikus-entzule soslaiari begiratzen bazaio, bistakoa da denek dutela euskalduna kontsumitzaileen gehiengoa. ETB2ren kasuan gehiengo zabala da euskalduna: %54 euskaldun osoak, eta %32 hartzaileak. Espainiako kateetan handiagoa da erdaldun elebazarren portzentajea, baina gutxiengoa: La Sextaren kasuan, esaterako, %80 dira euskaldunak edo ia euskaldunak; Tele5ren kasuan, %73. 28 Kanalaren ikus-entzuleen hizkuntza gaitasunaren datua ere badu CIESeK: %73 euskaldun osoak dira, %18k ulertu egiten dute, eta %9k ez dute ulertzen.

**Ikasleei dagokienez, lehen postuetan Antena3 eta Cuatro ageri dira. Euren kontsumoa etxekoa baino zatikatuagoa da, kate tematikoak ikusteko joera handiagoa baitute; FDF telesailei buruzko erdal katea ikusten du bostetik batek (etxean, %11k).**

**Etxean  
euskararen  
erabilera jaitsi  
ahala, telebista  
kontsumoak ere  
asko jotzen du  
erdarara.**


19. grafikoa: Telebisten audientzia, etxeko hizkuntzaren arabera (Tolosaldea, 2017).



Iturria: Egilearen inkesta.

Etxean zein hizkuntza erabiltzen duten, telebistako kontsumo joeretan aldea dago. Batez ere euskaraz jarduten duten etxeetan, euskarazko telebistak du pisurik handiena: etxean %71n ikusten da ETB1. Bigarren postuan erdarazko telebista bat dago, Antena 3, baina oso alde handira: %36ko audientzia du. Etxean euskararen erabilera jaitsi ahala, telebista kontsumoak ere asko jotzen du erdarara. Euskaraz eta gaztelaniaz paretsu aritzen diren etxeetan, Tele5k du kontsumorik handiena —hamar etxetik seitan ikusten dute—, eta erdarazkoak dira hurrengo biak ere —Antena3 eta Cuatro—; ETB1 dator ondoren, heren batekin. Erdaraz maizago egiten duten etxeetan, are handiagoa da telebista erdaldunen pisua. Tele5 da nagusi: hamar etxetik zazpitan ikusten dute. Gero datoz erdarazko gainerako kate orokorrak, eta ETB1, atzerago: %12 etxetan jartzen dute —euskaraz ez dakiten gurasoak bizi dira etxe horietan—. 28 Kanala atzerago dago. %3ko audientzia du euskaraz erdaraz adina edo gehiago egiten duten etxeetan.

20. grafikoa: Telebisten audientzia, ikasleen gaitasunaren arabera (Tolosaldea, 2017).



Iturria: Egilearen inkesta.


Ikasleen gaitasunaren arabera, desberdintasun handiak daude kontsumoan. Errazago euskaraz egiten dutenen artean, ETB1 ikusten dute gehien: erdiek baino gehiagok. Ordea, gaitasun txikiagoarekin, nabarmen jaisten da portzentajea: euskaraz eta gaztelaniaz paretsuko gaitasuna dutenen kasuan, %17ra jausten da, eta erdaraz aiseago egiten dutenetan, %5era. Erdarazko kate gehienetan, aurkakoa da joera: erdaraz errazago egiten dutenen artean dute audientziarik handiena. Salbuespena: ETB2. Euskaraz aiseago egiten dutenen artean du audientzia handiena.

Euskarazko kateei dagokienez, proportzioan etxeko kontsumo orokorra baino apalagoa da gazteena. ETB1ekin, adibidez, hiru hiztun taldeetan gertatzen da hori. Alegia, batez ere euskaraz egiten duten etxeetan gehiago ikusten da euskarazko kate orokorra, euskaraz aiseago egiten duten gazteen artean baino; berdin beste bi hiztun taldeen eta etxe tipologien artean.

## 6. INTERNET

Aldaketa handiak gertatzen ari dira hedabideetan. Internet ari da pisua hartzen, eta kontsumo joerak aldatzen ari dira. Gazteen artean nolakoa da euskal hedabideen kontsumoa Interneten?

21. grafikoa: Interneteko euskal hedabideen audientzia, ikasleen arabera (Tolosaldea, 2017).




Iturria: Egilearen inkesta.

Eskualdeko euskarazko plataforma ageri da lehen postuan; ia bost ikasletik bik ohitura dute hara jotzeko. Interneten igoera handia izaten ari da *Ataria*. Adibidez, 2017ko otsailean, 100.000 bisitako langa gainditu zuen. Koska dago handik hurrengora; *Eitb.eus* webgunea ageri da, laurdenen ehunekoarekin —euskarazkoaz gain, gaztelaniazko bertsioa ere badu EITBren webguneak; gainera, gazteen portzentaje batek *Nahieran* plataforma aipatu du, eta hor ere euskarazko eta erdarazko saioak

**Eskualdeko euskarazko plataforma ageri da lehen postuan; ia bost ikasletik bik ohitura dute hara jotzeko. Interneten igoera handia izaten ari da Ataria.**

daude—. Gero datoz gainerako euskal hedabideak. Kontuan hartzeko beste bi proportzio ere badira: batetik, ia herenek diote euskal hedabiderik ez dutela kontsumitzen Interneten; bestetik, bostenek adierazi dute ez dutela sarean ibiltzeko ohiturarik.

**22. grafikoa: Interneteko hedabideen audientzia, ikasleen gaitasunaren arabera (Tolosaldea, 2017).**



Iturria: Egilearen inkesta.

Gaitasunaren araberako aldaketak nabarmenak dira Interneteko kontsumoan ere. *Ataria*-ri dagokionez, euskal elebidunen artean erdiek dute ohitura haren webgunean sartzeko, baina erdal elebidunen artean, adibidez, %8 pasatxora jaisten da portzentajea. Euskarazko hedabiderik batere kontsumitzen ez dutenen ehunekoa ere handiagoa da hizkuntza gaitasuna jaitsi ahala. Eta, hedabideen kontsumo orokorrarekin gertatu den gisan, gaitasun txikiagoarekin txikiagoa da Interneteko kontsumo orokorra ere.

## 7. EUSKARAZKO HEDABIDEEN ARTEKO KONTSUMOA

Hedabide arlo bakoitzeko kontsumoa aztertuta, interesgarri da begiratzeari nolakoa den euskal komunikabideen arteko kontsumo erlazioa. Hots, euskarazko hedabide baten kontsumitzaileak zein mailatan diren beste euskarazko hedabide batzuen kontsumitzaile; euskarazko hedabide baten kontsumitzaile izatearekin atea zabaltzen ote den beste euskal komunikabideak ere gehiago kontsumitzeko. 28 Kanalaren lagina oso txikia denez, ez da konparaketan sartu.

**2. taula: Euskarazko hedabideen arteko kontsumo harremana ikasleen artean (Tolosaldea, 2017).**

|                                     | ETB1en<br>audientzia | Berria-ren<br>audientzia | Ataria-ren<br>audientzia | Euskadi<br>Irratiaren<br>audientzia | Gaztearen<br>audientzia |
|-------------------------------------|----------------------|--------------------------|--------------------------|-------------------------------------|-------------------------|
| Ikasleen artean, denera             | 37,4                 | 9,3                      | 30,1                     | 24,9                                | 69,1                    |
| Euskal elebidunen artean            | 70,8                 | 12,8                     | 41,7                     | 35,1                                | 80,1                    |
| ETB1en ikus-entzuleen artean        | 100,0                | 16,1                     | 46,7                     | 40,1                                | 78,8                    |
| Berria-ren irakurleen artean        | 64,7                 | 100,0                    | 85,3                     | 52,9                                | 76,5                    |
| Ataria-ren irakurleen artean        | 58,2                 | 26,4                     | 100,0                    | 38,2                                | 82,7                    |
| Euskadi Irratiaren entzuleen artean | 60,4                 | 19,8                     | 46,2                     | 100,0                               | 83,5                    |
| Gaztearen entzuleen artean          | 42,7                 | 10,3                     | 36,0                     | 30,0                                | 100,0                   |

Iturria: Egilearen inkesta.

Nola irakurri taula hori? Bi modutara: goitik behera eta ezkerretik eskuinera. Goitik beherako datuek zera adierazten dute: hedabide bakoitzaren audientzia zenbatekoa den lehen zutabeko talde bakoitzean. Alegia, hedabide bakoitza zenbat ikaslek kontsumitzen duten orokorrean, euskal elebidunetan zenbatek, eta beste komunikabide bakoitzeko zenbat kontsumitzailek. Adibidez, ETB1en zutabeari begiratuta, zenbakiek esaten dute euskarazko kateak zenbateko audientzia duen talde bakoitzean. Hori, goitik beherako irakurketan. Ezker-eskuin begiratuta, berriz, adierazten da talde bakoitzean zein den hedabide audientzia. Hor dago ezberdintasuna. Adibidez: jakiteko *Berria* irakurtzen dutenetatik zenbatek irakurtzen duten *Ataria*, lehenbizi taldea aukeratu behar da lehen zutabean (*Berria*-ren irakurleak), eta, gero, ilara horretan, *Ataria*-ri dagokion laukira jo (%85,3). Jakin nahi bada, berriz, *Ataria* irakurtzen dutenetatik zenbatek kontsumitzen duten *Berria*, lehenbizi *Ataria*-ren taldea hautatu lehen zutabean, eta ilara horretan bertan, *Berria*-ren laukira jo (%26,4). Eragiketa horien bidez jakin daiteke kontsumo erlazioa zenbatekoa den bi norabideetan; alegia, adibideari jarraituta, zenbateko kontsumo erlazioa dagoen *Ataria*-tik *Berria*-ra eta *Berria*-tik *Ataria*-ra.

Audientzia datu orokorrak eta kontsumo gurutzatua alderatuta, nabari da gorakada dagoela euskarazko hedabideen artean. Ez da hala gertatzen beti euskal elebidunak diren ikasleen audientzia eta hedabideen artekoa konparatuz gero; horrek erakusten du hizkuntza gaitasunak nolako pisua daukan euskal komunikabideen kontsumoan, euskaraz errazago egiteak nolako esanahia daukan hedabide kontsumoan. Gaztearen korrelazioa da txikiena; audientzia handiena hark du, eta beste hedabide batzuetara iristen ez direnak heltzen dira hara —tartean, euskara gaitasun txikiagoa dutenak—. Korrelazio harreman handiena *Ata-*


**Ikasle gehienek ezagutzen dituzte eskualdeko euskarazko bi hedabideak. 28 Kanala gehiagok ezagutzen dute: bostetik lauk. Ataria, ia lautik hiruk.**

ria-ren, Berria-ren eta Euskadi Irratiaren artean dago. Adibidez, *Berria* irakurtzen duten ikasleen %85ek *Ataria* ere irakurtzen dute (%30 dira *Ataria*-ren irakurle oro har); *Ataria*-ren irakurleen %26 *Berria*-ren irakurle dira (%9 dira oro har). *Berria*-ren irakurleen %53k entzuten dute Euskadi Irratia (oro har, %25 dira).

## 8. EZAGUTZA ETA IRITZIA

**I** Hedabideen audientzia aztertzeaz gain, ikasleek euskarazko hedabideei buruz nolako ezagutza duten eta haien jardunari buruz zer iritzi duten aztertu da inkestaren bitartez. Gehienek badute eskualdeko euskarazko hedabideen berri, baina bada multzo bat hortik kanpo bizi dena.


**23. grafikoa: Eskualdeko euskal hedabideen ezagutza, ikasle guztien arabera (Tolosaldea, 2017).**




Iturria: Egilearen inkesta.

Ikasle gehienek ezagutzen dituzte eskualdeko euskarazko bi hedabideak. 28 Kanala gehiagok ezagutzen dute: bostetik lauk. *Ataria*, ia lautik hiruk<sup>9</sup>. Badago multzo bat, beraz, euskarazko bi komunikabideak ezagutzen ez dituen: telebistaren kasuan, bostetik bat; *Ataria*-n, lautik bat.

**24. grafikoa: Eskualdeko euskal hedabideen ezagutza, ikasleen hizkuntza gaitasunaren arabera. (Tolosaldea, 2017).**






Iturria: Egilearen inkesta.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, aldaketa handia dago hedabideak ezagutzeari dagokionez. Euskal elebidunek dute ezagutza handiena. Gaitasuna txikitu ahala, txikiagoa da hedabideen ezagutza. Elebidun orekatuen kasuan, hirutik batek ez du *Ataria* ezagutzen, eta lautik batek ez daki eskualdeko telebista 28 Kanala dela. Erdal elebidunen kasuan, areago: hirutik batek ez du 28 Kanalaren berri, eta bostetik hiruk ez dakite *Ataria* dela eskualdeko euskarazko kazeta. Elebidun orekatuen eta erdal elebidunen kasuan, diferentzia adierazgarria dago *Ataria*-ren eta 28 Kanalaren arteko ezagutza datuetan. Azterketa sakonagoa merezi du gaiak, baina faktore bat seinala daiteke. 28 Kanala Tolosako eta inguruko herrietako etxe guztietara iristen da —ez eskualdeko herri guztietara—, eta *Ataria*, berriz, harpidedunen artean banatzen da. Kontuan izanda elebidun orekatu eta erdal elebidun gehienak Tolosan daudela, haien etxean kateen artean badaukate 28 Kanala, nahiz eta gero ez ikusi; *Ataria*, berriz, ez da haien etxera iristen. Faktore horrek esplika dezake, baita ere, *Ataria*-ren ezagutza zerbait handiagoa izatea euskal elebidunen kasuan: inguruko herri txikietako ikasleen pisua handiagoa da hiztun talde horretan, eta gutxiagok ezagutzen dute 28 Kanala, haien herrietara ez baita iristen, kablez ez bada.

Ezagutzen ote dituzten galdetzearekin batera, ikasleei iritzia eskatu zaie euskal hedabideez, galdera ireki batekin: *Zer beharko litzateke zuk euskarazko hedabideak gehiago kontsumitzeko?*

**Aukera desberdinak falta dira euskarazko komunikabideetan, %12ren iritzian. Kasu horretan, erdal elebidunen artean dago zabalduen ikuspegi hori: %19k aipatu dute aniztasun falta hori.**

25. grafikoa: Euskarazko hedabideek falta dutenari buruzko iritzia (Tolosaldea, 2017).



Iturria: Egilearen inkesta.

Interesari buruzkoa da ikasleek gehien aipatu duten alderdia; hirutik batek baino gehixeagok adierazi dute hori. “Interesgarri” zer ote zaien ez dute zehaztu gehienek. Beste batzuek, bai:

“Gauza interesgarri gehiago: dokumentalak, debateak... ‘Gu ta gutarrak’ eta horrelakoak ez. Nola sustatuko dute euskarazko telebista horiekin?”

“Eduki interesgarriagoak edukitzea, eta ez betiko gauzak”

Fikzioan euskaraz hutsunea dagoela ohartarazi du ia bost ikasleek batek. Telesail eta film gehiago behar direla, alegia. Adierazgarria da, gainera, iritzi hori nortzuek eman duten: erdal elebidunen kasuan, %5ek esan dute hori; euskal elebidunen kasuan, %23k. Alegia, euskarazko komunikabideak gehien kontsumitzen dituen taldean dago falta horren sententzia handiena.

Aukera desberdinak falta dira euskarazko komunikabideetan, %12ren iritzian. Kasu horretan, erdal elebidunen artean dago zabalduen ikuspegi hori: %19k aipatu dute aniztasun falta hori. Hiztun talde hori da, hain zuzen ere, euskal komunikabideak gutxien kontsumitzen dituen taldea.

“[Euskarazko hedabideak] ez dira interesgarriak; programa desberdinak behar dituzte”

“Programa entretenigarriagoak behar dira; zerbait desberdina”

“Gauza berriak, berrikuntzaren bat jendea hori ikusten hasteko; adibidez, hasieran ‘Gu ta Gutarrak’ saioak arrakasta handia zuen”

Gainerako iritzi multzoak %10etik behera daude. Oro har, ez dago diferentzia handirik hiztun talde batzuetatik besteetara, baina pare bat al-

dagaitan badira ñabardurak. Adibidez, erdal elebidunen %5ek aipatu dute euskal komunikabideetan “euskara maila altuegia” erabiltzen dutela; eta talde berean %5ek erantzun dute “interes txikia” daukatela euskararen inguruan, eta, beraz, hori aldatu beharko litzatekeela euskarazko hedabideak gehiago kontsumi ditzaten.

## ONDORIOAK ETA GOGOETAK

I

Tolosaldean euskarazko hedabideek duten lekuari buruzko azterketa eginda, datuen laburpena eta horiei buruzko gogoeta egiteko garaia da.

- **Aukera berriak.** Euskarak osasun onenetakoa duen eskualdea da Tolosaldea, nahiz eta badagoen kezka arnaguneetako jaitsierarekin. Euskarazko hedabideen sarea osatua dago; *Ataria* proiektua aitzindaritzat jo izan dute esparru horretan.
- **Hedabideak: adinaren eragina.** Joera desberdinak sumatzen dira hedabide arlo bakoitzean. Batetik, CIESen zenbakiei begiratuta, telebistan ageri du euskarak indar handiena Tolosaldean: %39,5 ikusentzule pilatzen dituzte euskarazko kateek. Ondoren dator papera (%33), eta irratia azkenik (%26). Ikasleen inkestan, berriz, beste norabide bat nabari da: irratiari du euskarak pisu handiena —%73k entzuten dituzte euskarazko irratiak—, telebista dago ondoren —%37k ikusten dituzte euskarazko kateak—, eta papera ondoren (%31). Kontsumo joera berrien ispilu ere bada: gutxien papereko hedabideetara jotzen dute ikasleek, eta, hortaz, esparru horretan da txikiena euskarazko komunikabideen audientzia datua ere.
- **Papera: euskarazkoaren bilaketan.** *Diario Vasco*-ren nagusitasuna bistakoa da: ondorio bera dakarte CIESen datuek eta ikasleei etxeko egunkariak egindako galderak. Ikasleen kontsumoan, hala ere, pare-parean daude *Ataria*-ren eta *Diario Vasco*-ren audientziak, nahiz eta *Diario Vasco* etxean dutenak bi bider gehiago diren. Bestela esanda, erdarazko kazeta etxean dutenen ia erdiek ez dute irakurtzen, eta *Ataria*, berriz, etxean ez dutenek ere irakurtzen dute. CIESen neurketetatik ondoriozta daitekeen beste gako bat: kirol arlokoen ondoren, euskarazko komunikabideek dauzkate kontsumitzaile gazteenak.
- **Irratia: nagusitasunari nola eutsi.** Euskarazko irratiak ageri dira buruan CIESen eta ikasleen inkestan: Euskadi Irratia eta Gaztea. Baina bada indartsu ageri den beste irrati bat, erdalduna: Europa FM. CIESek Gaztearen gainetik kokatu zuen 2016ko datuetan; inkestan ez da gehien entzuten den irrati gisa azaldu, baina egia da bigarren postuan ageri dela Europa FM, eta, ikasleei eskatu zaienean

irratia ordenatzeko gehien entzuten dituztenen arabera, gehiagok aukeratu dutela Europa FM lehen postuan. Papereko hedabideen aldean, irratian zatikatuagoa da kontsumoa; euskarazko irratia entzuten dituzten gehienek erdarazkoak ere entzuten dituzte. Ikasleen audientziari begiratuta, %73k kontsumitzen dute euskarazko irratiaren bat; gehienek, Gaztea.

- **Telebista: ETB eta belaunaldi berriak.** CIES eta ikasleen inkesta bat datoz: etxeetan ETB1 dago lehen postuan. Nabardura pisuzko bat dago, baina: ikasleen erdian etxeetan ETB1 ikusteko ohitura dute, baina hamahiru puntu txikiagoa da ikasleen audientziaren portzentajea. ETB2k ere badu galera. Ikasleen artean Antena3 eta Cuatro daude lehen postuan. Euskarazko telebista kateak ikusten dituzte ikasleen %37k. Irratiaren gisan, telebista euskaraz ikusten duten ia guztiek ikusten dute erdaraz ere.

- **Internet: Ataria-ren indarra.** Papereko kontsumoari erreparatuta, nabari da *Ataria* etxean ez izan arren hura kontsumitzen duela ikasle multzo batek. Interneteko datuek ere hori berretsi dute: ikasleen %37k ohitura dute *Ataria* irakurtzeko webgunean. Nagusi da euskarazko hedabideen artean, diferentzia handiarekin. Portzentaje esanguratsua da, kontuan hartuta %20k esan dutela ez direla Interneten ibiltzen; alegia, sarean dabilzan ikasleen ia erdiek kontsumitzen dute *Ataria*.

- **Gaitasuna: erabakigarria kontsumoan.** Euskaraz eskolatuta daude inkesta egin duten ikasle guztiak, badakite euskaraz, baina, haien gaitasunaren arabera, berealdiko aldeak daude hedabideen kontsumoan. Euskal elebidunena da euskarazko komunikabideen kontsumorik handiena: haien artean, *Ataria* da gehien irakurtzen den egunkaria, Gaztea gehien entzuten den irratia, eta ETB1 gehien ikusten den telebista. Ondorioa argia da: euskarazko hedabideak kontsumitzen dituzte euskara beren hizkuntza nagusia dutenek. Hara: euskaraz aiseago egiten duten ikasleen %42k kontsumitzen dute *Ataria*, %80k Gaztea, eta %55ek ETB1. Ikasleek zenbat eta erraztasun txikiagoa euskaraz, orduan eta txikiagoa da euskal hedabideen kontsumoa ere. Hala ere, multzo batzuetara iristen dira hedabideak, batez ere Gaztea: elebidun orekatuen %57rengana, eta erdal elebidunen %51rengana. Hark du irismenik handiena sektore horietara. Ate bat izan daiteke, beraz, euskaraz erraztasun mugatuagoa duten sektoreak euskarara eta euskal kulturara gerturatzen saiatzeko, eta, horrekin, euskarazko komunikabideetara ere bai.

Gurasoen kontsumoari eta etxekoari begiratuta, joera berbera ageri da irratian eta telebistan: euskaraz aiseago egiten dutenen ar-

tean, euskarazko irratitelebistek dute estimaziorik handiena. Egunkaria da salbuespena: batik bat euskaraz aritzen diren etxeen %49tan *Diario Vasco* daukate, eta %37tan *Ataria*.

Gaitasunak kontsumoan duen joerarekin batera, gogoeta bat egin beharko litzateke beste norabidean ere; alegia, batez ere erdarazko hedabideak kontsumitzeak nolako eragina duen hiztunarengan, hainbat arlotatik begiratuta: hizkuntza gaitasuna, kultur transmisioa, hizkuntzarekiko atxikimendua eta erreferentzialtasuna, erabilera...

• **Euskaratik kanpo, gizartetik kanpo?** Hizkuntza gaitasunaren aldagaiaren arabera, hedabideen kontsumo orokorrean ere ageri dira desberdintasunak. Euskal elebidunena da kontsumorik handiena arlo guztietan: paperean, irratan, telebistan eta Interneten. Komunikabideetatik urrunago daude elebidun orekatuak eta erdal elebidunak. Adibidez, papereko kontsumoan, euskal elebidunen %28 dira egunkaririk irakurtzen ez dutenak; erdal elebidunen artean, berriz, %46. Ikasle horien maila sozioekonomiko eta kulturalaz argibide batzuk eman ditzakete diferentzia horiek. Hots, euskaratik urrunago daudenek maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoa dutela gizartean. Sakon aztertu beharreko gaia da, euskara biziberritzeko bidean kontuan hartzeko taldea izango baita.

• **Kontsumo gurutzatua: elkar elikatzen.** Euskarazko hedabideak kontsumitzen dituzten ikasleekin gurutzaketa ariketa bat egin da, euskarazko hedabide bat kontsumitzen duten ikasleek ba ote duten joera beste euskal komunikabide batzuk ere kontsumitzeko. Nabari da korrelazio hori, nahiz eta badauden diferentziak batetik bestera. *Berria*-ren, *Ataria*-ren eta Euskadi Irratiaren artean ageri da loturarik handiena. Korrelazio horrek erakutsiko luke euskal hedabideak ez direla lehia elkarren artean, baizik eta elkar elikatzen dutela. Aintzat hartzekoa da, adibidez, *Berria*-k Tolosaldean duela harpidedunen ratorik onena. Eskualde hori da euskarazko eskaintza osatuenetakoa duena, eta eskualdeko hedabideek urteetako ibilbidea dute. Gaztearena da korrelaziorik txikiena; kontuan izan behar da irratia hori iristen dela beste euskal hedabideak heltzen ez diren sektoreetara ere. Abagunea izan liteke publiko hori euskal komunikabideen esparruan gehiago barneratzeko.

• **Ezagutza.** Ikasle gehienek badute eskualdeko hedabideen berri. Ñabardura interesgarriak daude, hala ere. Euskal elebidunen artean zertxobait handiagoa da *Ataria*-ren ezagutza, eta erdal elebidunen eta orekatuen artean 28 Kanala da ezagunagoa —erdal elebidunen kasuan, *Ataria* ezagutzen dutenak halako bi dira 28 Kanalaz badakitenak—. Gogoeta eskatzen du joera horrek, eta mahai gainean jartzen

---

**Euskal  
elebidunena da  
kontsumorik  
handiena arlo  
guztietan:  
paperean,  
irratan,  
telebistan eta  
Interneten.  
Komunikabide-  
etatik urrunago  
daude elebidun  
orekatuak eta  
erdal elebidunak.**

**Euskara hiztunak  
irabazten ari den  
neurrian,  
erdarazko  
hedabideen  
publikoa ere  
euskalduntzen  
ari da.  
Adierazgarria da,  
adibidez,  
Gipuzkoan  
“Diario Vasco”  
irakurtzen  
dutenen %82k  
euskara ulertu  
behintzat egitea.**

du *Ataria* eta 28 Kanala proiektu berean bateratzearen gaia. Bistan dago komunikabideen euren ikuspegitik indar handiagoa izango lukeela proiektu bateratuak —eskala handiagoa, sendotasuna—, baina kontsumitzaileen aldetik ere erabateko zentzua du. Batetik, marka sendoa: eskualdea hartzen duen hedabide multiplataforma bat. Bestetik, hiztun taldeetara iristeko gaitasuna: euskal elebidunen artean sendo dago *Ataria*, eta euskara gaitasun txikiagoa dutenengana ere iristen da 28 Kanala. Espektrua osoa hartuko luke, beraz, hedabide bateratuak. *Ataria*-n hasitako bateratzea burutuko luke.

- **Ikusgarritasuna: tabernak.** Hedabideek tabernetan nolako presentzia duten behatuta, erdarazkoen aldeko desoreka nabari da. Papereko hedabideei begiratuta, euskarazko komunikabideek hartzen dute audientziaren %33, eta erdarazkoek %58; tabernetan, baina, %23 dira euskarazkoak, eta %77 erdarazkoak. Aztertzeak dira horren ondorioak. Batetik, kontsumo aukeretan eragiten du: erdarazko komunikabideak eskuragarriago egotea. Bestetik, pertzepzioan: tabernetako egunkari eskaintzari erreparatuta, pertzepzioa da erdarazko egunkari batzuk benetan baino askoz gehiago kontsumitzen direla, eta euskarazkoak, gutxiago. Hizkuntza paisaiaren ikuspegitik ere aztertzeak dira. Euskarazko hedabideen ohiko banaketa sarea ez da kioskoaren bidezkoa, harpidetza baizik. Horrek, kaleko paisaiari begira, badu eragina: egunkaria besapean dutela ibiltzen direnak erdarazko hedabideen kontsumitzaileak dira gehiago, kioskoan erosten dutelako, eta euskarazkoek, berriz, etxean jasotzen dute —eta abantaila handia dute hori, egonkortasuna ematen baitie—. Baina horrek eta tabernetako hutsuneak herritarren pertzepzioan eragin dezakete.

- **Iritzia: hutsuneak bistan.** Euskarazko hedabideetan zer hutsune ikusten dituzten, bi arlo aipatu dituzte ikasleek batez ere. Batetik, eduki interesgarriak falta zaizkiela; bestetik, fikzio gehiago behar dela —filmei eta telesaileri buruz mintzo dira—. Hedabideen kontsumoa errotik ari da aldatzen, zabaltzen, eta euskarazko hedabideek gehiagorekin lehiatu behar dute. Lehia horretan, eduki interesgarriak lehenesten dituzte gazteek, eta jada ez da baliagarria *euskaraz dagoelako* argudioa. Esate baterako, oso nabarmena da euskaraz fikzioan hutsunea dagoela, eta hori asetzeko erdal kateetara jotzen dute —FDF katearen indarra da horren erakusle—.

- **Erdal hedabideetan tokia egin.** Euskara hiztunak irabazten ari den neurrian, erdarazko hedabideen publikoa ere euskalduntzen ari da. Adierazgarria da, adibidez, Gipuzkoan *Diario Vasco* irakurtzen dutenen %82k euskara ulertu behintzat egitea, edo *Gara*-ren irakurleen

%82 izatea euskaldun osoak. ETB2ren kasuan, Gipuzkoan, %54 dira euskaldun osoak, eta %32 hartzaileak. Hedabide horiei ere badagokie, beraz, euskararen aldeko pausoak ematea. Ardura soziala dute.

• **Ikerketa sakonagoak.** Tolosaldeko egoera hurbildu nahi izan du azterketa honek, baina, dudarik gabe, ikerketa lan sakonagoak behar dira euskal hedabideen esparruan. Batetik, audientziak neurtzeko sistema fidagarriagoak behar dira, euskal hedabide esparrura ego-kituak; bestetik, tokian tokiko egoeraren azterketak egiteko bitartekoak ere behar dira. Tolosaldean bertan, ikusita nolako aukerak dauden, ezinbestekoa da ikerketa lana. ●

## OHARRAK

1. EUSKO JAURLARITZA (2014): *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
2. EUSKO JAURLARITZA (2014): *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
3. GAINDEGIA (2014): *Biztanleriaren jatorria lurgune euskaldunean / Biztanleriaren mugikortasuna lurgune euskaldunean*. Andoain: Gaindegia.
4. EUSKO JAURLARITZA (2015): *Euskarazko hedabideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
5. ZUBIRI, Arkaitz; RETORTILLO, Alfredo; AIERDI, Xabier (2008): Euskal hedabideak Euskal Autonomia Erkidegoan. In: *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 68. zenbakia. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 85-101 or.
6. Hitzunak bost taldetan zatitzen ditu CIESeK. Hemen, euskaldun osoak hartu dira aintzat: euskaraz hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gai direla adierazi duten herritarrak.
7. Egileak eskatuta, herriz herriko harpidetza datuak eman dizkio *Berria*-k, azterketa egiteko.
8. Tolosaldean, Hamaika telebistak ez du LTDko kanalik: Euskaltelen kable bidez edo Internetez ikus daiteke.
9. Ezagutzari buruzko galderan, eskualdeko egunkaria *Hitza* dela esan dutenen erantzunak ere ontzat hartu dira.

## BIBLIOGRAFIA

- BEHATEGIA (2016): *Euskal Hedabideen Urtekaria*. Durango: Hekimen, EHU Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea.
- BENGOETXEA MUXIKA, Xabier (2012): Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasmuneren behaketa. In: *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 85. zenbakia. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 75-118 or.
- CIES (2017): *Komunikabideetako entzulegoaren ikerketa. 2016ko datu metatuak*. Iruñea: CIES.
- EUSKO JAURLARITZA (2015): *Euskarazko hedabideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. EUSKO JAURLARITZA (2014): *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSTAT: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak*. Eustat.eus (<http://www.eustat.eus>)

- GAINDEGIA (2014): *Biztanleriaren jatorria lurgune euskaldunean / Biztanleriaren mugikortasuna lurgune euskaldunean*. Andoain: Gaindegia
- GOIKOETXEA, Garikoitz (2016): *Euskara irabazteko bidean*. Donostia: Berria, Jakin, Elkar.
- IURREBASO BITERI, Iñaki (2008): Hedabideak eta euskara Zarautzen, 2006ko ikerketaren emaitzak. In: *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 68. zenbakia. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 115-137 or.
- SALCES ALCALDE, Gorka (2016): *Euskaldunak komunikabideen aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa*. Bilbo: EHU.
- ZUBIRI, Arkaitz; RETORTILLO, Alfredo; AIERDI, Xabier (2008): Euskal hedabideak Euskal Autonomia Erkidegoan. In: *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 68. zenbakia. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 85-101 or.

# 4

## Zenbat denboraz bizi ote gara euskaraz?

### Hizkuntza-erabilera neurtzeko ikuspegi berri bat

**Eneko Oiartzabal Gerriko**

*Soziologian lizentziatua*

eoiartzabal@gmail.com

Sarrera-data: 2017-10-10 / Onartze-data: 2017-12-01

**Laburpena.** Artikulu hau HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondorako egindako egitasmo batean oinarrituta dago, Olatz Altunaren gidaritzapean burutua. Eta euskararen indarberritzearen erronka nagusia erabilera bilakatu den honetan, horren gaineko ezagutzari ekarpen bat egiteko ahalegin bat da; ahalegin xumea, bere mugez eta hutsunez jakitun, baina, aldi berean, orain arteko ikerketen hainbat muga gainditu eta hutsuneak betetzeko grina duena. Horregatik, lan honek, nahiz eta gune geografiko jakin batean -Hondarribian- kokatu, edonorako baliagarria izatea du helburu: ikerlan honen balioa ez dago ematen dituen emaitza edo datuetan, bere benetako balioa hizkuntzen erabilera neurtzeko eskaintzen duen ikuspegi berrian datza. • **Hitz gakoak:** hizkuntza-erabilera osoa, denbora-esparruak, jardun-motak, metodologia berria.

**Abstract.** This paper is based on a project developed for the Hiznet postgraduate degree in language planning, led by Olatz Altuna. Given that language use has become the main challenge in the Basque language revival process, the paper aims to make a contribution to the knowledge accumulated in this specific field. While it is a small-scale effort, with limitations and shortcomings, it nevertheless overcomes some of the limits of past research and aims to fill in some of the gaps detected. To this end, although the study focuses on a specific geographical area (the town of Hondarribia), the aim is to ensure that it can be applied anywhere, since its value lies not in the results or data presented, but rather in the new methodology it offers for measuring language use. • **Key words:** comprehensive language use, time-domains, types of activity, new methodology.

## 1. SARRERA

I

Azkenaldian asko hitz egiten da euskararen erabileraz, zenbait datu ere ematen dira horren inguruan, eta, are gehiago, jendeak ere izaten ditu bere inpresioak eta egiten ditu auto-diagnostikoak: “Ni euskaraz bizi naiz”, “Nik euskara gutxitan erabiltzen dut”... Baina beti izaten dira intuizioz eginak, ez dakigu zehatz-mehatz gure erabilera zenbatekoa den eta, horregatik, ikerketa honen abiapuntua oinarritzko galdera horri erantzuna emateko saiakera bat da: Zenbat bizi gara euskaraz? Edo beste era batera: Zenbat denboraz erabiltzen dugu euskara egunean zehar?

Erabileraren inguruan egiten diren ikerketa nagusiek ez diote zehazki galdera horri erantzuten: edo aztergai mugatuago bat dute, edo beste-lako irizpide batzuk erabiltzen dituzte. Esaterako, Hizkuntzen Kale-erabileraren Neurketak kalean zenbat euskara entzuten den neurtzen du, baina ez du argitzen jende horrek euskara zenbat erabiltzen duen, entzuna izan den unean zerabilen hizkuntza baino ez. Era berean, Inkesta Soziolinguistikoak bai jasotzen du euskaraz zenbat egiten duen jendeak, baina eremu eta solaskidearen arabera. Hala, non eta norekin zenbat euskara egiten den neurtzen du, baina eremu edo solaskide bakoitzarekin igarotako denbora zenbatekoa den jakin gabe, eta, beraz, jende horrek euskaraz zenbat denboraz jarduten duen argitu gabe.

Hori guztia dela-eta, uste dut oso interesgarria izan daitekeela erabilera denboraren ikuspegitik aztertzea; batetik, hizkuntza bat erabiltzen igarotzen dugun denborak eragin zuzena duelako hizkuntza horretan aritzeko ohituran eta gaitasunean, eta horiek, era berean, erabileran bertan; bestetik, errealitateari bestelako toki berri batetik begiratzea baliagarri izan daitekeelako, gainerako ikerketek ematen ez duten informazioa lortze aldera.

Hala ere, argi izan behar da lan hau hasierako hurbilpen edo saiakera bat baino ez dela -esperimentu bat, nahi bada-, eta baliagarria izango dela, bere mugak aintzat hartuz, etorkizunerako ikerbide berriak ireki eta hobetua izateko proposamentzat hartzen den heinean.

## 2. AURREKARIAK

I

Sarreran zerbait aipatu badut ere, ikerketa honen helburuak eta erabiliko dudan marko teorikoa azaldu aurretik, ezinbestekoa da euskararen erabileraren inguruan orain arte egin diren neurketa nagusiak zertan dauztan argitzea: Hizkuntzen Kale-erabileraren Neurketa eta Inkesta Soziolinguistikoa.<sup>1</sup>

---

***Ikerketa honen  
abiapuntua  
oinarritzko  
galdera horri  
erantzuna  
emateko saiakera  
bat da: Zenbat  
bizi gara  
euskaraz?***

**Kale-neurketaren  
alderdirik  
aipagarriena  
metodologikoa  
da; behaketa  
zuzena da  
erabiltzen den  
teknika, hau da,  
datuak jasotzen  
dituenak ez dio  
inori ezer  
galdetzen, baizik  
eta kalean  
dabilen jendea  
behatzen du;  
emaitza ez dago  
ikertuak diren  
pertsonek  
subjektibotasunaren menpe.**

## **Hizkuntzen Kale-erabileraren Neurketa**

Ikerketa hau lehen aldiz Euskararen Kultur Batzordeak egin zuen (Sia-deco enpresaren eskutik) 1989an, eta ordutik hona 4 edo 5 urtean behin egin izan da: 2001 urtera arte 4 urtean behin, eta handik aurrera 5 urtean behin (ikerketa egiteko ardurak Soziolinguistika Klusterrak hartu zutenetik, hain zuzen ere). Euskal Herri osoan egiten da, hainbat udalerritan (biztanleria eta euskaldun kopurua irizpidetzat hartuta), eta 1989tik hona aldaketa batzuk izan baditu ere, funtsak berdina izaten jarraitzen du. Azkenia iaz egin zuten, 2016an, eta orain gutxi eman dira argitara Euskal Herri osoko emaitzak.

Izenak iradokitzen duen bezala, aztergaia edo neurtzen duena honakoa da: hizkuntzen ahozko kale-erabilera. Horrek esan nahi du: batetik, kaleko eremura mugatzen den neurketa dela, hau da, ez du espazio itxietako erabilerarik neurtzen (tabernak, dendak edo etxea, esaterako); bestetik, ahozkoa baino ez duela jasotzen, idatzizkoa kanpo utziz (kartelak, adibidez), hau da, jendeak kalean dituen hizkuntzazko hartu-emanak soilik jasotzen ditu. Hain zuzen ere, horiek oso esanguratsuak dira, orduan baita, jendea hizkuntza erarik “naturalenean” erabiltzen ari den unea: bat-bateko eta eguneroko elkarrekintza arruntetan.

Baina kale-neurketaren alderdirik aipagarriena metodologikoa da<sup>2</sup>; izan ere, behaketa zuzena da erabiltzen den teknika, hau da, datuak jasotzen dituenak -neurtzaileak- ez dio inori ezer galdetzen, ez du inkestatzailerik egiten, baizik eta kalean dabilen jendea behatzen du eta horien elkarriketak neurtzen ditu haiekin elkarrekintzarik izan gabe. Horrek bi gauza esan nahi ditu: bata, elkarriketak, eta ez pertsonak, direla analisi unitatea (nahiz eta elkarriketetako partaideen kopurua ere jasotzen den neurketetan); eta, bestea, inkestetan ez bezala, emaitza ez dagoela ikerketa-objektuaren, hau da, ikertuak diren pertsonen subjektibotasunaren menpe, eta horrek balio handia du emaitzen fidagarritasunari begira. Halaber, behaketa horietan, elkarriketetako hizkuntzaz gain, bestelako informazioa ere jasotzen da, hala nola solaskideen adina, sexua, kopurua eta haurren presentzia.

Hona ikerketaren emaitzetatik ateratako ondorio nagusiak, gain-gainetik: Euskal Herrian euskararen kale-erabilera %12,6koa izan zen 2016an, nahiz eta eremu batetik bestera alde handiak egon (adibidez, Gipuzkoan %31,2koa da); oro har, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta erabilera altuagoa; adinekoetan izan ezik, emakumeek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara kalean; eta umeen presentziak eragin handia du erabileran, haurrekin nabarmen egiten duelarik gora.<sup>3</sup>

Azkenik, ikerketa honen eremu geografikoarekin bat datorrenez eta berri-berria denez, ezin aipatu gabe utzi Hondarribian 2016an egindako Hizkuntzen Kale-erabileraren Neurketak emandako emaitza esanguratsuenak: euskararen kale-erabilera Hondarribian %24,6koa da, Gipuzkoako batez bestekotik behera (nahiz eta ezagutza handiagoa izan Hondarribian) eta erabilera isotropikoa baino baxuagoa<sup>4</sup>; erabilerarik altuena haurren artean ematen da eta baxuena, berriz, gazteen artean (nahiz eta hauek diren ezagutza maila altuena dutenak, %85,6koa); sexuen artean ez dago alderik; eta haurren presentziarekin erabilera %46ra igotzen da.<sup>5</sup>

### **Inkesta Soziolinguistikoa**

Ikerketa hau ere bost urtean behin egiten da, eta lehena 1991 urtean egin zuten, eta azkena, 2016an. Inkesta hau Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoaren elkarlanaren bidez burutzen da; horrela, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen duen lan bat da hau ere.

Inkesta Soziolinguistikoaren ikergaiak, aurrekoarekin alderatuta, esparru zabalagoa hartzen du: lehenik, hizkuntza gaitasuna neurtzen du, hau da, euskararen ezagutza-maila; bigarrenik, transmisioa, hots, zenbatekoa den belaunez belauneko euskararen transmisio-maila; hirugarrenik, hizkuntzaren erabilera, alegia, jendeak, solaskide eta eremuaren arabera, zenbat erabiltzen duen euskara (baita gaztelania eta beste hizkuntzak ere); eta, laugarrenik, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak, hau da, biztanleriaren zenbatekoa dagoen euskara sustatzearen alde ala kontra.

Horiek guztiak neurtzeko metodologia kuantitatiboa erabiltzen da eta, izenak dioen bezala, datu-bilketa inkesta teknikaren bidez egiten da. Hortaz, Inkesta Soziolinguistikoaren analisi unitatea norbanakoak dira (zehazkiago, 16 urte edo gehiagoko elebidun eta elebakarrak), eta datuak norbanakoei egindako galdeketen bidez jasotzen dira. Horrek esan nahi du, kale-neurketetan ez bezala, inkestatzailearen eta aztergai den objektuaren arteko elkarrekintza zuzena dagoela eta erantzunak inkestatuen subjektibotasunaren menpe daudela, hau da, fidagarritasuna inkestan parte-hartzen dutenen “zintzotasunaren” arabera izango dela. Alde horretatik, kale-neurketak emaitza fidagarriagoak eskaintzen ditu, baina, era berean, mugatuagoak. Inkesta Soziolinguistikoak askoz ere informazio gehiago lortzea ahalbidetzen du: hizkuntza-erabilera eremuz eremu neurtzen da (etxea, lagunartea...) eta eremu bakoitzean solaskideen arabera (senar-emazte, seme-alaba...). Gainera, horiez gain,

---

***Inkesta  
Soziolinguisti-  
koaren ikergaiak,  
esparru  
zabalagoa  
hartzen du:  
hizkuntza  
gaitasuna,  
transmisioa,  
hizkuntzaren  
erabilera, eta  
euskararen  
erabilera  
sustatzeari  
buruzko jarrerak.***

***Ikerketaren  
helburu nagusia  
da Hondarribiko  
16 urte edo  
gehiagoko  
euskaldunen  
hizkuntza-  
erabilera osoa,  
hau da, ahozkoa  
zein idatzizkoa,  
ekoizlea zein  
hartzailea,  
zenbatekoa den  
neurtzea.***

beste aldagai asko hartzen dira kontuan: adina, sexua, hizkuntza-gaitasuna, 1. edo 2. hizkuntza, erraztasun erlatiboa, euskaldun dentsitatea eremu bakoitzean...

Bukatzeko, neurketa hauetan ateratako emaitza esanguratsuenak aipatuko ditut. Lan honetan, azterketa eremua Hondarribia denez, EAEko 2016ko datuak hartu ditut kontuan<sup>6</sup>: biztanleriaren %30,6k erabiltzen du euskara, horietatik %20,5ek gaztelania bezainbeste edo gehiago ("erabilera trinkoa" deiturikoa<sup>7</sup>); erabilera-eremu guztietan egin du gora erabilerak (etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean), eta bereziki udal eta osasun zerbitzuetan; eta zenbat eta gazteagoak izan, erabilera handiagoa da (orain 25 urte aurkakoa zen). Halaber, interesgarria da erabilera baldintzatzen duten faktore nagusienak zein diren jakitea (2016ko txosten osoaren faltan, datu hauek 2011ko Inkesta Soziolinguistikotik atera dira): hizkuntza horretan (euskaraz ala erdaraz) aritzeko erraztasuna, batetik; eta, bestetik, euskaldunen dentsitatea harreman-sarean (etxean, lagunartean...)<sup>8</sup>.

### **3. HELBURUAK**

**I**

Aurretiaz dagoen bibliografia aztertu eta gero, eta ikerketaren abiapuntua kontuan hartuta, hona helburuak:

#### **Helburu nagusia**

Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen hizkuntza-erabilera osoa, hau da, ahozkoa zein idatzizkoa, ekoizlea zein hartzailea, zenbatekoa den neurtzea.

Era berean, helburu nagusi hori beste helburu zehatzagotan banatzen da:

#### **Helburu zehatzak**

- Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunek egunean zehar euskaraz (ahozkoan zein idatzizkoan, ekoizlean zein hartzailean) zenbat denboraz jarduten duten zehaztea.
- Euskararen erabilera bi ardatz nagusitan, jarduera-motan (hitz egin, entzun, idatzi eta irakurri) eta denboraren banaketa-esparruetan (lanorduak, aisialdia...), nola banatzen den aztertzea.
- Euskararen erabilerak bestelako aldagai batzuekin (sexua, adina, lehen hizkuntza...) nolako harremana duen aztertzea.

#### 4. MARKO TEORIKOA

**I** Euskararen erabilerari buruzko neurketa nagusien ezaugarriak aztertu eta ikerlan honen helburuak definitu ondoren, ordua da, ikerketa horietatik jasotako informazio eta irakaspenak kontuan hartuta, ikerlan honen helburuak lortzeko baliagarri izango den marko teorikoa definitzeko.

Horretarako, ezer baino lehen, helburu nagusia ekarriko dut gogora: “Hondarribiko 16 urtetik gorako euskaldunen hizkuntza-erabilera osoa, hau da, ahozkoa zein idatzizkoa, ekoizlea zein hartzailea, zenbatekoa den neurtzea”. Bertan, batetik, ikerketa-objektua zehazten da, “Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak”; eta, bestetik, aztergaiari buruzko bi hitz-gako daude, ikerketaren ardatz direnak: *hizkuntza-erabilera osoa* eta *zenbatekoa*.

Ikerketa objektuari dagokionez, Hondarribian bizi diren eta euskaraz dakiten pertsonak izango dira aztertuko ditugunak; ez du zentzurik -emaitza jakina da- euskaraz ez dakitenen euskararen erabilera aztertzea, erabiltzeko ezagutza izatea ezinbestekoa baita. Era berean, arrazoi operatiboak direla-eta (aurrerago aipatuko den *Denbora-Aurrekontuen Inkestan* hala egiten delako, besteak beste), 16 urte edo gehiagokoak soilik hartuko dira kontuan. Laburbilduz, 16 urtetik beherakoak eta euskaraz ez dakitenak ikerketa honetatik kanpo geratuko dira.

Eta aztergai diren *hizkuntza-erabilera osoa* eta *zenbatekoa* hitz-gakoei dagokienez, joan nadin banan bana:

Lehenik eta behin, zeri deitzen diogu *hizkuntza-erabilera osoa*? Edo, has-teko, zeri deitzen diogu *hizkuntza-erabilera*? Eusko Jaurlaritzak argitaratu-tako Soziolinguistika Hiztegian hala definituta dator: “Hizkuntza-erabilera (**es** uso lingüístico, uso de la lengua; **fr** usage de la langue, usage linguistique; **en** language usage): Pertsona batek hizkuntza edo hizkuntza barietate baten bitartez, ahoz edo idatziz, komunikatzen eta jasotzen duena.”<sup>9</sup>

Lehen aipatutako ikerketetan, berriz, hizkuntza-erabileraz ari direnean, ahozko erabilera izaten da neurtzen dutena ia eskusiboki; salbuespen ba-karra komunikabideen kontsumoaz galdetzen denekoa izaten da. Are gehiago, Inkesta Soziolinguistikoaren kasuan, esparru soziofuntzional ba-koitzean hizkuntza-erabilera zenbatekoa den galdetzen da, baina ez da batere argi gelditzen bertan *hizkuntza-erabilera* kontzeptuak zer esan nahi duen: ahozko jardunaz ari da? Ahozko zein idatzizkoaz? Eta kontzeptua argi zehazten ez duenez, erantzuna ere inkestatuak ulertzen duenaren ara-

***Ikerketa honen  
marko teorikoak  
hizkuntza-  
erabileraren  
definizio osoa  
izango du  
oinarri; jardun-  
mota guztiak  
hartuko dira  
aintzat: hitz  
egitea, entzutea,  
idaztea eta  
irakurtzea.***

berakoa izango da: baliteke batzuek ahozko jarduna buruan dutela erantzutea; edo ahozkoa eta idatzizkoa, baina ez irakurritakoa... Horrela, zehaztasun falta horrek, ahozkoa soilik aintzat hartzeak bezala, hizkuntza-erabileraren neurketa hankamotz uztea dakar: nork ez du ezagutzen euskaraz ahozko jardunean baino egiten ez duen jenderik? Edo, lan kon-tuengatik-edo, euskaraz idatzi eta irakurtzen duenik, baina ahozko jardunean ia beti erdaraz aritzen denik? Halakoen erabilera nola gelditzen da islatua ikerketa horietan? Ondo islatzen al dute hizkuntza-erabilera erreala?

Horren ildotik, hona Mikel Zalbideren aipu bat:

“Hitzezko jarduna, irakurritakoa eta idatzizkoa aparte aztertzeak dira normalean. Bereiz analizatzea komeni da, orobat, nor bere buruarekin ari deneko jarduna, hitzez edo idatziz besteri zerbaiz adierazi nahirik diharduenekoa edota bestera jasoz (entzutez/irakurritakoz) moldatzen denekoa. Inkestek eta kale-neurketek hitzezko jarduna neurtzen dute normalean. Ondotxo datu gutxiago daukagu, horrengatik, irakurritakoz eta idatzizko jardunaren zabaleraz eta sakonaz.” (Zalbide, 2016. 22 or.)

Hortaz, Inkesta Soziolinguistikokoaren zehaztasun falta saihestu eta in-formazio-hutsune hori betetzeko asmoz, ikerketa honen marko teorikoak hizkuntza-erabileraren definizio osoa -Soziolinguistika Hiztegiak da-karrena, alegia- izango du oinarri; hortik, helburuetan hizkuntza-erabi-lera *osoa* zehaztapena egin izana, argi gera dadin jardun-mota guztiak hartuko direla aintzat: hitz egitea, entzutea, idaztea eta irakurtzea.

Horrela, informazio aberatsagoa eta zehatzagoa lortu ahal izango da, baita oso baliagarria ere. Baina ez hori bakarrik, horretaz gain, erabile-raren ikuspegi jakin baten alde egiten da, jardun-mota hartzaileei -en-tzuteari eta irakurtzeari- ekoizleei adinako garrantzia aitortzen diena, hain zuzen ere, eta hori ere garrantzitsua da. Izan ere, batetik, jardun-moten artean lotura bat badago, nahiz eta informazio faltagatik ez jakin oso ondo zenbaterainokoa -zenbatetan ez da gertatzen txiste, film edota istorio bat jaso den hizkuntzak gero horiek kontatzeko hizkuntza bal-dintzatzea?; eta, bestetik, Joxe Manuel Odriozolaren hitzetan:

“Ulertzeko ekintza ez gendake bigarren mailako gaitasun pasibo hutsarekin pa-rekatu behar, ulertzeko ekintza horrek gaitasun aktiboaren pareko izan beharko lukeelako ondo bidean: hau da, komunikazioaren era guztietako baliabideen jabe izan beharko lukeelako.” (Odriozola, 2007)

Eta bigarrenik, beste hitz-gakoa: *zenbatekoa*. Hizkuntza-erabilera hori zenbatekoa da? Zeren arabera neurtuko dugu *zenbat* hori? Are gehiago, pentsa dezagun balizko adibide bat: pertsona batek lanean “euskaraz

oso gutxi” egiten du; etxean, “euskaraz gehiago”; lagunartean, “bietan berdin”; eta kale-giro arruntean eta erakundeekiko harremanetan (banaketxea, Udala...) “erdaraz gehiago”; zenbatekoa da bere hizkuntza-erabilera? Nola egin balorazio orokorra? Nolako pisu erlatiboa eman bakoitzari? Zeren arabera? Galdera horiei erantzuteko, ezer baino lehen, Zalbiderengana joko dut berriro ere:

“Giza arteko mintzajardun arruntari bizirik eusteko eta, horren bidez, ahuldutako hiztun-taldean edo hiztun-elkarte osoaren ama-hizkuntza belaunez belaun transmititu ahal izateko, eragin-indar handia(goa) dute jardungune batzuek (etxeak, lagunarteak, auzogiro hurbilak, une batetik aurrera lan-esparruak) eta txikia(goa) besteei. Perspektiba kuantitatiboa (“zenbat ordu?”) da, hasteko, garrantzi-hierarkia horren moldatzaile: (...) Perspektiba kuantitatibo horri kualitatiboa gaineratu behar zaio. Interakzio horietan guztietan zein dira mintzamolde bizienak, gatz-piperrez eta sentimenez hornituenak?” (Zalbide, 2016. 27 or.)

Aipu horretan belaunez belauneko transmisiorako esparru ezberdinen garrantziaz, pisu erlatiboz, ari da Zalbide, baina uste dut ikerlan honen aztergairako ere, hau da, hizkuntza-erabilerarako ere oso argigarria dela. Izan ere, hizkuntza-erabilera ezagutzeko ere jardungune bakoitzak duen pisu erlatiboa zehaztea ezinbestekoa da eta, horretarako, irizpide berberak izan behar dira kontuan: batetik, kuantitatiboa, zenbat denboraz jarduten dugun esparru bakoitzean; eta, bestetik, kualitatiboa, erabilera guztiak ez baitira berdinak: batzuk biziagoak dira, sentimenez beteagoak eta sakonagotik eragiten digutenak, eta beste batzuk, berri, otzanagoak, azalekoagoak.

Alde horretatik, deigarria da Inkesta Soziolinguistikoak hori guztia aintzat ez hartzea erabilera orokorra -eta hortik “erabilera trinkoa” (ET)- kalkulatzeko orduan:

“ET-hiztunen eta ET-jardunaren indize sintetikoa (Inkesta Soziolinguistikoak 2001etik aurrera era kontsistentean darabilen “erabilera tipologia”) prestatu denean, garrantzi-hierarkia hori ez da kontuan hartu: jardungune guztiei pisu bera aitortu zaie bertan. Horren ondorioz, erabilera “global”aren benetako izaera behar bezain zehatz ez adierazteko arriskua du ET-jardunaren balio sintetikoak.” (Zalbide, 2016. 28 or.)

Gauzak horrela, eta kontuan hartuz ikerketa honen helburua euskararen erabilera *zenbatekoa* -eta ez *nolakoa*- den jakitea dela, egokiena eta zentzuzkoena deritzot alderdi kuantitatiboa aintzat hartzeari, hau da, esparru bakoitzaren pisu erlatiboa denboraren arabera neurtzeari.

---

**Hizkuntza-  
erabilera  
ezagutzeko  
jardungune  
bakoitzak duen  
pisu erlatiboa  
zehaztea  
ezinbestekoa da  
eta, horretarako,  
irizpide berberak  
izan behar dira  
kontuan:  
kuantitatiboa eta  
kualitatiboa.**

Eta hona hemen, orduan, hori egin ahal izateko segidan egin beharreko galdera: ba al dakigu jendeak zenbat denbora pasatzen duen toki ba-koitzean? Zer-nolako denbora-banaketa egiten duen? Ba al dugu datu-rik? Bai, Denbora-Aurrekontuen Inkesta.<sup>10</sup>

Denbora-Aurrekontuen Inkestak jendeak bere denbora nola banatzen duen neurtzen du, hau da, jendeak zenbat denbora igarotzen duen jar-duera ezberdinetan, eta ikerlan honetan, pisu erlatiboa zehazteko, in-kesta horretako emaitzak -azkenak, 2013koak- hartuko dira oinarri.

Esan bezala, ikerketa horrek denbora-banaketa esparruka edo jardueraka jasotzen du, baina ikerlan honetan ez dira guztiak aintzat hartu beharko: jasotzen dituen denboraren banaketa-esparruetatik norbanakoen arteko elkarrekintza aurreikusten dutenak soilik hartuko dira kontuan (lan or-daindua, adibidez), eta besteak, baztertu (lo-orduak, esaterako). Izan ere, hizkuntza-erabilera ekintza sozial gisa ulertzen den heinean, hala-korik gertatzen den jarduera edo esparrua baino ez da izango baliagarri ikerketa honen helburuetarako.

Horrek, jakina, hainbat muga ezartzen ditu: elkarrekintzarik aurreikus-ten ez duten -hortaz, ikerlan honen markoan sartzen ez diren- denbora-esparruetan egon daitezkeen elkarrekintza puntualak, “nor bere buruari ari deneko jarduna” (Zalbide, 2016), eta “ametsen mundua” edo “mundu onirikoa” kanpo geratzea, esaterako. Baina marko teoriko bat zehaztu beharrak mugak nonbait jartzea eta, hortaz, esparru esanguratsuenak aukeratzea eskatzen du; betiere, horrek hizkuntza-erabileraren alder-diren bat edo beste kanpoan utz dezakeela jakinik.

Amaitzeko, behin ikerketaren bi ardatzak definituta, markoari, berau osatzeko, beste aldagai batzuk gaineratuko dizkiot, eta, horretarako, gehienbat 2011ko Inkesta Soziolinguistikoa hartuko dut oinarri. Kontuan hartuta Ikerlan hau egiteko baliabideak mugatuak direla, eta datu kopuru handiegiak informazio nahas-mahasa eta ulertzeko ezintasuna eragin di-tzakeela jakinik, beste ikerketetan esanguratsuenak izan diren aldagaiak soilik aztertuko dira ikerlan honetan: adina, sexua, lehen hizkuntza, hiz-kuntza-gaitasuna (lau trebetasunetan) eta erraztasun erlatiboa (euskara eta beste hizkuntzen artean zeinetan moldatzen den errazago, alegia).

## 5. TESTUINGURUA<sup>11</sup>

I

Ikerketa hau eremu geografiko jakin batean kokatzen da, Hondarribian; hortaz, komeni da horri buruzko datu batzuk aipatzea.

Hondarribia Gipuzkoaren ipar-ekialdean dagoen herria da eta, nahiz eta mugakide herri gehiago dituen (Lezo, Pasaia Donibane, Oiartzun), Txingudi badia osatzen duten herriein du harreman estuen, Irun eta Hendaiarekin, alegia. Espainiar eta frantziar estatuen arteko mugaan kokatua izatea oso kontuan hartzeko alderdia da.

Alderdi sozio-ekonomikoari dagokionez, Hondarribian turismoa eta harekin lotutako zerbitzuen sektorea dira nagusi. Garai batean indartsua izan zen arrantzaren sektorea gaur egun ekonomia-jardueraren %5 baino ez da, nahiz eta Gipuzkoako arrantza-ontziteria nagusienetakoa izaten jarraitzen duen.

Azkenik, zenbait datu soziolinguistiko: Hondarribian 16.000 biztanle baino gehiago bizi dira; 2 urte edo gehiagokoen artean euskaldunak %60 ziren 2011 urtean, %23 ia-euskaldunak eta erdaldunak %17; eta 1986tik ehuneko horiek ia ez dira aldatu.


#### 1. taula. Hondarribiko hiztunen euskara-gaitasunaren bilakaera (1986-2011).

|                | 1986   |      | 1991   |      | 1996   |      | 2001   |      | 2006   |      | 2011   |      |
|----------------|--------|------|--------|------|--------|------|--------|------|--------|------|--------|------|
| Euskaldunak    | 7.376  | %58  | 7.725  | %58  | 8.560  | %60  | 8.858  | %61  | 9.352  | %61  | 9.557  | %60  |
| Ia-euskaldunak | 2.069  | %16  | 2.789  | %21  | 2.670  | %19  | 2.707  | %19  | 3.113  | %20  | 3.648  | %23  |
| Erdaldunak     | 3.281  | %26  | 2.766  | %21  | 2.930  | %21  | 3.067  | %21  | 2.976  | %19  | 2.723  | %17  |
| Hiztunak       | 12.726 | %100 | 13.280 | %100 | 14.160 | %100 | 14.632 | %100 | 15.441 | %100 | 15.928 | %100 |

Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2014): *Datu soziolinguistikoen bilduma, Hondarribia 1986-2011*. 13. or.

Era berean, 2-15 urte bitartekoak ziren 2011n euskaraz gehien zekitenak (%82) eta helduak, 35-64 urte bitartekoak, gutxien (%49).

#### 1. Grafikoa. Hondarribiko hiztunen euskara-gaitasuna adin-taldeka, 2011.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2014): *Datu soziolinguistikoen bilduma, Hondarribia 1986-2011*. 13. or.

Azkenik, 15 urte edo gehiagoko biztanleei soilik erreparatuz gero, oro har, euskaldunak %56 inguru ziren (7.717 lagun), ia-euskaldunak ia %25 (3.391 lagun), eta erdaldunak ez ziren %20ra heltzen (2.588 lagun).

**2. taula. Hondarribiko hiztunen euskara-gaitasunaren BILAKAERA adin-taldeka, 1986-2011.**

|                                 | 1986          |             | 1991          |             | 1996          |             | 2001          |             | 2006          |             | 2011          |             |
|---------------------------------|---------------|-------------|---------------|-------------|---------------|-------------|---------------|-------------|---------------|-------------|---------------|-------------|
| 2-14 urteko euskaldunak         | 2.327         | %69         | 1.489         | %69         | 1.428         | %77         | 1.279         | %73         | 1.418         | %73         | 1.840         | %82         |
| 2-14 urteko ia-euskaldunak      | 553           | %16         | 479           | %22         | 289           | %16         | 324           | %19         | 393           | %20         | 257           | %12         |
| 2-14 urteko erdaldunak          | 487           | %14         | 201           | %9          | 130           | %7          | 142           | %8          | 126           | %7          | 135           | %6          |
| <b>2-14 urteko hiztunak</b>     | <b>3.367</b>  | <b>%26</b>  | <b>2.169</b>  | <b>%16</b>  | <b>1.847</b>  | <b>%13</b>  | <b>1.745</b>  | <b>%12</b>  | <b>1.937</b>  | <b>%13</b>  | <b>2.232</b>  | <b>%14</b>  |
| 15-34 urteko euskaldunak        | 1.482         | %43         | 2.514         | %56         | 2.982         | %63         | 3.120         | %68         | 2.874         | %69         | 2.547         | %73         |
| 15-34 urteko ia-euskaldunak     | 818           | %24         | 1.177         | %26         | 1.023         | %22         | 813           | %18         | 804           | %19         | 499           | %14         |
| 15-34 urteko erdaldunak         | 1.176         | %34         | 831           | %18         | 732           | %15         | 632           | %14         | 508           | %12         | 441           | %13         |
| <b>15-34 urteko hiztunak</b>    | <b>3.476</b>  | <b>%27</b>  | <b>4.522</b>  | <b>%34</b>  | <b>4.737</b>  | <b>%33</b>  | <b>4.565</b>  | <b>%31</b>  | <b>4.186</b>  | <b>%27</b>  | <b>3.487</b>  | <b>%22</b>  |
| 35-64 urteko euskaldunak        | 2.674         | %58         | 2.682         | %53         | 2.957         | %52         | 3.162         | %51         | 3.636         | %52         | 3.646         | %49         |
| 35-64 urteko ia-euskaldunak     | 625           | %14         | 1.005         | %20         | 1.177         | %21         | 1.333         | %21         | 1.590         | %23         | 2.330         | %31         |
| 35-64 urteko erdaldunak         | 1.314         | %28         | 1.379         | %27         | 1.590         | %28         | 1.753         | %28         | 1.740         | %25         | 1.436         | %19         |
| <b>35-64 urteko hiztunak</b>    | <b>4.613</b>  | <b>%36</b>  | <b>5.066</b>  | <b>%38</b>  | <b>5.724</b>  | <b>%40</b>  | <b>6.248</b>  | <b>%43</b>  | <b>6.966</b>  | <b>%45</b>  | <b>7.412</b>  | <b>%47</b>  |
| >= 65 urteko euskaldunak        | 893           | %70         | 1.040         | %68         | 1.193         | %64         | 1.297         | %63         | 1.424         | %61         | 1.524         | %54         |
| >= 65 urteko ia-euskaldunak     | 73            | %6          | 128           | %8          | 181           | %10         | 237           | %11         | 326           | %14         | 562           | %20         |
| >= 65 urteko erdaldunak         | 304           | %24         | 355           | %23         | 478           | %26         | 540           | %26         | 602           | %26         | 711           | %25         |
| <b>&gt;= 65 urteko hiztunak</b> | <b>1.270</b>  | <b>%10</b>  | <b>1.523</b>  | <b>%11</b>  | <b>1.852</b>  | <b>%13</b>  | <b>2.074</b>  | <b>%14</b>  | <b>2.352</b>  | <b>%15</b>  | <b>2.797</b>  | <b>%18</b>  |
| <b>Hiztunak</b>                 | <b>12.726</b> | <b>%100</b> | <b>13.280</b> | <b>%100</b> | <b>14.160</b> | <b>%100</b> | <b>14.632</b> | <b>%100</b> | <b>15.441</b> | <b>%100</b> | <b>15.928</b> | <b>%100</b> |

Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2014): *Datu Soziolinguistikoen bilduma, Hondarribia 1986-2011*. 15. Or.

## 6. HIPOTESIAK

### I

Atal honetan helburuekin lotutako hipotesi batzuk egingo ditut, ikerketarekin amaitutakoan baieztatu edota ezeztatuko direnak. Hipotesi orokor gisa:

### Hipotesi nagusia

Hondarribiko euskaldunen batez besteko *euskararen erabilera osoa* ez da denboraren erdira (%50era) heltzen.

Eta helburu zehatzekin lotuta, beste hipotesi zehatz batzuk:

#### 1. Hipotesi zehatza

— Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen heren bat (%33) edo gutxiago aritzen da euskaraz egunean zehar denbora erdiz edo gehiagoz.<sup>12</sup>

## 2. Hipotesi zehatza

— Denbora-esparruen artean euskararen erabilerarik baxuena lan ordainduan eta komunikabideen kontsumoan gertatzen da; altuena, berriz, haurren zaintzan eta trebakuntzaren esparruan.

## 3. Hipotesi zehatza

— Jardun-moten artean ahozkoak (ahozko solasaldia, hitz egin eta entzun) dira euskararen erabilera-maila altuena dutenak; idatzizkoak, berriz, baxuena. Zehazkiago, ahozkoen artean zuzeneko elkarrekintzan -solasaldian- gertatzen da erabilerarik altuena; eta idatzizkoen artean (irakurri eta idatzi), ordea, idazteko jardunean gertatzen da baxuena.

## 4. Hipotesi zehatza

— Euskararen erabilera osoak honako aldagaiekin du lotura, hau da, honako faktore hauen arabera aldatu egiten da: sexua, adina, lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna eta erraztasun erlatiboa.

## 7. METODOLOGIA

Helburu nagusian eta marko teorikoan azaldu bezala, ikerketa honetako analisi unitatea Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak dira, norbanako horiei buruzko informazioa (helburuetan finkatutakoa) lortzeko **metodologia kuantitatiboa** erabili da, eta berau **inkesta teknika** bidez burutu da.

Izan ere, hona metodologia bakoitzaren ezaugarriak labur-labur azalduta:

### 3. taula. Gizarte-ikerketarako metodologiaren ezaugarriak.

|                                       | Metodologia kuantitatiboa                           | Metodologia kualitatiboa                            | Metodologia Partehartzailea                        |
|---------------------------------------|-----------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| Zientziaren eta ikerketaren helburuak | Gertaera sozialak azaldu, aurreikusi eta kontrolatu | Jokabide sozialen zentzuak eta esangurak konprenitu | Errealitatearen aldaketan eskuartu                 |
| Objektua                              | Gizabanakoen ekintzak<br>Gertaera sozialak          | Aktoreen diskurtsoak,ifikazioak                     | Subjektu kolektiboen interesak eta beharrak        |
| Hizkuntza                             | Zenbakiak                                           | Kontzeptuak, metaforak                              | Sozio-historikoa, estrategikoa                     |
| Subjektua                             | Lagina                                              | Aktore sozialak beren kokapen sozio-estrukturaletan | Aktore sozialen auto-diagnostikoa                  |
| Diseinua                              | Sistematikoa, egituratua, eereplikakorra            | Irekia, malgua, aldakorra                           | Prozesu irekia;<br>Ekintza-hausnarketa-ekintza     |
| Teknikak                              | Inkesta Kasuen eeregistroa (kale neurketa)          | Eztabaida-taldea<br>Elkarriketa                     | Ikerketa partehartzailea<br>Eskuartze soziologikoa |

Iturria: Martinez, Zesar (2016): "Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak". *Hiznet*, 13. or.

Eta orain ekar dezadan ikerlan honen helburu nagusia gogora: "Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen hizkuntza-erabilera osoa,

**Hipotesi nagusia:**  
**Hondarribiko euskaldunen batez besteko euskararen erabilera osoa ez da denboraren erdira (% 50era) heltzen.**

**Hipotesi zehatza:**  
**Hondarribiko 16**  
**urte edo**  
**gehiagoko**  
**euskaldunen**  
**heren bat (% 33)**  
**edo gutxiago**  
**aritzen da**  
**euskaraz**  
**egunean zehar**  
**denbora erdiz**  
**edo gehiagoz.**

hau da, ahozkoa zein idatzizkoa, ekoizlea zein hartzailea, zenbatekoa den neurtzea.”

Bertan ikus daitekeenez, ikerlanaren helburua “zenbatekoa neurtzea” da, hau da, gertaera sozial baten (kasu honetan, euskararen erabilera osoaren) ezaugarri kuantitatiboak jakin nahi dira. Era berean, helburu zehatzagoetan “zenbat denboraz jarduten duten zehaztea”, “nola banatzen den aztertzea” eta “nolako harremana duen aztertzea” aipatzen dira; eta horiek guztiek, hain zuen ere, gertaera sozial horren kopurua, banaketa (distribuzioa) eta harreman estatistikoak adierazten dituzte: alderdi kuantitatiboak guztiak. Beraz, ez dute helburu gertaera soziala (euskararen erabilera osoa kasu) azaltzea, baizik eta deskribatzea, “argazkia ateratzea”; eta, horretarako, inkesta da teknikarik egokiena.

Hona zer dioen Zersar Martinezek HIZNETeko “Ikerketa Soziolinguistikorako Metodologiak eta Teknikak” ikasgaiko testuan:

“...bete-betea metodo kuantitatiboa jarraituz arakatzekoak lirateke zenbatekoarekin eta haren hazkundearekin edo gutxitzearekin zerikusia duten gizartearen alderdiak....”. (Martinez, 2016. 45 or.)

Eta honela jarraitzen du:


“...aztergai duguna, era batera edo bestera, zenbatekotasuna bada metodo kuantitatiboaren bidetik ikertu genezake, aztertutako zenbatekotasunaren gaineko azalpenak kuantitatiboak izan beharrik ez badaukate ere.” (Martinez, 2016. 45 or.)

Hortaz, metodologia kuantitatiboa edo distributiboa deitutakoa erabili da ikerlan honen helburuak lortzeko.

Horrela, ikerlana era sistematikoan burutzeko fase ezberdinak, kronologikoki bata bestearen atzetik doazenak, aurreikusten ditu metodologia horrek: lehenik, aztergaiaren formulazioa, honen inguruko bibliografiaren azterketa eta helburuen zehaztapena (ikerketaren diseinua); ondoren, lagina diseinatu eta inkesta mota zehaztu, baliabideak eta denbora kontuan izanda, eta hortik galde-sorta diseinatu (inkestaren diseinu tekniko); eta, azkenik, datu bilketa egin, berauek kodifikatu, aztertu eta txostena idatzi.

Hona era eskematikoan adierazita:

1. irudia: inkesta bidezko ikerketa prozesuaren lan-aldiak.



Iturria: Martinez, Zesar (2016): "Ikerketa Soziolinguistikorako Metodologiak eta teknikak". HIZNET, 51. or.

Inkestaren diseinu teknikoan lagina zehazteko garaian, honakoa hartu da kontuan: neurraketa Hondarribia herrian egin nahi da, Denbora Aurrekontuen Inkestako datuak 16 urte edo gehiagoko jendeari dagozkionak dira, eta euskara erabil dezaketenak euskaraz dakitenak dira. Hori dela-eta, unibertsoa "Hondarribian bizi diren 16 urte edo gehiagoko pertsona euskaldunek –euskaradunek–" osatuko dute. Era berean, unibertso horretan sexu eta adin-talde bakoitzak duen proportzioa ere begiratu da, lagina osatzeko garaian unibertsoarekiko ahalik eta berdintsuen izan dadin. Datu horiek guztiak "Hondarribiko Datu Soziolinguistikoen Bilduma" txostenetik atera dira.<sup>13</sup>

Ondoren, behin unibertsoaren datuak jasota eta bete beharreko lagina kontuan hartuta, galdetegia diseinatu eta inkestak egiteari ekin zaio. Landa-lana ahalik eta eraginkorrena izatearren, autobetetzeko galdetegiak diseinatu dira eta laguntzaile-sare baten bidez zabaldu.

Bertan, atalak helburuekiko esanguratsuenak diren denbora-esparruen arabera banatu dira, eta esparru horietako bakoitzean jardun-mota ezberdinen inguruan eta horietan euskararen erabilera zenbatekoa den

**Unibertsoa**  
**"Hondarribian**  
**bizi diren 16 urte**  
**edo gehiagoko**  
**pertsona**  
**euskaldunek –**  
**euskaradunek–"**  
**osatuko dute. Eta**  
**guztira 171**  
**pertsonak**  
**erantzun dute**  
**inkesta.**

**Denbora  
Aurrekontuen  
Inkestak jasotzen  
du jendeak  
jarduera  
bakoitzean batez  
beste zenbat  
denbora  
igarotzen duen.  
Ikerlan honetan,  
inkestatuen  
euskararen  
erabilera  
zenbatekoa den  
neurtzeko modu  
bera erabili da.**

galdetu da. Horrez gain, adierazgarrienak izan daitezkeen datu pertsonalak eskatu dira, hala nola adina, sexua, lehen hizkuntza, euskara-gaitasuna eta erraztasun-erlatiboa.

Azkenik, lortutako inkesta kopuruarekin (laginarekin, alegia) eta formula estatistiko bat erabiliz, %95eko konfiantza-mailarekin, eta  $p=q=0,5^{14}$  izanik, lortutako akats-tartea kalkulatu da. Bukatzeko, eta galdetegia kodetu eta gero, SPSS programaren bidez, datuen analisia egin eta ondorioak atera dira.

Dena den, hau guztia zehatzago azaldua dator datorren atalean.

## 8. DATUEN BILKETA

### I

#### Lagina

Guztira 171 pertsonak erantzun dute inkesta (zenbaitzuk, bete gabeko edo gaizki betetako atal kopuru handiagatik, zuzenean baztertuak izan eta gero), eta unibertsoa 7717 pertsonakoa zela kontuan izanda, %95eko konfiantza-mailarekin  $\pm 7,4$ ko akats-tartea duen lagina lortu da. Hona hobeki azalduta:

Aurreko ataletan azaldu bezala, hemen aztertu den populazioa -unibertsoa- honako hau da: Hondarribian bizi diren 16 urte edota gehiagoko euskaldunak. Datu hori lortzeko, Soziolinguistika Klusterrak duen Hondarribiko datu soziolinguistikoen bildumara<sup>15</sup> jo, eta bertatik datu hauek atera dira:

4. taula: Hondarribiko biztanleria euskalduna, adinaren arabera. 2011.

| Adin-taldeak   | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Guztira       |
|----------------|-------------|--------------|---------------|
| 15-34 urte     | 1.351       | 1.196        | 2.547 (% 33)  |
| 35-64 urte     | 1.787       | 1.859        | 3.646 (% 47)  |
| $\geq 65$ urte | 670         | 854          | 1.524 (% 20)  |
| Guztira        | 3.808       | 3.909        | 7.717 (% 100) |

Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2014): *Datu soziolinguistikoen bilduma, Hondarribia 1986-2011*. 15. or.

Behin unibertsoa zein den argituta, hau da, 7717 pertsona, eta lagina 171koa dela kontuan hartuta, %95eko konfiantza-mailarekin (eta  $p=q=0.5$  izanik) akats-tartea zenbatekoa den kalkulatu da, formula estatistiko hau erabiliz<sup>16</sup>:

|                                              |          |                                                                                         |
|----------------------------------------------|----------|-----------------------------------------------------------------------------------------|
| $\frac{N(\alpha \cdot 0,5)^2}{1+(e^2(N-1))}$ | = Lagina | Non $N$ = Unibertsoa<br>$\alpha$ = Konfiantza-maila (% 95= 1,960)<br>$e$ = Akats-tartea |
|----------------------------------------------|----------|-----------------------------------------------------------------------------------------|

Eta hona egindako kalkulua<sup>17</sup>:

$$\frac{N(\alpha \cdot 0,5)^2}{1+(e^2(N-1))} = L \Rightarrow \sqrt{\frac{\left(\frac{N(\alpha \cdot 0,5)^2}{L}\right) - 1}{N-1}} = e$$

$$\sqrt{\frac{\left(\frac{7717 \cdot (1,96 \cdot 0,5)^2}{171}\right) - 1}{7717 - 1}} = \pm 7,4$$

Era berean, lortutako lagina honela banatzen da, sexu eta adinaren arabera:

#### 5. taula. Lagina (A = %95, E = ±7,4)

| Adin-taldeak | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Guztira     |
|--------------|-------------|--------------|-------------|
| 15-34 urte   | 29          | 31           | 60 (% 35)   |
| 35-64 urte   | 37          | 56           | 93 (% 54)   |
| ≥65 urte     | 6           | 12           | 18 (% 11)   |
| Guztira      | 72          | 99           | 171 (% 100) |

Iturria: Oiartzabal, Eneko 2017. *Zenbat denboraz bizi ote gara euskaraz?*

Hori guztia azalduta, bi ohartarazpen: bata, lortutako akats-tartea, ±7,4koa, estandar zientifikoek eskatzen dutena, hau da, ±5ekoa baino altuagoa da; eta, bestea, adin eta sexuari dagokionez, lagina ez da unibertsoarekiko guztiz proportzionala.

Hortaz, ikerketan jasotako laginak baditu zenbait muga eta hutsune, eta desiragarria izango zen, jasotako datuak sendoagoak izateko, lagin handiago eta proportzionatuago bat lortu izana. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta ikerlan hau lehen hurbilpen bat baino ez dela, hizkuntza-erabileraren neurketari ikuspegi berri bat eskaintzeko ahalegin xume bat, hain zuzen ere, nahikoa izan daiteke zenbait emaitza eta ondorio ateratzeko, eta bide baliagarria izan daitekeen argitzeko.

## **Galdetegia**

Behin lortutako lagina eta horren akats-tartea zehaztuta, galdetegia bera zertan datzan azaltzea falta da: lehenik, zer galdetu den; ondoren, erantzunak nola neurtu diren; eta, azkenik, landa-lana nola egin den. Hona atalez atal:

### *Aldagaien aukeraketa: zer neurtu*

Ikerketaren helburu nagusia, euskararen erabilera, bi ardatzetan banatzen da: denbora, hau da, zenbat denboraz aritzen den jendea euskaraz; eta erabilera osoa, hots, jardun-mota guztiak (hitz egitea, entzutea, idaztea eta irakurtzea) aintzat hartuta. Beraz, Denbora Aurrekontuen Inkestan azaltzen diren denbora-esparruen arabera antolatu da galdetegia, eta esparru bakoitzean jardun-moten inguruan galdetu da. Azkenik, inkestatuei zenbait datu pertsonal eskatu zaizkie, alderaketak eta erlazioak egin ahal izateko.

**Lehenik**, Denbora Aurrekontuen Inkestak<sup>18</sup> oinarritzko datu bat ematen du: jendeak batez beste zenbat denbora igarotzen duen jarduera jakin bat egiten, eta guztien baturak egun oso bat hartzen du. Zehazkiago esanda, inkesta horrek jarduera ezberdinak taldekatu egiten ditu, esparru zabalagoak osatuz, eta, era berean, (azpi)esparru horiek esparru are zabalagoetan biltzen ditu, azkenean zortzi denbora-esparru nagusitan sailkatu arte: behar fisiologikoak, lan ordaindua eta prestakuntza, etxeko lanak, zaintzak etxeko pertsonen, gizarte zibila, aisia aktiboa eta kirolak, aisia pasiboa eta zaletasunak, eta joan-etorriak.

Lan honetako galdetegia diseinatzeko orduan, helburuekiko esanguratsuak zirenak soilik hartu dira eta, horretarako, zenbaitetan esparru osoak hartu dira kontuan, beste batzuetan azpi-esparru batzuk, eta beste zenbaitetan azpi-esparruetako jarduera zehatz batzuk baino ez. Hona aukeraketarako irizpideak:

Lehenik eta behin, pertsonen arteko elkarrekintza edota edozein mota-tako hizkuntzaren erabilera (zerbait entzutea edota irakurtzea barne) izan dezaketen esparruak, azpi-esparruak edota jarduerak izatea; eta kanpoan utzi dira halakorik ez dutenak. Adibidez, *jatea eta edatea* denbora-esparrua aukeratu da, baina *lo egitea* kanpoan utzi da, biak ala biak *behar fisiologikoak* esparruaren baitakoak.

Bigarrenik, printzipioz aurreko baldintza bete arren, ikuspegi funtzional eta praktikoa batetik oso nahasiak edota nahasgarriak diren esparru,

azpi-esparru edo jarduera batzuk ere kanpoan uztea. Batez ere, beren baitan hizkuntzaren erabilera eta erabilera eza duten jarduerak biltzen dituztelako, eta ezinezkoa izan delako datuak banakatzea, denbora-esparru “garbiagoak” atera ahal izateko (*kudeaketa* izenekoa, esate baterako).

Hala ere, esan beharra dago galdetegian sartutako denbora-esparruek, *lo egitea* eta *higiene pertsonala* esparruak batuz gero (zeinak kanpoan geratu diren hizkuntzaren erabilerarik aurreikusten ez zaielako), egun oso baten denboraren %93 inguru hartzen dutela.<sup>19</sup> Eta honako hauek dira: jatea eta edatea, lan ordaindua, trebakuntza, etxeko erosketak, etxeko lanak, haurren zaintza (jolasa eta heziketa barne), helduen zaintza, joan-etorriak, kultur kontsumoa, komunikabideak, eta kirola eta txangoak.

**Bigarrenik**, galdetegiaren bizkarrezurra esparruen arabera antolatu eta gero, bigarren ardatza diren jardun-motak izan dira galdetegiaren oinarri: lehenik, denbora-esparru bakoitzean jardun-mota bakoitza zein nolako maiztasunez egiten duten galdetu zaie inkestatuei, hau da, zenbat denboraz jarduten duten jendearekin hizketan, zerbait entzuten, zerbait irakurtzen...; eta bigarrenik, jardun-mota bakoitzean euskaraz zenbat aritzen diren. Honela, denbora-esparru bakoitza jardun-moten arabera nola banatzen den jakin da eta, era berean, jardun-mota bakoitzean euskaraz zenbat egiten duten jakitea lortu da.

Aurreko ataletan zehaztu bezala, jardun-motak, izatez, lau badira ere (hitz egitea, entzutea, idaztea eta irakurtzea), inkestatuari gauzak erraztearren, honela bereizi dira: ahozko solasaldia, idatziko solasaldia, zerbait irakurri, zerbait ikusi, zerbait entzun, zerbait idatzi eta zerbait esan (hitz egin, baina solasaldirik gabe). Hau da, batetik, solasaldiari kategoria propioa eman zaio, halako ekintza batean ezinezkoa baita “hitz egin” eta “entzun” kategoriak bereiztea (irratiarekin edota hitzaldi batekin ez bezala); beste batetik, ahozko eta idatzizko solasaldia bereiztea erabaki da, gaur egungo teknologiek gero eta ohikoa bilakatu baitute bat-bateko solasaldi idatzia; eta, azkenik, zerbait ikustea (telebista, interneteko bideoak...) edo entzutea (irratia, musika...) hizkuntza-erabileraren ikuspegitik trebetasun berberari badagozkio ere (entzuteari, alegia), galdetegian bereizi egin dira, jendeak oso argi bereizten dituen ekintzak izaki, inkestatuei erantzun egokia ematen lagunduko zielakoan.

Era berean, denbora-esparru guztietan ez da aipatu berri diren jardun-mota guztiez galdekatu, baizik eta esparru bakoitzean egokiak irizten

**Denbora  
Aurrekontuen  
Inkestak jasotzen  
du jendeak  
jarduera  
bakoitzean batez  
beste zenbat  
denbora  
igarotzen duen.  
Ikerlan honetan,  
inkestatuen  
euskararen  
erabilera  
zenbatekoa den  
neurtzeko modu  
bera erabili da.**

direnez bakarrik; esate baterako, kirol eta txangoen denbora-esparruan ez da zerbait irakurtzen igarotzen duten denboraz galdetu; ia gertaezina diren gauzekin galde-sorta alferrik ez luzatzeko.

Aitzitik, nahiz eta printzipioz solaskideak ez diren ikerketa honen helburuetan sartzen, eta horiek sartzeak ikerlana bera eta galdetegia konplexuegia bilakatuko luketen, zenbait denbora-esparrutan, hizkuntza-erabilera jokabide desberdinak eta esanguratsuak aurreikusten direnez, ahozko solasaldiak solaskide ezberdinen arabera banatu dira, jardun-mota haren inguruko galdera bat baino gehiago eginez (“lankideekin hizketan” eta “bestelakoekin hizketan”, hau da, bezero, hornitzaile eta abarrekin hizketan, adibidez).

**Azkenik**, inkestatuei zenbait datu pertsonal ere eskatu zaizkie, hala nola adina, sexua edo generoa, lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza batean edo bestean egiteko erraztasun erlatiboa.

### **Datuen irakurketa: nola neurtu**

Jasotako datu horiek, lehen aipatu bezala, *Denbora Aurrekontuen Inkestak* ematen dituen datuetan oinarritzen dira. Bertan, jendeak jarduera bakoitzean batez beste zenbat denbora igarotzen duen jasotzen da (*Batez besteko denbora* deiturikoa) eta, hain zuzen ere, denbora-datu horiek erabili dira ikerlan honetan, inkestatuen euskararen erabilera zenbatekoa den neurtzeko.

Galdetegia erantzun duten guztiek atal guztiak eta berberak bete ez dituztenez, baizik eta bakoitzak dagozkionak soilik (adibidez, lanean ez baina ikasten ari denak *trebakuntza* atala bete du, baina ez *lan ordaindua* atala), bakoitzak betetako atalen batura, zeina kasu bakoitzean ezberdina izan daitekeen zenbaki absolutuetan, denboraren (egun baten) %100 kontsideratu da kasu guztietan. Bestela esanda, norberak erantzundako denbora-esparruen baturaren -osotasunaren- arabera pisu erlatiboa erabili da euskararen erabilera zenbatekoa den neurtzeko garaian. Horretarako, bete gabeko atalak balio galdutzat hartu dira eta ez dira neurketarako kontuan izan.

Halaber, eta ahalik eta zehatzen izateko asmoz, sexu eta adin-tarte ezberdinen arabera datuak erabili dira (hurrengo orrialdeko taulan, kolore gris argian), hainbat denbora-esparrutan igarotako denboran alde handiak baitaude sexu eta adin-taldeetan artean. Hala ere, zenbait jardueren kasuan ezinezkoa izan da datu hain xeheak lortzea, hau da, sexuaren eta adinaren (bien) arabera lortzea; beraz, kasu horietan

bataren edo bestearen arabera erabili dira, hots, edo sexuaren arabera, edo adin-tartearen arabera (hurrengo orrialdeko taulan, kolore gris ilunean).

Hona taula, aipatutakoa laburbiltzen duena:

**6. taula. Batez besteko denbora minututan<sup>20</sup>.**

| Esparruak                                  | Orokorra |       |       |     | Emakumezkoak |       |       |     | Gizonezkoak |       |       |     |
|--------------------------------------------|----------|-------|-------|-----|--------------|-------|-------|-----|-------------|-------|-------|-----|
|                                            | Guz tira | 16-34 | 35-59 | ≥60 | Guz tira     | 16-34 | 35-59 | ≥60 | Guz tira    | 16-34 | 35-59 | ≥60 |
| Jatea eta edatea                           | -        | -     | -     | -   | -            | 133   | 128   | 125 | -           | 130   | 139   | 138 |
| Lan ordaindua                              | 436      | 426   | 440   | 426 | 404          | 404   | 404   | 408 | 461         | 448   | 468   | 434 |
| Prestakuntza arautua                       | 326      | 337   | 164   | 131 | 319          | 332   | 133   | 180 | 333         | 342   | 196   | 108 |
| Prestakuntza arautu gabea                  | 98       | 95    | 116   | 79  | 98           | 110   | 110   | 93  | 98          | 71    | 120   | 77  |
| Erosketak                                  | 51       | 53    | 54    | 48  | 54           | 51    | 57    | 51  | 47          | 56    | 49    | 44  |
| Etxea garbitu                              | 70       | 51    | 72    | 78  | 76           | 51    | 77    | 85  | 57          | 51    | 62    | 58  |
| Arropa garbitu eta lisatu                  | 43       | 32    | 46    | 52  | 49           | 35    | 51    | 56  | 29          | 25    | 34    | 30  |
| Janaria prestatu                           | 80       | 52    | 83    | 95  | 94           | 56    | 96    | 111 | 60          | 47    | 65    | 61  |
| Haurren zaintza**<br>Jolasa/heziketa barne | 82       | 100   | 79    | 79  | 89           | 231   | 171   | 153 | 70          | 189   | 152   | 175 |
| Helduen zaintza                            | 96       | 73    | 90    | 106 | 101          | 102   | 98    | 104 | 84          | 52    | 75    | 111 |
| Joan-etorriak                              | 82       | 91    | 87    | 65  | 78           | 88    | 84    | 60  | 86          | 94    | 89    | 71  |
| Liburuak irakurtzea                        | 88       | -     | -     | -   | 87           | -     | -     | -   | 90          | -     | -     | -   |
| Ikuskizunetara joatea                      | 118      | 125   | 120   | 99  | 109          | 118   | 109   | 102 | 125         | 134   | 126   | 93  |
| Prentsa idatzia                            | 61       | -     | -     | -   | 57           | -     | -     | -   | 61          | -     | -     | -   |
| Telebista                                  | 152      | 127   | 130   | 199 | 148          | -     | -     | -   | 159         | -     | -     | -   |
| Irratia                                    | 64       | -     | -     | -   | 61           | -     | -     | -   | 66          | -     | -     | -   |
| Internet                                   | 65       | 98    | 77    | 82  | 77           | 88    | 66    | 69  | 90          | 106   | 81    | 90  |
| Kirol ekintzak                             | 90       | 100   | 83    | 69  | 80           | 84    | 78    | 67  | 97          | 111   | 87    | 70  |
| Txangoak eta ibilaldiak                    | 124      | 118   | 118   | 131 | 115          | 115   | 112   | 117 | 133         | 121   | 124   | 147 |

Iturria: Eustat (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-aurrekontuen Inkesta, 1993-2013*. Gasteiz: Eustat. Eta [www.eustat.eus](http://www.eustat.eus)

Gauzak horrela, eta denbora-esparru horietan jardun-mota bakoitzean zein nolako maiztasunez aritzen diren jaso denez, horiek esparru bakoitzean duten pisu erlatiboa kalkulatu da. Era berean, jardun-mota horietako bakoitzean euskaraz zenbat aritzen diren ere erantzun dutez, jardun-mota horietako bakoitzean euskararen erabilera zenbatekoa den jakin ahal izan da. Eta, bukatzeko, jardun-mota bakoitzeko euska-

raren erabilera ezagututa, esparru bakoitzean eta horien guztien baturan, hau da, egun osoan euskaraz zenbat denboraz aritzen diren kalkulatu ahal izan da.

Hona hemen, argiago ikusteko, denbora-esparru baten adibidea:

## 2. irudia. Galdetegiko denbora-esparru bateko galderak.

| B. Lan ordaindua                                                                                                                                                                                                 |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|-------------------|
| Kontratadun edo kontratu gabeko edozein lan ordaindu egiten igarotzen duzun denbora osoa; lantokian eta lantokitik kanpo; lankideekin, lankide ez direnekin (bezero, hornitzaile, banatzaile...) edo bakarrik... |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| B.1. Egiten al duzu LAN ORDAINDIRIK?                                                                                                                                                                             |                               |                  | B.2. Eta NOLAKO LANALDIA egiten duzu NORMALEAN?                                                  |                     |                   |
| Bai                                                                                                                                                                                                              |                               |                  | Lanaldi osoa %100                                                                                | Lanaldiaren 1/2 %50 |                   |
| Ez                                                                                                                                                                                                               | Joan zuzenean <i>Catalera</i> |                  | Lanaldiaren 3/4 %75                                                                              | Lanaldiaren 1/4 %25 |                   |
| B.3. Lanorduetan, eta une horietan zurekin harremanetan egoten den jende guztia kontuan hartuta, ZENBATETAN egoten zara...                                                                                       |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Kontuan izan: "batzuetan" erdia-edo da, eta hainbat ekintza egin daitezke aldi berean                                                                                                                            |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  | Beti (edo ia)                 | Askotan          | Batzuetan                                                                                        | Gurbitan            | Inoiz ez (edo ia) |
| Lankideekin hizketan<br><i>Aurrez aurre, telefonoz, Skype...</i>                                                                                                                                                 |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Bestelakoekin hizketan<br><i>Bezero, hornitzaile, banatzaile...</i>                                                                                                                                              |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Idatziz hizketan<br><i>Whatsappoz, datan...</i>                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Zerbait irakurtzen<br><i>Lan-dokumentuak...</i>                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Zerbait ikusten<br><i>Telebista, bideoak...</i>                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Zerbait entzuten<br><i>Irati, musika, beste audioak...</i>                                                                                                                                                       |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Zerbait idazten<br><i>Lanak, txostenak, e-postak...</i>                                                                                                                                                          |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Zerbait esaten<br><i>Hitzaldiak, aurkezpenak...</i>                                                                                                                                                              |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| Aurreko ezer ere ez<br><i>Hitz egin, entzun, irakurri...gabe</i>                                                                                                                                                 |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
| B.4. Lanorduetan ZEIN HIZKUNTZATAN egiten dituzu NORMALEAN jardura horiek?                                                                                                                                       |                               |                  | Oharra: aurreko galderako leku batean "inoiz ez" jarri baduzu, galdera honetan ez bete leku hori |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  | Beti euskaraz                 | Gehiago euskaraz | Bietan berdin                                                                                    | Gehiago erdaraz     | Beti erdaraz      |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |
|                                                                                                                                                                                                                  |                               |                  |                                                                                                  |                     |                   |

Iturria: Oiartzabal, Eneko 2017. Zenbat denboraz bizi ote gara euskaraz?

Bukatzeko, hizkuntza-gaitasunaren eta erraztasun erlatiboaren kasuan, trebetasunez trebetasun galdetu zaie: euskaraz hitz egiteko, entzundakoa ulertzeko, irakurtzeko eta idazteko duten gaitasuna eta erraztasun erlatiboa. Ondoren, lau trebetasunetan erantzundakoarekin aldagai bararra osatu da: gaitasunari dagokionez, *hizkuntza-gaitasun orokorra* eta, erraztasun erlatiboari dagokionez, *erraztasun erlatibo orokorra*.

Hona hemen aldagai horiek osatzeko taulak:

## 7. taula. Hizkuntza-gaitasun orokorra.

|                                                                                   | Hitz egin          | Entzun             | Irakurri             | Idatzi                    |
|-----------------------------------------------------------------------------------|--------------------|--------------------|----------------------|---------------------------|
| Euskaldun alfabetatua                                                             | Ongi / Nahiko ongi | Ongi / Nahiko ongi | Ongi / Nahiko ongi   | Ongi / Nahiko ongi        |
| Euskaldun erdi edo ez alfabetatua                                                 | Ongi / Nahiko ongi | Ongi / Nahiko ongi | Ez oso ongi / gaizki | Ez oso ongi / gaizki      |
| Ia euskaldun alfabetatua                                                          | Ez oso ongi        | Ongi / Nahiko ongi | Ongi / Nahiko ongi   | Nahiko ongi / Ez oso ongi |
| Ia euskaldun erdi edo ez alfabetatua                                              | Ez oso ongi        | Ez oso ongi        | Ez oso ongi / gaizki | Gaizki                    |
| Oharra: Ez dira erdaldunak kontuan hartu, ikerketaren jomuga euskaldunak baitira. |                    |                    |                      |                           |

Iturria: Oiartzabal, Eneko 2017. *Zenbat denboraz bizi ote gara euskaraz?*

## 8. taula. Erraztasun erlatibo orokorra.

| Hitz egin         | Entzun            | Irakurri          | Idatzi            | EMAITZA              |
|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|----------------------|
| Puntuazioak:      | Puntuazioak:      | Puntuazioak:      | Puntuazioak:      | Puntuazioak:         |
| 1 = eusk. gehiago | 1 = eusk. gehiago | 1 = eusk. gehiago | 1 = eusk. gehiago | 6 => eusk. gehiago   |
| 2 = bietan berdin | 2 = bietan berdin | 2 = bietan berdin | 2 = bietan berdin | 7 =< 8 bietan berdin |
| 3 = erd. gehiago  | 3 = erd. gehiago  | 3 = erd. gehiago  | 3 = erd. gehiago  | 9 =< erd. gehiago    |

Iturria: Oiartzabal, Eneko 2017. *Zenbat denboraz bizi ote gara euskaraz?*

## Landa-lana

Galdetegiak maiatzaren erdialdetik ekainaren bukaera ingurura burutu dira, eta inkesta kopuru ahalik eta handiena lortzeko asmoz, eta baliabide eskasak kontuan izanda, datu-bilketa honela antolatu da:

Batetik, autobetetzekoa den galde-sorta prestatu da, inkestatuek beren kabuz bete ahal izateko, inkestatzaile lanetan inor egon beharrik gabe. Horrek aukera eman du inkesta ugari modu azkarrean banatu eta jasotzeko.

Bestetik, laguntzaile-sare bat osatu da. Galdetegiak banatzera eta gero beteta jasotzera mugatu direnez, laguntzaile horiek beren inguruan (familian, lagunartean, lantokian, parte hartzen duten edonolako talde edo elkartetan...) erraz zabaltzeko ahal izan dituzte inkestak, eta herritar askorengana heldu ahal izan dira.

Hala ere, banatutako inkesten erdiak jaso dira gutxi gorabehera, eta horrek ere eragin du lagin handiagoa lortu ahal ez izatea.

## 9. DATUEN ANALISIA

### I

Orain datuen irakurketari ekingo zaio: lehenik, datu orokorrak; gero, denbora-esparruetako emaitzak; ondoren, jardun-moten araberakoak; eta, azkenik, zenbait faktoreren ingurukoak.

### 9.1 Hizkuntza-erabilera osoa

#### 9.1.1 Erabilera orokorra


Hasteko, hizkuntza-erabilera orokorra aztertuko da: esparru eta jardun-mota guztiak kontuan hartuta, Hondarribian bizi diren 16 urte edo gehiagoko euskaldunek, batez beste, zenbat erabiltzen dute euskara egunean zehar?

Hona taula eta grafikoa:

9. taula. Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen hizkuntza-erabilera osoa (%).

|                           | N   | Gutxienekoa | Gehienekoa | Batez bestekoa | Desbideraketa estandarra |
|---------------------------|-----|-------------|------------|----------------|--------------------------|
| Euskararen erabilera osoa | 171 | 1,1         | 90,7       | 45,6           | 17,7263                  |
| Erdararen erabilera osoa  | 171 | 9,3         | 98,9       | 54,4           | 17,7263                  |
| N baliodunak guztira      | 171 |             |            |                |                          |

2. Grafikoa. Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen hizkuntza-erabilera osoa (%).



Ikus daitekeenez, lagin osoa 171 kasutakoa da (N= inkesta kopurua), eta horiek egunean zehar, batez beste, denboraren %45,6 aritzen dira euskaraz; eta gainerakoa, %54,4, erdaraz. Bestela esanda, Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak denboraren erdia baino gutxiago aritzen dira euskaraz.

Horrez gain, taulak honako informazio osagarria eskaintzen du: euskaraz aritzen direnen artean, gehien aritzen direnak denboraren %90,7 aritzen dira euskaraz, eta gutxien aritzen direnak, berriz, %1,1 eskas, hau da, ia ezer ez. Hortaz, erdaraz gutxien egiten dutenek %10 inguruko erabilera egiten dute hizkuntza horretan, eta gehien aritzen direnek ia %99.


### 9.1.2 Inkestatuen erabilera-maila orokorra

Datu horiek bigarren galderara daramate: Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen artean zenbatek egiten dute euskaraz denboraren %50 edo gehiago? Eta zenbatek gutxiago? Hona hemen lagineko pertsonak euskararen erabilera-mailaren arabera sailkatzen dituen taula eta grafikoa:

10. taula: Hondarribiko euskaldunen banaketa euskararen erabilera-mailaren arabera.

|            | % 0-50 | % 50-100 | Guztira |
|------------|--------|----------|---------|
| Maiztasuna | 97     | 74       | 171     |
| Ehunekoa   | 56,7   | 43,3     | 100,0   |

3. grafikoa. Hondarribiko euskaldunen banaketa euskararen erabilera-mailaren arabera.



Hondarribiko 16 urte edo gehiago euskaldunen artean %43,3 da egunean zehar euskaraz denboraren erdia edo gehiago egiten duena; eta gainerako %56,7a, berriz, erdia baino gutxiago.

Ehunekoa batez besteko erabilera orokorraren ia parekoa da (erabilera orokorra, %45,6). Horrek esan nahi du banaketa orekatua dagoela erabiltzaileen artean, ez dagoela muturreko erabilera (oso altua edo oso baxua) duen talde esanguratsurik. Taula eta grafiko hauetan xeheago ikus daiteke banaketa:


**Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak denboraren erdia baino gutxiago aritzen dira euskaraz.**

**Euskaldunen gehiengoa erdiko balioetan dabil: % 45,6k euskara denboraren % 25-50 bitarte erabiltzen du, pertsonen % 39,8k % 50-75 bitarte.**

**11. taula: Hondarribiko euskaldunen banaketa, euskararen erabilera-mailaren arabera, 4 taldetan banatuta.**

|            | % 0-25 | % 25-50 | % 50-75 | % 75-100 | Guztira |
|------------|--------|---------|---------|----------|---------|
| Maiztasuna | 19     | 78      | 68      | 6        | 171     |
| Ehunekoa   | 11,1   | 45,6    | 39,8    | 3,5      | 100,0   |

**4. grafikoa: Hondarribiko euskaldunen banaketa, euskararen erabilera-mailaren arabera, 4 taldetan banatuta.**



Azken grafiko horretan ikus daiteke Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen gehiengoa erdiko balioetan dabilela, euskararen erabilera-mailari dagokionez: %45,6k euskara denboraren %25-50 bitarte erabiltzen du, pertsonen %39,8k %50-75 bitarte, %11,1ek %0-25 bitarte, eta %3,5ek %75-100 bitarte.

Beraz, oso gutxi dira euskararen erabilera oso altua (%75etik gorakoa) edo oso baxua (%25etik beherakoa) dutenak, nahiz eta azken hauek (euskara oso gutxi erabiltzen duten euskaldunak, alegia) euskararen erabilera oso altua dutenak baino askoz gehiago diren (%11,1 eta %3,5, hurrenez hurren); eta horrek azalduko luke, besteak beste, euskararen erabilera-maila %50 edo altuagoa dutenen ehunekoa (%43,3) batez besteko erabilera orokorra (%45,6) baino zertxobait baxuagoa izatea.

## 9.2 Euskararen erabilera denbora-esparruen arabera


### 9.2.1 Denbora esparruetako erabilera osoa

Euskararen erabilera osoa, hots, jardun-mota guztiak (ekoizlea zein hartzailea, ahozkoa zein idatzizkoa) kontuan hartuta, denbora-esparruen arabera aztertuz gero, honakoak dira emaitzak:

**12. taula: Euskararen batez besteko erabilera osoa, denbora-esparruen arabera (%).**

|                | Kultur kontsumoa | Komunika bideak | Jatea eta edatea | Joan-etorriak | Kirola eta txangoak | Lan ordaindua | Etxeko lanak | Helduen zaintza | Etxeko erosketak | Trebakuntza | Haurren zaintza |
|----------------|------------------|-----------------|------------------|---------------|---------------------|---------------|--------------|-----------------|------------------|-------------|-----------------|
| N              | 146              | 158             | 171              | 135           | 135                 | 116           | 149          | 26              | 143              | 58          | 59              |
| Batez bestekoa | 32,8             | 37,4            | 47,4             | 49,3          | 49,4                | 49,5          | 51,6         | 52,1            | 53,7             | 56,0        | 68,1            |

**5. grafikoa. Euskararen batez besteko erabilera osoa, denbora-esparruen arabera (%).**



Grafikoan argi ikusten da denbora-esparru batzuen artean alde nabarmenak eta esanguratsuak daudela: euskararen erabilerarik baxuena kultur kontsumoan (%32,8) eta komunikabideetan (%37,4) gertatzen da; altuena, berriz, haurren zaintzan nabarmen (%68,1) eta, alde txikiagoagatik bada ere, trebakuntzan (%56). Gainerako denbora esparruetan, aldeak ez dira oso esanguratsuak eta nahiko pareko daude, %47,4tik %53,7 bitarte, hain zuzen.

Halere, kontuan izan behar da denbora-esparru guztietan ez duela lagin osoak (171 kasuk) parte-hartzen eta, hortaz, esparru batzuetako datua kasu gutxitan oinarrituta dagoela. Muturrekoak aipatzearren: *jatea eta edatea* esparruan guztiek parte-hartzen dute, hau da, inkestatu kopurua (N) 171 da; baina lagina osatzen duten pertsonetatik 28k soilik igarotzen dute denbora helduen zaintzan. Trebakuntzan eta haurren zaintzan ere laginaren gutxiengoak parte-hartzen du, lehenengoan 58k eta bigarrenean 59k, gehiengoa kanpoan geratuz. Gauzak horrela, lagin altuagoa beharko litzateke esparru guztietan datu sendoagoak lortzeko, eta horietatik ondorio garbiagoak atera ahal izateko.


### 9.2.2 Inkestatuen erabilera-maila denbora-esparruetan

Esparruetako erabilera-mailari dagokionez, hau da, zenbatek erabiltzen duten euskara denbora erdiz edo gehiagoz ala gutxiagoz, zenbait esparrutan datu adierazgarriak ateratzen dira: haurren zaintzan, trebakuntzan eta etxeko erosketetan, hain zuzen ere. Hona hemen taula eta grafikoak:


**13. taula: Euskararen erabilera-mailaren arabeko banaketa zenbait denbora esparrutan (%)**

|                  | 0-25 | 25-50 | 50-75 | 75-100 |
|------------------|------|-------|-------|--------|
| Trebakuntza      | 22,4 | 22,4  | 15,5  | 39,7   |
| Etxeko erosketak | 7,7  | 25,9  | 30,1  | 36,4   |
| Haurren zaintza  | 1,7  | 16,9  | 37,3  | 44,1   |


**6. grafikoa: Inkestatuen erabilera-mailaren arabeko banaketa, trebakuntzan (%).**



**7. grafikoa: Inkestatuen erabilera-mailaren arabeko banaketa, etxeko erosketetan (%).**



**8. grafikoa: inkestatuen erabilera-mailaren arabeko banaketa, haurren zaintzan (%).**



Inkestatuek diotenez, hiru denbora-esparru horietan gehiengoak denbora erdiz edo gehiagoz egiten du euskaraz, jardun-mota guztiak kontuan hartuta: trebakuntza garaian %55,2k, etxeko erosketak egiteko orduan %66,6k eta haurren zaintza uneetan %81,4k. Baina, are gehiago, hiru esparruetan jende kopuru handiena biltzen duen tartearen %75-100 bitarteko erabilera-mailarena da: trebakuntzan %39,7k dio beraren euskararen erabilera oso altua dela, etxeko erosketetan %36,4k eta haurren zaintzan %44,1ek (ia erdiak, alegia). Azken kasu honetan, euskaraz ia inoiz egiten ez dutenen kopurua %1,7koa baino ez da.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar esparru batzuek lagin txikia dutela (haurren zaintzan N= 59 da, adibidez), eta honek datu horiek zuhurtziaz aztertzea eskatzen du.

### 9.3 Euskararen erabilera jardun-moten arabera


Orain, erabilera orokorra jardun-mota ezberdinen arabera nolakoa den aztertuko da. Jardun-motak hizkuntzaren lau trebetasunen arabera izan arren, ikuspegi funtzional batetik bost talde nagusitan sailkatu dira: ahozko zein idatzizko (adibidez, *Whatsapp* bidezko) solasaldia, ikus-entzutea, irakurtzea, idaztea eta hitz egitea (solasalditik bereiziz, bat-bateko elkarrekintzarik ez dagoenean: posta arrunta zein elektronikoa, artikulua, txostenak, hitzaldiak...).

Hona horien batez besteko erabilera:

**14. taula: Euskararen batez besteko erabilera, jardun-mota nagusien arabera (%).**

|                | Irakurtzea | Ikus-entzutea | Idaztea | Hitz egitea | Solasaldia |
|----------------|------------|---------------|---------|-------------|------------|
| N              | 170        | 171           | 153     | 106         | 170        |
| Batez bestekoa | 33,2       | 39,4          | 46,4    | 50,1        | 57,8       |

**9. grafikoa: Euskararen batez besteko erabilera, jardun-mota nagusien arabera (%).**



**Esparruetako erabilera-mailari dagokionez (zenbatek erabiltzen duten euskara denbora erdiz edo gehiagoz ala gutxiagoz), zenbait esparrutan datu adierazgarriak ateratzen dira: jende kopuru handiena biltzen duen tarteak %75-100 bitarteko erabilera-mailarena da trebakuntzan (%39,7), etxeko erosketetan (%36,4) eta haurren zaintzan (%44,1).**


Grafikoan ikus daitekeenez, jardun-mota hartzaileak dira euskararen erabilerarik baxuena dutenak: inkestatuek irakurtzen igarotzen duten denboraren %33,2 soilik egiten dute euskaraz, eta zerbait ikusten edota entzuten denboraren %39,4. Eta erabilerarik altuena, berriz, solasaldian (ahozkoan zein idatzizkoan) izaten da: %57,8. Ondoren, hitz egitea dago %50,1ekin, eta tartean idaztea, %46,4rekin.

Era berean, solasaldiaren eta ikus-entzutearen baitan alde esanguratsuak daude: lehenean, ahozko eta idatzizkoaren artean; bigarrenean, ikusizkoaren eta entzunezkoaren artean. Hona taulak eta grafikoak, bi jardun-mota horiek azpi-sailkatuta:

15. taula: Euskararen batez besteko erabilera, ahozko eta idatzizko solasaldietan (%).

|                      | N   | Batez bestekoa |
|----------------------|-----|----------------|
| Ahozko solasaldia    | 171 | 59,2           |
| Idatzizko solasaldia | 152 | 49,0           |


10. grafikoa. Euskararen batez besteko erabilera, ahozko eta idatzizko solasaldietan (%).



16. taula: Euskararen batez besteko erabilera, ikustean eta entzutean (%).

|                               | N   | Batez bestekoa |
|-------------------------------|-----|----------------|
| Ikustea (TB, ikuskizunak...)  | 169 | 34,0           |
| Entzutea (irratia, musika...) | 169 | 47,7           |


11. grafikoa: Euskararen batez besteko erabilera, ikustean eta entzutean (%).



**Solasaldietan, ahozkoetan idatzizkoetan baino % 10 altuagoa da euskararen erabilera: ahozkoan % 59,2, eta idatzizkoan % 49,0.**

Solasaldietan, ahozkoetan idatzizkoetan baino %10 altuagoa da euskararen erabilera: ahozkoan %59,2, eta idatzizkoan %49,0. Eta ikus-entzunezko jardunetan, entzutekoak soilik direnetan (irratia, esaterako) ikus-tekoetan (adibidez, telebistan) baino ia %14 gorago dago euskararen erabilera: %47,7 eta %34,0, hurrenez hurren.

Era berean, eta atal honekin amaitzeko, kontuan izan behar da jardun-mota guztiek ez dutela pisu berbera: batzuk egunean zehar oso erabiliak dira (ahozko solasaldia, besteak beste) eta beste batzuk, berriz, oso bazterrekoak (hitz egitea, esate baterako). Hona hemen denboraren erabilera jardun-moten arabera azaltzen duen grafikoa:



#### 9.4 Beste zenbait aldagai

Azkenik, oinarrizko hainbat faktore hartu eta horiek euskararen erabilera orokorrean izan dezaketen eragina aztertuko da, hala nola sexua, adina,

**Ia bost puntuko aldea dago emakumezkoen eta gizonezkoen euskararen erabileran: lehenbiziko kasuan % 47,6, eta bigarrenengoenean % 42,9.**

lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna, eta euskara eta erdara erabiltzeko erraztasun erlatiboa.


#### 9.4.1 Sexua

Lehenik eta behin, emakumezko eta gizonezkoen artean, euskararen erabilerari dagokionez, alderik dagoen behatuko da. Hona hemen, denbora-esparru eta jardun-mota guztiak kontuan hartuta, sexuaren arabera banatutako datuen taula eta grafikoa:

17. taula. Euskararen batez besteko erabilera osoa, sexuaren arabera (%).

|                | Sexua       |            |          |
|----------------|-------------|------------|----------|
|                | Emakumezkoa | Gizonezkoa | Orokorra |
| Batez bestekoa | 47,6        | 42,9       | 45,6     |
| N              | 99          | 72         | 171      |

13. Grafikoa. Euskararen batez besteko erabilera osoa, sexuaren arabera (%).



Ia bost puntuko aldea dago emakumezkoen eta gizonezkoen euskararen erabileran: lehenbiziko kasuan %47,6, eta bigarrenengoenean %42,9. Horrela, Hizkuntzaren Kale-erabileraren Neurketan azaldu ohi den joera berbera islatzen du hemengo emaitzak: emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dute euskaraz.

Hala ere, kasu honetan eta %95eko konfiantza-mailarekin aldea ez da estatistikoki adierazgarria<sup>21</sup>. Baina baliteke horren arrazoia, benetako alderik eza baino, laginaren tamaina txikiegia izatea.


#### 9.4.2 Adina

Orain gauza bera begiratu da, baina adinaren arabera, hau da, ea euskararen erabileran alderik ote dagoen adin-taldearen artean. Hona taula eta grafikoa:

**18. taula. Euskararen batez besteko erabilera osoa, adin-taldean arabera (%).**

|                | Adin-taldeak |       |      |          |
|----------------|--------------|-------|------|----------|
|                | 16-34        | 35-64 | >=65 | Orokorra |
| Batez bestekoa | 40,4         | 48,5  | 48,1 | 45,6     |
| N              | 60           | 93    | 18   | 171      |

**14. grafikoa. Euskararen batez besteko erabilera osoa, adin-taldean arabera (%).**



Adin-taldean artean ere aldeak daude, batez ere 16-34 urte bitartekoen eta beste bien artean: 16-34 urte bitartekoen euskararen erabilera %40,4koa da, 34-64 urte bitartekoena %48,5ekoa eta, azkenik, 65 urte edo gehiagokoena %48,1ekoa.

Kasu honetan, aldeak estatistikoki adierazgarriak dira %95eko konfiantza-mailarekin; beraz, gazteen erabilera beste bi adin-taldeena baino baxuagoa dela esan daiteke.

Hala ere, kontuan hartzekoa da, batez ere 65 urte edo gehiagokoen taldean, 18 kasu (N) baino ez direla eta, hortaz, adin-talde horretako akats-tartea bereziki handia dela.

#### 9.4.3 Lehen hizkuntza


Aztertuko den hirugarren faktorea lehen hizkuntzarena izango da. Hona datuak:

**19. taula. Euskararen batez besteko erabilera osos, lehen hizkuntzaren arabera (%).**

|                | Lehen hizkuntza |                    |        |          |
|----------------|-----------------|--------------------|--------|----------|
|                | Euskara         | Euskara eta erdara | Erdara | Orokorra |
| Batez bestekoa | 50,5            | 36,8               | 32,9   | 45,6     |
| N              | 115             | 30                 | 23     | 168      |

**3 urte bete arte lehen hizkuntza euskara soilik izan dutenen euskararen erabilera % 50,5koa da; euskara eta erdara izan dutenena, % 36,8koa.**

15. grafikoa. Euskararen batez besteko erabilera osos, lehen hizkuntzaren arabera (%).



Lehen hizkuntzaren kasuan aurrekoetan baino argiago ikusten dira aldeak: 3 urte bete arte lehen hizkuntza euskara soilik izan dutenen euskararen erabilera %50,5koa da; euskara eta erdara izan dutenena, berriz, %36,8koa (ia 15 puntuko aldea); eta, azkenik, lehen hizkuntza erdara izan dutenena, %32,9koa. Kasu honetan ere aldeak estatistikoki adierazgarriak dira %95eko konfiantza-mailarekin; hau da, lehen hizkuntzaren eta euskararen erabilaren artean harremana dago.

Hala eta guztiz ere, aurrekoetan esan bezala, kasu batzuetan lagin kopurua txikia da ("euskara eta erdara", N=30; "erdara", N=23) eta emaitzak zuhurtziaz hartu beharrekoak dira.


#### 9.4.4 Hizkuntza-gaitasuna

Laugarrenik, euskararen erabilera hizkuntza-gaitasunaren arabera aztertuko da eta, horretarako, trebetasunen arabera hizkuntza-gaitasunetatik ateratako gaitasun-orokorraren sailkapena<sup>22</sup> erabiliko da. Hauek dira taula eta grafikoa:

20. taula. Euskararen erabilera osoa, hizuntza-gaitasunaren arabera (%).

|                | Gaitasun orokorra     |                                   |                          |                                      |          |
|----------------|-----------------------|-----------------------------------|--------------------------|--------------------------------------|----------|
|                | Euskaldun alfabetatua | Euskaldun erdi edo ez alfabetatua | 1a euskaldun alfabetatua | 1a euskaldun erdi edo ez alfabetatua | Orokorra |
| Batez bestekoa | 48,0                  | 41,1                              | 21,0                     | 26,6                                 | 45,6     |
| N              | 139                   | 22                                | 6                        | 4                                    | 171      |

16. grafikoa. Euskararen erabilera osoa, hizkuntza-gaitasunaren arabera (%).



Ikus daitekeenez, alde nabarmenak daude taldeen artean: euskaldun alfabetatuen euskararen erabilera da altuena, %48,0rekin; gero, euskaldun erdi edo ez alfabetatuak daude, %41,1ekin; alde handiz ia euskaldun erdi edo ez alfabetatuak, %26,6rekin; eta, azkenik, euskararen erabilera baxuena ia euskaldun alfabetatuek dute, %21,0rekin. Kasu honetan ere aldeak estatistikoki adierazgarriak dira, hau da, harremana dago gaitasunaren eta erabileraren artean.


Deigarria da ia euskaldun erdi edo ez alfabetatuek ia euskaldun alfabetatuek baino erabilera altuagoa izatea. Hala ere, gogoan izan behar da kontu handiz hartu behar direla datu hauek; izan ere, talde horietan kasu (N) oso gutxi baitaude ondorio argiak ateratzeko.

Hori horrela, eta emaitza biribilak ateratzeko lagin txikiegia dela jakinda ere, hona hemen, orientagarri gisa, gaitasuna bestelako parametroetan aztertuta ateratzen diren datuak:

21. taula. Euskararen erabilera osoa, euskaldun/ia euskaldun parametroen arabera (%).

| Hizkuntza-gaitasuna | Batez bestekoa | N   |
|---------------------|----------------|-----|
| Euskalduna          | 47,0           | 161 |
| Ia euskalduna       | 23,2           | 10  |
| Orokorra            | 45,6           | 171 |


17. grafikoa. Euskararen erabilera osoa, euskaldun/ia euskaldun parametroen arabera (%).



22. taula. Euskararen erabilera osoa; alfabetatua/erdi edo ez alfabetatua parametroen arabera (%).

| Hizkuntza-gaitasuna | Batez bestekoa | N   |
|---------------------|----------------|-----|
| Alfabetatua         | 46,8           | 145 |
| Erdi/ez alfabetatua | 38,8           | 26  |
| Orokorra            | 45,6           | 171 |

18. grafikoa. Euskararen erabilera osoa; alfabetatua/erdi edo ez alfabetatua parametroen arabera (%).



Hizkuntza-gaitasuna euskaldun/ia euskaldun parametroetan begiratuz gero, aldea oso nabarmena da eta estatistikoki adierazgarria: euskaldunen euskararen erabilera %47,0koa da; eta ia euskaldunena, ordea, ia 24 puntu gutxiagokoa, %23,2koa (ez ahaztu, hala ere, oso kasu gutxi daudela neurtzeko). Eta bigarren parametroaren arabera ere, alegia, alfabetatua ala erdi edo ez alfabetatuaren artean ere alde estatistikoki adierazgarria dago, nahiz eta ez lehenean bezainbestekoa: euskaldun

eta ia euskaldun alfabetatuen euskararen erabilera %46,8koa da, eta euskaldun eta ia euskaldun erdi edo ez alfabetatuena %38,8koa.

#### 9.4.5 Erraztasun erlatiboa


Azkenik, euskararen erabilera euskaraz eta erdaraz egiteko duten erraztasun erlatiboaren arabera nolakoa den aztertuko da. Hemen ere trebetasun ezberdinetako datuak datu bakarrera eraman dira, erraztasun erlatibo orokorra ateratzeko<sup>23</sup>.

Hona taula eta grafikoa:

23. taula. Euskararen erabilera osoa, erraztasun erlatiboaren arabera (%).

|                | Erraztasun erlatiboa |               |                  |          |
|----------------|----------------------|---------------|------------------|----------|
|                | Euskaraz errazago    | Bietan berdin | Erdaraz errazago | Orokorra |
| Batez bestekoa | 60,4                 | 50,1          | 37,4             | 45,6     |
| N              | 28                   | 60            | 83               | 171      |

19. grafikoa. Euskararen erabilera osoa, erraztasun erlatiboaren arabera (%).



Erraztasun erlatiboaren taulan eta grafikoa ikus daitekeenez, aldeak badaude taldeen artean: euskaraz egiteko erdaraz baino erraztasun handiago dutenek %60,4ko euskararen erabilera dute, bietan erraztasun bera dutenek %50,1ekoa, eta %37,4koa erdaraz erraztasun handiago dutenek. Hortaz, aldeak nabarmenak dira eta estatistikoki adierazgarriak: hizkuntza bata edo bestea erabiltzeko erraztasuna eta erabilera bera lotuta daude.

Bukatzeko, azken oharra: faktore edo aldagai hauen eragina denbora-esparru ezberdinetan eta jardun-mota bakoitzean nolakoa den aztertzea oso interesgarria litzateke, baina ikerlan honetako laginaren tamainak ez du horretarako biderik ematen, eta balizko etorkizuneko ikerketa sendoago baterako utzi beharko da.

**Euskaraz egiteko erdaraz baino erraztasun handiago dutenek %60,4ko euskararen erabilera dute, bietan erraztasun bera dutenek %50,1ekoa, eta %37,4koa erdaraz erraztasun handiago dutenek.**

**Euskararen  
erabilerarik  
baxuena dutenak  
kultur  
kontsumoa eta  
komunikabideak  
dira eta altuena  
dutenak, haurren  
zaintza, etxeko  
erosketak eta  
trebakuntza.**

## 10 ONDORIOAK

Behin ikerlanaren emaitzen irakurketa eginda eta datuak aztertuta, ondorioak atera eta hipotesiak baieztatzeari edo ezeztatzeari ekingo zaio. Hona ondorioa nagusiak:

— Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunek, batez beste, eta denbora-esparru eta jardun-mota guztiak kontuan hartuta, euskara erdara baino denbora gutxiagoz erabiltzen dute: zehatz-mehatz %45,6 (eta erdara %54,4). Beraz, ikerketa honetan egindako hipotesi nagusia baieztatu egiten da: “Hondarribiko euskaldunen batez besteko euskararen erabilera osoa, hau da, jardun-mota guztiak kontuan hartuta, ez da denboraren erdira (%50era) heltzen”.

— Erabilera-mailari dagokionez, ordea, 2. hipotesia ezeztatu egiten da: “Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen heren bat (%33) edo gutxiago aritzen da euskaraz egunean zehar denbora erdiz edo gehiagoz”. Izan ere, **euskararen erabilera-maila %50ekoa edo altuagoa egiten dute inkestatuen %43,3k** eta ez dago, hipotesian aipatu bezala, euskararen erabilera oso altua (%75 edo altuagoa) egiten duen talde esanguratsurik. Kontrara, gehiengo zabala (%85,4) tarteko erabilera-mailetan dago, hau da, %45,6 dago %25-50 bitarteko erabilera-mailan eta %39,8, berriz, %50-75 bitartekoan.

— Denbora-esparruetan, datuak oso esanguratsuak dira: **euskararen erabilerarik baxuena dutenak kultur kontsumoa eta komunikabideak dira** (%32,8 eta %37,4 hurrenez hurren), **eta altuena dutenak, berriz, haurren zaintza eta trebakuntza** (%68,1 eta %56,0 zehatz-mehatz). Horrela, 3. hipotesia ia osorik baieztatzen da, baina ez osorik: “Denbora-esparruen artean euskararen erabilerarik baxuena lan ordainduan eta komunikabideen kontsumoan gertatzen da; altuena, berriz, haurren zaintzan eta trebakuntzaren esparruan”. Ikerketan ateratako emaitzen arabera, euskararen erabilera hutsunerik handiena helduen aisialdian (kultur kontsumoan) dago, eta ez lan ordainduan.

— Denbora-esparruekin jarraituz, beste ondorio bat ere atera daiteke: **haurren zaintza, trebakuntza eta etxeko erosketak esparru oso sendoak dira euskararen erabilera, hiruretan pertsona kopuru altuena %75-100 bitarteko erabilera-mailan kokatzen baita**: haurren zaintzan %44,1, trebakuntzan %39,7 eta etxeko erosketetan %36,4. Gainera, haurren zaintzan euskaraz denboraren %50 baino gutxiago egiten dutenen kopurua ez da %20ra iristen (%18,6).

— Jardun-motei erreparatuz gero, **Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunek ahozko solasaldian erabiltzen dute euskara**

**gehien** (%59,2). Ondoren, gehientsuenak balio antzekoetan daude: hitz egin %50,1, idatzizko solasaldia %49,0, entzun %47,7 eta idatzi %46,4. Eta, azkenik, tarte handiz **euskararen erabilera baxuena dutenak daude: ikusi eta irakurri**, %34 eta %33,2 hurrenez hurren. Gauzak horrela, 4. hipotesia ez da guztiz betetzen: “ahozkoak (ahozko solasaldia, hitz egin eta entzun) dira euskararen erabilera-maila altuena dutenak; idatzizkoak, berriz, baxuena. Zehazkiago, ahozkoen artean zuzeneko elkarrekintzan -solasaldian- gertatzen da erabilerarik altuena; eta idatzizkoen artean (irakurri eta idatzi), ordea, idazteko jardunean gertatzen da baxuena”. Izan ere, *entzutea* ez dago balio altuenetakoa dutenen artean, eta euskararen erabilerarik baxuena ez da *idazten* gertatzen. Are gehiago, baliorik baxuena dutenetako bat *ikustea* da, zeina, *entzutea*rekin batera, entzumeneko trebetasunari dagokion.

— **Erabileran eragiten duten faktoreei dagokienez, sexuaren araberakoak izan ezik, gainerako aldagaien arabera aldeak estatistikoki adierazgarriak direla ikusi da:** adin-taldeak, non azpimarratzekoa den erabilera baxuena gazteen (16-34 urtekoen) artean gertatzen dela; lehen hizkuntzak, non lehen hizkuntza euskara bada, erabilera altuagoa den; hizkuntza-gaitasuna, non zenbat eta gaitasun hobe, orduan eta erabilera altuagoa; eta erraztasun erlatiboa, non zenbat eta euskaraz erraztasun erlatibo handiagoa, orduan eta erabilera altuagoa duten. Hortaz, azken hipotesia estatistikoki ia osorik (sexuan salbu) baieztatuta gelditu da: “*Euskararen erabilera osoak honako aldagaiekin du lotura, hau da, honako faktore hauen arabera aldatu egiten da: sexua, adina, lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna eta erraztasun erlatiboa*”.

— Bukatzeko, nahiz eta ikerketaren helburu eta hipotesiekin zuzenean lotuta ez egon, azken ondorio orokor bat ere atera daiteke. Hain zuzen ere, Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen euskararen batez besteko erabilera orokorra %45,6koa bada, eta horiek Hondarribiko 16 urte edo gehiagoko biztanle guztien %56,3 direla kontuan hartzen bada<sup>24</sup>, honakoa ondoriozta liteke (hurbilpen gisa baino ez bada ere): **Hondarribian, 16 urte edo gehiagoko biztanle guztien artean euskararen erabilera aitortua, batez beste, %25,7koa da.**

## LANAREN MUGAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Azken gogoeta gisa, ikerlan honen mugak eta aurrera begirakoak aipatu nahi nituzke, aurreko ataletan aipatu bezala, lan honek ez baitu zerbaiten amaiera izan nahi, baizik eta ikuspegi berri baten hasiera. Eta hasiera

---

**Ahozko solasaldian erabiltzen dute euskara gehien eta, aldiz, euskararen erabilera baxuena ikustean eta irakurtzean gertatzen da. Ahozko solasaldian erabiltzen dute euskara gehien eta, aldiz, euskararen erabilera baxuena ikustean eta irakurtzean gertatzen da. Ahozko solasaldian erabiltzen dute euskara gehien eta, aldiz, euskararen erabilera baxuena ikustean eta irakurtzean gertatzen da.**

guztiek bezala, honek ere bere hutsuneak ditu, baita horiek gainditzeko proposamenak ere.

**Lehen muga metodologikoa da.** Izan ere, hasierako hurbilpen honek ziur aski badu zer hobetua: zein denbora-esparru aintzat hartu eta zein ez, zer eta nola galdetu... Esate baterako, oso baliagarria izango zen, galdetegiaren amaieran galdera-ireki bat egin izan balitz, inkestatuek denbora-esparruren baten falta sumatu ote zuten jakinarazteko eta, horrela, metodologia fintzen joateko. Hortaz, hemen plazaratu nahi izan den ikuspegi berria berrikustea eta hobetzea interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait, etorkizunean, dagoeneko daudenekin batera, hizkuntza-erabilera neurtzeko beste tresna erabilgarri eta baliagarri bat izan dezagun.

**Bigarren muga datuen bilketari dagokio.** Lanean zehar argi azaldu dudana bezala, hemen jasotako laginak, lehen hurbilketarako balio dezakeen arren, ez du ondorio oso sendoak eskaintzeko balio. Horretarako, baliabide gehiago izan eta lagin askoz handiagoa hartzea beharrezkoa litza-teke, bertatik ateratako emaitzak benetan adierazgarriak izan daitezen.

**Eta hirugarren muga datuen analisiarena da.** Ikerlan honetan datuen oinarritzko irakurketa bat egin da, besteak beste, laginak ez zuelako gehiagorako aukerarik ematen. Baina etorkizunari begira, eta lagin handiagoak lortuz gero, informazio xehatuagoa eskura liteke, aldagai ezberdinak esparruz esparru edo jardun-motaz jardun-mota aztertuz, esaterako.

Beraz, nire xumean, uste dut lan honetan proposatu dudana ikerbide berriak uzta oparoa eman lezakeela, betiere, jakinik honbetua izateko tarte handia duen lehen hurbilpen bat baino ez dela. ●

## **OHARRAK**

1. Izan badira beste batzuk, baina eremu mugatuagokoak edo toki jakin baterako berariaz prestatutakoak dira, eta, gainera, metodologia aldetik aurreko bietan oinarrituta izan ohi dira (Arrue Proiektua, esaterako). Horregatik, lan honetan "orokorrak" baino ez aipatzea erabaki da.
2. ALTUNA, Olatz; BASURTO, Asier (2013): *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
3. SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2017): *Hizkuntzen Kale-erabileraren VII. Neurketa. Euskal Herria, 2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
4. Erabilera isotropikoa: J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* eredu matematiko bat garatu zuen, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, espero daitekeen euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiteko. Zehazkiago: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hau da, euskaldunek haien artean ahal duten guztietan euskaraz eginez gero), eta herritarren harremanak guztiz ausaz gertatuko balira, zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Gehiago sakondu nahi izanez gero, ikus: TXILLARDEGI, J. L. Álvarez Enparantza (2001): *Hacia*

*una Socio-Lingüística Matemática. SEI.*

5. SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2017): *Hondarribiko Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa*, 2016. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
6. EUSKO JAURLARITZA (2017): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*, 2016. *Aurkezpen txostena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
7. *Inkesta Soziolinguistikoak* bere neurketetan euskararen erabileraren tipologia hauek erabiltzen ditu: beti erdaraz, oso gutxi euskaraz, euskaraz erdaraz baino gutxiago, euskaraz erdaraz beste, euskaraz erdaraz baino gehiago (“beti euskaraz” tipologia ez dago). Eta erabilera trinkoa kalkulatzeko honela egiten du: etxea, lagunak eta eremu formaleko erabilerak hartu, eta horietan “euskaraz erdaraz beste” eta “euskaraz erdaraz baino gehiago” erantzuten dutenak batu. Beraz, erabilera trinkoa honela definitzen da: euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten dutenak.
8. EUSKO JAURLARITZA (2013): *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, 2011. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua
9. EUSKO JAURLARITZA; IVAP (2010): *Soziolinguistika Hiztegia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua. 48. or
10. EUSTAT (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta*, 1993-2013. Gasteiz: EUSTAT.
11. Iturriak: [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus) eta *Datu Soziolinguistikoen Bilduma, Hondarribia 1986-2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
12. Ikus daitekeenez, kasu honetan hipotesi nagusian baino baxuagoa da ehunekoa, pentsatzen baita biztanleriaren kopuru txikiagoa dela (%33 edo gutxiago) euskararen erabilera altua (%50 edo gehiago) egiten duena; baina, era berean, horien erabilera oso altua denez, guztien batez bestekoa igo egiten dutela.
13. SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2014): *Datu Soziolinguistikoen Bilduma, Hondarribia 1986-2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
14. Hizki horiek *Populazioaren bariantza* adierazten dute, eta biak berdinak izateak ( $p=q$ ) populazioan aniztasuna erabatekoa den hipotesiaren alde egiten du. Benetan aniztasun hori zenbatekoa den ez dakigu, eta jakingo bagenu ez genuke inkesta egin beharrik izango; horregatik, ohiko ikerketetan bie balio bera ematen zaie. Informazio gehiago hemen: MORALES, Pedro (2012): *Tamaño de la muestra: ¿Cuántos sujetos necesitamos?*. Madril: Universidad Pontificia Comillas.
15. SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2014): *Datu Soziolinguistikoen Bilduma, Hondarribia 1986-2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
16. MORALES, Pedro (2012): *Tamaño de la muestra: ¿Cuántos sujetos necesitamos?*. Madril: Universidad Pontificia Comillas.
17. Lotura honek akats-tartea ( $e$ ) zuzenean eta bertan kalkulatzeko aukera ematen du: <http://www.macorr.com/sample-size-calculator.htm>
18. EUSTAT (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta*, 1993-2013. Gasteiz: EUSTAT.
19. Kalkulu hori egiteko *Denbora Aurrekontuen Inkestako* “Batez besteko denbora soziala” datua erabili da. Datu horrek zera adierazten du: jende guztia, hau da, jarduera horretan parte-hartzen dutenak eta parte-hartzen ez dutenak aintzat hartuta, esparru bakoitzean erabiltzen den batez besteko denbora. Parte-hartzen dutenak igarotzen duten batez besteko denbora eta partaidetza-tasa kontuan hartuz kalkulatu da. Gehiago jakin nahi izanez gero, ikus bibliografian: EUSTAT (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-Aurrekontuen Inkesta*, 1993-2013. Gasteiz: EUSTAT.
20. EUSTAT (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta*, 1993-2013. Gasteiz: EUSTAT.

21. Aldea estatistikoki adierazgarria den ala ez jakiteko, *Bariantza-analisis* edo *ANOVA* bezala ezagunagoa den prozedura estatistikoa erabiltzen da. Prozedura horrek faktore batek aldagai batean eragiten dituen aldeak ausazkoak diren ala ez adierazten du.
22. *Inkestaren diseinu teknika* atalean dago azalduta.
23. *Inkestaren diseinu teknika* atalean dago azalduta.
24. Kalkulua egiteko datuen iturria: *Datu Soziolinguistikoen Bilduma, Hondarribia 1986-2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

## **BIBLIOGRAFIA**

- ALTUNA, Olatz; BASURTO, Asier (2013): *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA; IVAP (2010): *Soziolinguistika Hiztegia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2013): *V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2017): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Aurkezpen txostena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua.
- EUSTAT (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013*. Gasteiz: EUSTAT.
- MARTINEZ, Zesar (2016): "Ikerketa Soziolinguistikorako Metodologiak eta teknikak". *HIZNET*. MORALES, Pedro (2012): *Tamaño de la muestra: ¿Cuántos sujetos necesitamos?*. Madril: Universidad Pontificia Comillas.
- ODRIOZOLA, Jose Manuel (2007, azaroaren 26a): "Elebitasunaz enegarren aldiz". *Gara*. SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2017): *Hizkuntzen Kale-erabileraren VII. Neurketa. Euskal Herria, 2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2012): *Arrue Proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2014): *Datu Soziolinguistikoen Bilduma, Hondarribia 1986-2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2017): *Hondarribiko Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa, 2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- TXILLARDEGI, J. L. Álvarez Enparantza (2001): *Hacia una Sociolingüística Matemática*. SEI.
- ZALBIDE, Mikel (2016): "Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirakoerronkak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 100. zk., 11-190 or.

**Interneteko datu-iturri orokorrak:**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA: [www.soziolinguistika.eus](http://www.soziolinguistika.eus)

EUSTAT: [www.eustat.eus](http://www.eustat.eus)

EUSKO JAURLARITZA: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/ikuspegi\\_sozio\\_linguis.html](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html)

HONDARRIBIKO UDALA: [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus)

# uztaro

Giza eta Gizarte-zientzien Aldizkaria

2017 · 100

**Uztaro** aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2017. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

☐ Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxo markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



**Harpidetza-txartela:**

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

**www.uztaro.eus**

# Soziolinguistika

## aldizkaria

### Eskuratu BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

*Eskaintza berezia*



**1 – 63 zenbakiak:** ALE BAKOITZA 3.00 euro

(1., 3-4., 5., 7-8., 10., 11., 15., 16. 17., 22-23. eta 30. zenbakiak agortuta)

**64 – 104 zenbakiak:** ALE BAKOITZA 10 euro

\* Bidalketa gastuak eroslearen kontu

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUOPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/TXEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLOGIA INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERABILPENA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZA BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGIKA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZA

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLOGIAKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLOGIA INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZA

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUOPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUOPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUOPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAJONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRESKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAEko ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAIN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLOGIA INKESTAK IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN ESKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA 2006: EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN...LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK IKERTETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAKOAK (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAKOAK (1981-2011). (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKARAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK (II) ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

# Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko 1. mailako ikasleak ulertzeko gakoak

**Leticia Garcia Fernandez**

*Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko (HUHEZI) ikaslea > leticiaadriana.garci@alumni.mondragon.edu*

**Nekane Arratibel Insausti**

*HUHEZIKo irakaslea > narratibel@mondragon.edu*

**Asier Irizar Mezo**

*HUHEZIKo irakaslea > airizar@mondragon.edu*

Sarrera-data: 2017-11-10 / Onartze-data: 2017-12-01

**Laburpena.** Lan honetan Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean 1. mailako ikasleen hizkuntza ohiturak, jarrerak eta euskararen gaineko diskurtsoak aztertu dira, erabileran duten eragina ezagutzeko. HUHEZIIn graduiko ikasketek eleaniztasun gehigarria dute oinarri hizkuntzen ikuspegitik, eta euskara da hizkuntza nagusia (Curriculumaren %80). Ikasleek ezagutza maila ona badute ere, erabilera murrizta egiten duten susmotik abiatu da ikerketa hau. Ikerketa bideratzeko, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu dira. Kale-neurketa, galdetegi soziodemografikoa eta eztabaida saioa erabili dira ikerketa tresnatzat lehen mailako ikasleen ohituretan sakontzeko. Ikasleen identitatea zein den azaleratu nahi izan da eta euskararen inguruan dituzten diskurtsoetatik abiatuta, ezagutzaren eta erabileraren arteko desorekan eragina duten faktoreak identifikatzen saiatu gara. • **Hitz gakoak:** *euskara; hizkuntza gutxitua; hizkuntza ezagutza; hizkuntza erabilera; identitatea; euskararen inguruko diskurtsoak.*

**Abstract.** This study analyses the language habits, attitudes and discourses regarding the Basque language of 1st-year students at the Mondragon University Faculty of Humanities and Education (HUHEZI), in order to determine the extent to which they influence Basque language use. The undergraduate degrees offered by HUHEZI include a complementary multilingual component, although Basque is the main language used (accounting for 80% of the curriculum). Although students generally have a good knowledge of the language, this study was based on a suspicion that the use they make of it is limited. A mixed qualitative and quantitative methodology was used and 1st-year students' language habits were analysed in-depth through street-based measures, sociodemographic surveys and focus groups. The aim was to determine students' sense of identity as well as, based on their discourses regarding the Basque language, to determine the factors which impact the imbalance which exists between knowledge and use. • **Key words:** *basque, minoritised language, knowledge of the language, language use, identity, discourses regarding the Basque language.*

## 1. SARRERA

### I

#### 1.1 Ikerketaren testuingurua

Egun, gizarte eleanitz eta kultur askotarikoak topatzea da ohikoena. Oro har, gizarteak gero eta pluralagoak dira eta elebakartasuna da salbuespena” (Arnau, 1992:11).

Euskal Herria nazio berezia da eta nahiz eta euskara izan Euskal Herriko hizkuntza propioa (10/1982 Euskararen Normalizazio legea: 2.artikulua) bina hizkuntza bizi dira nazioa finkatzen den bi estatuetan (gaztelania/euskara; frantsesa/euskara), orekatua ez den gizarte elebitasunean daudenak eta gaztelania eta frantsesa direla gehiengoaren hizkuntza; zehatzago, gaztelania Hego Euskal Herrian eta frantsesa Ipar Euskal Herrian.

Hego Euskal Herria Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) osatzen dute. Azken honetan indarrean dagoen Euskararen Normalizazio Legea XX. mendeko 80ko hamarkadakoa da. 1991ean EAEn populazioaren %24.1 ziren euskaraz komunikatzeko gaitasuna zutenak. Ordutik, datuak nabarmen egin du gora; izan ere, 2011n gizartearen %33.9 da euskaldun (VI Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).

Ezagutzan aurrerapausoak emateaz gain, hizkuntza bat hil ez dadin ezinbestekoa da hitzunik erabiltzea. Erabilerari dagokionez, datuak apalagoak dira eta 1989tik 2016ra Euskal Herrian euskararen kale erabilera %10.8tik %12.6ra baino ez da igo. Deigarria da 1997-2011 urte bitartean eskuratutako datua 2016koa baino positiboagoa izan dela, hots, %13tik gorakoa; beraz, nahiz eta hogeita zazpi urteren ondoren hazkundea izan den, azken urteotan behera egin du erabilerak (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Arestian aipatutako legeak hezkuntzan jarri du fokua euskararen ezagutza zabaltzeko, eta, egia da gaztetxoenen artean euskaldunen kopurua nabarmen hazi dela. Hortaz gain, legeak hedabideak ere nabarmendu ditu zeregin horretan, hirugarren kapituluan hain zuzen.

#### 1.2 Ikerketaren Kokapena

Mondragon Unibertsitateak (MU aurrerantzean) ardura handia du etorkizunean eskoletan lanean arituko diren hezitzaileen eta komunikabi-deetan jardungo dutenen formakuntzan. MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI aurrerantzean) kokatzen da

---

**Legeak  
hezkuntzan jarri  
du fokua  
euskararen  
ezagutza  
zabaltzeko, eta,  
gaztetxoenen  
artean  
euskaldunen  
kopurua  
nabarmen hazi  
da. Hortaz gain,  
legeak  
hedabideak ere  
nabarmendu ditu  
zeregin horretan.**

**HUHEZI  
fakultate  
euskalduna  
izanik eta  
ikasleen lan-  
hizkuntza  
nagusia euskara  
izanik, kezka  
nabaria sortu da  
azken urteotan  
ikasleen  
hizkuntza  
portaerari  
dagokionez.**

aurkeztutako ikerketa hau

HUHEZI bi campusetan dago hedatuta: Eskoriatzan bata, eta Aretxabaletan bestea. Lehenengoan, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza Graduak eskaintzen dira, hezkuntza berrikuntza, kultura eta hizkuntzarekin erlazionaturiko hainbat master eta formakuntzez gain. Bigarrenean, aldiz, Ikus-entzunezko Gradua eskaintzen da, besteak beste.

Hizkuntzari dagokionez, eleaniztasun gehigarria sustatzen duen fakultate euskalduna da HUHEZI, non “euskara unibertsitateko komunitaterako hizkuntza eta instrukzio hizkuntza izango den, nahiz eta hizkuntza nagusiak, gaztelerak, eta atzerriko hizkuntzek ere, espazio bat izan instrukzioan” (Ipiña, 2012:308).

### 1.3 Ikerketa arazoa

HUHEZI fakultate euskalduna izanik eta ikasleen lan-hizkuntza nagusia euskara izanik, kezka nabaria sortu da azken urteotan ikasleen hizkuntza portaerari dagokionez. Fakultateko kafetegian, korridoreetan, klausuroan... euskara gero eta gutxiago entzuten ote den susmoa dago eta ikasleen hizkuntza portaeretan hausnartzeko premia sortu da. Jokabide horien azpian egon daitezkeen hainbat aldagai aztertu nahi dira eta diagnostiko horretatik abiatuta, esku-hartze zehatzak diseinatu, euskararen erabilera bermatzeko.

2016-2017 ikasturtean, euskararen erabilera neurtzeko kale-neurketa egin da HUHEZiko bi campusetan. Ikasleen hizkuntza-ohituretan eta identitatean sakontzeko, euskara eta euskal kulturaren inguruan galdegegi baten erantzunak jaso dira eta eztabaida-saioak antolatu dira, besteak beste. Lan honetan, aipatutako ikerketa-tresnen bidez eskuratutako emaitzen zati handi baten azterketa egin da.

## 2. AURREKARIAK

I

### 2.1 Munduko hizkuntzak

Munduan hitz egiten diren hizkuntzen kopuru zehatza ezagutzea lan zaila bada ere, adituek 7000 inguru daudela baieztatu dute (Cenoz, 2009; Gonzalez Caverio, 2014), nahiz eta kopuru horren ezeagonkortasuna ere aipatu (Simons, G.F. eta Fennig, D., 2017).

### 2.2 Hizkuntza-ukipena

Munduko hizkuntzak ukipen egoeran bizi dira. Hiztun-komunitateak

harremanetan sartzen dira eta, horren ondorioz, hizkuntzak ere bai. Gizarte harremanak orekatuak ez diren bezala, hizkuntzen arteko erlazioak ere ez dira parekideak. Hizkuntza guztiek toki boteretsuak lortu nahi dituzte gizartean, legimititatea eskuratzeko (Martinez de Luna eta Jausoro, 1998). Horrela sortzen dira botere eta menderakuntza-erlazioak. Egoera horiek azaltzeko, hizkuntza-gatazka terminoa proposatu du Solé i Camardons-ek, “bi hizkuntza-aldaera norgehiagoka ari eta bietariko baten inbasioa edo desplazamendua edota bestearen erabilera eremuen barianteak sortarazten direnean, hizkuntza-gatazkaren aurrean gaude” (Solé i Camardons, 1991: 53).

Eskuarki, hizkuntza-gatazka gertatzen den gizarteetan, hizkuntza batek izaten du nagusitasun politikoa eta gutxitua erabilera-esparru informaletarako erabiltzen da. Charles A. Fergusonek *diglosia* terminoa sortu zuen hizkuntzen aldaera ezberdinen erabilera estratifikatua izendatzeko (Zarraga, 2010) eta, ondoren, Fishmanek elebitasun egoerei aplikatu zien kontzeptu hori. Autorearen ustez, elebitasuna norbanakoari dagokio eta diglosia gizarteari (Zarraga, 2010). Euskal Herrian, aipagarria da Sánchez Carrión *Txepetxen* lana; diglosia hizkuntza-hierarkia gertatzen den kasuekin lotzen du, hau da, elebitasun sozialaren adieran (Zarraga, 2010).

### 2.3 Hizkuntza gutxiengotuak

Europar, ez dago elebakar den estaturik, eta 60 hizkuntza gutxitu inguru daude. Gorter eta Cenzoek (2011) hiztun kopuruan oinarritutako sailkapena egin dute. Baina, hizkuntza gutxitua terminoa ulertzeko, alderdi kuantitatiboaz gain, ikuspuntu kualitatiboa ere aztertu da.

Hainbat ikerketen arabera, hauek dira kontuan hartu beharreko irizpide kualitatiboak: hizkuntzaren estatusa, menderakuntza, erresistentzia, boterea eta antolaketa politiko zein soziala (Larrañaga, 1995; Manterola eta Berasategi, 2011).

Mackey-ren esanetan, testuinguru batean hizkuntza bakoitzaren hiztun kopuruak garrantzia duen arren, handiagoa da hiztunen nolakotasunaren eragina. Zenbat eta aberastasun, botere eta ohore gehiago izan, orduan eta garrantzi handiagoa izango du hizkuntza horrek gizartean (Larrañaga, 1995).

Gizarte orotan, beraz, hizkuntza bakoitzak bere estatus edo egoera bereizgarria du. Hiztunek hizkuntza bakoitzarekiko duten portaera, horren indarraren eta erakargarritasunaren arabera izango da (Mackey, 1989).

---

**Testuinguru  
batean hizkuntza  
bakoitzaren  
hiztun kopuruak  
garrantzia duen  
arren, handiagoa  
da hiztunen  
nolakotasunaren  
eragina. Zenbat  
eta aberastasun,  
botere eta ohore  
gehiago izan,  
orduan eta  
garrantzi  
handiagoa izango  
du hizkuntza  
horrek gizartean.**

**Hizkuntzen  
ikasketa-  
prozesuan,  
oinarrizko hiru  
faktore  
identifikatu ditu  
Txepetxek:  
ezagutza,  
erabilera eta  
motibazioa  
(Sánchez  
Carrión, 1987).  
Faktore horiek  
elkarri eragiten  
diote,  
nahikotasun-  
mailatik gorago  
badaude.**


Euskal Herrira ekarrita, Sánchez Carrión Txepetxek trinkotze prozesuaren ideia aipatzen du, non euskaldun kopuru handiagoa behar den arren, euskal sareen trinkotasuna ere lagungarria izan daitekeen gutxiengotik gehiengorako bidean. Euskal hiztunek ezezagunaren aurrean interakzio hizkuntza gaztelania erabiliko dute ezezaguna ez badute euskalduntzat identifikatzen (Martinez de Luna eta Jausoro, 1998). Izan ere, EAEko gizartean legitimitatea gaztelaniak du, hots, denek dakite gaztelania eta euskara batzuek baino ez.

Gizarteko aldagaiak dira hiztunak hizkuntza bat edo beste erabiltzera bultzatuko dituztenak eta, egoera diglosiko batean, indar horiek norberaren jarrerak eta borondateak baino sendoagoak dira. Beraz, elebidunen kasuan, nahiz eta bi hizkuntza jakin, bakoitzaren jokaera linguistikoa ondorengo faktoreek baldintzatuko dute: hizkuntza bakoitzaren ezagupen maila, hizkuntza bakoitzak gizartean betetzen duen funtzioa, hizkuntza ordezkapenaren maiztasuna eta arrazoiak eta hizkuntza batek bestean duen interferentzia (Mackey, 1989).

## 2.4 Hizkuntza baten ikasketa-prozesuan eragiten duten faktoreak

Hizkuntzen ikasketa-prozesuan, oinarrizko hiru faktore identifikatu ditu Txepetxek: ezagutza, erabilera eta motibazioa (Sánchez Carrión, 1987). Faktore horiek elkarri eragiten diote, nahikotasun-mailatik gorago badaude. Hauek dira hizkuntzen ikaskuntzan bereizi dituen ibilbideak:

Irudia 1: Hizkuntza-ikaskuntzaren teoria, Txepetx, 1987.



Iturria: Sánchez Carrión Txepetx, 1987.

A Ibilbidea, naturala izenekoa, haurtzaroan gertatzen da eta hizkuntzarekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera berezkoak dira. Haurrak

bere inguruan hizkuntza entzungo du eta erabiltzen hasiko da, bere ezagutza gero eta gehiago handituta.

B ibilbideak edo kulturalak heldu baten ikasketa prozesuari egiten dio erreferentzia. Kasu honetan, bai motibazioa, baita ezagutza eta erabilera ere induzituak izango dira.

Horrela, bada, lau hiztun multzo bereizi dira (Sánchez Carrión Txepetx, 1987):

- AB jatorrizko hiztun kulturizatuak: A ibilbidea egin eta eskolan hizkuntza horretan trebatu direnak
- BA heldu bertakotuak: hizkuntza barneratzera iritsi diren helduak
- A jatorrizko hiztun primarioak: ama hizkuntza dute baina alfabetu gabeak
- B ikasle helduak: oraindik naturaltasunez ikasi ez duten ikasle helduak

Motibazioari dagokionez, Gardner eta Lambert (1959) aritu dira hizkuntza bat ikasteko motibazioak aztertzen eta bi mota bereizi dituzte:

- Motibazio integratiboa: ikasleak benetako interesa du hizkuntza bat duen komunitatean, harreman estuagoak eskuratzeko ikasi nahi du.
- Motibazio instrumentala: “bere onerako edo norberaren bideari jarraitzeko, lanpostua hobetzeko, ingurukoen estimu handiagoa bereganatzeko” (Schumann, 1975; 214).

Azken urteotan egin diren lanetan, hizkuntzaren jabeakuntzaren gaineko motibazioen inguruko interesa izan da. Arratibel eta bestek (2001) motibazioa modu desberdinetan uler daitekeela azaldu dute:

- Motibazio integratiboa eta instrumentalaren ordezt, gehiago azaltzen dira motibazio intrintseko (barneko nahia) eta estrinseko (kanpoko beharra) modura.
- Motibazioa testuinguruaren arabera alda daiteke.
  - Gizarteko egoeraren ondoan, orain gizabanako bakoitzaren testuinguruari garrantzi handiagoa ematen zaio.
  - Gizabanakoaren nortasunaren aldagaiak eta irakaskuntza-ikaskuntzaren aldagaiak duten garrantzia azpimarratzen da.

Amorrortu eta bestek (2009) euskara ikasteko motibazioei buruz egin dako lanean, barne eta kanpo motibazioak azaldu dituzte. Barneko motibazioen artean *nahi dudalako* moduko formulazioak agertzen dira; baita

---

**Motibazio integratiboa eta instrumentalaren ordezt, gehiago azaltzen dira motibazio intrintseko (barneko nahia) eta estrinseko (kanpoko beharra) modura.**

**10/1982 Legeaz  
geroztik,  
euskararen  
ezagutzan  
aurrerapen  
nabarmenak  
gertatu dira.  
Halere,  
erabileraren  
esparruan  
aurrerapausoen  
abiadura  
motelagoa izan  
da.**

identitate eta integrazio arrazoiek eragindakoak. Kontzientzia linguitikoa edota politikoari erantzunez sortutakoak ere antzematen dira, nahiz eta ez diren ohikoenak. Kanpoko motibazioen artean, balio instrumentalekoak dira nagusi: *seme-alabei laguntzeko, lanpostuak lortu edo mantentzeko*, eta balio integratzaile modura deskriba daitekeen gizartearen presioarengatik sortutakoak, batik bat.

Dena den, euskararen egoera aztertzen duten ikerketei erreparatuz gero, (Siadeco, 1978, 1979, 1991; Eusko Jaurlaritza, 1989, 1995, 1999, 2002; Aztiker, 2002, in Garcia, 2004), euskal hiztunen kopuruaren gorakada eta euskararen aldeko motibazioa nabariak badira ere, horrek ez du erabilera ziurtatu.

2016ko Euskal Herriko hizkuntzen erabileraren kale-neurketan jaso da ezagutzan gertatzen den bezala, erabileran ere zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago erabiltzen dela euskara, nahiz eta azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu den (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Sexuen arteko bereizketa ere jaso da eta, oro har, emakumezkoak dira euskara gehiago erabiltzen dutenak. Gazteen artean, emakumezkoen %13,6k erabiltzen du euskara eta gizonezkoen %10,9k (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

**EZAGUTZAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO DESOREKA**

10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normaltzeko oinarrizkoak 35 urte bete ditu. Legeaz geroztik, euskararen ezagutzan aurrerapen nabarmenak gertatu dira. Halere, erabileraren esparruan aurrerapausoen abiadura motelagoa izan da (Garcia, 2004).

HUHEZIK Aretxabaletan eta Eskoriatzan ditu bi campusak. Aretxabaletari dagokionez, 2016. urteko herriz herriko kale-neurketetan biztanleen %45.5ak egin du euskaraz, nahiz eta euskaraz aritzeko gaitasuna %63k duten. Bigarrenean, Eskoriatzan, %37.5 izan dira euskaraz egin dutenak guztira herrian euskaldunak %58.8 diren arren.

Testuinguru honetan, beraz, orain artekoan, hizkuntza gutxitua eta hizkuntza handia diglosian elkarrekin bizi direla azaldu da. Hortaz gain, hizkuntza gutxituaren ezagutzak aurrera egin badu ere, erabileraren igoera apalagoa dela argitu da.

Erabileraren inguruan egin diren hainbat ikerketatan, honen menpe dauden hiru aldagai bereizi dira: elebidunen proportzioa, mintzakide taldearen tamaina eta hizkuntzarekiko leialtasuna (Isasi eta Iriarte, 1998).

Hortaz gain, hizkuntza portaera azaltzeko, identitatearen garrantzia jaso da beste hainbat lanetan (Giles, 1977; Bourhis, 1979, Giles eta Johnson, 1971, 1987; Sachdev eta Bourhis, 1990; Clément eta Noels, 1996; Liebkind, 1999, Azurmendi, 1999 in Garcia, 2001; Iztueta, 2016).

Iñaki Garciak (2004), euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziallean, bi faktore nagusi bereizi ditu: testuinguruari dagozkion aldagaiak eta norbanakoarenak. Lehenengoen artean, euskaldunen presentzia erabaki du azpi-aldagai nagusi. Eta, bigarrenengoen artean, ezagutza, jarrera eta horien arteko zubi den identitatea.

Arratibelek enpirikoki baieztatutako ikerketan, ukipen-egoeran dauden hizkuntzen jabeakuntzaren eta erabileraren eremua aztertu du. Gurasoen lehen hizkuntzak, jaioterriak, inguruko sareak duen ezagutza mailak, besteak beste, dira subjektu baten sare soziala ahalbidetzen dutenak. Horrela bada, sare honek eragina izango du pertsona baten identitatearen eraketan, jarretan eta motibazioetan. Horregatik, subjektu baten sarean euskararen ezagutza eta erabilpena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta jarrera positiboagoa eta motibazio integratzaileagoa izango du subjektu horrek euskararekiko. Horrenbestez, identitatea *continuum* batean koka daiteke, talde-identitatea eta identitate-pertsonalaren artean (Garcia, 2001).

---

**Erabileraren inguruan egin diren hainbat ikerketatan, honen menpe dauden hiru aldagai bereizi dira: elebidunen proportzioa, mintzakide taldearen tamaina eta hizkuntzarekiko leialtasuna.**

## 2.5 Hizkuntza-identitatea Euskal Herrian

Euskal gizartean identitate kontua korapilotsua da, berezko talde etnokulturala eta estatuen artean dagoen identitate gatazkagatik, batik bat (Zapata, 2007).

Identitate etnokulturalak pertsona edo giza talde batek komunean dituzten ezaugarri kulturetan jartzen du fokua. Identitate etnolinguistikoaz ari garenean, ordea, hizkuntza lehenetsi nahi dugu, izan ere, talde edo pertsona horrek hizkuntza batekin (edo gehiagorekin) lortzen duelako bere identitate etnikoa eta kulturala.

Gai honen inguruan euskal gizartearen berezitasunak argitzeko, ondorengo ataletan azken hamarkadetan estatu-nazioari, hizkuntza-nortasunari, hizkuntza-komunitateari eta euskararen inguruko diskurtsoei buruz egindako erreferentziak jaso dira.

### 2.5.1 Estatu-nazioa

Euskal Herrian, estatu-nazioa eta hizkuntza lotzearen ideologia hedatua izan da oso. Ferdinan Tönies-ek (1887) Komunitatea (Gemeinschaft) eta

**Ibai Iztuetak  
gizartearen eta  
herriaren arteko  
bereizketa egiten  
du: gizartea  
administrazioak  
zehaztutako  
espazioa osatzen  
duten  
hiritarrek  
lotzen du; herria,  
aldiz, identitate  
batekin  
identifikatzen  
diren herritarrek  
osatzen dute.**

Gizartea (Gesellschaft) bereizi zituen (Martinez de Luna eta Jausoro, 1998). Bi gizarte horietan hizkuntza eta nazioa lotuta daude, baina modu desberdinean. Lehenengoan, “hizkuntza eta berezko taldearen identitate kulturala bat datoz eta, bestean, komunikatzeko tresna preziatuena estatuaaren hizkuntza da, ez hizkuntza minorizatua” (Joly eta Uranga, 2010:193). Lengoia arruntan, euskara euskaltasunarekin identifikatzen da. Etimologikoki “euskaldun” hitza euskara duena edo euskal hiztuna esan nahi baitu. Halere, gaur egun, Euskal Herriari dagokiona izendatzeko ere erabiltzen da (Azurmendi, 1993).

Ildo honetan, Ibai Iztuetak (2016) Gizartearen eta Herriaren arteko bereizketa egiten du bere tesia oinarri duen *Euskal Kultura vs Cultura Vasca* liburuan. Gizartea administrazioak zehaztutako espazioa osatzen duten hiritarrek lotzen du. Herria, ordea, identitate batekin identifikatzen diren herritarrek osatzen dute.

### 2.5.2 Hizkuntza-komunitatea


Hizkuntza ez da komunikatzeko kode hutsa, ezta komunikazio tresna gramatikal soila ere. Auguste Comte soziologiaren sortzaileak gertaera sozialtzat definitu zuen hizkuntza; gizartean gauzatzen diren harreman mota guztiak hizkuntza bidez gertatzen dira eta (Larrañaga, 1995).

Hizkuntza-komunitatea kontzeptuari izendapen anitz eman zaizkio hizkuntza guztietan eta bereziki euskaraz (Zalbide, 2006). Hizkuntza jakin bat erabiltzen duen taldea da hizkuntza-komunitatea Bloomfield-en esanetan (Bloomfield, 1933). John Gumperzek (1971) hizkuntza-komunitatea eleanitza izan daitekeela dio; Mackey- rentzat, aldiz, hori ez da posible (Mackey, 1972). Aniztasun honen aurrean, Zalbidek (2006) Fishmanek egindako sintesi definizioa laburbiltzen du: “aurrez aurreko interakzio linguistikoz (mintzajardunez, idatziz...) edota hiztun guztien integrazio sinbolikoaz, gutxien-gutxienez aldaera bat konpartitzen duten hiztun guztien multzoa da hiztun-elkartea” (Joly eta Uranga, 2010:200)

Hizkuntza-komunitatearen partaideen ezaugarri komunei dagokienez, hainbat arazo planteatzen dira. Hizkuntza-komunitatea hizkuntza bera erabiltzen duen taldeak osatzen duela dio Iztuetak (2016). Txepetxek dioenez, hizkuntza-komunitatea hiztuna, hizkuntza eta gizartea lortzen dituen unitate soziala da eta partaide izateko, ez da nahikoa hizkuntza jakin eta erabiltzearekin, motibazioaren eta jarrera baikorraren garrantzia ere lehenesten du (Sánchez Carrión, 1987). Arestian azaldutako hiztun motak erabiltzen ditu Txepetxek hizkuntza-komunitatea azaltzeko. Es-

kemaren erdian AB taldea kokatzen du eta ondoan BA taldea, hiztun osoak, alegia. Ondoren, A taldea kokatzen du eta amaitzeko B taldea. Komunitatetik kanpo geratzen da  $\emptyset$  multzoa, hizkuntza ez dakitenek osatutakoa:

**Irudia 3 : Hizkuntza-komunitatearen osagaiak (Txepetx, 1987).**



Iturria: Sánchez Carrión Txepetx, 1987.

Hizkuntza-komunitatea mugatzerakoan, beste ikerlari batzuek, Jausoro eta bestek, ordea, Euskal Herriko hizkuntza-komunitatea aztertzean, euskaraz aritzeko gaitasuna izan gabe, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera duten erdaldunak ere partaide egin dituzte (Jausoro eta bestek, 1998).

### 2.5.3 Hizkuntza-nortasuna

Euskal Herria eleanitza da eta errealtate soziolinguistikoa gero eta konplexuagoa bilakatzen den heinean, hizkuntza-nortasunaz gizartean zabalduak diren irudikapenak gero eta konplexuagoak dira (Joly, 2004).

Bourdieu-k dioten bezala, norberaren identitatea bestearekiko konparaketaren arabera egiten da (Joly eta Uranga, 2010). Identitatearen definizioan dialektika bat sortzen da. Izan ere, nork bere buruaren identifikazioarako bestearen begien bitartez egiten du. Prozesu horretan, komunikazioak, eta zehatzago, hizkuntzak, leku zentrala hartzen du (Joly eta Uranga, 2010).

Ibai Iztueta (2016) Euskal Herrian sortzen den identitatearen eta hizkuntzaren arteko gatazkaz aritu da. Adituaren hitzetan, identitatea ez da hizkuntza baino garrantzitsuagoa eta hizkuntza eta identitatearen

***Txepetxek hizkuntza-komunitatearen partaide izateko, ez da nahikoa hizkuntza jakin eta erabiltzearekin, motibazioaren eta jarrera baikorraren garrantzia ere lehenesten du.***

**Baieztatu da  
EAEko gazteek  
beste taldeek  
baino  
kontzientzia  
gutxiago dutela  
euskararen eta  
gastelaniaren  
egoeraren  
inguruan. Bi  
hizkuntzen  
diskurtsoa  
nagusitzen da  
hautatzen duten  
transmisio-  
ereduen artean,  
etorkizunean  
seme-alabek “bi  
hizkuntza ondo  
ikas ditzaten”.**

arteko harremanetan, euskal hizkuntzaren auzia euskal identitatearen auziari subordinatu izan zaio gaur egun arte. Hizkuntza identitatearekiko eta identitatea hizkuntzarekiko, bi erlazio hauek bereizten ditu. Lehenengoaren kasuan, identitatea eztabaidaren muinean jartzen du, eta Euskal Herriko hiru hizkuntzak baliokide bihurtzen direla dio, horrek praktikan euskararen ezagutza eta erabilera hautu pertsonal izatera subordinatzen du. Bigarrenean, ordea, euskaraz egiten duen taldearen identitatearen normalizazioa hobesten du, hortxe baitago hizkuntza-identitateari subordinatu gabeko bidea (Iztueta, 2016).

#### *2.5.4 Euskararen inguruko diskurtsoak*

Teun A. van Dijk-ek dioen moduan, diskurtsoaren kontzeptuak hiru dimentsio nagusi biltzen ditu: hitzaren erabilera, testua bera; uste, iritzi edo ideologiaren komunikazioa eta interakzio soziala (van Dijk, 1997/2000 in Martinez de Luna eta besteak 2016).

*Euskara EAE*n: gaitasuna, erabilera eta iritzia (Martinez de Luna, 2013) lanean, egileak euskarari buruzko iritzi joera nagusien sailkapen bat aurkeztu du, lau taldetan bereizitakoa: Euskaltzaletasuna, mesfidantza, onarpen pasiboa eta abantaila soziala.

Ildo honetan ere, Jausorok hiru posizio sozio-ideologiko bereizi ditu EAEn. Euskararen aldeko diskurtso abertzalea duena, ez axolazko diskurtsoa eta ukoaren diskurtsoa. Hemendik abiatuta, honakoak dira Iztuetak (2016) bereizi dituen diskurtsoak:

- Espainolaren erabilera normala duen euskal hiritarren jarduna.
- Euskal Herri euskalduna helburu duen espainolezko diskurtsoa, eskuarki abertzalea.
- Euskaraz egitearen diskurtsoa, nork eta zer axola gabekoa.

Deustuko Unibertsitateak Bizkaiako Foru Aldundiarekin batera argitaratu du euskal hiztun berriei buruzko ikerketa azken urtean. Gazteen inguruko hausnarketari atal bat eskaini diote eta, beste hainbat ideien artean, deigarria da euskararen atxikimendu mailaren inguruan gazteen diskurtso landugabea. Oro har, baieztatu da EAEko gazteek beste taldeek baino kontzientzia gutxiago dutela euskararen eta gastelaniaren egoeraren inguruan. Bi hizkuntzen diskurtsoa nagusitzen da hautatzen duten transmisio-ereduen artean, etorkizunean seme-alabek “bi hizkuntza ondo ikas ditzaten” (Ortega eta bestek, 2016:251).

### 3. IKERKETA APLIKATUA

#### I

#### 3.1 Ikerketa-galderak

Oinarri teorikoak aztertuta, badakigu Euskal Herriko errealtate sozio-linguistikoa gero eta konplexuagoa bilakatzen ari dela. Euskarari dagokionez, aipatu da egun EAEn indarrean dagoen legea 1982.urtekoa dela. Horrela, bada, ezagutzaren paradigma azken hamarkadetan landua izan bada ere, erabilerari erreparatzeko beharra sorrarazten da hizkuntza gutxituaren normalizaziorako. Beste hitz batzuetan esanda eta Euskararen Aholku Batzordeak aipatu moduan, kantitatetik kalitatera pasatzeko premia jaio da (Eusko Jaurlaritza, 2004).

Horregatik, testuinguru hurbileko diagnostikoa egin nahi da, ikerlarien susmoa baieztatzen ote den frogatu eta, batez ere, HUHEZIn benetan egoera erreala eta abiapuntua zein diren argi islatzeko.

Oinarri teorikoetatik abiatuta eta egoera zehatzaz jabetzeko xedez, ikerlariari sortu zaizkion ikerketa galdera nagusiak honakoak dira:

**IG1. Zein da euskararen presentzia HUHEZiko gune informaletan eta nolakoa izan da euskararen erabileraren bilakaera azken urteotan?**

**IG2. Ba al dago alderik, euskararen erabilerari dagokionez, 1.mailako eta gainerako mailetako ikasleen artean? Eta erantzuna baiezkoa bada, nolakoa da aldea?**

**IG3. Zein toki du euskarak ikasleen eguneroko bizitzan eta zeintzuk dira euren hizkuntza ohiturak?**

**IG4. Zeintzuk dira lehen mailako ikasleen euskararen gaineko diskurtsoak eta zein da euren hizkuntza eta kultura identitatea?**

#### 3.2 Ikerketa diseinua

##### 3.2.1 Ikerketa tresnak

##### 3.2.1.1 Kale-neurketa

Behaketa egiteko fitxari dagokionez, aurretik HUHEZIn arrakastaz EMUN-ek erabilitako eredua eta Soziolinguistika Klusterrak erabiltzen duen fitxan oinarritu gara gurea osatzeko.

---

**Zein da euskararen presentzia HUHEZiko gune informaletan eta nolakoa izan da euskararen erabileraren bilakaera azken urteotan?**

**Guztira 986**  
**hiztunen ahotsa**  
**neurtu da.**  
**Horietatik 917**  
**ikasleen arteko**  
**elkarrizketak**  
**izan dira, 32**  
**irakasleenak, 24**  
**langileen**  
**artekoak eta**  
**gainerakoak**  
**irakasleen eta**  
**ikasleen arteko**  
**elkarrizketak.**

Laginari dagokionez, guztira 986 hiztunen ahotsa neurtu da. Horietatik 917 ikasleen arteko elkarrizketak izan dira, 32 irakasleenak, 24 langileen artekoak eta gainerakoak irakasleen eta ikasleen arteko elkarrizketak.

Kale-neurketan lortutako datuak kuantitatiboki Excell programa bidez landu dira.

### 3.2.1.2 Datu soziolinguistiko-demografikoen galdetegia

Ikasturte hasieran, lehen mailako ikasleek galdetegi sakona bete dute. Konkretuki, lagina 179 ikaslek osatu dute. Lan honetan, datu soziolinguistiko eta demografikoak, euskara eta gaztelaniaren ezagutza mailari buruzkoak eta euskararen erabilerari lotutakoak landu dira.

Emaizten analisirako SSPS software estatistikoa erabili da.

### 3.2.1.3 Eztabaida-taldeak

Taldeak antolatzeke, galdetegian 179 ikasletatik euskaraz gaztelaraz baino erosoago sentitzen direnak hautatu dira, eta ikasle hauek beste hainbat aldagaitan duten puntuazioa aztertu da. Aldagai horietan batez bestekoaren gainetik erantzun badu euskaraz aritzen dela, euskaldun sentitzen dela eta euskal kultura euskaraz eginikoa dela, ikasle hori **euskara eta euskal kultura ardatz** duen profilean sailkatu dugu. Gaztelaraz euskaraz baino erosoago sentitzen diren ikasleak hautatu ditugu bestetik eta aurreko aldagaietan batez bestekoaren azpitik puntuatu badu **gaztelera eta identitate espainiarra ardatz** dituen profilean sailkatu dugu. Azkenik, euskaraz gaztelaniaz bezain eroso sentitzen diren ikasleak hautatu ditugu eta aurreko aldagaietan batez bestekoaren inguruan puntuatu badu, **identitate definiturik ez duten ardatzaren** profilean sailkatu ditugu. Lan honetan, azken taldean sailkatutako 7 ikaslek hartu dute parte.

Moderatzaileek eztabaida-gidoia erabili dute saioan zehar. Edukiaren transkripzioa egiteko ez da software espezifikorik erabili eta idazketa Microsoft Word programan egin da. Datuen azterketa bi ikertzailek egin dute. Lehenik eta behin, bakoitzak bere kabuz egin du transkripzioaren analisia eta, ondoren, bi hauen arteko kontraste lan bat egon da kategoriak adosteko. Honela, prozesuari sinesgarritasuna eta bermea eman zaio.

## 4. EMAITZAK

### I

#### 4.1 Lehenengo ikerketa-galderari dagozkion emaitzak: Euskararen presentzia HUHEZIn eta bilakaera

##### 4.1.1 Euskararen presentzia HUHEZiko gune informaletan

Oinarri teorikoan agerian geratu da indarrean dagoen legeak hezkuntzan jarri duela fokua, eta azken hamarkadetan euskaldunen kopurua nabarmen handitu dela gaztetxoenen artean. Euskal Herrian, 15-24 urte bitartekoaren artean %12,3 dira euskaraz aritzen direnak. HUHEZI kokatzen den lurraldean, Gipuzkoan, gaztetxoaren %34,1 dira euskara erabiltzen dutenak.

HUHEZIn, ordea, orokorrean, euskararen presentzia handiagoa dela zehaztu dute kale-neurketan jasotako datuek; ondorengo taulan zehatzago:

**Taula 1: HUHEZiko Kale-neurketaren Datuak Esparruka.**

|          | Eskor.<br>Klaustroa | Eskor.<br>Kafetegia | Eskor.<br>Infogela + pasilloa | Eskor.<br>Sarrera-irteerak | ESKORIATZA<br>GUZTIRA | ARETXABALETA |
|----------|---------------------|---------------------|-------------------------------|----------------------------|-----------------------|--------------|
| Hiztunak | 325                 | 272                 | 129                           | 188                        | 914                   | 72           |
| Euskaraz | 139                 | 147                 | 58                            | 75                         | 419                   | 20           |
|          | %42,7               | %54,0               | %44,96                        | %39,89                     | %45,84                | %27,78       |

Taulan ikus daitekenez, Eskoriatzan 914 eta Aretxabaletan 72 izan dira hiztunak. Lehenengo kasuan, ez dira erdira iristen euskaraz aritu direnak, %45,84; eta bigarren kasuan, ikus-entzunezkoen artean, herenak ere ez du euskaraz egin, %27,78.

Eskoriatzan, esparruen arabera egin direnez neurketak, datu zehatzagoak ageri dira. Kafetegia da euskara nabarmenen entzuten den lekua, %54.04 dira euskaraz jarduten dutenak. Hiztun guztien %42-45 artean aritzen dira klaustroan, korridoretan eta infogeletan Euskal Herriko hizkuntza propioan. Sarrera-irteerak dira, ordea, euskara gutxien entzuten diren esparruak, %39.89. Kasu horretan, gehienek gaztelera egin dute.

986 hiztunen neurketak jasotzeaz gain, elkarrizketa kopurua zehaztu da, eta horiek sexuaren arabera bereiztu dira:

**Eskoriatzako kasuan, ez dira erdira iristen euskaraz aritu direnak, %45,84; eta Aretxabaletako kasuan, herenak ere ez du euskaraz egin, %27,78.**

**Mutilek neskek baino euskara gehiago erabiltzen dutela ikusi da (%46,84/%42,41). Elkarrizketa mistoen kasuan nabarmen aldatzen da datua (%58,75).**

**Taula 2: HUHEZiko Elkarrizketak eta Sexu Arteko Bereizketa.**

| Elkarrizketak orokorrean     |        |
|------------------------------|--------|
| Nesken arteko elkarrizketak  | 158    |
| Euskaraz                     | 67     |
| $\bar{X}$                    | %42,41 |
| Mutilen arteko elkarrizketak | 79     |
| Euskaraz                     | 37     |
| $\bar{X}$                    | %46,84 |
| Elkarrizketa mistoak:        | 80     |
| Euskaraz:                    | 47     |
| $\bar{X}$                    | %58,75 |
| Elkarrizketak guztira        | 317    |
| Euskaraz                     | 151    |
| $\bar{X}$                    | %47,63 |

Aurreko taulan guztira 317 elkarrizketa jaso direla ageri da. Horietatik %47.63 izan dira euskaraz, beraz, instrukzio hizkuntza nagusia bada ere, gelatik kanpo erdiak ere ez du erabili. Gainera, nesken eta mutilen artean bereizketa egitean, jasotako datuek mutilek neskek baino euskara gehiago erabiltzen dutela ikusi da; %46,84. Nesken kasuan, ordea, soilik %42,41 mintzatu dira euskaraz. Bestalde, fakultatean ematen diren elkarrizketa mistoei erreparatuta, datu horiek nabarmen aldatzen dira eta %58,75 dira neska-mutilen arteko solasaldietan euskara hautatzen dutenak.

#### 4.1.1 Euskararen presentziaren bilakaera HUHEZiko gune informaletan

2009an 196 elkarrizketa neurtu ziren eta 2012an 166. Aurten egindako neurketan 291 elkarrizketa jaso dira. Hona hemen izandako bilakaera:

**Taula 3: Erabileraren bilakaera guneka. Elkarrizketak: 2009, 2012, 2017.**

|                  | 2009 | 2012 | 2017 |
|------------------|------|------|------|
| Klaustroa        | %81  | %49  | %43  |
| Kafetegia        | %65  | %53  | %54  |
| Liburutegia      | %54  | %47  |      |
| Infogela +       |      |      | %45  |
| Sarrera-Irteerak |      |      | %40  |
| Aretxabaleta     |      |      | %28  |
| $\bar{X}$        | %62  | %50  | %40  |

Datuek beherakada nabarmena islatzen dute 2009.urtetik gaur arte. %62k egiten zuen euskaraz 2009.urtean eta ikasleen erdiek baino ez hiru urte igaro ondoren. 2017an, berriz, behatutako elkarrizketen %40a besterik ez da euskaraz.

Aurtengo kale-neurketan ez da guneen bereizketa berdina egin; sarrera-irteerak kontuan hartu dira eta liburutegian mugimendu urria nabaritu denez, infogela eta pasilloetako datuak lehenetsi dira.

Klaustroan izandako beherakada da guztien artean nabariena, 2009.urtean %81 ziren euskaraz mintzatzen zirenak, 2012an erdiek ere ez zuten erabiltzen, eta 2017an %36k baino ez. Kafetegian, ordea, 2009-2012an beherakada handia izan bazen ere, 12 puntukoa, beherakada moteldu egin da azken urteotan eta euskara gehien erabiltzen den esparrua da, ikasle guztien %51k erabiltzen du.

2009-2012an liburutegian jaso ziren datuak. 2009an %54 ziren bertan euskaraz aritzen zirenak, hiru urte geroago, are gutxiago, %47. 2017an infogela eta pasilloetako datuak lehenetsi dira eta %30 izan dira euskaraz mintzatzen behatu direnak. Sarrera-irteeretako datuak ere jaso dira azken urtean eta zehazki %42 izan dira euskaraz behatutako elkarrizketak.

Aurreko ikerketak Eskoriatzan burututakoak izan badira ere, 2017an Eskoriatzako eta Aretxabaletako datuak jaso eta bereizi dira. Azken honetan, elkarrizketa guztien %35 da euskaraz; horrenbestez, zalantzarik gabe esan liteke gaztelania dela nagusi.

Taulan argi ikusten da euskararen erabileraren bilakaeraren norabide beheranzkoa eta, ikasleen artean, HUHEZIn, gero eta euskara gutxiago entzuten dela bistan da. 2009-2012ko epean 12 puntuko beherakada izan zen 3 urtetan. Eta azken 5 urteotan, jaitsiera ere nabaria izan da, 10 puntukoa hain zuzen.

## 4.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak: Lehen mailako ikasleak vs gainontzekoak

**Taula 4: 1.mailakoaen vs gainontzekoen arteko elkarrizketak (Eskoriatza).**

|                                              | Guztira | Euskaraz | $\bar{X}$ | Neskak | Neskak Euskara | $\bar{X}$ | Mutilak | Mutilak Euskara | $\bar{X}$ | Mistoak | Mistoak Euskaraz | $\bar{X}$ |
|----------------------------------------------|---------|----------|-----------|--------|----------------|-----------|---------|-----------------|-----------|---------|------------------|-----------|
| 1. mailakoak ez direnen arteko elkarrizketak | 167     | 79       | %47,31    | 90     | 40             | %44,44    | 39      | 18              | %46,15    | 38      | 21               | %55,26    |
| 1. mailako 1. mailakoen arteko elkarrizketak | 101     | 42       | %41,58    | 48     | 16             | %33,33    | 29      | 13              | %44,83    | 24      | 13               | %54,17    |

**Datuek beherakada nabarmena islatzen dute: 2009an %62k egiten zuen euskaraz; erdiek baino ez hiru urte igaro ondoren. 2017an, behatutako elkarrizketen %40a besterik ez da euskaraz.**

**Nesken artean  
eta mutilen  
artean gaztelania  
entzuten da  
nagusiki, eta,  
aldiz,  
elkarrizketa  
mistoak  
direnean,  
aldaketa handia  
ez bada ere,  
sarriago  
hautatzen da  
euskara  
berbaldietan,  
hamarretik  
bostetan.**

Ikasleen artean behatutako elkarrizketak 268 izan dira, horietatik 101 lehenengo mailakoen artean eta 167 gainontzekoen artean. Oro har, euskara maizago entzuten da fakultatean urte luzeagoz ari direnen artean, ia 6 puntuko aldearekin. Bai 1.mailakoen artean eta baita gainontzeko-enean ere neskak dira gutxien erabiltzen dutenak eta elkarrizketa mistotan izaten da euskara gehiago entzuteko aukera, %55 inguruan hain zuzen. Nesken artean, hamarretik hiruk baino ez dute egiten gure hizkuntzan fakultateko lehen urtean, eta urteak pasa ahala, hamarretik lau dira euskara hautatzen dutenak. Mutilen arteko solasaldietan zein elkarrizketa mistoen artean, ordea, datuak nahiko parekoak dira, beti ere lehenengo mailakoekin konparatuz puntu baten bueltako igoera izanik 2. eta 3. mailakoen elkarrizketetan.

Oro har, nesken artean eta mutilen artean gaztelania entzuten da nagusiki, eta, aldiz, elkarrizketa mistoak direnean, aldaketa handia ez bada ere, sarriago hautatzen da euskara berbaldietan, hamarretik bostetan.

#### **4.3 Hirugarren ikerketa galderari dagozkion emaitzak: Ikasleen eguneroko bizitzan euskarak duen tokia**

##### *4.3.1 Galdetegiko datu kuantitatiboetan oinarritutako emaitzak:*

Lehenik eta behin, ikaslearen sexuari eta adinari erreparatu zaie. Lehen mailakoen %67 emakumezkoak dira eta gainontzeko %33a gizonezkoek osatzen dute. Adinari dagokionez, 17-20 urte bitartean kokatzen dira ikasleen ia %94 eta gainontzekoak 21-25 urte bitartekoak dira.

Ikaslearen adinari dagokionez, 17-20 urte bitartean kokatzen dira ikasleen ia %94, gainontzekoak 21-25 urte bitartekoak izanik.

**Taula 6: Lehen mailako ikasleen jaioterria.**

| Ikasleen Jaioterria |                |            |             |             |             |
|---------------------|----------------|------------|-------------|-------------|-------------|
|                     |                | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia | Portzentaia |
| Balidoak            | EAE            | 161        | 89,9        | 89,9        | 89,9        |
|                     | Nafarroa       | 13         | 7,3         | 7,3         | 97,2        |
|                     | Estatuko beste | 5          | 2,8         | 2,8         | 100         |
|                     | Total          | 179        | 100         | 100         |             |

Ikaslearen jaioterriari dagokionez, ikasleen ia %90 dira EAEn jaiotakoak, %7,3 Nafarroakoak eta %2,8 beste nonbaitekoak.

**Taula 7: Lehen mailako ikasleen ama hizkuntza.**

|          |              | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
|----------|--------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
| Balidoak | Euskara      | 83         | 46,4        | 46,4                | 46,4                |
|          | Gaztelania   | 51         | 28,5        | 28,5                | 74,9                |
|          | Euskara eta  | 43         | 24          | 24                  | 98,9                |
|          | Besteren bat | 1          | 0,6         | 0,6                 | 99,4                |
|          | Ez dakit     | 1          | 0,6         | 0,6                 | 100                 |
|          | Totala       | 179        | 100         | 100                 |                     |

Lehen hizkuntzari erreparatzen badiogu, ikasleen %46,4rentzat lehen hizkuntza euskara izan da, gaztelania beste %28,5entzat eta ikasleen %24k dituzte bai euskara eta bai gaztelania lehen hizkuntzatzat. Ikasleen %0,6k aitortu du beste hizkuntza bat izan duela lehenengotzat eta beste %0,6k ez daki zein izan den bere lehen hizkuntza.

**Taula 8: Lehen mailako ikasleek euskaraz nola dakiten.**

|          |             | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
|----------|-------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
| Balidoak | Zerbait     | 4          | 2,2         | 2,2                 | 2,2                 |
|          | Nahiko ongi | 30         | 16,8        | 16,8                | 19                  |
|          | Ongi        | 145        | 81          | 81                  | 100                 |
|          | Totala      | 179        | 100         | 100                 |                     |

Ikasleei galdetu zaie euskararen ezagutzan zein den euren autopertzepzioa eta 179 ikasletik %81ek ongi egiten dutela aitortu dute. Beste ia %17k nahiko ongi eta gainontzekoak dira zerbait dakitela diotenak.

**Taula 9: Lehen mailako ikasleen lagunek euskara nola dakiten.**

| Lagunek euskaraz nola dakiten |             |            |             |                     |                     |
|-------------------------------|-------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                               |             | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                      | Zerbait     | 14         | 7,8         | 7,8                 | 7,8                 |
|                               | Nahiko ongi | 44         | 24,6        | 24,6                | 32,4                |
|                               | Ongi        | 121        | 67,6        | 67,6                | 100                 |
|                               | Totala      | 179        | 100         | 100                 |                     |

Lagunen hizkuntza-ezagutzari erreparatzen badiogu, %92,2 dira euskaraz nahiko ongi edo ongi egiten dutenak aitortzen dutenak eta gainontzeko %7,8k lagunek euskara zerbait dakitela diote.

Beraz, ezagutzari dagokionez, HUHEZIKo ikasleen artean ezagutza ona edo nahiko ona dela aitortu dute.

Ezagutza alde batera utzita, erabilerara ere jo dugu eta hauek izan dira ikasleen erantzunak:

**Taula 10: Lehen mailako ikasleek gurasoekin erabiltzen duten hizkuntza.**

| Gurasoekin erabiltzen duten hizkuntza |                                    |            |             |                     |                     |
|---------------------------------------|------------------------------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                                       |                                    | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                              | Beti euskaraz                      | 45         | 25,1        | 25,1                | 25,1                |
|                                       | Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino | 20         | 11,2        | 11,2                | 36,3                |
|                                       | Euskaraz gaztelaniaz bezain beste  | 20         | 11,2        | 11,2                | 47,5                |
|                                       | Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino | 25         | 14          | 14                  | 61,5                |
|                                       | Beti gaztelaniaz                   | 69         | 38,5        | 38,5                | 100                 |
|                                       | Totala                             | 179        | 100         | 100                 |                     |

Gurasoekin hitz egitean, ikasleen erdiek gaztelaniaz gehiago edo beti gaztelaniaz egiten dute, laurden batek beti euskaraz eta gainontzeko ia laurdenek, euskara gehiago edo gaztelania bezainbeste erabiltzen dute.

**Taula 11: Lehen mailako ikasleek ikaskideekin erabilitako hizkuntza.**

| Ikaskideekin erabilitako hizkuntza |                                    |            |             |                     |                     |
|------------------------------------|------------------------------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                                    |                                    | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                           | Beti euskaraz                      | 41         | 22,9        | 22,9                | 22,9                |
|                                    | Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino | 77         | 43          | 43                  | 65,9                |
|                                    | Euskaraz gaztelaniaz bezain beste  | 39         | 21,8        | 21,8                | 87,7                |
|                                    | Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino | 19         | 10,6        | 10,6                | 98,3                |
|                                    | Beti gaztelaniaz                   | 2          | 1,1         | 1,1                 | 99,4                |
|                                    | Nagusiki beste batean              | 1          | 0,6         | 0,6                 | 100                 |
|                                    | Totala                             | 179        | 100         | 100                 |                     |

Aurreko taulan, ikasleek euren ikaskideekin erabilitako hizkuntza jasotzen da. Euskaraz beti aritzen direnak ez dira laurdenera ere iristen, %22,9 konkretuki. Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago %43 aritzen da eta bi hizkuntzak pareko %21,9k erabiltzen dute. Gaztelaniaz gehiago hamarretik bat aritzen dela diote eta beti gaztelaniaz aritzen den ikasle baten bat ere badago.

**Taula 12:** Lehen mailako ikasleek lagunekin erabiltzen duten hizkuntza.

| Lagunekin erabiltzen duten hizkuntza |                              |            |             |                     |                     |
|--------------------------------------|------------------------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                                      |                              | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                             | Beti euskaraz                | 37         | 20,7        | 20,7                | 20,7                |
|                                      | Euskaraz gehiago             | 29         | 16,2        | 16,2                | 36,9                |
|                                      | Euskaraz gaztelaniaz         | 28         | 15,6        | 15,6                | 52,5                |
|                                      | Gaztelaniaz gehiago euskaraz | 52         | 29,1        | 29,1                | 81,6                |
|                                      | Beti gaztelaniaz             | 32         | 17,9        | 17,9                | 99,4                |
|                                      | Nagusiki beste batean        | 1          | 0,6         | 0,6                 | 100                 |
|                                      | Totala                       | 179        | 100         | 100                 |                     |

Ikasleei lagunekin erabiltzen duten hizkuntzari buruz ere galdetu zaie. Beti euskaraz edo euskaraz gehiago egiten dutenak %36,9 dira. Bi hizkuntzak maila berean erabiltzen dituztenak %15,6 dira. Gaztelania gehiago edo beti gaztelaniaz egiten dutenak %47 dira; beraz, oro har, gaztelaniaren erabilera euskararena baino handiagoa da.

Interneten eta whatsapp-ean erabiltzen duten hizkuntzari buruz ere galdetu zaie eta hauek izan dira erantzunak:

**Taula 13:** Lehen mailako ikasleek posta elektronikoan erabiltzen duten hizkuntza.

| Email-etan erabiltzen duten hizkuntza |                                    |            |             |                     |                     |
|---------------------------------------|------------------------------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                                       |                                    | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                              | Beti euskaraz                      | 36         | 20,1        | 20,1                | 20,1                |
|                                       | Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino | 54         | 30,2        | 30,2                | 50,3                |
|                                       | Euskaraz gaztelaniaz bezain beste  | 36         | 20,1        | 20,1                | 70,4                |
|                                       | Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino | 37         | 20,7        | 20,7                | 91,1                |
|                                       | Beti gaztelaniaz                   | 15         | 8,4         | 8,4                 | 99,4                |
|                                       | Ez dut erabiltzen                  | 1          | 0,6         | 0,6                 | 100                 |

Email-ak bidaltzeko momentuan, hamarretik bostek egiten dute beti edo gehiago euskaraz. Bi dira euskara eta gaztelania modu berberean erabiltzen dutenak eta beste bi gaztelaniaz euskaraz baino gehiago bidaltzen dituztenak. Azkenik, ez da batera ere iristen beti gaztelania erabiltzen dutenen kopurua.

**Taula 14: Lehen mailako ikasleek Whatsapp-ean erabiltzen duten.**

| Whatsapp-ean erabiltzen duten hizkuntza |                                    |            |             |                     |                     |
|-----------------------------------------|------------------------------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                                         |                                    | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                                | Beti euskaraz                      | 21         | 11,7        | 11,7                | 11,7                |
|                                         | Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino | 33         | 18,4        | 18,4                | 30,2                |
|                                         | Euskaraz gaztelaniaz bezain beste  | 44         | 24,6        | 24,6                | 54,7                |
|                                         | Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino | 66         | 36,9        | 36,9                | 91,6                |
|                                         | Beti gaztelaniaz                   | 15         | 8,4         | 8,4                 | 100                 |
|                                         | Ez dut erabiltzen                  | 179        | 100         | 100                 |                     |

Sare sozialetan, whatsapp-ean zehatzago, %45 inguru dira gaztelania gehiago edo beti erabiltzen dutenak. %10 besterik ez euskara beti erabiltzen dutenak. %18k gehiagotan erabiltzen dute euskaraz eta bietan berdin aritzen dira ia %25.

Azkenik, eta analisi kuantitatiboarekin bukatzeko, ezezagunekin tratatzen dutenean, lehenengo hitza zein hizkuntzatan ematen duten ere jakin nahi izan dugu:

**Taula 15: Lehen mailako ikasleek ezezagunei hitza ematean erabiltzen duten hizkuntza.**

| Ezezagunei hitza ematean erabiltzen duten hizkuntza |                                    |            |             |                     |                     |
|-----------------------------------------------------|------------------------------------|------------|-------------|---------------------|---------------------|
|                                                     |                                    | Maiztasuna | Portzentaia | Portzentaia balidoa | Portzentaia metatua |
| Balidoak                                            | Beti euskaraz                      | 20         | 11,2        | 11,2                | 11,2                |
|                                                     | Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino | 41         | 22,9        | 22,9                | 34,1                |
|                                                     | Euskaraz gaztelaniaz bezain beste  | 36         | 20,1        | 20,1                | 54,2                |
|                                                     | Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino | 54         | 30,2        | 30,2                | 84,4                |
|                                                     | Beti gaztelaniaz                   | 28         | 15,6        | 15,6                | 100                 |
|                                                     | Total                              | 179        | 100         | 100                 |                     |

Lehen mailako ikasle guztien %34,1ek erabiltzen du euskara beti edo gehiagotan ezezagun bat ezagutzen duenean, beste %30,2k, ordea, gaztelania erabiltzen du gehiagotan eta, neurri txikiagoan, %15,6k onartzen du hitza gaztelaniaz ematen duela ezezagun baten aurrean. Gainontzeko %20,1ak bi hizkuntzak erabiltzen ditu pareko.

Erabilerari dagokionez, beraz, ikasleen ohiturak nahiko desberdinak dira eremu batetik bestera. Egun hain erabiliak diren sare sozialetan oraindik euskararen presentzia nahiko ahula da, nekez erabiltzen dituzte hauek euskaraz. Gainera, lagun edo ikaskideekin aldea nabaria da eta lagun artekoan euskararen presentzia ez da ikaskideen artekoena bezainbestekoa.

Hurrengo atalean, kuantitatiboki jaso diren datu hauen osagarri kualitatiboa landu dugu.

#### *4.3.2 Eztabaida taldeen analisia: ikasleen eguneroko bizitzan euskarak duen presentzia eta hizkuntza ohiturak*

##### **4.3.2.1. Euskararen ezagutza**

Ikasleek orokorrean ezagutza maila ona daukatela aitortu dute. Batzuentzat euskara da ama-hizkuntza eta beste batzuek gaztelera ikasi dute etxean eta euskara eskolan ikasitakoa izan da.

“Nire kasuan, ba klaro nik uste dut hitz egiten dudala ondo” (H5)

**Whatsapp-ean  
zehatzago, %45  
inguru dira  
gaztelania  
gehiago edo beti  
erabiltzen  
dutenak. %10  
besterik ez  
euskara beti  
erabiltzen  
dutenak. %18k  
gehiagotan  
erabiltzen dute  
euskaraz eta  
bietan berdin  
aritzen dira ia  
%25.**

“Nik ebai uste dot maila ona (...) Nire ama hizkuntza ez da euskera, bueno nik gurasogaz itten dot erderaz, baino bueno, gero ikusten dot ni gai nazela euskeraz itteko” (H1)

“Nire kasuan... ez dakit... nik uste det maila ona edo, bastante altua ez? O sea, konparatzen nire ingurukoekin, nire kuadrilakoekin ba nahiko ondo, hitz egiteko eta defenditzeko ere nahiko ondo” (H2)

“Nik adibidez etxean beti hitz egin dut euskaraz gurasoekin eta, baina gero ere Iruñean bizitzearekin pues jendeak normalean ez du euskeraz hitz egiten (...) baina, hala ere, etxean euskaraz hitz egiten badut gero nahiko ondo” (H3)

Ezagutzaren inguruan, gainera, euren buruaren diagnostikoa egin ez ezik, ingurukoena ere egin dute, euren pertzeptzioak erakutsiz. Gasteizetik datozen ikasleek HUHEZIRA iritsitakoan euskara maila baxuagoa zutela aitortu dute eta ikasturteak aurrera egin ahala, ezagutzan aurre-rapausoak eman dituztela onartzen dute.

“ni konturatu naz, klasian igual dazela pertsona batzuk igual Gasteizetik datozela eta euren euskera maila dala oso bajua” (H5)

“Hasieran, lehenengo egunean gogoratzen naiz Gasteizkoak beidatzen zuten eta esaten zuten es que ez det ezer ulertzen, beidatzen zuten, en plan, están hablando en chino. Eta orain ulertzen dute dena” (H3)

Fakultatean ingurune soziolinguistiko anitzetako ikasleak biltzen direnez, euskalkien kontua ere azaleratu da,

“euskalkia ta hola pila bat kostatzen zaie [gasteiztarrei]” (H7)

“neri ere, nik batzutan ez det ulertzen” (H2)

“Gure gelan ere hori pasa da. Igual batuan hitz egiten duen norbaitekin ba zeeze ulertzen zotzan, baino adibidez, daukau Azkoitiko bat ta Gasteizkoa ta Azkoitikua no... no compatible. Geratzen zan Gasteizkoa como...¿qué me estas contando? Ta gero ya batuan esaten zotzan ta ya bai”. (H6)

Testuen ulermenean, ikasleek ez dute oso argi zein hizkuntzatan nahiago duten:

“Igual gazteleraz egoten bada oso puntillero, egoten bada hitz batzuk holan arraruak edo, ez dot ulerketan larri, o sea ulertzen dot igual gehixau euskaraz gazteleraz baino” (H5)

“Nik erderaz hitz egiten det, baina nik testu bat irakurtzerakoan euskeraz ze eskolan beti hitz egin dugu euskeraz eta testu guztiak euskeraz egin ditugu” (H2)

“Nik be, ez dakit. Es que segun gaixa ta hola. Ze irakurtzen doteniann libre, beti erderaz irakurtzen dot” (H4)

“Nik ikasi dut euskeraz eta gaztelaniaz, orduan, berdin zait...bietan” (H3)

#### 4.3.2.2 Euskararen erabilera

Nahiz eta ezagutza maila ona daukatela aitortu duten, erabileraz jardutean, euren bizitzan gaztelaniak duen presentzia handia dela ere azaleratu da. Ikasleen ia erdiek onartu dute HUHEZIRA etorri denetik euskara gehiago erabiltzen dutela, eta horietatik bik ezagutza eta erabileraren arteko elkarreragina aipatu dute:

“Es que ni honea etorri baino lehenago ia ez nuen euskera erabiltzen, o sea, ikastolan, antzerkia egiterakoan eta hola, bai, baina... klasekoekin eta egia da beti erderaz hitz egiten nuen” (H2)

“Hasieran, HUHEZIn egon, o sea egon baino aurretik, ikusten neban euskera ya ez nebala asko erabiltzen ta gero etorri nintzen hona ta jendiagaz ta hasi nintzen hor euskeraz hitz egiten ta hori bai igertu dot aldaketa bat, o sea, hobeto eiten dotela, o sea, hobeto idazten dotela eta ebai hitz egin” (H1)

“Nik ere notau det adibidez hemen askoz gehio erabiltzen detela, baino, o sea, eztaikit, igual oain ebai erraztasun gehio dauket baita hitz egiteakoan ta hola” (H7)

Gaztelaren presentzia handia da ikasleen ingurunean, lagunekin batik bat gaztelaraz aritzen dira. Zazpi ikasleetatik batek erantzun du lagunekin euskaraz aritzen dela, beste bostek gaztelara gehiago edo beti erabiltzen dutela, eta batek ez dio galderari zuzenean erantzun, nahiz eta aurretik aipatu duen HUHEZIRA etorri baino lehen euskara ez zuela ia erabiltzen:

“nik gurasoekin beti hitz egin dut erderaz eta lagunekin ere” (H2)

“lagunekin eta ba,azken finean, erderaz” (H3)

“lagunekin igual batzutan urtetan jatzu gaztelara gehiau” (H5)

“nik adibidez kuadrilakin dana erderaz” (H6)

“Ingurukokin ta lagunakin ta dana erderaz” (H7)

**Nahiz eta ezagutza maila ona daukatela aitortu duten, erabileraz jardutean, euren bizitzan gaztelaniak duen presentzia handia dela ere azaleratu da. Ikasleen ia erdiek onartu dute HUHEZIRA etorri denetik euskara gehiago erabiltzen dutela, eta horietatik bik ezagutza eta erabileraren arteko elkarreragina aipatu dute.**

---

**Lagunekin batik  
bat gazteleraz  
aritzen dira :  
zazpi ikasleetatik  
batek erantzun  
du lagunekin  
euskaraz aritzen  
dela.**

“etxean bai itten dot dana erderaz, baino kalera urteten naizen momentuan, lagunekin es que dana itten dot euskaraz” (H4)

Ikaskideen artean, ez dago oso argi zein den gehiagotan erabiltzen duten hizkuntza. Batek euskaraz egiten duela onartzen du, beste batek biak erabiltzen dituela eta azken batek esaten du ikasgelatik aterata bazuetan gaztelera erabiltzeko joera dela nagusi:

“hemen hitz egiten det erderaz, baina euskeraz ere” (H2)

“klasekokin ta euskeraz” (H6)

“klasen ta hola asko bultzatzeigute euskeraz hitz egiteko, baina es que gero irtetzen gea kanpora eta es que segun ze kasutan ez deu ezta gure partetik jartzen” (H7)

Laburbiltzeko, euskaraz bizi ote diren galdetuta, ikasle batek egindako hausnarketa jaso da:

“Es que nire ustez, euskaraz bizi gara? Bai, baino gazteleraz ere” (H3)

Gainera, ikasleek hizkuntza hautatzerakoan hainbat faktoreren eragina aipatu dute. Ama hizkuntzak duen pisua azaldu da, besteak beste:

“nire ikastolan ia guztiek geneukan ama hizkuntza erdera eta orduan azkenean pues denok erderara eramaten genun” (H2)

Ezezagunaren aurrean, lehen kontaktuan erabilitako hizkuntzaren garrantzia ere aipatu dute, alegia, ohitura aldatzea kosta egiten dela aipatu da:

“Es que azken baten da bakoitzakin eraikitzen dozu harremana ba igual hasten bazare berakin gazteleraz ba gero ya urteten jatzu igual gazteleraz hitz egitia berakin” (H5)

“segun zeinekin zelan eraiki dozun harremana badaukozula joera ba erderaz eitteko berba pertsona batzukin ta euskeraz beste batzukin” (H4)

Hortaz gain, testuinguru elebidunetan, inguruko hizkuntzek duten garrantziaz ohartu dira, batez ere egoera diglosikoan bizi diren hizkuntzen artekoaz. Gaztelania biztanle orok menderatzen du, euskara, ordea, hizkuntza gutxiagotua da eta erabileran aztarna horren eragina hautematen da:

“Orokorrean erdera askoz gehio hitz eiten da ta horrek bere eragina dauke baita” (H7)

“igual hasten naiz euskeraz hitz egiten bati eta erantzuten dit erderaz ze badaki nik erderaz hitz egiten detela” (H2)

“Bai, azkenian jendia dau seguruau erderaz” (H1)

Ingurune soziolinguistikoa ere ageri da faktore eraginkortzat. Iruñean, adibidez, euskara ia ez dela entzuten aipatu dute, eta Oñatin, alegia, erdararen presentzia urria azaleratu da:

“Nik Iruñean adibidez, alde zaharrean, igual bai hitz egiten duzu gehio euskaraz, baino beste leku batzutan ez” (H3)

“Oñatin erderia es que ia ez dozu entzuten” (H4)

Gainera, bi ikaslek, gizartean euskararen erabileran topatzen diren trabak islatzeko, euren esperientzia partekatu dute:

“neri gertatu zitzaidan adibidez Gasteizen autobusekoari pues galdetu nion -ze ordutan ateratzen da busa?- eta -a mí háblame en cristiano”- eta gelditu nintzen...” (H2)

“zoiaz Gasteizera denda batera esaten dotzu -barkatu aldagelak?- eta -perdón?- -ah pues los probadores- eta da en plan ostra zauzela Euskal Herrian, o sea...” (H4)

Beraz, orokorrean, ikasleek ezagutza eta erabileraren arteko desorekaz ohartzen direla erakutsi dute eta onartu dute euskara ondo menderatu arren, gaztelerak presentzia handia duela euren bizitzan. Gainera, euskal gizartean hizkuntza propioa erabiltzeko trabak azaleratu nahi izan dituzte eta, hizkuntza ezagutzari dagokionez, euren burua ebaluatzeaz gain, HUHEZIKo beste ikasleen balorazioa ere egin dute.

#### **4.4 Laugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak: euskararen gaineko diskurtsoak eta identitatea**

Eztabaida-taldean, gure sailkapenaren arabera, identitate definiturik ez daukaten ikasleek hartu dute parte eta, diskurtsoen azterketan, joera garbirik ere ez dute azaldu. Euskararekiko sentimenduei begira, atxikimendua adierazi badute ere, gaztelerak euren bizitzan toki handia dauka, bai ama-hizkuntza delako batzuen kasuan edo bai lagunen artean hizkuntza hori nagusi delako. Beraz, bi hizkuntzen artean hautaketa egitea kosta egiten zaie. Gainera, familiak duen papera garrantzizkoa dela ikusi da; euskararekiko sentimendu sakonagoa dutenek familiarekin lotzen dute eta:

***Ikasleek ezagutza eta erabileraren arteko desorekaz ohartzen direla erakutsi dute eta onartu dute euskara ondo menderatu arren, gaztelerak presentzia handia duela euren bizitzan.***

**Euskalduna zer  
den  
definitzerakoan  
ideia nahiko  
zalantzazkoak  
adierazi dituzte.  
Hizkuntza ez  
ezik, beste  
alderdi batzuei  
ere erreparatu  
diete,  
orokorrean,  
hizkuntza baino  
sentimendua  
hobetsiz.**

“Nire kasuan biak sentimendu bera, ez? Nik azkenean, o sea, nire ama hizkuntza erdera da, baino euskera asko gustatzen zait” (H2)

“Euskararekiko badut sentimendua, baino familia delako” (H3)

“Nire kasuan, apur bat es que ezberdinagoa naiz, ez dakit. O sea ez da sentimendu igualak bixekiko. O sea bai dakot biekiko sentimendua baña dia sentimendu desberdinak (bat familiarekin lotzen du eta bestea lagunekin)” (H4)

“familixak hori transmititu dostan neri [euskara] ba sentimendu hori dao gehixau euskeraz” (H5) “Nire kasuan bixekiko baina igual gehixo erderaz, ze, azkenian, kanpuan familia dakot ta eurekin relacionatzeko ta...” (H6)

“Nik adibidez, o sea, txikitatik bik ikasi ditut, o sea, ez da euskeraz ez det lehenengo ikasi, o sea, bik batea. Baina bai da egia kanpoa juten naizenen ta hola, o sea, euskera ez dakitenen jendekin ta hola, bai sentitzen det sentimendu hori de... eztatit (...) es que ez dakit, da como... harro bezela baino ez dakit...” (H7)

Zazpi ikasleek aitortu dute ez direla ez euskara ez gaztelera ikastera behartuak izan, baina ikasle batek euskara gustuko duela esan arren, une batean hizkuntza ikastearen motibazio instrumentalari ere erreferentzia egin dio:

“euskera asko eskatzen dute eta horrela lanetarako eta gainera irakasle izateko... pues gehiago” (H2)

Ikasle guztiek euskaldun sentitzen direla esan dute, eta ez dira batere espainiar sentitzen. Hala ere, euskalduna zer den definitzerakoan ideia nahiko zalantzazkoak adierazi dituzte. Hizkuntza ez ezik, beste alderdi batzuei ere erreparatu diete, orokorrean, hizkuntza baino sentimendua hobetsiz:

“nire aitak ez daki euskeraz eta bera sentitzen da euskaldun” (H1)

“euskalduna izatea ez da bakarrik hizkuntza, ezta? da kultura, bizi zaren lekua eta dena, o sea ez bakarrik hizkuntza” (H3)

“Kultura eta dena (...) harro sentitzea o ez dakit” (H2)

“badago jende asko kamisetan Euskal Herria no sé qué ta gero azkenean ez. Ta beste batzuk igual ez dute hainbeste aldarrikatzen baino sentimendu gehiago dago, o sea” (H3)

Euskalduna eta euskal herritara bereiz ditzaten eskatu zaie eta hau izan da denek, hots, zazpi ikasleek, onartu duten erantzuna:

“Euskal herritarra Euskal Herrian bizi dena” (H3)

“Euskalduna sentimendua dakona” (H4)

“Bai (aurrekoaren erantzunari baiezkota emanez)” (H1, H2, H3, H5, H6, H7)

Hortaz gain, aipatu dute euskarak gizartean duen presentzia urria eta, egun, Euskal Herriko hizkuntzen diglosia egoerari erreferentzia eginez, eguneroko jardunean euskara beharrezkoa ez dela baieztatu dute sei ikaslek, batek ez baitu erantzun:

“Nik uste gaur egun Euskal Herrixan ahal dala bizi erderiak bakarrik” (H4 ren aipua eta H1, H2, H5 eta H6-k baiezkota eman dute buruarekin)

“Nik uste dot jakitea ondo eongo zala, baino oaintxe bertan ez dala beharrezkoa, ezta? Ze azkenen ahala zea harreman, o sea, ahal dituzu harremanak euki beste pertsonekin ta eztaukazu zertan euskara jakin behar” (H7)

Hala ere, arestian aipatu da, ikasleen eguneroko bizitzan gaztelerak presentzia handia duela eta euskara gehiago erabiltzea gustatuko litzaietela onartzen badute ere, diskurtso estereotipikoak azaldu dira:

“Ba niri gustauko jaten, o sea jendiak bai jakitia euskeraz. O sea ez bakarrik gazteleraz, bai claro como mundo danak daki gazteleraz...” (H5)

“ya baina es que azken finean denek egiten bagenun euskeraz, hori, jendeak ikasiko zun euskeraz” (H3)

“o sea, azkenean, denok erabiltzen badugu... etorkizun batean pues danak euskeraz ikasi beharko dute, ez?” (H2)

Euskal kulturaz aritzean ere ideia garbirik ez dago eta nahastea handia izan da. Tradizioak, euskal musika, dantzak eta gastronomia aipatu dituzte euskal kulturaren parte.

“dauzkagun ohiturak, ez? (...) gure abestiak... (...) “parte handi bat da hizkuntza” (H2)” (H2)

“Hizkuntza, nortasuna...” (H1)

“gastronomia bebai” (H5) “Tradizioak, euskal dantzak, euskal musika” (H3)

Gainera, Iztuetak zabaldu duen galderatik abiatuta “*Euskal kultura euskaraz baino ez da posible, ala espainolez edo frantsesez ere bai?*” ikasleei gal-

detu zaie ea euskal kultura euskara ez den beste hizkuntza batean egin daitekeen. Ikasleek argi daukate euskaraz dagoena euskal kultura badela, baina euskaraz ez badago, batzuetan euskal kulturaren parte izan daiteke eta bestetan ez. Taldeko sei ikaslek euskal kultura euskaraz ez den beste hizkuntza batean egin daitekeela erantzun dute eta ikasle batek soilik lehenetsi du euskara euskal kulturaren baldintzat. Hala ere, ikasle horrek aurretik ere aipatu du euskaldun sentitzeko sentimendua dela ezaugarri nagusi, eta ez hizkuntza.

“es que euskal kultura transmititu daiteke euskeraz izan gabe baino izango da euskeraren inguruan” (H3)

“parte handi bat da hizkuntza (...) baino egon daiteke [euskal kultura] beste hizkuntza baten nire ustez” (H2) (Adostasuna ematen dute H3, H4, H5, H6 eta H7k)

“nik uste dot hizkuntza da bereizten gaituena” (H1)

Gogoeta sustatzeko intentzioarekin, moderatzaileak gaian sakontzeko Euskal Herrian jaioetako musikarien adibideak eman dizkie “Berri Txarrak”, “La Oreja de Van Gogh” eta “La Polla Records”. Lehengoek euskaraz egiten dute eta gainontzeko biek gazteleraz. Lekunberrikoen kasuan dudarik ez dago eta euskal kulturaren parte direla baieztatu dute. Bigarrenen kasuan ez dago adostasunik, EAEn jaioetakoak badira ere, ez dutelako euskaraz egiten. Eta hirugarrenen kasuan, oñatiar ikasleak bakarrik erantzun du eta euskal kulturatzat sailkatzen ditu:

“Ezaugarri gehiau dekozena, dekoz eh Berri Txarrak, o sea, azkenien ba hizkuntza, euskeraz iten dabe... ez dakit. Es que nik uste dot euskal kulturaren barruan dauzela ezaugarri batzuk, esan doguzenak, ba ohiturak, hizkuntza ta horrela... ta batzuk dekoz ba, o sea, ezaugarri batzuk ta beste batzuk pues besteak “ (H1)

“Haiek Donostiakoak badira [La Oreja de Van Gogh] dira euskal herritarrak baino horregatik ez dira euskaldunak” (H3)

“[La Oreja de Van Gogh] igual dago apur bat euskal kulturatik kanpo” (H5)

“[La Oreja de Van Gogh] nik sartuko nuke espainiar kulturean” (H3)

“nik adibidez bai hartzen dot “La Polla” euskal kulturaren parte. Ez dakit izango dan nire herrikua edo dalako...” (H4)

Beraz, ikasleek euskararekiko atxikimendua erakutsi badute ere, ez dira euskararekin bakarrik identifikatzen eta, orokorrean, gaztelera pareko

edo maila antzekoan jarri dute. Gainera, euskalduna izatea zer den argitzea ere kostatzen da eta euskal kultura definitzen ere baieztape nahiko zailak dira.

## 5. ONDORIOAK

### I

Ondorioak aztertzerakoan, kontuan hartu behar da lan honetan MUko HUHEZI fakultateko ikasleak aztertu direla, eta beraz, ezin dira orokortu. Gainera, galdetegi sakonean lehen mailako ikasle ororen erantzunak jaso badira, metodologia kualitatiboan lagina zazpi ikasle osatu dute. Izan ere, lan hau ikerketa handi baten parte besterik ez da.

### 5.1 Lehen ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

**IG1: Zein da euskararen presentzia HUHEZiko gune informaletan eta nolakoa izan da euskararen erabileraren bilakaera azken urteotan?**

Fakultatean sortutako kezka, susmoa ezik, errealitate ere badela argitu da. HUHEZIn euskararen presentzia gero eta murriztagoa da eta ikasleek, gune informaletan bederen, gero eta euskara gutxiago erabiltzen dute.

Aipatu da Euskal Herrian kaleko erabilera datua apaldu egin dela azken hamar urteotan. %13,7 ziren euskaraz aritzen zirenak 2006 urtean eta 2016an, berriz, %12,6. Egia da Gipuzkoako datua nabarmen positiboagoa dela eta populazioaren ia heren batek erabiltzen duela euskara, hala ere, hemen ere puntu eta erdiko aldea izan da azken bost urtekoan, %32,6 ziren 2011ko kale-neurketan euskaraz aritzen zirenak eta %31,1 dira 2016an erabili dutenak (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

HUHEZiko datuak aztertzerakoan, kontuan hartu behar da ingurune euskalduna dela eta bertan ikasle oro dela elebiduna; horrek badu eraginik noski, elebidunen proportzioa erabileraren menpeko aldagaia dela argitu baitute hainbat ikerketek (Isasi eta Iriarte, 1988). Euskararen sustapena oinarri izan du fakultateak irakasle eskola sortu zenetik. Hortaz gain, arestian aipatu da gizartea euskalduntzeko eskolan jarri duela fokua 1982. urteko legeak. Fakultatean etorkizuneko maisu-maistrak hezitzen diren heinean, testuinguru honek euskararen ezagutza, erabileran eta kulturaren transmisioan badu bere ardura. Gauzak horrela, egia da bertako datuak Soziolinguistika Klusterrak 2016ko Euskal Herriko kale-neurketan lortutakoak baino positiboagoak direla, baina, testuinguru zein den kontuan hartuz gero eta 2009tik izandako bilakaerari erreparatuta, bidea guztiz beherakorra izan da eta beherakada gizartearen izandakoa baino askoz ere bortitzagoa izan dela aztertu da.

**HUHEZI barruan neurtu diren esparruetatik, kafetegia izan da euskara gehiago entzun den gunea. Bertan ikasle eta irakasleak biltzen dira atsedendietan eta irakasleen presentziak euskara gehiago erabiltzea susta dezake.**

Gizartean, bai haur, gazte eta helduen artean, emakumezkoek gizona-koek baino euskara gehiago erabiltzen dute (Soziolinguistika Klusterra, 2017) Fakultatean portaera hori ez da berdin gertatzen eta gizona-koak dira euskara gehiago erabiltzen dutenak. Nesken arteko elkarrizketetatik %42 dira euskaraz, mutilen artean %46 eta datua nabarmen igotzen da elkarrizketa mistoetan, neurtutako guztien %59 izan dira euskaraz. Gertakizun honen ondorio argirik ez da eskuratu, eta, beraz, aurrera begira ildo honetan sakontzea beharrezkoa dela ikusi da, berezitasun honi azalpena eman ahal izateko.

HUHEZI barruan neurtu diren esparruetatik, kafetegia izan da euskara gehiago entzun den gunea. Bertan ikasle eta irakasleak biltzen dira atse-denaldietan eta irakasleen presentziak euskara gehiago erabiltzea susta dezake. Eskoriatzan, sarrera-irteeran, ordea, hizkuntza aldaketa gerta-tzen da eta gaztelania entzuten da gehiago. Formakuntza akademikoan, HUHEZIn, euskararen erabilera hobesten bada ere, eguneroko bizitzan, gizartean, gaztelania da nagusi. Espazio fisikotik ateratzeak jokabide aldaketa hori eragin dezake. Hala ere, oraindik ere ezin da hau baieztatu eta sakonago landu beharko litzateke ondorengo ikerketetan.

Aretxabaletari dagokionez, bertan jaso dira datu apalenak. Neurtu diren elkarrizketa guztien %28 besterik ez dira euskaraz izan, Eskoriatzan ja-sotako datuak baino dezente apalagoak. Aurrez egindako neurketarik ez dugu eta erabakitzeko dago proiektua bi campusetara zabalduko den edo Eskoriatzara mugatuko den. Beraz, datu honen interpretazioa konplexua da orain. 2017-2018 ikasturtean beste kale-neurketa egitea aurreikusten da; horrenbestez, datu hori eskuratzen dugunean, bertako egoera zein den aztertuko da.

## 5.2 BIGARREN IKERKETA-GALDERAREN INGURUKO ONDORIOAK

**IG2: Ba al dago alderik, euskararen erabilerari dagokionez, 1.mailako eta gainerako ikasleen artean? Eta erantzuna baiezkkoa bada, nolakoa izan da aldea?**

Aldea dagoela baieztatu da jasotako emaitzetan. Euskara erabilera han-diagoa egiten dute fakultatean urte bete baino gehiago daramaten ikasleek. Sei puntuko aldea izan da orokorrean eta nesken artean 11 punturainokoa. Mutilen artean zein elkarrizketa mistoetan datuak nahiko parekoak izan dira, beti ere, datu positiboagoak lortuz 2. eta 3.mailakoen artean.

Kale-neurketan eskuratutako emaitzak besterik ez direnez, datuak falta zaizkigu jokabide horren arrazoiak azaldu ahal izateko. Aurrera begira,

komenigarria ikusten da urtero (edo bi urtez behin gutxienez) kalenurketa egitea. Horrela, bada, gertakari isolatu bat izan ote den jakingo da edo portaera aldaketa hori justifikatzen duten aldagaiak zeintzuk diren identifikatzea ahalbidetuko da.

Lehen mailako ikasle batzuek aitortu dute euren bizitzaren beste esparruetan baino euskara gehiago erabiltzen dutela HUHEZIn. Horrek hizkuntza-ohitura eta portaera aldaketak eragin ditzake eta, ikasturteak aurrera egin ahala, erabilera handiagoa egiten duten neurrian, testuingurua euskaldunagoa bilakatu eta hizkuntza hori erabiltzera motibatuak sentitu daitezke. Hala ere, ziurtasunez hala izan den ezin dugu justifikatu, ez baitugu orain 2. eta 3. mailan dauden ikasleen daturik.

### 5.3 Hirugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

**IG3: Zein toki du euskarak ikasleen eguneroko bizitzan eta zeintzuk dira euren hizkuntza ohiturak?**

Ikasleen ia erdiek euskara ama-hizkuntza duela aitortu dute, zehazki lehen mailakoen %46,4k. Hala ere, gurasoekin beti euskaraz aritzen direnak %25,1 besterik ez dira. Honek islatzen du ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen dikotomia, etxean irakatsi dieten hizkuntza izan bada ere, egun ez omen delako etxeko elkarrizketetan nagusiki erabiltzen duten hizkuntza.

Ikasleek, oro har, euskara ondo dakitela aitortu dute (%81) eta gehien-goaren lagunek ere hala egiten dutela. Hala ere, erabileran datuak apaldu egiten dira, eta ingurunekoei euskaraz jakinda ere, gaztelaniaz aritzen dira gehienetan. Eztabaida-taldean parte hartu duten zazpi ikasleetatik, bostek aitortu dute lagunekin gaztelaniaz aritzen direla mai-zago. Hiru ikaslek aipatu dute ikaskideekin lagunekin baino sarriago erabiltzen dutela euskara, eta HUHEZIn etorri direnetik euskararen erabilera ere nabarmen handitu dutela. Galdetegi kuantitatiboan jasotako erantzunekin ere bat dator ideia hori; izan ere, ikasleen ia %66k egiten du ikaskideekin euskaraz gaztelera baino gehiago edo beti euskaraz eta datu hori ia %37ra jaisten da lagun arteko solasaldietan.

Interneten ere nekez erabiltzen dute euskara, %11,k erabiltzen du whatsapp-a beti euskaraz. Era berean, ezezagunekin erabiltzen duten hizkuntzari buruz ere galdetu zaie eta joera argirik ez da azaldu. Ikasleen %11,2 dira lehen kontaktuan beti euskaraz zuzentzen direnak, %15,6 beti gaztelaniaz aritzen direnak eta gainontzekoek biak erabiltzen dituzte, batzuetan bata eta bestetan bestea. Ildo honetan ere, sakonago

---

***Ikasleen ia %66k egiten du ikaskideekin euskaraz gaztelera baino gehiago edo beti euskaraz eta datu hori ia %37ra jaisten da lagun arteko solasaldietan***

***Ikasle guztiek  
jarrera positiboa  
azaldu dute  
euskararekiko  
eta, ezagutza  
maila ona badute  
ere, ez dute  
erabilera  
ziurtatu.***

galdetzean, lehen kontaktuan erabilitako hizkuntzak duen garrantziaz ere jabetu dira ikasleak, ohiturak aldatzea zaila dela onartuz, nahiz eta ez duten jakin hizkuntza bat edo beste aukeratzearen arrazoia azaltzen.

Iñaki Garciak (2001) erabilera azaltzeko eredu psikosozialean, testuinguruari dagozkion aldagaien artean, euskaldunen presentziaren garrantziaz ohartu da. Oñatitik datorren ikasleak aitortu du kalean euskaraz egiten duela beti, hori delako herriko ohitura. Donostiako eta Iruñeako ingurune soziolinguistikoetan, hots, euskarak presentzia murriztagoa duen testuinguruetan, ikasleek gaztelera erabiltzeko joera handiagoa agertu dute. Gainera, nahiz eta euskaldunen presentzia handiko eremu soziolinguistikoan bizi, ama hizkuntzaren garrantzia ere aipatu du ikasle batek (H6), bere kasuan ama hizkuntza gaztelera denez, joera handiagoa du hizkuntza hori erabiltzeko.

Ikasle guztiek jarrera positiboa azaldu dute euskararekiko eta, ezagutza maila ona badute ere, faktore hauek ez dute erabilera ziurtatu eta gaztelera erabiltzearen hautua da ikasleen artean nabarmen. Identitateak ere erabileran eragiten duenez, hurrengo atalean azaleratu dira honen ingurukoak.

## **5.4 Laugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak**

**IG4: Zeintzuk dira lehen mailako ikasleen euskararen gaineko diskurtsoak eta zein da euren hizkuntza eta kultura identitatea?**

“Espainolaren erabilera normala duen euskal hiritarren jarduna” da Iz-tuetak (2016) diskurtsoen analisisian bereizi duen joeretako bat. Ikasleek gaztelaniaren erabilera barneratuta duten euskaldunak direla diote, hala sentitzen direlako:

“ni euskalduna sentitzen naiz eta erderaz hitz egiten det” (H2)

“Hemen jaio naizelako [sentitzen naiz euskaldun], hizkuntza erabiltzen dotelako euskera, gaztelera bebai baina ohiturengatik eta” (H5)

Beraz, identitatearen mugaketan hizkuntzak leku zentrala hartzen badu ere (Joly eta Uranga, 2010), Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko konplexuak arazoak sortzen ditu hizkuntza-nortasunean. Ikasleek euskararen ezagutza eta erabilera hautu izatera subordinatu dituzte eta identitatea hizkuntzarekin lotu baino, sentimendurekin lotu dute. Ildo honetan, Zapatak (2007) honakoa dio: “Egoera gutxiagotuan dagoen talde etno-kulturalaren kasuan hizkuntzak duen funtzio sinbolikoa ezagutzatik hara

doa. Esan nahi baita, hizkuntzarekiko atxikimendua ez da mugatzen definitzen den hizkuntza- komunitatearen definizio hertsian” (Zapata, 2007).

*Txepetxek* hizkuntza-komunitatearen partaide izateko hizkuntza erabiltzea nahiko ez dela defenditu du, hortaz gain, beharrezkoa baita motibazioa eta jarrera baikorra (Sanchez Carrion, 1987). Ikasleek aitortutako iritzietan sakonduta, ordea, jarrera baikorra eta ezagutza ageri dituzten arren, inguruko hizkuntzak euskararen maila berean jarri eta hauek erabiltzearen hautua hobesten dute.

Egoera diglosikoan dauden testuinguruetan, gurean kasu, bertako hizkuntzak maila berean jartzeak, hizkuntza gutxituari egiten dio kalte, huraxe erabiltzeko eszenatokiak murriztagoak direla esan beharrik ez baitago. Larriago oraindik hizkuntza gutxituak trabak jasan behar dituela onartu eta, hala ere, hautu pertsonalera subordinatzen badugu.

Ikasleak kulturalki euskalduntzat identifikatzen diren arren, euren identitate etnolinguistikoa ez dute euskararekin soilik lotu, gaztelerarekin zein euskararekin lotzen dute euren identitate etniko eta kulturala. Hala ere, eztabaidak aurrera eta atzera egin du, ideiak nahasiz eta diskurtso landurik ere agertu gabe. Gai honetan sakontzeko aurrera begira elkarriketa fokatua egitea komenigarria izan daiteke, teknika hau interesgarria izan daitekelako gai bereziak lantzeko eta datu kuantitatiboen azpian ezkututzen den informazio sakona agertzeko (Juaristi, 2003).

Euskal kultura ere definitzen saiatu dira eta euskaraz egindakoa euskal kulturaren parte dela argi badute ere, beste hizkuntzetan egindakoaren sailkapenean zalantzarik izan dira jasotako erantzunak, inolako ideia argirik azaldu gabe.

Euskara ikasteko motibazioen inguruan, ikasleek etxean ez bada, eskolan ikasi dute euskara, oso txikitan. *Txepetxek* hizkuntza-ikaskuntzaren teoriaren (Sánchez Carrión, 1987) ibilbide naturala jarraitu dute beraz ikasleek, euskara ikasteko berezko motibazioa izanik. Hala ere, ikasle batek aipatu du egungo gizartean irakasle izateko euskarak duen garrantzia. Baieztapen horren atzean, Gardner eta Lambert-en (1959) motibazio instrumentala ikus daiteke.

Laburbilduz, etorkizuneko irakasle izango diren ikasleek euskararen inguruan diskurtso garbirik ez dutela esango genuke. Euskara gustuko dutela bai, familiarekin edo lagunekin lotzen dutela bai, baina gazteleraren parean jarri dute bertoko hizkuntza, nahiz eta gaztelerarekin identifikatzen ez direla baieztatzen duten.

---

***Ikasleak kulturalki euskalduntzat identifikatzen diren arren, euren identitate etnolinguistikoa ez dute euskararekin soilik lotu, gaztelerarekin zein euskararekin lotzen dute euren identitate etniko eta kulturala.***

Etorkizuneko ikasleen eredu izango direnez, beharrezkoa ikusten dugu gai honen inguruan ikasleak trebatzea. Euskal kulturaren inguruan eta hizkuntza gutxituaren egoeraren inguruan ere ezagutza falta dagoela hauteman da, eta unibertsitatea gai hauek jorratzeko testuinguru proposa da, diskurtso garbiagoa eratzen laguntzeko eta ondorengoen transmisioan trebatzeko.●

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 10/1982 legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Amorrortu, E.; Ortega, A.; Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Arnau, J. (1992). Educación bilingüe: modelos y principios psicopedagógicos. In J. Arnau, C. Comet, J.M. Serra, & I. Vila (Ed.), *La educación bilingüe*. Barcelona: ICE/Horsori.
- Arratibel, N. eta Garcia, I. (2001). Euskararen egoeran oinarrituz. In: N. Arratibel, I. Garcia and M. Azurmendi, ed., *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*, (1. Ed). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, pp.22-33.
- Azurmendi, J. (ed.): *Hizkuntza eta talde-nortasuna: Donostiako Udako XII Ikastaroak*. 1993ko Uztaila, Donostia: EHU, 1998.
- Cenoz, J. (2009). *Towards Multilingual Education: Basque Educational Research from an International Perspective*. Bristol: Multilingual Matters.
- Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako. (2004). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoa (2016). *VI Inkesta soziolinguistikoa: Euskal Autonomia Erkidegoa*. Donostia. Hemendik jasoa: [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI\\_Inkesta\\_Soziolinguistikoa\\_EAE.pdf?1476439692](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI_Inkesta_Soziolinguistikoa_EAE.pdf?1476439692).
- Garcia, I. (2001). Ukipen-egoeran dauden menpeko hizkuntzen erabilera. In: N. Arratibel, I. Garcia and M. Azurmendi, ed., *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*, (1. Ed). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, pp.117-157.
- Garcia, I. (2004). Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala. Soziolinguistika Klusterra. (Hemendik hartua: <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/1779>).
- Gardner, R.C. eta Lambert, W. E. (1959). Motivational Variables in Second-Language Acquisition. *Canadian Journal of Psychology*, 13, 266-272.
- Gonzalez Caverro, F. A. (2014). Normalización lingüística para la sociedad del conocimiento: el caso del catalán". Madril: UNED.

- Gorter, D. eta Cenoz, J. (2011). Multilingual education for European minority languages: The Basque Country and Friesland. *International Review of Education*, 57:5 (651-666).
- Gumperz, J. (1971). *Language in social groups*. Stanford: Stanford University Press.
- Isasi, X. eta Iriarte, A. (1998). Euskararen kale erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 28, 51-80.
- Ipiña, N. (2012). Wikiaren erabilera lankidetzako idazketaren garapenerako CLIL-POI testuinguruetan: jarreraren eragina. Mondragon Unibertsitatea: Eskoriatza.
- Iztueta, I. (2016). *Cultura Vasca vs Euskal Kultura*. Donostia: Utrisque-Vasconiae.
- Jausoro, N.; Martinez de Luna, I. eta Dávila, A. (1998). Gazte donostiarren hizkuntzekiko harremanak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 27: 51-81.
- Joly, L. 2004. *Étude sociolinguistique du Pays Basque*. Paris: Sorbonne (doktore-tesia).
- Joly, L. eta Uranga, B. (2010). Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak. In Lujanbio, O. (koord.). *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Juaristi, L., P. (2003). Sakoneko elkarrizketa. In: *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua. (139- 158).
- Larrañaga, N. (1995). Euskal Herriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean [doktorego-tesia]. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.
- Mackey, William. (1972). *Bilingual education in a binational school: A study of equal language maintenance through free alternation*. Rowley: Newbury House.
- Mackey, W. (1989). La genèse d'une typologie de la diglossie *Revue québécoise de linguistique théorique et appliquée*, 8, 11-28. s.
- Manterola, I; eta Berasategi, N. (2011). Hizkuntza gutxituen erronkak. Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Martinez de Luna, I. eta Jausoro, N. (1998). Euskararekiko motibazio sinbolikoak. In: Intxausti, J. (ed.). *Euskararen aldeko motibazioak*, 69-136. UPV-EHU.
- Martinez de Luna, I. (2013). Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia. Azterketa eta gogoetak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Martinez de Luna, I.; Erize, X.; Akizu, B.; Etxaniz, J. eta Elizagarate, A. (2016). Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa-EGOD egitasmoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak. Bilbo: Bizkailab eta Deustuko Unibertsitatea.
- Sánchez Carrión, J. M. "Txepetx". (1987). Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas. Donostia-San Sebastián.
- Schumann, J. H. (1975). Affective factor and the problem of age in second language acquisition". *Language Learning*, 25:2 (209-235).
- Simons, G.F. eta Charles D. Fennig (eds.). (2017). *Ethnologue: Languages of the World, Twentieth edition*. Dallas, Texas: SIL International.
- Solé I Camardons, J. (1991). Soziolinguistika gazteentzat. UEU-EKB.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017). Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa: Euskal Herria, 2016: Prentsa txostena.
- Zalbide, M. (2006). Glosario laburra: zenbait definizio. In: Rodríguez Ranz, J. A. (koord) Gramática vascongada escrita por D. Francisco Ignacio de Lardizabal. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Zapata, M. (2007). Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak. In Uranga, X, eta Uranga, B. (Ed). *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak*. Bilbo: Unesco Etxea.
- Zarraga, A (2010); Soziolinguistikari sarrera. In Lujanbio, O. (koord.). *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

# **bat** aldizkariaren 2017ko **dossierrak**

**102. ZENBAKIA**

**IX. Hausnartu**

**Euskal Soziolinguistika Sariak**

~

**103. ZENBAKIA**

**Euskaltzaleen Topaldia: Euskararen herria,  
zubiak eta palankak**

~

**104. ZENBAKIA**

**Hiztun berriak**

~

**105. ZENBAKIA**

**X. Hausnartu**

**Euskal Soziolinguistika Sariak**

